

Amaia Alvarez Uria
Rikardo Arregi Diaz de Heredia
Ibai Atutxa
Mikel Ayerbe
Itxaro Borda
Ibon Egaña (koord.)
Angel Erro
Joseba Gabilondo

Iñigo Lamarca
Gema Lasarte
Kattalin Miner
Josune Muñoz
Juanjo Olasagarre
Beatriz Preciado
Iratxe Retolaza
Monique Wittig

Desira desordenatuak

Queer irakurketak (euskal) literaturaz

Utriusque Vasconiae

© Ibon Egaña (koord.)
© Utriusque Vasconiaë
Lehen argitaraldia: Donostia, 2010eko maiatza
ISBN: 978-84-937658-3-5
Lege-gordailua:
Azaleko irudia: Rafi Perez
Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.
Tel.: 943-270433
Iparraldean: 0033547640386
Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

Ibon Egaña (koord.)

Desira desordenatuak

Queer irakurketak (euskal)
literaturaz



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektualaren duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

Aurkibidea

<i>Hitzaurrea</i> , Ibon Egaña	7
<i>Gay poesiaren antologia bat</i>	13
ANGEL ERRO: “Anatomy lecture”	15
<i>Lesbianak eta gayak euskal literaturan</i>	41
RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA: “Aspaldiko hitzaldi bat gogoan”	43
MIKEL AYERBE: “Ustekabeak, ezusteak eta esanezinak: ezkututik agerira?”	59
SAREINAK: “Milia balitz lamia... Lesbianismoa eta euskal literatura”	87
<i>Nazioa, sexualitatea eta identitateak</i> .	155
JOSEBA GABILONDO: “Queer Euzkadi edo Manifestu Marianoa (Sasiko Euskal Herri Burujabe Baterantz)”	157
JUANJO OLASAGARRE: “Dragak konfesionarioetan. <i>Batita Handiaren</i> irakurketa bat”	195
IBAI ATUTXA: “Itxaro Borda bestaldetik: mugako identitate baten sorrera”	231
IBON EGAÑA: “Maletak ezinbestean. Identitate gatazkak <i>Ezinezko maletak nobelan</i> ”	249

<i>Nitasunaren idazketak. Partikularretik unibertsalera</i>	277
MONIQUE WITTIG: “Ikuspuntu berezia ala unibertsala”	279
IÑIGO LAMARCA: “ <i>Gay nauzu</i> hamaika urte geroago”	289
ITXARO BORDA: “Gaiaren minean”	317
<i>Generoaren (des)eraikuntzak</i>	335
BEATRIZ PRECIADO: “Generoa eta performancea. Cybermanga feminista queer trans... baten 3 pasarte” .	337
KATTALIN MINER: “Sexua eta generoa. Genero eta sexualitate baten gizarte eraikuntza literaturan”	357
<i>Bibliografia osatugabea</i>	375

Hitzaurrea

*Zeren haur da haragiaren desira desordenatuak egiten duen
lehenbiziko kaltea eta kolpea, adimenduaren itsutzea, liluratzea,
nahastea eta zoraturik ibentzea.*

Pedro Agerre, Axular, Gero

*Beraz Irutagoien, zatoz gizonetako bekatura
zaitudan desira, maita eta desordena.*

Juanjo Olasagarre, Puskak biziz

Gau batez, konpainia ez nobleegi batean, hetero-sexualik ia ez zen pub batean geundela, ekarri zuen musak, izan zen erronka on zatekeela euskal literaturaren queer kritikaz liburu bat egitea eta hartan ordura arteko artikulua, hitzaldi eta kritikak biltzea. Egina baitzen 2007ko ekain hartan bertan mahai-inguru bat “Homosexualitatea eta lesbianismoa euskal literaturan” goiburupean, EHGAMek antolatuta, Aitor Arana, Rikardo Arregi, Itxaro Borda, Angel Erro eta Juanjo Olasagarre solaskide zirela. Egina zen halaber urtebete lehenago UEUko Iruñeko ikastaroetan, literatura sailak antolatuta “Gu, besteak eta ni. Erdigu-neak eta periferiak euskal literaturan” goiburupeko ikastaro bat, gai beraren inguruko hitzaldi bana eman zutela Mikel Ayerbe, Itxaro Borda eta Angel Errok. Eta are bost urte lehenago, homosexualitatea eta literatura izan zituzten orobat hizpide Rikardo Arregi, Juanjo Olasagarre

eta Andolin Eguzkitzak Gasteizen egindako mahai-inguruan. Solasaldi horietan esanak bazebiltzan batetik bestera, aipatuak ziren han eta hemen, baina argitaratu gabe zirauten guztiek ere. Baziren, era berean, beste kritika lan zenbait ere eginak. Horiek bildu eta liburutxo batean argitaratzeko asmoa izan zen *Desira desordenatuak* honen sorburua, baina hazi eta gizendu egin zen hasierako asmoa, ahalik eta ahots eta lan gehien bildu nahirik, harik eta eskuartean duzun bilduma hau osatu dugun arte.

Badakit, badakigu, anitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz gu lan honi lotzea. Zergatik eta zertarako queer kritika saio hauek orain. Baldin egin balitz euskal kritikan hainbat artikulu eta liburu, nola egin baita ingelesez, frantsesez eta beste erdaraz eta hizkuntzaz, ez litzateke arrotz bilduma hau. Baina euskal literatur kritikan ez da izan, salbuespenak salbuespen, literaturari queer ikuspegi batetik eta teoria gay, lesbiko eta queer-ek eskura jarritako tresna metodologiko, kritiko eta ideologikoekin heltzeko ahaleginik. Ez da harrigarri, hala, euskal queer kritikak lehen urratsak Euskal Herritik kanpo egin izana (AEBetako hispanismoaren testuinguruan Joseba Gabilondok Itxaro Bordari buruz egindako lanak horren erakusgarri), edo genero periferikoagoetan egin izana euskal gay literatura baten lehen urratsak (ikus Aitor Aranak egindako komiki lanen bilduma edo bere ardurapean argitaratu zen Xut aldizkaria). Edonola ere bakanak izan dira oso halako irakurketak, eta kritikaren gainerako esparruetan oso zeharka baino ez da aipatu izan pertsonaien homosexualitatea, eta inoiz ez da hartu izan obra literarioa ulertzeko eta interpretazio berriak emateko bide baliagarritzat. Prentsako kritikak nahiz kritika akademikoak oso berriki arte ez dute homosexualitatea beren azterketen erdigunean kokatu, zenbait liburuk hartarako bidea zabaltzen eta eskatzen duten arren, eta kritika gay, queer, feminista eta lesbiarrak horretarako tresnak erruz eskaintzen dituzten arren.

Terminologiaz denaz bezainbatean ere ez gara egiteko gabe. Batak idazten du *maritxua*, besteak *gaya*, batak *lesbiana*, besteak *bollera*, batak *kritika gay-lesbianoa*, besteak *queer kritika*. Batak *homosexuala*, besteak *atzelaria*. Liburu honetako artikuluetan ere denetariko izendapenak aurkituko ditu irakurleak. Azpтитuluari dagokionez, “queer irakurketak” terminoa hobetsi dugu liburu honetan, heterosexualitateaz besteko sexualitateen inguruko irakurketak bildu nahi direlako, eta bestelako izendapenak baino zabalago begitandu zaigulako, ez derrigorrez azken hamarkadetan “queer teoria” deitu izan denaren ikuspegi ideologikoa bere egiten dutelako artikuluek (askotarikoak baitira izan). Alabaina, ohartuko da irakurlea, besteak beste, transgenero eta transexualei buruzko aipamen gutxi dela kritika-lan hauetan (aztergai den literaturan ere presentzia urria dutelako ziurrenik), eta nagusiki pertsonaia gay eta lesbianak nahiz haien gaineko diskurtso literarioak direla artikulua hauen azterketa-eremua.

Desira desordenatuak ordenatu beharrez, bost ataletan banatu dugu liburu hau, diferenteak baitira bildutako artikuluen moldeak, asmoak eta edukiak. “Anatomy lecture” lehen atalean, Angel Errok atondutako gay poesiaren antologia aurkituko du irakurleak. Gay edo queer irakurketen gabezia eta ikusezintasuna literatur tradizio identifikagarririk ez izatearekin lotu izan da, eta Erroren antologia tradizio hori ikusarazten duen lana genuke, Antzinateko Greziatik hasita egungo euskal poesiaino heltzen den aukeraketa iruzkindua.

Ondoren datoz euskal literaturan (batik bat narratiban) pertsonaia homosexual ez diren fikziozko irudikapenak aztertzen dituzten artikuluek, “Lesbianak eta gayak euskal literaturan” atalean bilduta, gaiaren ikuspegi orokor eta panoramikoa jasotzeko asmoz. Rikardo Arregi Diaz de Herediak 2001. urteko mahai-ingururako pres-

tatutako testua berreskuratu eta iruzkindu du, ordura arteko narratiba-lan zenbait aztertuz eta kritikatu. Orduetik gaur arterainoko narratiba-lanetan jarri du arreta, bestalde, Mikel Ayerbek, gay pertsonaiez egin diren irudikapenak arakatuz. Sareinak literatur blog feministako kideek, bestalde (Amaia Alvarez, Gema Lasarte, Josune Muñoz eta Iratxe Retolazak) hainbat testuren irakurketa lesbikoa proposatu dute, ahozko tradizioko baladetatik hasita gaur egungo eleberrigintzara arte, tartean, kritika feminista eta lesbiarraren tresnak geurera ekarriz. Ahozko literatura, euskal eleberrigintza eta ipuingintza garaikidea irakurri dute begirada lesbiarrez atal horretan, sarrera teoriko batez lagunduta.

Hirugarren atalean, naziotasun, sexualitate eta identitatearen arteko gurutzaketez diharduten lau artikulu batu dira. Joseba Gabilondoren manifestu itxurako testuan antropologiak, historiak, teoria politikoak eta literatur kritikak egiten dute topo, Euskal Herri sasiko, queer baten aldarria egiteko. Hurrengo hiru artikuluek, aldiz, obra edo egile zehatz bana aztertzen dute, fokua identitateen formulazioan jarrita. Juanjo Olasagarrek Daniel Landarten *Batita Haundiaren* irakurketa proposatzen digu, Faucaulten sexualitatearen historiako tresna metodologikoak erabiliz. Ibai Atutxak Itxaro Bordaren poesiaren interpretazio bat eskaintzen du, kritika eta literatura *chicanaren* erreferentziak baliatuz eta hein batean Joseba Gabilondoren ikerbide aitzindariak jarraituz. Nik neuk, azkenik, Juanjo Olasagarren *Ezinezko mailetak* eleberraren gaineko kritika proposatzen dut, eleberriko identitatearen arteko gatazkan indargunea jarrita.

Laugarren atalak, “Nitasunaren idazketak. Partikularretik unibertsalera” izenburupean, ikuspegi indibidualak eta kolektiboak alde edo moldez elkarrizketan jartzen dituzten hiru testu batzen ditu. Batetik, Monique Wittgen

“Ikuspuntu berezia ala unibertsala” testu klasikoa itzuli du Itxaro Bordak, non ikuspuntu berezia, norberarena eman beharra aldarrikatzen baitu egileak unibertsaltasuna lortzeko bide gisa. Gay izatearen esperientzia indibiduala literaturara ekartzeko egindako ahalegina izan zen 1999an argitaratutako Iñigo Lamarcaren *Gay nauzu* liburu ezaguna; obra horrek egindako ibilbideaz eta izandako harreraz hausnartu du egileak liburu honetan, fikzioa eta saioa nahasten dituen testu hibridoan. Laugarren atal hori Itxaro Bordaren “Gaiaren minean” artikulua ixten du. Bertan, euskal literaturak historikoki gorputzaz, sexuaz edo homosexualitateaz idazteko izan dituen oztopoak hartzen ditu hizpide Bordak, batetik, baina baita bere idazle-ibilbidearen irakurketa pertsonala ere.

Azken atalak, berriz, generoaren eraikuntzaren eta dekonstrukzioaren inguruko artikulua bi biltzen ditu, artea eta literatura azterketa-eremutat hartuta. Beatriz Preciadoren artikulua performanceak azken hamarkadetan generoaren deseraikuntzan egindako bidea arakutzen du, egungo queer teoriar funtsezkoak diren ideiak bilduz. Kattalin Minerren lanak, azkenik, Virginia Woolf-en *Orlando* eleberria eta Uxue Apaolazaren “Bueltak” ipuina ditu aztergai, generoaren inguruan garatzen duten diskurtso deseraikitzailea azpimarratuz.

Ezin burura genezake hitzaurretxo hau liburuan parte hartu duten egile guztiei eskerrak eman gabe, agertutako pazientzia, entusiasmo eta eskuzabaltasunagatik. *Eskerrik asko* handi bana, halaber, liburu hau argitaratu ahal izateko era batean zein bestean akuilu eta bidelagun izan diren UEUko literatura sailari, Gipuzkoako EHGAMi, Mainer Zilbetiri eta Ur Apalategiri.

Ibon Egaña

Gay poesiaren antologia bat

Anatomy Lecture

Angel Erro

Ibon Egañak gonbidatuta, Iruñeko Udako Euskal Unibertsitatean eman beharreko poesiari buruzko tailer baterako hainbat poema itzuli eta bildu nituen, orain lau bat urte, *Anatomy Lecture* izenpean, Adriaen Backer-en *Ruysch doktoarearen anatomiako lezioa* hura gogoan, zein-ean, Rembrandt-en margo ezagunean bezala baina hilotz ederrago batekin, hainbat medikuk gorpu bat aztertzen duten. Horixe bera, behin bizirik egondakoaren gaineko bisturi lana, egin beharko genukeela imajinatzen nuen, neurri batean beldurtuta, poesia, gay ala bestelakoa, gehienbat irakurtzekoa dela uste baitut.

Orduko izen bera gorde nahi izan dut tailer horretatik berreskuratu ditudan testuekin eta berri batzuekin osatu dudana antologia honetarako. Antologia ez da analisisa, baina, hala ere, beldurgarria izan daiteke (neurri batean), etimologikoki *antolatu* hitzetik eratortzen den heinean. Agian kausa hobearen duina litzatekeen izpiritu bihurriarekin, antologo erantzukizunari, sistematizazio orori, ezein ordenarik gordetzeari muzin egin diot, beti ere ederra izandako hilotz hori ahalik eta gutxien profanatu nahian, are poemok, saiakera monografiko baten baitan plazaratu diren arren, xaloki irakurri ahalko direlakoan ere.

Aurrekoan ere ez bada, bi gauzatan, gutxienez, huts egin dudala aitortu behar dut. Alde batetik, ez dut lortu,

asmoa nuen bezala, Pontus de Tyarden *Élégie pour une dame enamourée d'une autre dame* itzultzeko kemena ez talentua biltzerik, eta, bestetik, LGBT-en ingurukook bereizten gaituen elkartasun proberbialarekin, olerki lesbikoak bai, baina ez dut transexualtasuna islatzen duen lanik jaso, Ovidioren *Metamorfosien* pasarte bat¹, gehiegizko luzeragatik eta lirika eremutik kanpo egoteagatik, behin irmoki baztertu dudala.

a) *denok gara pixka bat homo sexualak*²

Denok bagara pixka bat
homo sexualak
nahi eta nahi ez
Denok sentitzen dugu pixka bat
mutilekiko maitasuna
baita gogoratzen ez bagara ere

Denok maitemintzen gara
pixka bat
ikaskidetxo oreztaz bete hartaz
Denok ematen diogu pixka bat
gure arima
neska batek inoiz ez bezala

Denok denok
denok badakigu
zein kitzikagarria izan daitekeen musu bat
ahoan
pentsatu gabe dudatu gabe
Tennesseko kantari bati–

Denok dakigu zer den
futbol heroi ausart batez
maitemintzea
Horregatik inork
ez du ahazten
Jainkoak gogoratzen digu zahartzean.

Denok jaio gara pixka
bat gay
pixka bat maritxu, eta txakur
Denok jaio gara Maiatzeko Errege
harro bat bezala eta
are pixka bat pederastak ere.

Beraz ezin baduzue jasan zuen
giza natura
eta ez baduzue atal marika bat ere
Jar zaitezte paretaren
kontra zuen mamuekin
eta tiro egin, zuen beldurra hiltzeko.

Errebolberra hustu dezakezue
edozein emakumeren aluan
edo mespretxatzen duzuen edozein gizonen ahoan
Puta deitu ahal diezue
edo joko maritxueta jolastu
plutonioak begietan erretzen dizuela

Baina ez duzue lortuko zuen izterren
beldur ez den emakume edo dontzeila
batekin larrua jotzerik
Ez inoiz ez duzue larrua jotzea lortuko
diru truk ez bada
zuen emaztea gezurrekin erosi duzue,
Ez inoiz ez duzue larrua jotzea lortuko
eta askatasunez paraturik ikusi
mozorrotuta datorren Jainkosa–

Beraz arazorik baldin baduzue
eta zuen doblea ez baduzue maite
zergatik ez zatozte ni ikustera?
Helduko dizuet eskutik
eta lurraren bidez maiteko zaituztet
eta zuen tristura leunduko.

b) *tarteka eskaini eta ondoren ukatzen du*³

Autobusean luzea da bidaia. Nahiz eta oso ederrak diren kanpoan alorrak. Ia-ia amets lainotu gisan. Okindegiko mutil zakar batek bere dohain leuna tarteka eskaini eta ondoren ukatzen du, bidaia oroitzapen ederren segida bihurturik, gauez aletzeko modukoa.

c) *Ezinezko heterosexuala*⁴

Etorri nire ondoan esertzera, Lidia, ibai ertzean. Uraren bideari soseguz begira, ikas dezagun bizitza badoala, eta ez gaude eskuz helduta. (Lot ditzagun eskuak.)

Pentsa dezagun gero, haur helduak, bizitza badoala, ez da gelditzen, ezer utzi, inoiz itzuli gabe, oso itsaso urrutirantz badoa, Patuaren oinetarantz, jainkoak baino haratago.

Aska ditzagun eskuak, ez du-eta nekatzea merezi. Nahiz gozatu, nahiz gozatu ez, ibaia bezala bagoaz. Aise hobe genuke isil-isilean igarotzen bageneki, ezinegon handirik gabe.

Ez amodio, ez gorrotorik, ez boza goratzen duen irrikarik, begiak gehiegi mugiaraz litzakeen bekaizkeriarik ez, ez ardurarik, ibaiak berdin eginen bailuke ihes ardurekin, eta beti itsasoan amaituko.

Lasai maita dezagun elkar, pentsatuz ahal genukeela, nahi bagenu, musuak eta besarkadak eta ferekak trukatu, baina gehiago balio duela elkarren ondoan eserita egoteak ibaiari aditzen eta ikusten.

Har ditzagun loreak, hartu zuk eta laga itzazu zure altzoan, beraien usainak leun dezala instantea—

instante hau non soseguz ez dugun ezertan sinesten,
dekadentziaren pagano errugabeok.

Ni itzal bihur banendi lehenago, oroituko zara nitaz,
nire oroimenak zu erre edo zauri edo hunkitu gabe,
ez ditugulako eskuak inoiz lotzen, ez musurik ematen,
ez haurrak besterik izan.

Eta txalupa-zain goibelari oboloa zuk lehenago eramanez
gero,
ez dut batere sufrimendurik izanen zutaz oroitzean,
nire memorian leuna izanen zara hala oroituta –ibai ertzean,
pagana triste, loreak altzoan.

d) *badakizu badakidala*⁵

Badakizu badakidala, jauna, eta badakizu
hurbiltzen natzaizula zutaz atsegin hartzeko,
eta dakizu dakidala dakizula nor naizen:
zergatik gehiago luzatu elkar agurtu gabe?

Ematen didazun itxaroa egiazkoa bada,
eta egiazkoa onartzen didazun desira,
bion artean eraiki hesia urratu dadila,
handiagoak baitira kalte ezkutuak.

Zutaz maite badut, ene jaun maitea,
zutaz gehien maite duzuna, ez haserretu,
arima bat bestearekin amorostu bada.

Zure aurpegi ederrean ikasten eta bilatzen
dudana ezin du giza adimenak ulertu:
Jakin nahi duenak hil behar du lehenago.

e) *begiak hersten dituzunean*⁶

Bai, Abu Nuwas-ek⁷ bezala jokutzen dut
so egiten baitizut bakarrik, horditasunak
suntsiturik, begiak hersten dituzunean,

berak Muhammad ibn Harun kalifarekin egiten zuen moduan.

f) *asmo sendoa dudan arren, ezin*⁸

Kalean noala, mutil ederrei
aurretik baino ez begiratzeko
asmo sendoa dudan arren, ezin
dut, ai, neure burua kontrolatu,
eta, behin igaro direnean,
segituan itzuli egiten naiz.

g) *egin diot galdera*⁹

Duela gutxi, lore merkatuan
nenbilela, mutil bat ikusi dut,
loreak sortetan txirikordatzen.
Ezin izan naiz ondotik igaro
eta minik hartu ez. Lasaiturik
egin diot galdera:
“zenbatean saltzen duzu koroa?”
Lore hostoak baino gorriago jarri da
eta lurrari begira esan dit:
“zoaz hemendik, aitak ikusi baino lehen.”
Aitzakia hutsez, koroa batzuk
erosi dizkiot, eta etxean
jainkoei eskaini egin dizkiet
beraren alde erregutuz.

h) *nahi ote nukeen galdetu*¹⁰

New Orleans-eko taberna ketsuetan bezala,
izerdiz blai,
kantuz,
musikaz,
amodio ezinez
bizi naiz.

Mutil beltz eder bat
hurreratu izan balitzait bezala
tabernaz bestaldetik
begiratu eta gero,
eta bourbon kopa bat
nahi ote nukeen galdetu,
eta haren gorputzean
ito izan banintz bezala,
eta beraren mihiak garbiturik,
hanka, bular, beso sendo horietan
korapilatuta,
bizkarrean zehar
bourbon kopa gozoa
isuri izan balit bezala.

i) *zer sentitzen ote da?*²¹

Ez dut inoiz zakil bat ahoratu,
inoiz ez naiz aritu zakil luze eta indartsu bati
zupa eta zupa
esne zuria isurtzen ikusi arte dardara batean.
Zer sentitzen ote da?
Nolako zaporea ote dauka?
Gustagarria ote da, nazkagarria...
Non jartzen ote ditu mutilak eskuak?
Zure buruan? Zure ipurdian?
Nolako ote da bere hiztegia
nik hortzartean bere morboa
gero eta abiada biziagoan jartzen dudalarik?
Ez dakit idatzi dudan hau
umekeria bat ote den,
ala sexu aukera ezberdinen aldeko borrokan
lagungarri gerta litekeen
aitormen underground samarra,
baina idatzia geratu da,
eta liburuan agertuko da ezbairik gabe.¹²

j) *non da poesiak omen daukan su sakratua?*¹³

Non da Poesiak omen daukan su sakratua?,
haren indar liluragarria etorri ote da gainbehera?
(...) Nire behinolako sugar poetikoa
malkoek amatatu badute, zergatik
ez dute desirarena berdin itzali?
Pentsamendua, nire adimenaren
sorkari, maiz zagon hire ondoan, Filene (...).
Orain mutil bigunen bat hirekin jolastuko
dun, baina, oi, dena goxatuko lukeen
elkarrenganako sentimendu faltako dun.
Beraren kokotsa, harkaitz arantzatsu
eta bilodun, mehatxu dun, egunero aldatuz
doana, Hire gorputza, berriz, paradisu
natural bat dun, zeinean, ongarritu gabe,
atseginek orok duten bizileku, hobetzekorik
gabe; zertan, beraz, behar huke gizon zakar
baten laborantza onartu? Gizonek
atzean uzten dituen beraien bekatua
salatzen duen hori, eta beraien aztarna
elurretan dabilen lapurrarenaren
parekoa dun. Gure jolasetatik, berriz,
arrainek uretan edo txoriek airean
marrazten duten seinaleak baino ez zauden.
Eta gure artean emetasun osoa
gerta daiteken, Naturak emana, Arteak
emendatua. Nire ezpainak, begiak, izterrak
hireetatik ezberdinak ditun, hireak
elkarren artean ezberdintzen diren adina,
adintxo baina ez gehiagorik; hain izaki
berdinak, zergatik ez dute
gure atal guztiek ere elkar ukitzerik?
Besteren eskuari inork ez zion eskua
ukatzen, ezpainari ezpain;

zergatik bai bularra bularrari,
edo izterra izterrari? Elkarren
antza honek hain zakarkidan losintxa
bitxia, non, neure gorputza ukituz,
iruditzen baitzait hi natzainala ukitzen ari.
Neure burua besarkatzen dinat,
neure eskuei muina ematen zienat
eta, maiteminez,
neure buruari zionat estimatzen.
Nik, nire ispiluan, deitzen dinat,
baina, ai, musu ematerakoan lausotu
egiten zaizkidan berdin begiak eta ispilua.
Senda ezan amodiozko erotasun hau
eta itzuliezadan neure burua, hik,
neure erdia, neure guztia, neure gehiago!

k) *bertsoak... gauza horiek*¹⁴

Iturri publikoak
zein bide ibiliegia, plazer
bigunak, errima erraza duten
bertsoak... Gauza horiek
denak gaitzesten ditut.

Besoetan
zaitudanean, –hau bai gaitzesgarri–
begien aurrean, lauso, dakusat
ni baino lehenago izan
dituzun maitaleen desfilea.

l) *poema gu bion bezain benazko*¹⁵

Ezin da maskulinoago izan.
Ezin zaio, orduan,
soneto petrarkista bat idatzi.
Denak bere mugak ditu. Genero

literarioek ere. Ni ez naiz
alexandriar, ez dekadentea.
Mintzo den gizon baten
argitasuna nahi dut. Eskerrak
Jainkoari ez dela ez eme ez efebo.
Ez da anbiguo, ez errubioa.
Hogeita sei urte izanen ditu.
Bada beste eragozpen bat:
ni
–hogeita hamabi urte dudana–
banaiz
ez ahulago ez itsusiago.
Bera miresten dut, bai. Baina berak ere ni.
Horrek, ene iritziz, idatzirik dagoen
epiketako edozein uzten du
bazter. Hori aspaldi gertatu zen.
Berdinak gara. Ezberdinak gara.
Antza du (orain ez dut
ekfrasi lirainetarako astirik)
Corto Maltésena: gazteagoa
eta txaparragoa.
Patilla beltzaranak, batez ere.
(Hemendik oso gutxira, ahapez
buru noblean entzunaraziko
diot hendekasilabo biribil
hau, bera bezain lañoa:
patilla beltzaranak, batez ere.)
Okertzen du burua, kliskatu egiten du,
hain dago marrazturik, hain da garbi.
Begitar-tean zimur bertikalek
aurreratzen dute bera izango
den gizon heldu oso
erakargarria. Biñeten bidez
mugitzen da,

argazkietan.
Technicolor hutsa nire begitan,
nire neurria.
Nire besoetan
kabitzen da. Hoska eginen diot
lepoan, eta menderatuko dut.
Pentsakor gelditzen da.
Metro batera baino gutxiagotara da.
Atzamar zakarren oinarriekin
zigarretari eusten.
Poema gu biok bezain benazko
eta errugabea.
Badirudi promes egin dugula
ahoa gehiagotan ez irekitzekoa,
ezpada desira hasperentzeko.
Masailezur etena hartzen diot
eta larrua arnasten. Nik ez dut deus
gehiago esateko.

m) *poeta onak garbia behar du izaeraz*¹⁶

Uzkitik eta ahotik emango dizuet,
Aurelio atzelari eta Furio marikoia,
epaitu nauzuelako nire bertsoengatik:
haiek erotikoak direlako ni lotsagabea.
Poeta onak garbia behar du izaeraz
baina inola ere ez bere bertsoetan,
gatz eta piperra dutenak erotikoak badira
eta ez lotsatiegiak, eta balio badute,
ez dut mutikoei esango baizik eta
giharrez betetako gizon puska iletseui
kilikak sorrarazteko badakizue non.
Eta irakurri duzuelako *mila muxu
eta gero ehun*¹⁷, gixonerdi naizela diozue.
Uzkitik eta ahotik emango dizuet.

m.1) *malest, Cornifici, tuo Catullo*

Kornifizio, zure Katulo gaizki dago,
oso-oso gaizki pasatzen ari da...¹⁸

n) *gu ez beste legerik onartu ez*¹⁹

Gu, bi mutil puska, elkarri besarkatuta,
Batak bestea sekula abandonatu gabe,
Bideak ibilita mutur batetik bestera, Iparraldea eta He-
goaldea ibilita,
Kemenaz gozatu, ukondoak zabaldu, ukabilak itxi,
Armatuak eta beldurrik gabe, jan, edan, lo, maite,
Gu ez beste legerik onartu ez, nabigatu, harropuzkeriak
esan, lapurtu, mehatxatu,
Zikoitzak, maltzurak eta apaizak asaldatu, airea arnastu,
ura edan, belar gainean edo hondartzetako harea gainean
dantzatu,
Hiriak aztoratu, ohitura onak mespretxatu, konstituzioez
burlatu, apatia jarraitu,
Gure abentura arrakastara eramanez.

ñ) *Kafetegi ergelez bete honetan, gu biok*²⁰

Kafetegi ergelez bete honetan, gu biok,
bakarrik, gizona gogoko izatearen bizio
diotenez higuingarria islatzen genuen.
Eta alu on puska horiei, beren maitasun
normal eta beren merkezurreko moralarekin,
okasioa ematen genien bitartean, guk biok
idiarena jotzen genion elkarri, haatik, gogoak
ematen zigulako, baietz ba, printzipioengatik,
geure pipen ke kiribiletan ezkutaturik tarteka
(Hera aspaldian Zeusekin larrutan bezala²¹);
gure zakilak, hotzak harturiko sudur alai,
eskuko zirkin atsegin batez arintzen genituen
mahaipen errebero zorrotada bana isuriz.

o) *badakit zertan ari zineten*²²

Mutikoak mina dauka zakilean,
eta zuk, Nevolo, ipurdian.
Ez naiz Aramis Fuster²³, baina
badakit zertan ari zineten.

o.1) *Mari Conchita*

Diruz bapo lehen, zu zinen –nola
esango dut zauden baino gehiago
ez izorratzeko– *marikontxita*
halakoa; efebo ilehoriak
baino ez zebiltzan zure atzetik.
Gaur, baina, larrua jotzen diozu
atso bati. Beharrak
zaharra merkatura, diotenez.
Baina zaharra eta guzti (hartu
hau gogoan), berak zaitu gizondu.

p) *ez nuen oihua entzun nahi*²⁴

Aspaldian nuen beldurra,
ez nuen oihua entzun nahi,
azkenean zu ere bazoaz
Gillen indartsuarekin
irla gorrotagarri hori
konkistatzera. Gizon asko
etorriko zaigu kantatuz
gure zaldun?en balentriak.

Orduan

ni geratuko naiz pentsatzen
Ingalaterrako euriak busti duela zure sorbalda ederra.

q) *ez nuen nire burua maite nahi*²⁵

Maite ninduen ama
izan nahi nuen, baina

ez nuen neure burua maite nahi.
Orduan gazte pobre bat
nintzela irudikatzen nuen.

Ezin nuen sinetsi
burgese batengan ere
ezer maitagarria egon zitekeenik:
nire amak nigan maite zuen huraxe,
puru eta mesprezatua.

Ezer ez da aldatu:
oraindik pobre eta gazte
ikusten naiz; eta ni bezalakoak²⁶
bakarrik maite ditut. Burgesek
gorputz madarikatua dute.

r) *hil nahi nuke*²⁷

Hil nahi nuke, hil –esaten zidan
malkotan urturik, joaterakoan–:
Safo, hau nire
zorigaitza. Abandonatzen zaitut
gogoz kontra, sinetsi.

Berari nik erantzun: Izan hadi
zoriontsu askoa
eta oroit hadi nitaz; badakin
nolatan haudan maite,
baina ahanzten bahaiz (eta ahantziko haiz),
utz egidan gogora dezadala,
hainbesteren artean,
eman ditugun zenbait istant eder:
arrosaz, bioletaz eta azafraiaz
txirikordaturiko lore sortak, ilean
paratzen nizkinanak. Lepokoak
lurrin askotakoak; usain belar
goxoak hire larruan perfume.

Ohatzea, non hainbestetan,
nire ondoan,
sosegatu huen nire desira.
Ez zen eztei festarik
gu bion ahots kantaririk gabe,
ezta oihanik ere, non gu bion
gorputzak ez zirenik, elkarloturik, etzan.

s) *barrunbe gaixo eta errea*²⁸

Beharbada hori. Motxilero itxurako hori.
Zertan ote dabil parke honetan? Akaso
gizonek gauaren arrimora mixeriak
larru baten kontra nola ixurtzen dituzten
ikasi nahi ote du?

Zapatilak eta larruzko txupa,
hankak zabalik, bularra bizkarroi,
munduaren kontrako bakero prestu
eta tinkoa. Seguru
maritxuak izterpetik pasatzea
gizontasunaren sendagarri
justizierotako daukala.

Nola gogoratzen dizkidan
nire koadrilako zenbait duela
zenbait urte eta zikinkeria:
bular zabalak, hitz ozenak,
zein natural bilakatzen zuten
mundua eta besteren izatea
beren izatearen berezko ondorio.

Nola gogoratzen didan
aspaldiko neroni hura mengela,
zalantzontzi, tropoilu antsiatu noragabea!
Nola gogoratzen didan
gauza izateko halabeharrez asmatu
barrunbe gaixo eta errea!

Nola gogoratzen dizkidan haiek bezala
izan nahian egindako oker galantak!

Gustura joko nioke larrua gustura
sartuko nioke buztana ipurditik,
ez lauoinka ikusirik desiratua
niretako ostu ahal diodalakoz,
ez, ongi asko baitakit menderatzeak
eta imitatzeak ez dutela izaera ematen,
ez, aspaldi esperatu mendeku hutsagatik baizik

t) *ez zaitut errudun ikusten*²⁹

Pentsatu duzue suertea dugula jaio izanaz?
Bada, nik esaten dizuet hiltzea ez dela suerte txikiagoa, eta
badakit zer diodan.

Hilzorian naiz hiltzen direnekin eta jaiotzen naiz sehaskara
biltzen diren hurrekin.

Nire nia ez da bakarrik boten eta kapeluaren artean dagoena,
existitzen den guztiaren aniztasun itzela aztertzen dut: ez
dago ezer berdin, eta dena da ona,
ona lurra, onak astroak eta hauek duten guztia.

Ni ez naiz bakarrik lurra eta lurrean dagoena:
senarra naiz eta ni bezala hilezkor eta barnera ezin diren
gizaki guztien kidea
(haiek ez dakite hilezkorrak direla, baina nik badakit).

Espezie bakoitza bere eta beretako, eta niretako nire espe-
zieko gizon eta emakumeak,
niretako emakumeak maitatzen bukatuko duten nerabeak,
niretako gizon harroa ezin duena jasan mespretxa dezatela,
niretako emaztegaia eta neskazaharra, niretako ama eta
amen amak,
niretako irriez dakiten ezpainak eta malkoak ezagutzen
dituzten begiak,
niretako umeak eta umeak sortzen dituztenak.
Biluz zaitetz. Nik ez zaitut errudun ikusten, ez tximurtua,
ez alferrikakoa;

gainera, arropen zehar ere ikusten ahal zaitut.
Eta irmo, gutiziatsu, nekaezin inguratzen zaitut. Ezin nauzu
igorri.

u) *bizitza laburra da, goza ezazu*³⁰

When you see a fair form
chase it
and if possible embrace it
Be it a girl or a boy
Don't be bashful, be brash, be fresh
Life is short, so enjoy
whatever contact your flesh
may at the moment crave
There is no sex life in the grave.³¹

v) *jende gehiagorekin batera*³²

Tabako denda baten erakusleiho
argizatuaren parean,
jende gehiagorekin batera,
gelditu dira. Bat-batean,
elkarren begiradek topo egiten dute,
beraien desirak, lotsaz, adieraziz.
Gero, espaloirantz dabiltzala,
irribarre egin, elkar onartzen dute.

Ondoren, automobil itxia,
haragiaren ukitu beroa,
ezpainen eta eskuen besarkada.

w) *plazer eta sosegua*³³

Alferrik nabilen hire musu gozatsuen mira eta bila.
Zein emakumek emanen lidake plazer eta sosegua?
Zeinek itzuliko lizkidake behinolako limurtasunak
margorik gabe eta hireak bezalako ezpainetan?

Bazakinat, gezurra esan huen, hutsa zunan hire irria.
Baina hire musua geldoa, estua eta zapoetsua zunan,
luzatzen zunan eta arimaraino iristen zunan milikari,
hi aldi berean emakumea baihintzen eta sugea.

Baina gogora hadi maite hindudan moduaz...
Ez nago hire gorputzean batere? Inoiz ez badun
debekurik gabeko unean nire izena zotinka esan,
oroit hadi isilune handiari darraion garrasi hartaz.

x) *gu geu besterik ez gara*³⁴

Hilko haiz haurra eta baita ni ere.
Baina are hi baino ederrago beste mutil batzuk
eguzkitan loak hartuko ditik itsasertzean.
Eta oraindik gu geu besterik ez gaituk izanen.

y) *ene amodio, sosegu bakarra*³⁵

Koridon:
Oi, hau zorigaitza! O, zorte kruela!
O, dolore mina! Haur maitagarria!

Melibe:
Hire bihotz mina duk ere neria,
Errak, errak, zer den hire bihotzean
nigar egiteko hirekin batean.

Koridon:
Alexis, herrian hainbat aipatua,
haur xarmagarria, oroz maitatua,
ene zoriona, ene ohorea,
Alexis, Alexis, oi, hau dolorea!
Ah! Alexis, diat Melibe plenitzen,
haren hil berria orai diat hartzen.
Ez zare gehiago, Alexis ederra,
ene amodio, sosegu bakarra,
ah! Haur malurusa, ez zare gehiago,

soberanoa zinen, bai zu guretako.
Hil zare, Alexis, ah! Urrun nitarik
nere bihotzean bizi zinelarik;
ene ondikoa, oi, gabetarik,
biziak ez du, ez, enetzat plazerrik.
Ene bihotzeko gozamen guziak
zurekin hobian dire ehortziak.
Atsegin bakarra, munduan enetzat,
nigar egitea, Alexis, zuretzat.
Atsegabea da nere bihotzean,
ni berriz zurekin juntatu artean.

z) *oi gaua*³⁶

Alde egin du garbi-garbi, eta argi askoa
lantokitik eta atarrietatik urrun igaro da.
Oi bat-bateko amodioa gizon bat batzuetan
hormaren kontra negarrarazten duena, oi gaua.

α) *Cruising-a Danteren Infernuan*³⁷

Oihanetik nahikoa urrundu ginen
hainbeste non ezin berriro ikusi
ezta atzera biratu bagina ere,
arima tropel bat aurkitu genuenean,
urertzean zetorrena, eta bakoitzak
begiratzen zigun, gauean, ilberrian
jendeak elkarri begiratzen dion eran,
bekozkoa ipiniz hobeto ikusteko,
jostun zaharrak hariztatuz bezala.
Taldekoek gu hala aztertutik,
haitako batek ezagutu ninduen,
arropatik oratu eta esan: Hau sorpresa!

a.1) *Outing-ari buruzko oharrak*³⁸

Nire maisuak orduan atzera egin zuen

eskuinerantz, eta esan zuen niri begira:
“Gogoan hartzen duenak ongi aditzen du”.
Ez nion hargatik utzi mosen Brunettorekin³⁹
hitz egiteari, eta galdetu nion nor ziren
haren lagunetan sonadun eta bikainenak.
Eta berak niri: “Batzuez jakitea ona da.
Besteei buruz hobe dut isiltzen banaiz,
hainbeste solaserako astia laburra baita.
Finean, jakin behar duzu denak elizgizon
eta idazle direla, handi eta ospetsuak,
guztiak munduan bekatu berberaz lohiturik”.

*α.2) Dante bi-curious*⁴⁰

Sutatik babesturik egon izan banintz,
haien artera jauzi eginen nuke behean
eta nago Virgilio gidaria ados legokeela;
baina nola erreko eta egosiko nintzatekeen,
haiek besarkatzera bultzatzen ninduen
nire borondate ona beldurak garaitu du.⁴¹

Oharrak

¹ Honakoa, hain zuzen:

Edertasunagatik ospetsua, Zenide, Elatoren alaba, Tesaliako don-
tzeilarik politena zen, eta ondoko hirietan, bertakoan bezala (zure
herrikidea baitzen, Akiles) ezkon-nahi askoren desirak gutiziatua.
Agian zure aita Peleo ere inoiz saiatuko zen berarekin ezkontzen, baina
zure amarekikoa egokitu zitzaion zegoeneko edo ezkon-hitza emana
zuen. Eta Zenidek ez zuen ezein ezkontzarik onartu, eta hondartza
urrun batez gozatzen ari zela, itsasoaren jainkoaren bortxaketa jasan
du (elezaharrak hala dio), eta Neptunok, plazer berriaz atsegin hartu
ondoren, esan dio: “Onartuko zaizu, ordain gisa, edozein desira bete

dakizula: aukeratu zer gogo duzun!” (hau ere kontatzen du elezahar berak). Zenidek esan du: “Bidegabekeria honek gogo handi bat eragin dit: inoiz halakorik sufritu behar ez izaterik; aitoriezadazu emakumea ez izatea. Honela, gauza guztiak bermatuko dizkidazu.”

Azken hitzok boz lodiagoaz ahoskatu zituen, gizon batena irudi lezakeenez, eta halaxe zen; zeren itsaso sakonaren jainkoak desirari amen eman baitzion, eta horretaz gain, onartu zion zauriek minik emango ez ziotela eta ezpatek ez zutela hilkko [itzultzailearen ohar erudittoa: *Ovidiok zekienez, grezieraz zaurituezina eta (falo batek, esaterako) penetraezina sinonimoak dira*]. Dohainarekin pozik, badoa eta bizitza egiten du gizonezko baten zaletasun berezkoekin.

Gerran (...), Zeneok [lehenagoko Zenidek] bost [zentauro] emanak zituen heriotzara: Estifelo, Bromo, Antimako, Elimo eta Pirakmon aizkoraduna, ez ditut egin zizkien zauriak ongi gomutan, nahikoa izan bekitt, beraz, zenbat izan ziren eta beren izenak apuntatzea. Heriotzara ere igorri zuen Halesoren harrapakinaz armaturik, Latreo, bere gorputzeko atalengatik zentaurorik handiena baitzen, korrika abiatu da; adinez gaztaro eta zahartzaroaren artean zebilen, gazte baten indarra zuen eta lokiko ileak urdin kolorea. Honek, bere ezku-tuagatik, bere ezpatagatik eta bere azkon luzeagatik ospetsuak [i. o. grafikoa: *mutil puskat, alegia*], batailoi bati zein besteari begira, armak astindu ditu eta, biribil perfektu bat osatuz, lauhazka hasi da, oilartuta, aire hutsean ondoko hitzok jaurtiki dituen bitartean:

–“Heu ere, Zenide [i. o. *azpimarratzekoa: emakumezko izenaz deitzen dio*], jasan beharko haut? Bada, hi, niretzat, beti izanen haiz emakume bat, niretzat Zenide haiz. Eta ez din hire jatorrizko naturak abisutzat balio?, eta ez al zain gogoratzen zer ekintzaren bidez jaso huen sari hau; zeren truke, gizonezkoaren itxura faltsua? Pentsa ezan zer hintzen emakume jaiotakoan, zer jasan dunan horixe izanik; erdigixon hori, joan hadi goruetan jardutera, eta gerra gizonontzat utz ezan [i. o. *sarkastikoa: eta hori nork eta zaldigizon batek esaten du*]”.

[I. O. *eliptiko eta amaierakoa: biak, Zeneo, “holakoak entzuteak sutan jartzen zuena”, eta Latreo zentauroa, buruz burukoari lotu zaizkio, baina zaldigizonak ezin dio ezpata (faloa?) inondik sartu, sexu aldatetaz geroztik zaurtezina delako. Zentauro harroxko hau ere hiltzen du, berez, Zeneok, beste zentauroek hori ezin eraman, gizontasuna oraindik aitortu ez, eta harri pila batek azpian hartuta erail dute gure heroi transexuala.*]

² Allen Ginsberg (1926-1997)

³ Sandro Penna (1906-1977), Pasolinik maisutzat aitortua.

⁴ Fernando Pessoa (1888-1935), Ricardo Reis hetero-(bai, bai, hetero)-nimoaren bitartez.

- ⁵ Michelangelo Buonarroti (1475-1564), xvi. sonetoan
- ⁶ Rikardo Arregi Díaz de Heredia (1958-), ‘Udri’ izeneko poema.
- ⁷ Abu Nuwas oraingo Iraken sortu zen 768. urtean. *Mila gau eta bat gehiago* liburuan bera agertzen da pertsonaia modura eta baita bere poemaren bat edo beste:
- Maite dudan emakumeak mezulari bat bidali zidan maitea eragin zidana.
 Ongi etorri, mezulari maitea, lurrinez apaindua.
 Gorte egin nion hitzez baina nigandik banandu zen esanez:
 “Tentatzen nauzu.
 Zu bezalako batek ezin du ni bezalako bat maitatu
 neska ilehori lirain batek maite duenean.”
 Haren misioa beteta, bihotz asaldatuarekin hitzordura agertu nintzen.
 –”Gorte egin diozu nire mezulariari.
 Orain agerian geratu da zutaz harritzen nauen eta ez dakidan hori.
 Iruzurgile galanta, kontabilitatea bi koadernotan daramazuna”
 Ardiak galtzen ditu otsoari ematen dizkion horrek.
- ⁸ Estraton Sardesekoa (K. a. II. mendekoa), Antologia Palatinoko XII. liburuko 227. epigrama.
- ⁹ Aurreko egile bera, AP, XII, 8.
- ¹⁰ Andolin Eguzkitza (1953-2004). *Southern Comfort* izeneko poema.
- ¹¹ Pako Aristi (1963-)
- ¹² Noski ez zela liburuan agertuko ezbairik gabe. ARIKETA: Orain irakurri itzazue, material osagarri gisa, J. Olasagarrenen ondoko zutabea (2003-11-13) eta Rikardo Arregiren ondoko komentarioak (2005-04-06) eta saia zaitetz bost urteko ume bati emateko moduko azalpen bat prestatzen sexu aukera ezberdinen arteko borrokari buruz.
- Olasagarre: “Pako Aristiren (...) ezkerreko ni poetiko hori patetikoki gixajo ageri zaigu praktika sexual bat ez duela egin aipatzean. Baina nola liteke horren ezkertiar den batengandik inoiz fellatio bat egin ez duela entzutea?! Jesus! Eta sexua eraldatzeko aldarri ezkertiar haiek non dira? Proba ezak Pako Aristiren ni poetikoa, proba ezak, ezker gehiago bai baitzaudek, eta ez denak heterosexualitatean!”
- Arregi:”Dennis Cooperen poemak irakurri eta gero zaila egin ten zaidalako fellatioari buruz Pako Aristik idatzi zuen *Libreta horiko poemak*-eko hura irakurtzea barre algaraz hasi barik. (Ohar

bat: gaur egungo kaleko euskaraz zakiljana deitzen zaio fellatioari). Zaila egiten zaidalako praktika sexual batzuen aipamena irakurtzea poema berri-berri batzuetan, ipurdia miazkatzea adibidez (boterearen ipurdi metaforikoa, hori bai), harri eta zur gelditu barik. Zaila egiten zaidalako gay eta lesbianezi buruz euskaraz idazten diren poema ustez egoki eta modernoak irakurtzea iruzurra eta adar jotzea eta auzo lotsa sentitu barik.”

- 13 John Donne (1572-1631), *Sappho to Philaenis* izeneko poema honetan Safok Filene bere maitalearengatik urrun mina adierazten du.
- 14 Kalimako (K. a. 310-240)
- 15 Juan Antonio González Iglesias (1964-). Poemak *Cortito Maltés* izena du.
- 16 Kaio Valerio Katulo (K. a. 87- K. a. 54)
- 17 “Bizi gaitezen, ene Lesbia, eta maita” bertsolerroarekin hasten den bere olerki ospetsuari eginiko erreferentzia. Emakume bati zuzendurik egoteak ez zuen saihesten marigixon-akusazioa, poema horretan eta oro har Katuloren poesian sexu-harremanetako aktibotasunari muzin egiten baitio. Erroman gixonerdi ez zen gizonekin ibiltzen zen gizona, baizik eta erlazio horretan menperatzen ez zuena. Horrexegatik “ahotik eta uzkitik emateko” mehatxuarekin Katulok berreskuratzen du rol aktiboa, bere burua defendatu ahal izateko
- 18 ARIKETA: Amai ezazu Katuloren poema hau, Allen Ginsbergen *Malest, Cornifici, tuo Catullo* izen bereko poema ildotzat edo nahasmendutzat hartuta:

Pozik nago, Kerouac, zure Allen eroak
azkenik lortu du: katutxo berri bat aurkitu dut,
eta mutil baten nire betiko fantasia
San Franciscoko kaleetan zehar badabil,
eder-ederra, eta kafeetan nire zain egoten da
eta maite nau. Ah, ez pentsatu gaixoti naizela.
Haserretu zara nirekin. Nire maitale guztiengatik?
Zaila da kaka jatea irudipenak ikusi gabe;
niretako begiak dituztenean paradisua bezalakoa da.

- 19 Walt Whitman (1819-1892), zatia
- 20 Paul Verlaine (1844-1896). Baliteke poemako beste laguna Arthur Rimbaud izatea.
- 21 Ikusi Christoph Martin Wieland (1733-1813) alemaniarren arabera, Zeusek, Hera bezalako emakumeekiko abentura ugariez

gain, nola azaltzen zizkion orain Juno emazte haserretuari Ganimedes mutilarekikoak:

Gizon jakintsu batek, greziar batek,
erakutsi zidan edertasunaz
barneko izaera ezagutzen.
Eta Platon ongi ulertu badut,
aireaz eta ideiez baino ez
da elikatuko nire arima,
jainkotiar kilkerraren moduan.
Argi horren haritik behar duzu
Ganimedesekiko amodio
xamur eta hain puru hau ulertu.
Zeren, Ganimedes ederra, orain,
nire sistema berriari esker,
lainoaz blaituriko gogo bat da.

“Gogo bat besterik ez?” dio Junok
sarkasmoz, “Eta, gogoek elkarri
noiztik ematen diote musurik?”
“Zer dela eta”, dio Zeusek, “ez zuten
eginen? Bereizten jakin behar da.
Galai arruntek mokokatzen dute,
txolarreak bailiran, gose hutsez;
Ganimedesek eta biok, berriz,
elkarri musu ematen diogu
modu metafisiko abstraktuan;
hori maitale zatarrenak ere
aitortuko digu, jangale hori.
Arimak dira, arima puruak,
gure musuan isurtzen direnak,
gorputzez osorik erantzi eta
lilura hartan erabat urturik,
biak elkarrekin nahasi, biek
izate bakarra osatzen dute.
Ohartzen naiz sakonegia dela.
Normala da ez baduzu ulertu.
Saltsan ez dagoen lagunak, noski,
nekez uler litzake sekretuok.

²² Marko Valerio Martzial (40-104).

²³ XX. mendeko sorgin famatua, Espainiako telebistan maiz agertua.

²⁴ Rikardo Arregi Díaz de Heredia (1958-). *Parthitzeko tenoria 2* izeneko poema.

25 Pier Paolo Pasolini (1922-1975). *Oi, ni gaztetxo!* izeneko poemaren zatia.

26 ARIKETA: Irakur ezazu Eugénio de Andrade portugezaren ondo-ko poema, *Pasoliniren mutikoa*. Pasoliniren mutil gazte eta pobre bati buruz ari da, edo Pasoliniri berari buruz bere burua pobre eta gazte ikusten duelarik? Arrazoitu zure erantzuna:

Bere ametsetik oraindik oso urruti,
urratzen den eguzkirantz dauka
besoa altxaturik; Pasoliniren
mutiko horietako bat da, lirainki
biluzia, lurrean paraturik;
eskuineko besoa,
esan dudanez, altxaturik; bestea
gorputzaren luzera osoan
erortzen zaio utzikierarik gabe;
irribarrea hasten zaio bere amaren
begietan, eta traizionatua
izatearen pena ez da
harengan oraindik
iragartzen; etorkizunak
agian horrelako jendea
edukiko du argiaren
osagaiaz egina; etorkizun pausatuak;
presenteak, ez, ez dauka.

27 Safo Lesboskoa (K. a. VII. Mendean)

28 Juanjo Olasagarre (1963-) *Josema Irutagoienek ezagutzen ez duen Txema Kortes parkean ikusitakoan* izeneko poema.

29 Walt Whitman, zatia.

30 W. H. Auden (1907-1973)

31 Ingelesa praktikatu duzun ondoren, hona hemen J. Sarrionandiaren itzulpenean:

Forma fin bat ikus dezazuenan
harrapa ezazu
eta ahal baduzu besarka ezazu,
neskatila dela edo mutikoa bada ere,
ez zaitez lotsaia izan, izan zaitez ausarta, alaia,
bizitza laburra da, goza ezazu
zure haragiaren ukiduraz
laket zaizun momentuan
ez dago larrua jotzerik hilobian.

- 32 Konstantino Kafavis (1863-1933)
- 33 Renée Vivien (1877-1909). *Poema erotiko txikia* izeneko poema.
- 34 Sandro Penna (1906-1977). *Lotan den mutil bati begira*.
- 35 Lapurdiko Jean Baptiste Kamusarriren (1815-1842) *Alexisen herio-tzea* (1834) izeneko poema virgiliarraren zatia.
- 36 Sandro Penna.
- 37 Infernuan, noski; hain zuzen, XV. kantuko 13-24 bersetetan.
- 38 Infernua, XV, 97-108.
- 39 Brunetto Latini, Dante Alighieriren adiskide eta maisua, sodomiaz akusatua.
- 40 Infernua, XVI, 46-51
- 41 ARIKETA: Azken sei bertsolerroak ikas itzazu buruz, jatorrizkoan nahiz (hurrengo bertso txapelketarako entrenamendu gisara) doinu herrikoiren batera moldaturik.
- S'i fossi stato dal foco coperto,
gittato mi sarei tra lor di sotto,
e credo che 'l dottor l'avria sofferto:
ma perch'io mi sarei bruciato e cotto,
vinse paura la mia buona voglia
chi di loro abbracciar mi facea ghiotto.

Lesbianak eta gayak euskal literaturan

Aspaldiko hitzaldi bat gogoan

Rikardo Arregi Diaz de Heredia

2001ean idatzi nuena (artikulu honen bigarren parte) irakurtzen dut orain. Gasteizko mahai-inguru baterako zela etortzen zait berehala gogora; hantxe geunden Juanjo Olasagarre, Andolin Eguzkitza zena eta hirurok garaiko LGBT talde gasteiztarrek gonbidaturik. Ez dakit gai honetaz egiten zen lehen mahai-ingurua zen (ez ditut euskal munduak hain gustuko dituen inaugurazio asmoak atsegin) baina niretzat bai izan zela lehen aukera gaiaz pentsatu, hausnarketa egin eta paperean idazteko. Aspaldikoa den paper hori berrirakurtzen hastean pentsatzen dut ziur aski zaharkiturik egongo dela, hor agertzen diren datu batzuk aldatu egin direla ziur aski. Ez ditut berriro kontsultatu hor agertzen diren webguneak, adibidez.

Bere horretan utzi dut paper hori lekuko bat izan daitekeelako agian ikerketa hauen genealogia baterako.

Gauzatxo batek kolpatu nau bat-batean lehen orrialdean: bertan *homosexual* eta *homosexualitate* hitzak arras zaharkituak zirela esaten nuen. *Queer* teoria (teoriak, hobe) pil-pilean zegoen garai haietan eta izenen kontua garrantzizkoa zen, eta da. Uste dut afera gure artean bere horretan dagoela oraindik. Azken bi urteotan beste mahai-inguru batzuetan parte hartu dut eta izenekin harriturik gelditu naiz beti: *gay*, *lesbiana*, *homosexual* hitzak erabiltzen segitzen dugu (nik ere bai, *Gayak eta Euskal Literatura* da

paper horren izenburua) erosotasunez edo utzikeriaz. Badirudi oraindik ez direla gugana iritsi jadanik historikoak eta ia-ia akademikoak diren kritikak: *queer* teorienak, *anti-gay* mugimenduenak. Kostatzen zaigu LGBT erabiltzea, arrazoiz agian, hizkiok esangura pobrea baitute inizatua ez denarentzat, baina gehiago kostatzen zaigu, beste esparru batean, *marika* hitza erabiltzea agian esanguratsuegia delako oraindik. Uste dut ez dudala inoiz irakurri edo entzun beste hizkuntzatan hain usu diren *queer jendetza* edo *queer jendeak* esapideak marikak, lesbianak, transexualak, bisexualak eta sexuarteak biltzeko.

Azken zazpi urteotan, dena den, mahai-inguru, maringuru, gehiago egon dira, mintegiak eta ikastaroak, interneten artikulua gehiago agertu dira, liburu honetan bertan egongo dira artikulua interesgarriak. Badirudi, beraz, gure hutsune teorikoak gero eta txikiagoak izango direla aurreantzean, eta ez bakarrik literaturarekin loturik dauden gaietan. Badirudi, era berean, kritiko eta ikertzaile gazteek ez diotela beldurrik hitzari, izan queer edo marika edo LGBT, eta kontuan hartuko dituztela teoria ez hain berrien ekarpenak haien analisiak egiteko orduan. Baikorra izan nahi dut, zeren guztiz beharrezkoa baita euskal literatura teoria horiek eskaintzen dituzten ikuspuntutik begiratzea, beste irakurketa bat saiatzea alegia, irakurketa erraz eta funts gabe asko deusezteko behingoz. Bestalde, teoria feministek izan duten ibilbide luzea iparrorratza izan daiteke, lagungarri, ikertzeko nola agertzen diren queer jendeak euskal literaturan, nola tratatzen dituen queer jendeak euskal literaturak, nola ikusten duten queer jendeek euskal literatura.

Beste batzuek esan behar dute, beraz, nik tremendismo izenarekin bataiatu nuen joera horrek nagusitasuna galtzen duen ala ez; gay pertsonaia bat duten ipuinak eta nobelak ugariagoak diren ala ez; zuzentasun politikoak

eskatzen dituen queer jendeak agertzen diren ala ez (zaila, zeren queer jendeek ez baitute normaltasuna gehiegi maitete). Oro har, beste sexualitate bitxi (queer) guztiek zer leku duten euskal literaturan.

Susmoa dut marika eta lesbiana gehiago agertzen direla fikzio literaturan, eta pertsonaia horien papera ez dela asko urrundu nik orain dela zazpi urte edo marraztu nuen ereditik.

Zerbait praktikoa saiatzeko ordua etorri zait eta orain dela zenbait urte Irati Jimenezek kaleratu zuen *Bat, bi, Manchester* (2006) eleberria hartuko dut hizpide hemendik aurrera. Manchesterren bizi den mutil batek (euskalduna eta homosexuala, berak tupustean eta modu harri-garrian esaten duen moduan bigarren orrialdean) beste bat ezagutzen du (heterosexuala). Protagonista maitemintzen da eta liburuan maitemintze horren gorabeherak kontatzen dira. Interesgarriak dira zenbait osagarri eleberrian.

Hasteko protagonistak bere buruaz duen irudia aztertu ahal dugu. Homosexuala hitz zaharkitua erabiltzen du protagonistak, inoiz ez gay, eta, behin edo, marika irain moduan (irainetik datorkio bere buruaren ezagupena, gogoratu Didier Eribon-en tesiak). Orain dela hogeitau urte norbaitek esan zuen gay bat zela bere buruaz kontzientea zen homosexuala. Protagonista ez da kontzientea, edo ez du izan nahi (autogorrotoa?) baina liburuan aurrera joan ahala irakurleak jakingo du beste erlazio bat izan zuela, jadanik bukatuak, eta oroitzapen mingotsak dituela. Lagun heterosexualak norabait gonbidatzean esaten dio han bera bezalakoak, *zure estilokoak* (eufemismo ederra) topatuko dituela, eta pertsonaia nagusiak beldurra eta ikara sentitzen du ispilu horretan bere burua ikusten duenean. Beste behin frustrazio iturri bezala aipatzen ditu lortuko ez dituen heterosexualak. Ez gizonak, heterosexualak. Armairutik kanpo dago (berehala esaten dio besteari homosexuala

dela) eta aldi berean armairu barruan. Guztiok bezalaxe aspaldidanik ikasi dugun bezala. Protagonistaren izena ez da inoiz agertzen, eta etxekide bihurtuko denarentzat *rubio* da besterik gabe. Identitatearen arazoa bere gordinean azaltzen zaigu. Badirudi askotan protagonistarentzat identitate seguru bakarra euskalduna izatea dela, eta ez beti, lagun heterosexualak beti ematen duelako euskaldunago, gizonago bai, zalantza barik. Osoagoa.

2001. urteko hitzaldian esaten nuen euskal literaturan agertzen diren gay pertsonaiak testuingurutik kanpo daudela ia beti. Horixe bera antzeman dut liburu honetan. Eztabaidagarria izan daiteke arazoa. Kontakizun intimista batean agian ez dira zertan agertu behar testuinguruak baina esanguratsua da niretzat liburu honetan agertzen den Manchester. Manchester Bilbo bezalakoa dela esaten zaigu. Kaleak agertzen dira, jendea eta trafikoa, adreilu gorriak eta pub pare bat. Gay tabernarik ez, gay testuingurutik ez eta, zinez, Manchesterren bada testuinguru bat, edo gehiago. Mariken munduan taldea garrantzizkoa izan da beti, beste marikak aurkitzeko lekuak (ghetto komertziala dela, talde militanteak direla), isolamendutik ateratzea, norbera gizarteratzea hil ala biziko kontuak izan dira beti. Hemen mundutik urruntze moduko bat dago. Existitzen dela hori gure artean? Zalantzarik ez. Arazoa ez da hemen sinesgarria izan daitekeen ala ez kontatzen zaigun istorioa, baizik eta zer aukeratu duen idazleak, zer nolako estrategiak erabili dituen idazleak marika baten bizimodua kontatzeko. Bizimodua, pentsamenduak eta sentimenduak.

Gehien interesatu zaidan bigarren osagarria narrazioan maitasunari buruz agertzen den diskurtsoa izan da. Sentimenduak. Maitasun erromantikoa zedarritzen duten osagarriak ugari dira: jelsia, platonismoa, desira (falta bezala ulertuta, *gosea* deituko dio protagonistak sentitzen duenari), gorrotoa, isolamendua, norberaren sentimenduen

nagusitasun etiko eta estetikoa, ametsak, nahasmendua. Sexuari buruzko aipamen apurrek (dutxa, musuak, lehen sexu harremana) arintzen dute apur bat maitasun erromantikoaren astuna. Idazleak aukeratu duen maitasun eredu tradizionala da beraz, erromantikoa. Harreman eredu (bikotetik bikotera doa protagonista azken finean) tradizionala da era berean eta eredu erromantiko horretatik dator zuzen-zuzenan. Uste dut liburuan eredu horri ez zaiola inoiz kritikarik egiten, kontsideratzen baita balio unibertuala duela. Berdin dio protagonistak emakume eta gizon izatea. Zerbait aldatuko litzateke? Are gehiago, zerbait aldatuko litzateke protagonistaren laguna marika izango balitz? Ez al litzateke gogorragoa, dramatikagoa, nobeleskoagoa izango sexu desira berdintsuak dituen bategandik indiferentzia edo, erromantiko jarrita, desamodioa jasatea? Veronicak, liburuko beste pertsonaia batek, ez du amodioa ezagutzen hasieran, burua galtzen du sexu harreman zoroetan. Epaiketa morala inplizitua da, abenturak ditu, gizon guztiei begiratzen die, baina, ai ene, benetako maitasuna badaki zer den bukaeran, eta *rubio* horrekin maitemindurik dago. Tradizio erromantikoari jarraituz mundu guztia maitemintzen da behar ez duen lagunaz. Maitasuna minarekin loturik dago. Amodio erromantikoaren gailurra. Liburuan bertan esaten du euskaraz maitasuna minarekin estu loturik dagoela. Amodioak mina ekarriko du beti eta liburuaren bukaeran protagonistak aitortuko du ezin duela daukana disfrutatu, edozein kale ertzetan amildegia dagoela. Utziko ote du? Besteak utzi zuen. Maitasun erromantikoak mina ez ezik, beldurra ere badakar.

Gizarteak marikak bereganatzeko duen tresnarik eraginkorrena amodioaren kontu hau da. Utikan promiskuitateak eta luma arraroak. Normalak zarete. Normalak gara. Maitemintzen gara. Sofritu. Uzten gaituzte. Marikek ere haien sentimendutxoak dituzte. Guztiok bezala.

Amodio erromantikoaren sareetan ikusi nahi gaituzte, antza. Ahanzten dira bat-batean aspaldian, oso aspaldian, mugimendu feministek amodioaz egindako kritika guztiak. Kritika horiek berreskuratu behar ditugu, premiazkoa zaigu.

Gayak eta euskal literatura

(Gasteizen irakurria, 2001eko ekainean)

Orain dela gutxi interneten agertu den webgune berri batean, *armiarma.com* deiturikoan, azken hogeita bost urteetan argitaratu diren literatur aldizkari guztiak bilduta daude. Aldizkari horiek erakusten ohi dituzte literatur munduan dauden mugimendurik berrienak, abangoardiarik ausartenak. Norbaitek pentsa dezake, eta halaxe pentsatu nuen nik, gayen inguruan zerbait egongo zela euskal aldizkari abangoardista horietan. Bilaketari ekin nion. *Gay* hitza sartuz gero, emaitzak kaxkarrak dira, hiruzpalau artikulutan agertzen da bakar-bakarrik. Gehienetan *gay* hitza agertzen da beste hitz hauekin batera: *trabestiak*, *putak*, *drogazaleak* eta abar. Artikulu batean honako esaldia dugu: “Bi unibertso dira euskal literaturaren inguruan bizi den jendea eta Tokyoko bizitza *gay* undergroundean bizi direnak”. Ezin urrunago joan. Zergatik Tokyoko *gay* bizitza eta ez Bilboko, adibidez? Artikulua 1993ko da. Agian ahaztuko zitzaion artikulu egileari badela jendea bai euskal literaturaren inguruan bizi dena, bai Euskal Herriko *gay* undergroundean eta ez hain undergroundean mugitzen dena. Bilaketari jarraituz beste hitz batzuk sartu nituen: *homosexual* eta *homosexualitate* hitz arras zaharkituak. Emaitzak antzekoak izan ziren. *Trabestiak*, *putak*, *drogazaleak* eta *homosexualak* hor dabilta elkarrekin behin eta berriro. *Marika* eta *marikoi* hitzen emaitzak

berdintsuak dira, irainaren esparru semantikoan era dotorean esateko. Eta *bugre* hitz gaur egun exotikoari dagokionez gauza bera. Badirudi euskal literatur abangoardiarako gayak Tokyon daudela.

Bestalde, EHGAM erakundearen webgunean begiratu nuen. Azken finean talde hori da gay mugimendurik zaharrena Euskal Herrian, eta gainera badu bere pedigree ezker-tiar eta abertzalea. Webgune horretan liburuen zerrendak daude, jakina, genero guztiak. Baina, adi, ez dago liburu bat bera ere euskaraz.

Ondorioa ezin izan daiteke oso pozgarria. Literatur abangoardiek uste dute gay jenderik interesgarriena Tokyon dagoela eta Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak erdarazko liburuak gomendatzen dizkio euskal gay jendeari. Gayak eta euskal literatura lotzea ez dirudi gauza erreza denik.

Baina zorionez azken hogeita bost urteetan gay jendea agertu da euskal liburu batzuetan. Nik gogoratzen dudan lehena Karlos Santistebanen *Uda baten amodio zorua* (Haranburu 1986) da. Ipuin bilduma da liburu hori. Lehen ipuinak liburuaren izenburua darama eta bertan egileak kontatzen digu bi gizonen arteko harremana udaldian zehar. Azken zatian protagonistak aurkituko du, neguan jadanik, bere laguna emaztearekin eta seme-alabekin, ongi gogoratzen badut. Ez da oso liburu gogoangarria ene ustez, baina bi gauza bederen erakusten digu: alde batetik euskaraz lehen aldiz gai bati buruz aritzeak izan duen, eta gaur egun oraindik ere duen, merezimendu ulertezina; eta bestaldetik gay jendearen literatur istorioetan ohikoak diren bukaera zoritxarrekoak. Hirugarren puntu bat azter daiteke: euskal armairutasuna, agian gairik landugabeena eta, aldi berean, emankorrena izan daitekeena. Armairuez baino gehiago beharbada hitz egin behar genuke baserri zaharretako haritz sendoez egindako kutxa ilun eta beti

itxi horiei buruz. Dena dela, ipuin hori Bilbo aldean dago giroturik.

Lehen liburuen artean badago Iñaki Mendigurenen nobela bat, *Haltzak badu bihotzik* (Elkar 1990). Ikasle batek bere irakasle batekin duen harremana, eta irakaslearena ikaslearekin, azaltzen da nobela horretan (biak gizonezkoak, jakina). Literatur erreferentziak ez daude bakarrik izenburuan ene ustez. Bada nobela horretan nobela ingeles mota jakin baten oihartzuna. Garaiak eta egoerak ez dira berdinak, hori begi-bistakoa da, baina gay jendeaz literatura egiteko usu erabili den tonu antzeko bat antzeman daiteke Mendigurenen nobelan: gauzak, egoera eta sexua, ez dira era gordinean azaltzen eta kontakizuna sentimenduekin-edo loturik dago gehienbat. Biguna edo txuria batzuen iritiz.

Euskal idazlerik ezagunena, Bernardo Atxaga, gay jendeaz ere aritu da bere ipuin luze batean, *Itzultzaile bat Parisen* izenekoa. Harrigarria da, baina agian pentsa dezakegu ez literatur aldizkariak ez gay mugimenduak ez direla ezertaz enteratzen. Agian ez dute gehiegirik jakin nahi, orain arte behintzat. Euskal literatura erabat homologagarria dela esango du baten batek poz-pozik hantemenka gay jendeaz aritzen diren liburuak baditugulako. Baina hori geroago aztertuko dut. Irakur dezagun orain Atxagak idatzi zuen ipuin hori. Bide batez Atxagaren lanik ezezagunena da *Itzultzaile bat Parisen*. Kasualitatea?

Ipuinaren lehen orrialdeetan protagonistak lagun batzuekin hitz egiten du gay taberna bat izan daitekeen lekuren batean. Solasaldi horietan jakingo dugu auto istripu bat izan duela protagonistak, istripuaren ondorioz herren gelditu dela, eta horren guztiaren ondorioz bere nobioak utzi duela. Gauza izugarri gehiegi lehen orrialdeetan, zalantzarik ez. Protagonista, depresioak-edo jota ere badagoela, Parisera doa aspaldian egin zuen bidaia

berregiteko amoz, bere burua-edo aurkitzeko asmoz. Parisen gau batez enkontru zoritzarrekoa izango du parke batean txapero batzuekin, gero etxean lapurtuko dute eta baita jipoitu ere. Bukaeran protagonistak metroko ilunetan ezezagun bat hilko du. Gauza izugarri gehiegi orrialde guztietan. Gaya bere bakardadean? Edo homosexuala bere bakardadean esan beharko nuke? Ene ustez ipuin honen ezaugarri nabariena *tremendismoa* da. Hasieratik bukaeraino dena da tremendoegia. Baina gay jendeari buruzko ikuspuntu tremendista literaturan, eta baita beste arteetan ere, oso-oso arrunta da, eta jatorri garbiak ditu. Sodomitak erre egiten zituzten Ertaroan, homosexualitatea medikuntzak eta psikologiak definitu zuten gaixotasun bezala edo perbertsio moduan, HIES gaixotasuna berehala egotzi zioten gay jendeari, bazterrean bizitzera kondenatutako jendearen bizimodua ez da erraza eta, beraz, konplikazioek, harreman zailek, familiarekin arazoez, zoritzarrek, bizitza mixerableek, delituek eta mota guztietako izugarrikeriek lotura estua izan dute gay jendearekin. Ered heterosexualak garatu duen ikuspegi tremendista horrek isla zehatza eta eraginkorra izan du eta du literaturan. Dena den, literatura guztietan pertsonaiarik interesgarrienak pertsonaia tremendoak dira, baina hori beste kontu bat da.

Karlos Santistebanen lehen ipuinaren osagarri erotikoak nahiko indartsuak ziren. Bide hori, bide gutxi gorabehera erotikoa esan nahi dut, Aitor Aranak ere hartu du hainbat liburutan, orain dela ez asko atera zen *Onan* (Txalaparta, 2000) nobelan adibidez. Oso modu esplizituan, baina aldi berean fantasiatzekoan, mutil baten sexu bizitzaren bilakaera azaltzen da kontakizunean. Egile berak *Xut* gay aldizkari pornoa sustatzen eginiko lana ere gogoan izan behar dugu.

Azken-azken nobeletan gay pertsonaiak ugaritu dira nabarmen. Gaur egun ez da batere zaila gay galduren bat

edo beste aurkitzea euskal idazleek egiten dituzten nobeletan. (Bi adibide besterik ez: Aingeru Epalzaren *Rock'n'roll*, Elkarlanean, 2000 eta Patxi Zubizarreteraren *Jeans-ak hozkailuan*, Alberdania 2000). Orokortasunak orokorkeria dakarrela jakin arren, gauza pare bat esan daiteke ugaritasun berri horri buruz. Ia-ia nobela guzti horietan gay bat agertzen da. Bat. Ez bi, ez hiru, ez talde handi, ez txiki. Bat. Zer egingo du gay horrek nobela horretan betiko bizitzera kondenaturik? Aspertu, seguru asko. Pertsonaia bakar horien agerpenak batzuetan ez du zentzu handirik eta kontakizunari ekarpen gutxi eskaintzen dio. Moda bat izango da beharbada, politikoki zuzena izatearen betebeharra agian; gehienetan idazlearen saiakera serioa izango da, berak gayren bat edo beste ezagutzen baitu, edo idatzi nahi duena errealitatean edo bere irudimenean, berdin dio, ikusi egin baitu eta hortxe nonbait gay bat zegoen. Auskalo. Baina pertsonaia horien agerpenak bitxiak izaten ohi dira, sinesgaitzak. Errealitatean gertatzen dena nobela batean hala-moduz jasotzeak ez du bermatzen literatur kontakizun horren balioa, are gutxiago haren sinesgarritasuna. Hala-moduz esan dut lehen. Tranpa ematen du baina ez da tranpa, zeren arazoaren ardatza moduan baitago. Nolakoa da gay horiei buruzko diskurtsoa nobela horietan? Bada, gehienetan gay pertsonaiak testuingurutik kanpo daude, deskontestualizaturik, galduta. Pertsonaia heterosexualak maitemintzen eta desmaitemintzen diren bitartean, harremanen zurrunbiloan murgiltzen diren bitartean, edo zuzenean larrua jotzen duten bitartean, gayak hortik daude galduta, errari (Szyborskaren arimatxoa bezala), aingeru sexugabekoak bailiran, batzuetan istorio izugarriak pasatzen eta kontaktzen (*tremendismoa*, bada-kizue). Bakartiak, normala denez gay pertsonaia bat baino ez baitago, eta inolako loturarik gabe munduarekin, ez bada mundu heterosexualekin (oso murriztua dena bestalde).

Bi agertzen badira, bikote dira halabeharrez. Oso gutxitan gertatzen da, baina badago adibide bat Pako Aristiren *Urregilearen orduak* (Erein 1998) izeneko nobelan. Hor bi gay agertzen dira (bat bakarra bada ere istorioaren pisua daramana), bikote jakina, eta istorioak baditu ohiko ukitu tremendistak: familiarekin gaizki moldatzea, drogak, baserritik hirira, hau da kartzelatik askatasunera, ihes egiteak sortzen duen kulpa sentimendu moduko hori. Bukaera behintzat ez da zoritxarrekoa: baserrira bueltatuko da pertsonaia bere nobioarekin lehenengoaren aitari erakustera mariaren balio terapeutikoak.

Aipatu ditudan pertsonaia horiek guztiak ez dira protagonista nobeletan, bigarren edo hirugarren mailako pertsonaiak baizik. Esan behar nuen hori?

Beste adibide bi aipatu nahi dut. Lehendabizikoa Xabier Montoiaren *Gasteizko hondartzak* (Susa 1997) ipuin bilduma. Hasierako ipuinak kontatzen digu gasteiztar baten istorioa: gerra garaian hotel batean zerbitzari lanetan aritzen da, hotelean Gernika bonbardatu behar zuten alemaniarretatik bat ezagutzen du eta berarekin izango du harremana. Amaierako ipuinean gasteiztar bera bizitza leku urrunen batean eman eta gero Gasteizera itzultzen da eta burua gogoeta ilun eta argiez betetzen zaio. Era sinpleegian kontaktuta aurreko liburuekin egin dudan bezalaxe. Barkamena eskatu beharra daukat, zalantzarik gabe, liburu preziatu hauek guztiak hain arin laburtzeagatik.

Montoiaren ipuin horiek apur bat desberdinak dira ene ustez. Bazterreko ikuspuntua iltzaturik badago ere (Gernika suntsitu zuen batekin!), tremendismorako joera badago ere, ezinezkoak dira epai moralak. Tremendismoa zati handi batean atzean gelditzen da. Orain dela hirurogei urteko kontu batzuek, kontu pertsonalek, egunerokoek, bizitzarekin estu-estu loturik daudenek, Montoiak kontatzen dizkigunek eta kontatzen dizkigun moduak, ez digute

uzten epai moralik egiten. Norbaitek egingo balu barre-garri geldituko litzateke gure aurrean, gaurko begi eta neurriekin gauzatuko baitu sasiepaia. Bi ipuinotan agertzen den pertsonaia hori ongi dago txertaturik bere tes-tuinguruan.

Bigarren adibidea Iban Zalduaren *Gezurrak*, *gezurrak*, *gezurrak* (Erein 2000) izeneko bildumaren lehen ipuina da. Ipuina liburu baten inguruan garatzen da (liburu horretako zenbat ale agertzen diren ipuinean jolas polita da) eta, batez ere, liburu hori irakurri, lapurtu edo ikusi duten pertsonen inguruan. Pertsonaia batzuek izen-deiturak dituzte, beste batzuek, aldiz, letra edo zenbakiak baino ez. Ez ahaztu bestalde euskarak duen anbiguotasuna hitzen generoa zehazteko (*lagun* hitza da adibiderik adibi-deena; *zu* aditz forma oso emankorra da ere bai). Anbi-guotasun bi horiekin, eta beste askorekin, ipuina oso era harrigarrian garatzen da begien aurrean, eta irakurlea gel-ditzen da behin baino gehiagotan pentsatzen, beste kezka batzuen artean, zer diren zehazki T-234 eta K-989 adibi-dez, zer ezkutatzen den gezurrez betetako hitz horren atzetik (*lagun* horren atzetik, jakina), zer idazlearen isilta-sunen atzetik. Bestalde badirudi bi horiek poliziak direla, edo kartzelako funtzionarioak.

Eta horrek, polizien kontuak diot, bestela ipuin hori izugarri gustatzen zait, aitzakia ematen dit beste lurralde batera sartzeko. Harrigarria da zenbat aldiz gayak, etaki-deak, guardia zibilak, trabestiak eta abarrekoak bateratzen dituzten batzuek literatura edo zinema egiteko Euskal Herrian. *Mikelen heriotza* filma hor dugu esate baterako. (Adibide literario bat: Karlos Gorrindoren *Ni naizen hori*, Txalaparta 1992). Goian esan bezala bazterreko biztanle izan dira, eta dira, gayak-eta. Ulegarria da bazterrekoak elkarrekin ibiltzea, edo bazterrekoak kanpotik elkarrekin lotzea, baina iruditzen zait azalpen hori ez dela nahikoa

euskal obsesio hori argitzeko. Askotan entzun dugu guztiok ahoberoren bat esanez idatzi behar zela euskaraz ez dakit zer-nolako nobela bat, bertan kontatzeko, demagun, goardia zibil baten eta HBko zinegotzi baten arteko harreman sexuala. Hasi naiz pentsatzen fenomeno hori ongi azaltzeko ez dela nahikoa bazterraren diskurtsoa, eta obsesio hori eredu heterosexistak sortutako fantasia heterosexual bat baino ez dela. Gay bakarti horiek agertzen diren nobelen pasadizoei gero eta gehiago aurkitzen diet fantasia heterosexualen zantzuren bat. Beraz, kontakizun horietan azaltzen diren gay pertsonaiek izaera fantasmaticoak hartzen dituzte gehienbat. Testuingurutik kanpo daude, esan bezala.

Euskal kritika galduta dabil fenomeno horiek guztiak aztertzeko orduan. Egia da, bestalde, kritikaren egoera orokorra ez dela oso ona, baina merezi du, ene ustez, aztertzea zer-nolako jarrerak hartzen dituen kritikak arazo hauen inguruan. Bururatzen zaidan lehendabiziko ideia da gure kritikak ez duela tresna egokirik ezagutzen, eta duen tresna bakarra dela politikoki zuzen izan beharreko obsesiotik datorkiona. Beraz, batzuetan kritikoek oso ongi balioesten dute gay bat agertzea nobela batean, horrek erakusten dizkielako nolabait gure gizartearen eta literaturaren balio moderno eta aurrerakoiak. Iruditzen zait argi gelditu dela uste horren ustela. Beste kasuetan kritikak ez daki zer esan, edo zeharkako bideak erabiltzen ditu iruzkin lausoez beterik. Azken hori poema liburuez hitz egiterakoan nabaria da, behin baino gehiagotan irakurri ditugu iruzkinetan honelako esaldiak: “liburu honek Kavafisen eragina du”. Gero liburua hartu eta hor Kavafisen aztararik ez aurkitzea oso arrunta da. Kritikoak esaldi horrekin beste gauza bat esan nahi duela sumatzen dugu berehala, funtsean ez du Kavafisen eraginari buruz hitz egin nahi, baizik eta beste gauza batez: liburuan gizonetzkoen

arteko harremanak islaturik daudela nolabait esan nahi du.

Kritikak gay ikuspuntua bereganatzen ez badu motz geldituko da liburu askoren aurrean, baita gay pertsonaiak edo istorioak biltzen ez dituzten liburuen aurrean ere. Norbaitek uste al du libre dagoela paradigma heterosexistak ezarritzako aurreiritzietatik? Gogoratu behar da emakumeen sarrerak literaturan suposatu duena, eta oraindik suposatzen duena. Gure gizarte ustez garatu eta libreak, baina heterosexistak, beste mito bat sortu berri du: intimitatearena. Zergatik plazaratu behar dira norberaren sexu aukerak? Nori axola zaio bakoitzak bere gorputzarekin egiten duena? Intimitatearen mitoaren atzetik heterosexismoak arma sendoa eskuratu du onartzen ez dituen jarrerak oraindik ere kontrolpean mantentzeko.

Euskal kritikarentzat aberasgarria izan daiteke gay ikuspuntua, edo gay irakurketa, idazle batzuen lanak era orokorragoan ulertu ahal izateko. Eta idazle horiek ez dira zertan gay izan. Nik uste dut posible dela, adibidez, Lauaxetaren lanekin berrirakurketa bat egitea, bere poemetan agertzen diren gizonezkoak aztertuz (zeintzuk diren, nola-koak diren, nola dauden deskribaturik eta abar). *Txo moz-kortuba* horrela ere, eta ez bakarrik, irakurtzean ustekabe bat baino gehiago aurkituko du norbaitek.

Orain arte erabili ez ditudan, baina guztion buruetan dauden bi hitz aipatuko ditut: gay literatura. Arazoa ez da hitz horien egokitasuna eztabaidatzea ala ez, kalean daude, gay liburudendak daude, eta liburudenda batzuetan gay atala dago. Merkatarien eskuak hor ere daudela esateak ez du jakintza handiagorik ekarriko kontsideratzen badugu gizarte neoliberallean bizi garela. Agian merezi du gogoratzea tremendismoaren zera hura. Gay asko, paper mixerable horietaz nazkaturik, beste nobela motak eskatzen hasi ziren, happy end eta guzti. Emaidza literatura

light moduko bat izan da, asmo hori bete duena eta gaur egun ingelesez, frantsesez edo alemaneraz agortzeko bidean dagoena. Gaur egun hizkuntza horietan idazten diren gay noblek (nolabait deitzeko), bi mutur horiek gaindituz, literatura egin nahi dute, istorioak kontatu, pertsonaiak eta egoerak azaldu. David Leavitt lanak adibide ona izan daitezke. Saiakerak ere gero eta gehiago agertzen dira, batez ere azken urteetan *queer* teoria sortu zenetik. Badago beste genero arras berri bat, lekukotasun edo testigantza izenak erabili ahal ditugu berau izendatzeko. Euskarak ere eman du adibide bat: Iñigo Lamarcaren *Gay nauzu* (Alberdania 1999) liburua. Batzuek pentsatzen dute liburu mota horiek, lekukotasunak diot, ez direla aitortzeekin nahastu behar, niaren kontzeptu desberdinak azaltzen baitira bietan. Nia eta identitatea oso eztabaidatuak izan dira gay jendearen artean.

Gay idazleek idazten duten guztia gay literatura da? Ez-gay batek gay jendeari buruz idatziriko liburu bat gay literatura da? Zergatik Estatu Batuetako liburudenda batean Kavafis ez dago *gay poetry* sailean? Absurduak izan daitezke galdera horiek baina egin beharrekoak gay literaturari buruz hitz egiten hasteko. Gay hitza Kavafisi ematea anakronikoa izan daiteke, baina argigarria da XXI mendearen hasieran bizi garenontzat. Ez-gay batek gayen inguruan idatziriko liburu bat interesgarria izateko idazle oso on baten lana izan beharko luke, baina ez da ezinezkoa (gogoratu Montoiaren ipuin horiek). Gay izateak ez du inor idazle on egingo, baina gay denak bere buruari trizioa egingo lioke gay ikuspuntua albo batera utziko balu idazteko/bizitzeko orduan.

Azken oharra

2008ko neguan jakin nuen egileari esker Tokyoko underground hark, hasieran aipatzen dudanak, baduela

egile ezaguna, izen-abizenak dituen: Joseba Gabilondok idatzi zuen Garziarena aldizkarirako 1993an. Gauza ez da hor bukatzen, Joseba Gabilondok idatzi baitzuen *Madrid, New York, Tokyo* izeneko ipuin gay bat Revista Kultura 2 deiturikoan argitaratu zena 1992an (eta 2009an argitaratutako *Apokalipsia guztioi erakutsia* bilduman jaso zuena); antza denez hiriburuen izenak tituluetan jartzea ez da gauza berria gure artean.

Ustekabeak, ezusteak eta esanezinak: ezkututik agerira?

Mikel Ayerbe

Euskal literatura eta *gay* hitzak esaldi berean jartzea modaren eragin zuzena besterik ez dela esango dute bartzuek, tabua morboz mozorrotu delako adierazle argi; gurean ere horrelako gaiak jorrazteko unea bazela aldarrikatuko dute besteek, normaltasunak esparru guztietara (baita fikzioaren edo literaturaren eremura ere, edo fikziora behintzat) heldu behar duela. Euskal literaturan *gay* pertsonaien ugaritzea modak edo beharrak eragin duen gutxi axola izanik ere, ezin uka daitekeena gertaera bera da: *gay* pertsonaiak ugaltu egin direla euskal literaturan azken urteotan argitaratu diren lanetan. Eta aurrez Rikardo Arregik egin bezala, eta bere bideari jarraituz, pertsonaia hauek ze ikuspegitatik landu diren, pertsonaiek zer islatzen duten, zein den euren testuinguru narratiboa, fikzioaren baitan zein rol jokatzen duten edota irakurleak gai zehatz honen inguruan zer aurki dezakeen aztertzea izango da atal honen helburu nagusia.

Lerro hauek idazteko informazio bila hasi nintzenean, Jon Kortazarren hitz hauekin egin nuen topo: “aipamen homosexualak jada *teleafilmetako* bazka dira”¹. Eta telefilm hitza apur bat zaharkitua gelditu bada ere, ezin ukatu pertsonaia homosexualak egungo teleserieetako edo telenobele-

tako ezinbesteko ezaugarri bihurtu direnik. Pertsonaia beltz bat eta bakarra beharrezkoa den bezala, guztietan agertuko da, kapitulu batean bada ere, gay bat “kuuuu-ku!” egiten (gehienez ere bi, Romeo eta Romeo, bi gayen arteko ezinezko maitasun istorioa etengabe luzatzeko lain, baina ez gehiago). Nola ez, kasu gehienetan helburu nagusia aurkakoa izanik ere, hau da, gay jendea ere bestek bezalakoa dela azaltzea, hain zuzen, agertzen diren gay pertsonaiak topikoz josita eta erabat estereotipatuta agertuko dira. Etiketa berezkoa dute pertsonaia hauek, baita karakterizazioa ere: gayak diren neurrian dira pertsonaia, gaytasuna da pertsonaia hauen izaeraren oinarri eta gayak izateari utziko baliote, pertsonaia izateari ere utziko liokete.

Erne, honekin ez dut esan nahi telefilm, teleserie edo teledendako gay pertsonaiak agertu behar ez direnik. Alderantzizkoa baizik, ager daitezela gayak agertu behar duten lekuetan, baina agertzen badira, ager daitezela *cartoonpiedrazko* pertsonaiak izan gabe, gay guztiak bat eta bera direla eman gabe. Nahiz eta juxtu hau idatzi ondoren, *Volgako Batelariak* blogean Iban Zalduak “Eramus Literatura” deitu duen hori lantzeko hamasei aholku eman eta bederatzigarren gomendioak, ironia handiarekin baina geroago ikusiko dugun moduan, arrazoirik falta gabe, honela dioen:

“9. **Sar ezazu homosexualen bat zure obran.** Ausartzen bazara, endredatu ezazu berarekin narratzailea, ez luze, ez sakon, agian ezta sexualki ere, orrialde gutxi batzuetan zehar askoz jota –zure gurasoak eta izeba zaharrrak pitin bat eskandalizatzen moduan, ez gehiago–. Ez ezazu soberako lanik hartu horretarako dokumentatzeko: erabili itzazu LGTBen inguruko literatur, irrati eta telesail topiko ohikoenak (dela homosexual bakartitragikoaren *packa*, dela bizitza alegereko lumadun Abba-zalarena)”².

Izan ere, Eduardo Nabalek zinemari buruz dioena literaturara egokituz, literatura ere zerbait izatekotan, “elkarbanatutako alegiazko mundu baten sortzailea, errealtatea islatu, desitxuratu eta birsortu ere egiten duena”³ litzateke. Eta hori horrela, zilegi litzateke eskatzea birsortu daitekeen fikziozko errealtateak ez ditzala egungo gizar-teko akats edo ondorioak bere horretan kalka edo kopia. Ez besterik gabe, behintzat.

Horrenbestez, datozen orrialdeetan egungo euskal literaturan 2000. urteaz geroztik argitaratu diren zenbait liburutako gay pertsonaiak eta beraien testuinguru narratiboa aztertzen saiatuko naiz. Hori bai, narratibaren eremura soilik mugatu eta poesiaren azterketa beste batzuen esku utziko dut. Esan beharrik ez, baina badaezpada esan, azterketa honen asmoa ez dela gay pertsonaiak agertzen diren liburuak zehatz-mehatz zerrendatzea, eta hemen aipatuko diren liburuen aukeraketa erabat arbitrarioa izan dela.

Ezustekoak eta ustekabeak ezkutuan

Fikzioak berezkoa du ezustekoekin eta ustekabeekin jolastea eta, nola ez, pertsonaia bat gay izatearekin ezusteko nahikotxo sor daitezke liburu baten orrietan. Bereziki, ezuste hori irakurlari azkenera arte ezkutatu eta narrazioa amaitzeko azken bost lerroetan tan-ta-ta-ta-txan, brastakoan argitzen bada. Are gehiago, narrazioaren gakoa ustekabe horretantxe gauzatzen bada, hots, ustekabe hori gabe narraziorik ere ez legokeen neurriraino.

Generoaren gorabeherak kontuan hartuta, azken-azken uneko ezuste hauek ohikoagoak dira ipuinetan (narrazio laburretan bereziki), nobeletan baino. Rafael Reigek dioen modura, gisa honetako ipuinek “atzera egitera behartzen zaituen «autorreverse» tekla bat dute barneratuta”⁴, zeinaren bidez ezustearen ostean irakurritako guztiak beste

zentzu bat hartzen duen. Literatur ariketa gisa ulertzen omen ditu Reigek argumentuan horrelako bilakaerak dituzten narrazioak, baina kontua da, pertsonaia bat gay izatearen ezustearekin gisa honetako makina bat amaiera irakur daitezkeela gurean. Bi adibide, jarraian:

Dioramak, Patxi Iturregi

Patxi Iturregiren *Dioramak* (Elkar 2006) narrazio bildumako “Beti gure bihotzean” ipuina batetik. Ia orrialde bakarrean garatzen den narrazioan, protagonistak ondoez bat izango du egunkariko orri nekrologikoa irakurtzean: “Argazki lausoak nik maite izan nuena baino gizon lodiago bat erakusten zidan, arruntagoa, ia burusoila, adinera iritsi aurretik akitua eta maskaldua” (31. or.). Hemendik aurrera, protagonistak hildakoa hartuko du gogoan: “Alde egin zuenez geroztik ez zen irlara bueltatu (...) Hori bai, dirutza egin omen zuen (...) eta behin, duela hogeitau urte edo, txeke mardula bidali zigun urakanaren kalteak erremediatzeko”. Azken bost lerroetan, berriz, narrazioaren muina biltzen duen ustekabeko (ai ama!) amaiera: “Malakoak xukatu eta utzi zituen senideen izenak irakurri nituen. Emaztea: Altagracia Fernandez Luna (Altita); seme-alabak: Virginia (Gina) eta Aurelio (Yeyo). Azken hau injineru aeronautikoa eta nire izen berekoa”. Ipuina modu txarrean fusilatzeagatik barkamenak eskatzen dizkiot idazleari hemendik, baina ezin ipuinaren azken hiru lerroak hona ekarri gabe utzi: “Pozik ezagutuko nituen hirurak, baina ez nintzen ausartu. Ez nekien nola hartuko ninduen lagunak, ustekabeen agertuz gero”.

Jakina da hizkuntza gisa euskarak genero markarik ez duela eta “lagun” hitzak generorik ez izateak anbiguotasuna eranstean diola kontuari. Bitxia eta korapilatsua da nola aitortzen duen protagonistak bere sexua, bere maitalea

izandakoaren semearen izen bera duela jakinaraziz. Izan ere, eskela batean oinarritzen den narrazio laburra dugu “Beti gure bihotzean”. Eskelaren bidez dakigu protagonistak noizbait maite izan zuen gizona hil egin dela. Eskelaren bidez ere maitale izandakoak emaztea eta seme-alabak zituela. Eta bestelako zertzeladek –maitaleak irilatik ihes egin, aberastu eta protagonistari (eta bere familiari?) txeketa bidali izana eta abarrek, zeinak maitale izandakoen klase ezberdintasunaren arteko gatazken berri ere ematen duenez dute narrazioa are gehiago korapilatuzeko besterik balio. Bukaerako “ustekabeen agertuz gero” zer gertatuko ote zen gogoeta egiteak ere konponbide gutxi eskaintzen du, ustekabe hitzak berak irakurlearen ustekabearekin bat egin nahi ez badu behintzat.

Atearen atzean, Antton Kazabon

Beste adibide bat gazte literaturako Antton Kazabonon *Atearen atzean* (Elkar 2007) liburuan aurki dezakegu. Narrazio luze edo nobela motz honetan, Iraitz neska protagonista bera baino hogeitaz zaharragoa den Josu irakaslearekin nola maitemintzen den biltzen da, lehenengo pertsonan kontatua. Amaieran, ordea, ezusteko batek narrazioaren haria erabat irauliko du. Manu Lopezek liburu horren gainean egindako kritika-iruzkineko hitzak hona ekarriz:

“Tarteka polemika piztu duen gaia aukeratu du oraingoan egileak: irakaslearekin maitemintzen den ikaslearena (...) Istorioaren garapenean, ordea, ez da polemika horren aztarnarik erakusten; aitzitik, zentzu onaren eta gizalegearen bidetik joaten dira kontuak, gaiak gazteengan eragin dezakeen morboa gorabehera (...) Neska amets horretatik esnarazteko modua izan da bitxia iruditu zaidana: irakasle grisez betetako institutu batean, noizbait irakasle berria eta besteak baino gaz-

teago eta hurbilagoa iritsi, eta homosexuala izan behar. Eta ordura arte adin diferentzia, ikasle-irakasle harremana eta, beste neskarentzat arazo izan ez baziren ere, orain Josuren homosexualitatea erabateko tabu gisa agertzen zaio (...) Korapiloa askatzeko irtenbide horberik izan zitekeelakoan nago.”⁵

Niri dagokidanez, gogoeta horrekin erabat ados nagoela esan behar eta bestela, erreparatu nola kontatzen duen protagonistak Josu irakasleak eragindako ezustea: “Nik uste, gimnasioaren atearen atzean mutil hura horrela musukatzen ikusi zintudan unean, bizitzeko gogoia hantxe bertan galdu nuela. Joder! Joder! Joder! Txikituta utzi nauzu, joder!”. Eta hemendik aurrera, pare bat topiko eta beste hainbat klixex: “ezin dut borrokatu! (...) Beste neska batekin izan balitz, infernuko eta zeruko sorginkeria guztiak nireganatuko nituen, zu nire besoetan errenditu arte.” Eta gisa horretan jarraitzen du: “Zure izaera ezin dut aldatu. Amari esan zioten bai, moderno eta arraro samarra zinela. Ni bakarra ote naiz munduan horretaz ohartu ez nintzena? Nire lagunek ere ba ote zekiten homosexuala zinela?”.

Ikusi ditugun bi adibide hauetan, ezusteko eta ustekabeko amaierak lortzarren agertzen diren gay pertsonaiak artefaktu literario soil gisa agertzen dira. Pertsonaia horiek gay izateak narrazioaren amaierarekin zerikusi gehiago du, pertsonaiekin eurekin baino. Kasurik onenean, ezuste eta bilakaera narratiboaren atzean pertsonaia bat gay izateak irakurleari ezustea sorraraztearen gaineko gogoeta egon daiteke, “ez da zuk uste zenuena”, “zergatik ezin du bada irakasleak edo maitale ohi ezkondu seme-alabadunak gaya izan?” edo “zergatik harrapatu zaitu honek ezustean?” irakurleari aurpegiaratu. Edonola ere, gehienetan ezustearen aurretik edo atzetik pilatzen diren gogoeta estereotipatuak edo are, ustekabe narratiboa horrela planteatzeak pikutara bidaltzen dute irakurketa molde hori. Izan ere, zergatik

bildu, bestela, narrazioaren mamia eta gakoa pertsonaia bat ezustean eta inortxok ere espero gabe-edo, gay izatean edo ez izatean?

Azken-azken orduko ezusteko amaierak alde batera utzita ere, nobela batzuetan une jakin eta zehatzetan pertsonaia baten joera homosexuala ustekabean azpimarratzeak hari narratiboak are gehiago korapilatzeako balio du, eta nobelako argumentuaren garapenean inflexio puntu bilakatu daiteke. Hona hemen beste bi adibide:

Gure Gauzak S. A, Ur Apalategi

Gure Gauzak S.A (Utriusque Vasconiae 2004) nobelari Julene protagonistak Gaston Berrizar idazlearen iragana ikertzen du. Eta ezustean ohartuko da Berrizarrek ezkututzen zuenaz: “[Berrizar] Euskal Herritik ihesi Parisa joatearen arrazoiak ez zuen, inkestaren bitartez Julene susmatzera iritsi zena berretsiz, zerikusirik 1938ko egoera politikoarekin. Garai hartan hemeretzi urte bete zituen Berrizar gazteak André Gide idazle frantsesaren *Les nourritures terretres* irakurtzearekin bat bere homosexualitatearen kontzientzia hartu zuen, edo behinik behin, aurretik nolabait zekiena bere buruari aitortu zion”. Hemendik aurrera jakingo da idazle ezezagun horrek Thierry Castaldi izeneko gizona maitale bat izan zuela gaztarotan. Eta atzerriko maitasun istorio korapilatsu hori dela eta (arrebaren bisitaren aurrean lagun itxurak mantenduz, amaganako eta maitalearenganako maitasuna ezin partekatuz eta ama gaixotu ostean bere buruaz beste egiten saiatu ostean), protagonista jabetuko da Gastonek bere nobeletako bat eskaini ziola Thierry maitale ohiari.

Baina nobelako Julene ikertzaileak Berrizarren ezusteko iragana ez ezagutaraztea erabakiko du. Gehiegizkoa litzateke-eta, nonbait, beti ere fikzioaren eremuan noski,

euskal literaturako kanona iraultzeko bidean dagoen Berrizar idazle ezezagunaren iraganeko joera homosexualak ezagutaraztea.

Lehen esan bezala, bilakaera narratibo horiek gertaera horiexek kritikatzeko saiakera izan daitezke edo izango dira, baina zoritxarrez, batzuetan kritika molde batzuk antzu gelditzen dira bilakaera narratiboari dagokionez.

Mutuaren hitzak, Hasier Etxeberria

Gay pertsonaiak ustekabean agertzen diren beste nobela bat Hasier Etxeberriaren *Mutuaren hitzak* (Susa 2005) da. Nobelaren hasieran gorpu bat aurkitzen dute Baztan aldeko erreka baten inguruan eta hilketa bat delako susmoa hartuta, hilketa hori argitzen saiatuko da Damian Arruti protagonista. Horrela, eta bestelako trama narratibo batzuk tarteko, Damianek Joaquin Aldaz pertsonaia ezagutzen du eta emakumez misoginoki hitz egiten ari den elkarrizketa batean, “nik nahiago dizkiat, aunitzez ere, gizonak” aitortuko dio Joaquinek Damiani. Gay pertsonaiei ematen zaien testuingurua eta jokamoldea aztertzea izan daiteke gay irakurketa batera hurbiltzeko bide bat, eta gayei buruzko diskurtsoa ezinbestean aztertu beharko litzateke. Girotzen joateko, oso esplizitua den aipu luze bat:

“Eta bere bizkarrean zintzilik zeraman besoak pisu harrigarria hartzen zuela sentitu zuen, lehenago ez bezala. Dardaratze sotil hura ere nabaritu zizun gorpu-tzean Joaquinek.

–Ez hadi kezkatu, Damian, nire gose guziak apalduak dituk ja. Segur haiz nerekin. Goizegi sortu ninduan gauza onerako.

Hitzik aurkitu ezinda, homosexualitatea norberaren gauza dela esan zenion. Zuri emakumeak zaizkizula laket, eta besteren kontuak ez direla zureak. Politikoki zuzena izan nahi zenuen gizonarekin. Eta barre egin

zizun berak. Algara zabal batek egin zion ihes. Ohar-
tzen zinen gizon hura futitu egiten zela bere homose-
xualitateari buruz zuk eduki zenezakeen iritziaz. Futitu
egiten zela gainerako guztiek eta munduak bere osota-
sunean gai horretaz eduki zezaketen irudipenaz:

-Damiantxo, Damiantxo -hasi zitzaizun-, beran-
duegi duk hi nitaz deus entenditzen hasteko, nik bizi
izan ditudanez jabetzeko, bi gerra tartean. Hetsi begiak
eta pentsatu, ni bezalako gizon bat, hemen Elizondon,
orain dela hoge, hogeita hamar urte, berrogei urte.
Lerden eta sasoineko. Erradak zer ikusten duan begiak
hetsita. Kontatu inguruko eliza eta gurutze guziak.
Erradak zer bizimodu behar zuen izan nire irudiko oilo
koloka batek horrenbertze oiloren artean.

Eta Luis XVI tankerako besaulkietan esertzen
zineten bitartean, jabetzen hasi zinen bazitekeela zurea
baino bizimodu negargarriagorik ere izatea munduan.

Orduantxe etorri zitzaizun ustekabeko
erantzuna:

-Bertze guziak baino gehiago oilartuz!

Eta zurrut egin zion Joaquín Aldazek kopari.”

Pasarte luze honetan asko esaten zaigu Joaquín per-
sonaia gayaren jazarpenaren (“ni bezalako gizon bat, he-
men Elizondon, orain dela hoge, hogeita hamar urte,
berrogei urte”) eta kontzientzia hartzearen eta borrokaren
inguruan (“Bertze guziak baino gehiago oilartuz”). Nola-
bait, gay pertsonaiei egotzi izan zaien bazterkeria bere
eginez, baina aldi berean, urrats bat gehiago emanaz, baz-
tertuaren harrotasuna aldarrikatuz.

Era berean, eta nobelako tramara itzuliz, Joaquínin bi-
dez eta ustekabeen jakingo du Damianek hildako pertso-
naia ere, Senpe, gaya zela: “Itxurak, itxura, ni bezalako oilo
koloka huen Senpe ere. Zer uste duk hik, oraiko jendearen
baizik ez dela gu bezalakoon kontua? Halaxe uste duzue
dena, zeuek ezagutu duzuen artio, ez dela izan ja ere

munduan. Adan⁶ halakoak!”. Jarraian, irakurri duenak badaki eta irakurri ez duenak barka diezadala tramaren muina agerian uztea, krimen horren atzean Joaquin bera ezkututzen dela jakingo dugu, arrazoiak ere aipatzen diren aitortza baten bidez:

“Zer inporta zaik hiri Senpe zaharra? Ze inporta nik harekin izandakoak? Basurde izitu bat huen, nirekin egon izanaz damutua. Zer egin behar nian, Iruñerat edo Donostiarat joan maritxu bila? Nik gizonak maite dizkiat, badakik hori lehenagotik, gizon egiazkoak eta mendikoak. Senpe bezalakoak, gizon ez direla uste izateak izitzen dituen horietakoak. Zertako behar zian hasi izokinen kontua barrandan hedatzen? Zertaz ez zian sekula onartu nire konfiantza?

–Horregatik hil huen, beraz.”

Aitortza honekin ezustean eta ustekabean argitzen da liburuko hilketaren trama nagusia, eta pasarte horretatik ondorioztatu daiteke, Senpek Joaquinen zereginetan murturra sartu bazuen ere, hilketa gauzatzeko arrazoi nagusia bi pertsonaia gayen arteko ezinezko maitasun istorioa dela. Bide batez eta inork espero izan gabe, hilketa bi gayen arteko krimen pasional gisa aurkezten da.

Azpiatal honekin amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi beste pare bat adibide: Juan Luis Zabalaren *Inon Izatekotan* (Susa 2006) liburuko “Llueve desde Carabanchel” ipuina edota Felipe Juaristiren *Etxearen negarra* (Elkar 2007) nobela.

Aurrenekoan Xabier protagonistari Arcadiok gutun bat idazten dio “Creías que me habías olvidado? Pues no. Nunca dejaré que me olvides” hitzekin. Hortik aurrera protagonistak Arcadiok eta berak elkar ezagutu zuten eguna gogoratuko du, modu oso sotilean elkarren artekoaren berri emanaz. Narrazioaren amaieran beste ezuste bat biltzen da, Arcadio espetxean baitago (hortik izenbu-

rua), baina, hala ere, Xabierren azken esaldian itxaropen izpi bat biltzen dela ezin uka: “Handixe igorri dit lehorte luzearen ostean hain premiazkoa nuen zaparrada pizgarri hau” (bere horretan izenburua osatuz, eta itxiz).

Felipe Juaristiren *Etxearen negarra* nobela umoretsuan, bigarren mailako bi pertsonaia gayak direla jabetuko gara orriek aurrera egin ahala. Tito Arruabarrenazuazolazigorragaastigarraga eta Eulogio Sagastizarbarrenabitorea pertsonaiak elkarrekin loturarik gabe agertuko dira narrazioaren hari banatan, baina apurka-apurka, elkarrengana hurbildu eta azkenean beraien artekoa azaleratu egingo da: “Ezagunak ziren lehendik, nonbait, edo Titok, bestela, Eulogioren ezagutza bilatzen zuen, Eulogiok Titorena bezala, denbora osoa elkarri begira eta hizketan eman baitzuten, irribarre eztsuan”. Eta apenas lerro batzuk beherago: “Tito eta Eulogio biak batera atera ziren, Titoren eskua Eulogioren sorbaldan, edo Eulogioren sorbalda Titoren eskuan ipinita, ez dakit”. Zalantzarik gelditu bada, orri batzuk beranduago berriro alde egingo dute elkarrekin: “Tito eta Eulogio, zuriz jantzita biak, elegante biak, maiteminduta biak”. Egia esan, nobela honetako bi pertsonaia gayak urrun agertzen dira Romeo eta Romeroren istorio behin eta berriz errepikatuetatik. Urrunegi gauza onerako, estereotipoak irauli bai, baina bestelako estereotipo batzuei bide emanaz.

Esan bezala, aurreko adibideetan ustekabeek eta ezusteek ipuinaren edo nobelaren garapen narratiboaren baitan garrantzia handia dute, eta pertsonaia bat gay izatea bilakaera narratiboaren zati izango da. Era berean, irakurleari nolabaiteko gatazka edo kezka sortzea ere egon liteke bilakaera narratibo hauen atzean. Baina islatu nahi diren gatazkak azaletik eta bilakaera narratiboaren menpe agertzen badira (gidoiak horrela eskatzen duelako, justu momentu horretan), gatazka guztiak antzu bilakatzeaz gain,

alderantzizko eragina ere sortu dezakete; irakurlearen eta pertsonaien artean distantzia gehiegi ezarri eta ondorioz, irakurlea irakurtzen ari denarekin ez inplikatzearagitea, hain zuzen.

Esanezinak agerian

Pertsonaia gayak ez dira, ordea, ezustean eta uste-kabearen soilik agertzen gure literaturan. Norbaitek esan dezake ez genuela besterik behar, baina egia esan, protagonista gay baten inguruko tematikaren inguruan narratiba serioa egiteko saiakera handiegirik ere ez da egon duela gutxira arte. Hala ere, hona hemen hainbat adibide:

Ezinezko maletak, Juanjo Olasagarre

Ezinezko maletak (Susa 2004), beste ezer esan aurretik, nire ustez Euskal Herriko gay jakin eta zehatz baten problematika sakonkien jorratzen duen liburua iruditzen zaidala aitortu behar dut. Liburuaren hari nagusia Carlos, *Bazter* ezizenez, pertsonaia gayaren nortasun bilakaeraren nondik norakoa kontatzean datza. Eta harrigarriki, nobelaren abiapuntua pertsonaia honen heriotza da: “He died last night” (garbi gera dadin, nobela lehen lerrotik hasita behin eta berriz, errepikatuko den esaldia). Protagonista, beraz, hasieratik hilda agertzen da eta hemendik aurrera, pertsonaia horren berri bere lagun bidez jakingo dugu: bere barne gatazkak, iraganeko kontu ilunak, Londresera arnas bila egindako bidaia, euskaldunen eta atzerritarren arteko talka, heteroen eta giroko jendearen arteko hartu-emanak...

Protagonistaren gaytasuna ez da liburuko gai bakarra, hor ditugulako ETaren inguruko hainbat kontu, beste pertsonaien gorabeherak... Baina kontua da gay perso-

naia eta bere ingurunea bilakatzen direla nobelaren ardatz, eta egiazki, euskal gay baten problematika zehatza planteatzen da bertan. *Bazter* ez da besterik gabe Londresera bizitzera joan den gay bat. Pertsonaia honek bere sexu-aukeragatik arazoak ditu bere ingurune hurbilenean eta bere erara, aurre egiten die arazo hauei. Bestetik, protagonistaren nortasunaren garapenaren inguruko pasarteak egoki eta neurritz egituratzen dira, topikoetatik urrunduz edo nahi bada, topiko zilegizkoagoetara hurbilduz: «Eta zu noiz ohartu zinen» galdetu zion Marckek Carlosi, bi homosexualak intimatzen dutenean egin ohi dutena eginez”. Hari horri tira eginez, gertaera batzuk sinesgarritasun erabateko agertzen dira, *Bazterrek* bere sexu-joeraz ohartzen denekoari buruzko pasarteak kontatu ondorengo Marcken erantzuna, adibidez: «Ohartzeko modu berezia» esan zion Marckek. «Homosexual gehienak gizonetikiko desioa sentitzen dutenean ohartzen dira homosexualak direla, ez iraultza hitza entzutean». Orri batzuk beranduago, gai honekiko beste gogoeta interesgarri bat: “Artean ez zekien izenik paratzen Harakinek sortzen zionari, eta beharbada izenik ezak berak are gehiago asaldatzen zuen; «izena ezartzeak gauzak mugatzen baldin baditu ere aztergarri egiten ditu, eta aztergarri diren neurrian kontrolagarri» argituko zion Marckek, atzerritar, edo besterik gabe, ezberdin izateari buruz mintzatu zitzaionean”.

Ezinezko maletak liburuaren oinarrian jorratzen den beste gai garrantzitsu bat herriaren eta hiriaren arteko amildegiaren gaia da. Alde batetik, protagonistak jaioterriatik atzerriko hiri batera ihes egiten duelako, ihesaren bitartez bere nortasuna sendotu eta garatzeko. Hari horri heltzen dio Aingeru Epaltzak Olasagarreren nobelaren gainean idatzitako iruzkin kritikoan: “Halako giro itogarrian, ezinezkoa da norberaren nortasuna agertzea, homosexual izatea, konparaziorako, liburu honetako protago-

nista nagusi Bazterren kasuan bezala”⁷. Eta bestetik, *Bazterren* heriotzaren ondoren jaioterriko adiskideek eta atzerriko hiritarrek aurrez aurre egingo dutelako topo, herriaren eta hiriaren arteko amildegiaeren artean zubi bat eginez. Liburuan gai honen inguruan hainbat aipu eta gogoeta interesgarri aurkitu badaitezke ere, bat aukeratu behar:

“(…) *indeed* azpimarratuko zuen Marckek, hiritarrak eta herritarrak bereizten zituena, herritarrei background bera suposatzen zitzaizela eta orduan background horrek berebiziko garrantzia hartzen zuela, bazterkeriaren irizpide izateraino eta aldiz hirian denek zutela background desberdina, eta horregatik background horrek garrantzia galtzen zuela onargarritasun irizpide gisa.

«Gizajoa» errukitu zitzaion gero, Marckendako berez baitzeuden kontraesanean homosexualitatea eta herriari bizitzea (...)».

Nire ustez, nobela honetan gayak eta bestelako pertsonaiak ez dira euren karakterizazioaren txotxongilo (ezustek bestelako trama eta kontuetan ezkututzen dira), eta gainera, nobelak dituen hari narratiboak euren artean korapilatuko dira, askatuko diren jakin gabe ere, irakurlea aurrera egitera eta gogoeta egitera gidatuz. Tartean, *Bazterren* garapen sexualak eta gaytasunak ere garrantzia izango du, nola ez, baina guztia ez da horretara mugatuko, ezta gutxiago ere, literatura eta gai jakin batzuk kalitatez eta interesez uztartu daitezkeelako erakusle baita *Ezinezko mailetak*.

Bat, bi, Manchester, Irati Jimenez

Bat, bi Manchester (Elkar 2006) beste protagonista gay bat agertzen den nobela laburraren izenburua da. Kontrazalean aurreratzen da zer narratuko den orriotan:

“Ezinezko amodio baten kontaketa (...) Batetik, itzul-tzaile diharduen baina idazle izan nahiko lukeen kontalaria dugu: homosexuala, uzkur samarra, porrot batetik atera berria; bestetik, Aitor: dena beti hain erraza izan zaion mutil guapoa, aktorea, heterosexuala”. Ez dago ezusterik edo ustekaberik, ez oraindik behintzat. Era berean, eta kontuak argiago uzteko, nobela hasieran elkar ezagutzen duteneko eszena:

«Euskalduna zara?» galdetu zenuen. «Tamalez» erantzuteko gogoia sentitu baina irentsi egin nuen. Azken baten, ez zen zure errua ni Manchesterren abandonatuta sentitzea. Haraino erakarri ninduen mutil-laguna ahazteko errezeta baten bila, garagardo beltzetan galduta. Eskua luzatu eta epel-epel zeurea estutu nuenean, neure barruko amorrua baretzen sentitu nuen.

–Euskalduna, bai –egin nuen hasperen, hezurretaraino mozkortuta–. Eta homosexuala.

Begira-begira geratu zinen. (...) Aitor naiz esan eta, sekretuak kontatzen diren ahotsarekin, heterosexuala gaineratu zenuen, bekatua aitortuko bazenit bezala”⁸.

Nobela honetan protagonistak izaten duen *fletxazotake* baten eraginez ezinezko maitasun baten kontaketari ekiten dio, lehenengo pertsonan. Eta zinez, ezinezko (edo agian, ez hain ezinezko) maitasun baten kontaketa bada ere, protagonista gay izateak *bestelakotasuna* erantsi nahi dio kontaketari, eta halaberharrez eransten dio, bestekotasun hori muturrerainoegi eramanez. Pasio sufrimendu orotan ezinbestekoak diren flajelazio eta guzti, gainera; adiskidearekin itsuki maiteminduta egon eta hori ezkutatzen saiatu arren, elkarrekin joango direlako bizitzera, eta abar... Hasieratik banatzen dira pertsonaien paperak nobelan: bata sufriarazlea, sufritua bestea. Liburu honi eginiko kritika iruzkinak aintzat hartuz, Aritz Galarragak honakoa dio: “Eta homosexualaren estereotipaziorako

manualak dio berezko joera dutela heterosexualez maitemintzeko, joera etengabeko desesperazio egoerak bizitzeko”⁹. Irakurritakoari gehitu Ibon Egañak bere kritikan esandakoak: “heteroez esperantzarik gabe maitemintzera eta frustraziora kondenatuta irudikatzen da mutila narrazioak irauten duen denboran”¹⁰. Erantsi orain *Bat, bi, Manchesterreko* pasarte han eta hemen aipatuena: “idatzi gabeko nobelak eta lortuko ez dituzun heterosexualak. Frustrazio iturri amaigabea dira”. Baina ez, ez dut nobela honen amaiera izorratuko, bestelako ezaugarri batzuetan jarriko dugu begia.

Izan ere, eta konparazioak gorrotagarriak izan arren, harrigarria da Jimenezen *Bat, bi, Manchester*-ek eta Olasagarreren *Ezinezko mailetak*-ek, jorratzen dituzten hainbat gai erreparatuz bederen, elkarren artean dituzten antzekotasun tematikoak eta berauek jorratzeko ikuspuntu ezberdinak. Gehiago edo gutxiago, bietan ageri da protagonistak bere nortasuna bilatu, aurkitu, garatu eta bere egiteko beharra. Eta esan bezala, protagonisten sexuizaerak eta nongotasunak indarra dute bi liburuetan, maila oso ezberdinean bada ere. Gainera, biak kokatzen dira, nagusiki, atzerrian. Baina bakoitzak atera beharko ditu bere ondorioak, gai beraren trataeraren inguruan bi liburuen artean dagoen tartean. Izan ere, ez da kasualitatea aztertzen ari garen literatur lanen baitan hiri batera atzerriratzen den gayarena gai agertzea. Izatez, oso gai erre-kurrentea baita gay izateagatik atzerrira askatasun bila joaten den protagonistaren gainean eraiki diren liburu, film eta bestelako sorkuntza lanetan. Orintsu, 2009ko Berlinalean aurkeztu eta Roberto Castonek zuzendu duen *Ander* filmean ere, nahiz eta ikuspegi aldetik gaiari buelta eman nahi izan, etorkin atzerriratua izango da Ander pertsonaiari begiak irekiaraziko dizkiona. Bestalde, film honetan ere, herria eta hiriaren arteko gatazkak garrantzia

dauka, hiriarri herria kontrajarriz, gertaerak herri txiki eta itxi batean jazotzen diren neurrian.

Morto Vivace, Jon Arretxe

Jon Arretxeren *Morto Vivace* (Elkar 2007) nobela ere atzerrian kokatzen da, Parisen. Genero beltzeko pertsonaien ohiko arketipoetan oinarritutako Perrot eta Martinez inspektoreek hilketa bat argitu behar dute. Hildakoa Biarritzeko opera-koruko kidea da eta koruko partaide jakin batzuen inguruan zentratuko da ikerketa. Izan ere, liburuko hasierako pasarte batean, hildakoaren gorpuari autopsia egin ondoren, honakoa irakur dezakegu forentsea eta inspektoreen arteko elkarrizketan:

“-Armak eragin dizkion zauriak gorabehera, mutilaren esfinterra ez zen guztiz ohikoa.

-Zer esan nahi duzu?

-Pixka bat dilataturik zegoela. Horrez gain, orbaintxo batzuk ere ageri ziren, eta ondorioa argia da: ez zen birjina, behin baino gehiagotan... zulatuta zegoen.

-Zulatuta? -itaundu zuen Martinezek.

-Zakilez zulatuta-bota zuen inspektore beltzak, zakar-. Mutil hau marikoi praktikantea zela esan nahi digu Manixek.”

Hortik aurrera ikerketa gorabeheratsua abiatuko da. Argumentuaren garapenean bi inspektoreak hainbat gay ezagutuko dituzte eta gay giroan ere mugitu beharko dute. Dena dela, eta generoaren eta protagonisten karakterizazioaren beharrei atxikita, gayei buruzko adierazpenak ere halakoak dira, eta gehienek estereotipo eta klixé gaitzesgarriekin dute zerikusia: artisten artean gay gehiago egotearena (“Sumatzen nuen nik musika munduan tximeleta askotxo zegoela, baina honenbeste...”); txiste errazak, (adibidez, batakoruko “vibrato”a zer ote den galdetzen

duenean, besteak “Ideiarik ez, marikoien tresnaren bat?” erantzutea); klixe ironiko gehiago (“lumadun horiek oso sentiberak izaten dira”); *outing*-aren beldurrez bizi den pertsonaiaren kasua (“Ez diozue inori esango, ezta?[...] Ni ere... gay naizela.”) eta abar. Era berean, nobelaren amaierak, eta arma hiltzailearen nolakotasunak ere, aurreko hori bera berresten dutela deritzot, eta ez ahaztu hilketen xehetasun eta ezaugarri guztiez.

Beste pasio-krimen bat ezkututzen delako *Morto Vivace* nobelaren orrietan, osagarri guztiekin: hilketa bitxiak, ze-loak, inbidiak, txantajeak... Pasio-krimen bat, aurrez aztertu dugun Hasier Etxeberriaren *Mutuaren hitzak* nobelan bezala, baina gure aztergaia oraindik eta tematikoagoa izanik, agerikoagoa. Ustekabeak argumentuaren baitan ezkututzen direlako, eta pertsonaia bat gay izatea ala ez, ez delako korapiloa askatzeko muina. Edo akaso bai? Hain justu hiltzaileak bere hilketa aitortu (genero beltzean ohi bezala, hiltzailea bigarren planoan mantentzen delako azken unera arte) eta hilketaren arrazoiak jakiten direnean? Are, bat-batean hiltzaileak bere buruaz beste egiten duenean arma hiltzailea bere bihotzean sartuta, krimena are tragi-koago eginez?

Liburu honen harira Beñat Sarasolak idatzi zuen kritikan aztertzen ari garen gaiaren inguruan esplizituki honakoa esaten bazuen ere, “nobela zeharkatzen duen gaietako bat homosexualtasuna da, eta inpresioa dut, oro har, gaia onkerian eta politikoki zuzenaren topikoetan erori gabe tratatzen asmatu duela, zeina bidenabar, ez baita oso ohikoa eta erraza”¹¹, nago ikusi ditugun adibideen arabera nahiko ohikoa dela Sarasolak Arretxeri egozten dion gaiarekiko trataera. Egia da, bestalde, teleserieetako bazka diren alusio homosexual asko eta asko Sarasolak salatzen duen onkeria eta politikoki zuzenaren bidera lerrokatzen direla, baina tira, ez da hemen aztertu ditugun lanen kasu ohikoa bederen.

Sua falta zaigu, Katixa Agirre

Atentzio berezia merezi duen beste narrazio bat Katixa Agirrerren *Sua falta zaigu* (Elkar 2007) liburuko “Hirugarrenik Asier” izenburudun narrazioa da. June narratzaile protagonistak Hanburgoko atzerritik Gasteizko jaioterrira eginiko itzulera kontatzen du, itzuleraren arrazoietakoa bat bere betiko lagun Asier ere atzerritik itzuli izana dela aitortuz: “ez dut ukatuko: nire jokaera horren atzean, guzti horren inspirazioa, sustatzailea, zirikatzailea, pertsona bat: Asier, nire adiskidea, nire lagun guztien artean bereziena”. Eta jarraian, harreman berezi horren nondik norakoak jasotzen dira: “Asierrek, niretzat, ez zuen inoiz –modako esamolde itsusi horren arabera– armairutik irteteko beharra izan. Mutilak gustatzen zitzaizkion, niri bezala. Eta hori argi zegoen gure haurtzarotik. Halako batean neskak gustatzen zitzaizkiola esan izan balit, orduan bai hartuko nuela susto galanta”.

Ondoren, Junek euren gaztaroa gogoratuko du, beti ere Asierren gay bizipenetan oinarrituz: institutuko garaiak, arreba ezkontzan “homosexuala” dela esateko muntaturiko zirku histrionikoa barne eta gay giroko tabernetan bizitakoak ahaztu gabe. Honaino ustekaberik ez, iraganeko gertaera hutsak. Baina bat-batean, Asierrek sorpresa bat duela jakinaraziko dio Juneri: ezkondu egin behar du. Eta hemendik aurrera, gauzak okertzen hasiko dira: “Inbidia da sentitzen nuena? Jeloskor ote nengoen? Ezinezkoa. Orduan zergatik edan nituen bi garagardo jarraian eta hirugarren bat gero? Zergatik galarazi zidan loak frak batez jantziriko Asierren irudiak?”.

Junek hipotesi jakin bat garatzen du ezkontzaren arrazoiak zehatzeko: Asier, bere maitale atzerritarrak behar dituen paperengatik doa ezkontzera (atzerriratua den gaya, oraingoan “paperik gabekoa” gainera). Baina hipotesi hau antzu geldituko zaio, ezkontza gonbidapenaren bidez

jakiten duenean Asier Begoña izeneko emakume batekin ezkonduko dela. Toma! Eta noski, Junek ezin du ezabatu gaztetan Asier eta bera bikotekideak zirela uste zuen jendearen esamesek sortzen zioten halako zeraren nostalgia hura. Baina benetan Asier emakume batekin ezkontzea ez du sinesten, nahiz eta Asierrek berak berehala argitu:

“–Badakit aldaketa handia dela, ez nekien oso ondo nola azaldu, ez zuri ez inori... imajinatu zer izan den hau guztia onartzea, baina, June... zinez maitemindu egin naiz, inoiz ez bezala. Orain arteko, gizon horiek guztiak, Gerard bera ere, ez ziren ezer, ezer ez honekin konparatuta.

–Ikusten dut –esan nuen.

–Begoña da... nire bizitzan maite izan dudana emakume bakarra. –Ziurrenik ez zen konturatu zenbaterainoko mina egin zidan erantzun horrek–.”

Beraz, beste hipotesi bati helduko dio Junek, Asier diruagatik ezkonduko dela argudiatuz, delako Begoña hori hiltorian dagoen adineko emakumea bailitzan. Baina ezkontza egunean June protagonistaren pentsaeren patetikotasuna inoiz baino nabariago geldituko da, eta patetikotasun hori muturreraino eramango du Junek narrazioaren amaieran egingo duen antzezpenean.

Narrazio honi puntu honetarainoko disezioa egitearen arrazoi nagusia “Hirugarrenik Asier” alderdi askotatik aztertu daitekeela da. Batetik, orain arte han-hemenka agertu zaizkigun pasarte narratiboetan aurkitu ez dugun bilakaera tematikoa biltzen delako Agirreren ipuinean. Gay deklaratu eta bere ingurune hurbilean onartua, bizitzako une batean emakume batekin maitemindu eta berekin ezkontzera doanaren kontaketa, bere betiko adiskide emakume heteroaren eskutik. Eta bestetik, ezarritako klixeen arteko borroka nabarmena delako: Asier gay izatea onartu arren, ezkontzaren arrazoa maitale etorkinaren

paper beharrarekin arrazoitzea; emakume batekin ezkondu behar duela jakindakoan, diruagatik ezkonduko dela suposatzea; narrazioan kontatzen diren bi ezkontzen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak... Izan ere, zein da June protagonistaren oinazearen arrazoa? Asier emakume batekin maitemindu eta emakume hori June bera ez izatea, akaso?

Narrazioko gertaerak irakurleri sinesgarriak ez begitantzeak ez duelako bestelako gogoeta sasi-teorikoetan erortzea galarazten. Adibidez, eta beste guztien artean bat gehiago den interpretazio bat izan daiteke hetero eta gay paperak irauli egiten direla narrazio honetan. Izan ere, *gaytasunaren* gaia liburuetan agertzen denean alderantziz izatera ohituta gaude, hau da, hetero deklaratu eta onartu baten bat-bateko armairutik irtetearen kontra, edo are gehiagotan, armairuan jarraituz bere *bestelakotasunaren* berri izatea. Hemen alderantziz gertatzen da, eta kontuak izan dezake homo eta hetero etiketak irauliz, etiketa guztiak iraultzearekin zerikusirik (nolabait esatearren, eta barka konparazioa, kalean noizbait ikusi dudana “Yo también soy heterosexual” kamisetetako sloganaren bidetik). Edo ohituta gauden ezinezko maitasunaren protagonisten rolak aldatzearekin lotura estuagoa izan dezake (*Bat, bi, Manchester* nobelako protagonistak eraldatuz, adibidez). Baina batek daki, ezen narrazioaren baitan jazotzen diren gertaera sinesgaitzek, klixeen gehiegikeriek eta bestelako gogoetek difuminatu egiten dute narrazioaren ondoren gogoeta egitea. Eta batek daki ere, ipuinaren atzean ezkutatzen den funtsezko asmoa narrazio honetatik gogoeta argi bat ateratzea baino, gehiegikeriez jositako umore apur batekin uste eta suposizio guztiak iraultzea ez ote den izan, irakurleri une atsegin bat eskainiz. Auskalo.

Dena den, liburu honek izan dituen kritika ugarietan ipuin honek ere ez ditu, hain zuzen, laudorio gehiegi jaso.

Galarragak “Moteltxoagoa iruditu zait, *Hirugarrenik Asier*, bertan azaltzen den istorioa sinesteko lanak izan baititut, bortxatuegi geratu baita gertakizuna”¹² idatzi zuen bere iruzkin kritikoan. Jon Kortazarrek¹³ eta Mikel Asurmendik¹⁴ ere zalantzak agertzen dituzte narrazio horren gaineko euren iruzkinetan. Azkenik, Gema Lasartek eginko iruzkina dugu: “Hutsuneak muturrera eramateak ere baditu bere arriskuak, ordea, eta *Hirugarrenez Asier* ipuinean, horrekin jokatuz jauzi handiegia egin eta protagonista homosexuala heterosexual bihurtzen digu, azken kolpea lortzeko. Bukaerak badu indarra, baina sinesgarritasuna erabat galtzen du”¹⁵.

Ageritik ezkutura: berriro armairura

Egin dezagun orain zenbaketa antzu bat, aztertu ditugun narratiba lanetan hiltzen zaizkigun gay protagonista edo pertsonaia nagusiei erreparatuz: *Dioramakeko* “Beti gure bihotzean” narrazioko eskela errebelatzaileko hildakoa; *Mutuaren hitzak* nobelako gaztetako maitale ohiak hildako Senpe zaharra; *Ezinezko maletakeko* Bazter protagonista hilik ageri da hasiera-hasieratik; eta *Morto Vivacen* hildako bat ez, bortizki zulatutako hildakoak ditugu. Hori heriotzei dagokienez. Bestetik, “Llueve desde Carabanchel” ipuineko Arcadio pertsonaiak bost urte daramatza espetxean preso. *Atearen atzean* liburuko protagonista gay izateak badirudi trauma bat sortu diola protagonista neska gaztetxoari. Eta jarrai nezake ezbehar, zoritxar eta tragedia gehiago zenbatzen, edo horrela Rikardo Arregik erabilitako *tremendismo* hitzari esanahi gehiago erantsi, aztertutakoak ematen baitu horretarako. *Etxearen negarra* liburuko hirugarren mailako pertsonaia gay *guayak* ere hor ditugu, eta Romeo

eta Romeoaren istorioak bestelako bariazio batzuk izan arren (*Bat, bi, Manchester-etik Sua falta zaigu*-ko “Hirugarrenez Asier”-eraino), ezinezko maitasunaren gaiak gogor egiten du tira.

Baina tira, egia esan, Adrián Meloren *El amor de los muchachos*¹⁶ liburuko hitzak hona egokituz, literatur lanen historian zehar tragedia izan omen da gay protagonista edo pertsonaiei egokitu izan zaien generoa edo patu literarioa, eta tragedia eta tremendismo kontuak aintzat hartuz, harrigarriki, gure liburuetan badira armairu bat leporaino bete eta kolpe bakar batez ixteko moduko hainbat lerro eta pasarte.

Zehar-aipuak eta beste: zirrikituak armairuan

Eta hara non, atal honek azken puntua jarria zuela-koan, luzapen bat idazteko beharra sentitu dudana. Izan ere, aztertu gabe gelditu diren liburuen artean tremendismoaren zantzu gehiago topatu daitezkeen arren –Alberto Ladrón Aranaren *Ahaztuen mendekua* nobelan kasu–, bestelako aipu bat merezi dute Eider Rodriguezen *Haragia* (Susa 2007) liburuko “Salgai” narrazioko, Jokin Muñozen *Antzararen bidea* eleberriko eta Mikel Peruarenaren *Ez obeditu inori* nobelako hainbat pasartek.

Rodriguezen “Salgai” ipuinaren hasieran Miren protagonistari oporraldi behartuak eskainiko dizkio Markelek, ekoiztetxeko arduradunak. Eta Miren, noski, sumindu egingo da, honelako gogoetetan murgilduz:

“Mireni aberats berriek baino higuin handiagoa sortzen dion giza-talde bat badago: Markel Madina bezalako homosexual berriek osatutakoa.

Ekoizpen arduradunak homosexual berrien manerak ditu: inor baino modernoagoa, inor baino ausartagoa, inor baino atzelariagoa. Mahai gainean,

iragan bizitza bateko seme-alaben erretratuak. Bera ordezkatzera etorriko den mutikoarekin mahai azpian olgetan ibiltzeko gogorik ote duen galdetu nahi izan dio Mirenek, baina semeak zer moduz dauden galdetu dio, «Zer moduz daramate aita atzelaria izatea?» aditzera ematea lortuz.

Markelek ere txikien argazkiari behatu dio:

– Inoiz baino hobeto.”

Aipu horrek, beste ezerk baino gehiago, Miren protagonistaren barne ikuskeraren berri ematen dio irakurleari, suminez gainezka egin eta nagusiaren aurrean amorruez ereindako gogoeta hauek plazaratuz. Gainera, bertan aurkezten den gayaren perfila ere ezberdina da, orain artekoekin konparatuz. Baina guzti horrek baino garrantzia handiagoa du aipu horren interpretazioa irakurlearen esku gelditzeak. Hain zuzen, jarrera eta asmo gaitzesgarri horren atzean lana galtzearen arrazoiak pisu handia du eta muturreko egoera horretan, barne-barnean gordea zuen amorrua nolabait kanporatu egin behar. Ipuinak aurrera egin ahala, ordea, Mirenen egoeraz jabetzen garenean, bestelako zentzu bat eta guzti har dezake kontuak, neska horrek dituen arazoak kontuan hartuz.

Beste neurri batean, Jokin Muñozen *Antzararen bidea* (Alberdania 2007) nobelan ere badugu pertsonaia homosexual bat, Jesus izeneko agurea, hain zuzen (kasu hone-tan, ez naiz gay hitza erabiltzera ausartzen). Pertsonaia hau nobelaren barruko bi leku-denboretan agertzen da: “Poeta” edo “Rubio” deitzen dioten gaztea da Errepublika garaiko Trilluelos herrian; aldiz, zahartzaroan, bera zaintzeko laguntza behar duen agurea dugu eta Donostian bizi da. Gaztetan, bere adiskide min Dionisiorekin isilean maiteminduta egongo da eta berezia da pasarte hauetan zein fin eta leun deskribatuko diren Dionisiorekin zerikusia duten ekintzak, lero artean Jesusen miresmenari leku

eginez. Denborak eta nobelako gertaerek aurrera egin ahala, Dioniren eta nobelan zeharka agertuko den Igor pertsonaiaren itxura antzekotasunak lagunduta, oroitzapenen suspertu eta iraganeko gertaerak ekarriko ditu gogora. Kasu horretan, interesgarria da Jesus pertsonaiaren bilakaera kontuan hartzea, Gerra Zibilaren garaiko herri txiki batean bere homosexualtasuna erreprimitu behar izan baitu eta errepresio hori Dioniri gaztetan eginiko promesa batekin leundu nahi izan, itxaropenerako arrazoi gehiegi egon ez arren. Azkenik, gaur egungo Donostian amaituko du Jesusek, bakarrik, beste erremediorik gabe.

Bukatzeko, Mikel Peruarenaren *Ez obeditu inori* (Susa 2009) nobelari buruz pare bat hitz. Hain zuzen, inoiz esplizituki esaten ez bada ere, hainbat xehetasunek nobelako pertsonaia bat homosexuala dela pentsatzera eramán gaitzaketelako (orain ere, garaiagatik eta abar, ez dut gay hitza erabiliko). Émile pertsonaiari Emilio edo Frantsesa deituko diote XIX. mende amaierako Donostian eta apurka-apurka, Alberto estudiantearekin eta Sotero Mujika protagonistarekin duen harremanaren karietara pertsonaia bitxi honen inguruko zehaztapenak jakingo ditugu. Hala nola, Frantsesaren bi lagunek emakumeekiko duten grinak tristatu egiten duela, eta horren erakusle da Sotero emakume batekin besotik helduta harrapatzen duen eszenak pasarte batean hartzen duen garrantzia; bestetik, Parisko Komuna garaian Michelle izeneko (gizon edo emakume izena) adiskidea izango da bakarra hezurretara iltzatu bide zitzaiona; gainera, Frantsesak Soterorekin abiatzen duen harreman estuaren ondoren, Frantsesak fardel bat oparitzen dio Soterori, bertan gordea zuen Michelleren gonazpiko bakarra Soterori emanaz eta bide batez, barnean dituen mamuak lurperatu nahian (baina azkenean ez dugu jakingo fardel barruan zer zegoen, Sotero amorru aldi batean erre egiten duelako); eta azkenik,

hiru pertsonaiek asteazkenero egiten dituzten bileretara huts egiten hasiko da Frantsesa, Mr. Snoid jauna, Irlandatik etortzen zaion aspaldiko adiskidearekin egun batzuk pasatuko dituelako.

Horrela kontatuta, harri azpian ere homosexual edo gay pertsonaiak aurkitzen dituen irakurle baten traza izango dut agian, baina lerro artean eta inplizituki, Frantsesa pertsonaiaren misterio eta esanezinek bere sexu izaerarekin zerikusi estua dutelakoan nago. Zuzen eta zehatz adierazi beharrean, iradoki egiten den kontua dela deritzot eta alde horretatik, zilegi izan daitekeen interpretazioa dela ere esango nuke. Are gehiago, eskua sutan ere jarriko nuke, azkenean Soterok erre egiten duen Frantsesak oparitutako fardel horretan Michelleren gonazpikoa egon beharrean, beste gauzaren bat zegoela, Soterori Frantsesak ezkututzen duena agerian jarriko liokeen beste zerbait. Horregatik, lerro artean eta inplizituki ageri den kontua izanik, uste dut irakurleari ere ahalegin aktibo bat eskatzen zaiola, hari mutur guztiak aintzat hartu eta korapilo hori askatzeko. Eta hor ikusten dut, orain arte aztertu ditugun lanekin alderatuz, aztergai dugun gaiaren inguruko beste trataera bat, bide batez esan, askoz ere interesgarriagoa iruditzen zaidana eta bestelako ikerbideak egiteko zirrikituak irekitzen dituen. Nahiz eta nire ustez, hasieran aipatzen genuen ezusteen lizentzia literarioarekin zerikusirik ere baduen. Baina airean gelditzen da dena, edo lerroartean, eta irakurleari ez zaio mahukapean gordetzen bukaeran bat-batean denon harridurarako esplizitatuko den ezustea. Irakurlearen esku gelditzen delako irakurketa interpretazio hori.

Beraz, azken atal honetan armairutik atera eta bizitza berri bat hasi duen gay berri gorrotatua dugu, beti ere protagonistaren ikuspuntutik deskribatua. Bere garaian armairutik atera ezin eta nolabait, bizitza osoa iraganean

iltzatuta egongo den homosexual agurea ere ikusi dugu. Eta amaitzeko, XIX. mende bukaerako Donostian Frantsesa bezalako pertsonaia misterioitsua. Guztietan ere, tremendismo zantzuak topa daitezke, baina bai argumentu aldetik zein formalki ematen zaien trataera dela eta, lan hauetan bestelako korrante bat nagusitzen dela sinetsi nahi nuke, gaia lantzeko zein armairuan argia sar dadin bestelako zirrikitu batzuk zabalduz.

Oharrak

- ¹ Kortazar, J.(edit.) *Un puente de palabras. 5 jóvenes poetas vascos*, Centro de Lingüística Aplicada Atenea, Madril, 2005: 25. orr.
- ² Zaldua, I. “Hamasei aholku Erasmus Literatura idazteko”, *Volgako Batelariak*, 2009-03-06. [eibar.org/blogak/volga]
- ³ Nabal Aragón, E. *El marica, la bruja y el armario. Misoginia gay y homofobia femenina en el cine*, Egales editorial, Madril, 2007: 9. orr. Hitzez hitz, literaturak ere honako funtzioa betetzen duela dio Nabalek: “constructor de un imaginario compartido, que refleja y a la vez distorsiona o incluso (re)crea la realidad”.
- ⁴ Reig, R. *Visto para sentencia*, Caballo de Troya, Bartzelona, 2008: 264. orr.
- ⁵ Lopez Gaseni, M. “Maitasun ezinezkoa”, *Behinola* 16, 2007ko abendua.
- ⁶ Adanen irudia erabiltzen da, gaitzespenez, aurrez aipaturiko gizonak gustuko dituela aitortzen duen pasartean emakumeak Evaren irudiarekin lotzen dituen bezala. Ondorioak ateratzen hasita, norbaitek pentsa dezake gizon-emakume eta Adan-Eva irudikapen honekin aurreneko bikote heterosexuala gaitzestea beste asmorik ez duela Joaquin pertsonaiak. Baina noski, hankaz gorako interpretazio hau, egin daitezkeen beste balizko interpretazioen artean bat gehiago besterik ez da.

- ⁷ Epaltza, A. “Koadrila (ez) alegera”, *Nabarra* 2004-11.
- ⁸ Zalantzarik ez gelditzeko, bi orrialde beranduago beste eszena batean azpimarratuko dira berriro bi pertsonaien joerak-edo, zinema kartel baten aurrean batak bertan agertzen den emakumearen inguruko komentario bat egin eta besteak, gizonezkoaren inguruko komentarioa egiten duenean.
- ⁹ Galarraga, A. “Ezinezko normaltasuna”, *Gara* 2006-11-11.
- ¹⁰ Egaña, I. “Bai, bueno, ez dakit”, *Berria* 2006-10-15.
- ¹¹ Sarasola, B. “Hilketa Le Vieux Mouch-en”, *Berria* 2008-02-10.
- ¹² Galarraga, A. “Errepikatze modukoa”, *Gara* 2007-05-05.
- ¹³ Kortazar, J. “Suaren ondoren”, *El País* 2007-03-26.
- ¹⁴ Asurmendi, M. “Zazpi ipuin zazpi ipotx!”, *Irunero* 2007-04.
- ¹⁵ Lasarte, G. “Garagardoa, elurra, hutsuneak, oihartzunak”, *Sareinak*, 2009-01-19 [eibar.org/blogak/sareinak]
- ¹⁶ Melo, A. *El amor de los muchachos. Homosexualidad & Literatura*, Ediciones Lea, Buenos Aires, 2005.

Milia balitz lamia...

Lesbianismoa eta euskal literatura

*Sareinak*¹

(Amaia Alvarez Uria, Gema Lasarte, Josune Muñoz eta Iratxe Retolaza)

Es un hecho muy sorprendente que, de las muchas dimensiones por las que la actividad genital de una persona puede diferenciarse de la de otra (dimensiones que incluyen la preferencia por determinados actos, zonas o sensaciones, tipos físicos, frecuencia, actividades simbólicas, relaciones de edad o poder, especies, número de participantes, etc.), precisamente una, el género del objeto de deseo que surgió a finales de siglo, haya permanecido como la dimensión que denota la omnipresente categoría actual de “orientación sexual” (Eve Kosofsky Sedgwick, *Epistemología del armario*)

Izenburua irakurri, eta irakurleari galdera askotxo sortuko zitzaizkion. Ohartu da irakurlea, bi esparruren bidegurutzan ibiliko garela, lesbianismoa eta literatura uztartuko ditugula. Baina, ziur asko egitasmo honetan abiatu ginenean sortu zitzaizkigun galderak ere etorri zaizkio burura irakurleari: lesbianismoa eta literatura lotzen dituen artikulua batek zein norabide hartu behar du? Izan ere, gai honi heltzeko hiru ikuspuntu nagusi daude, gutxien-gutxienik: idazleari erreparatuko diona, testuko

errepresentazioei erreparatuko diena, eta irakurlearen kokapenari erreparatuko diona.

Ez dirudi hain erraz idazle lesbiarren inguruan aritzea, batik bat euskal literaturaren eremuan oraindik ere komunitate egituraturik ez dagoelako (alegia, beste komunitate literario batzuetan badira idazle lesbiarren bilgune diren kultur ekimenak, eta gurean ez). Horregatik, egokiagoa iruditu zitzaigun azken bi eremuen bidegurutzean osatzea gure hausnarketa orokor hau, eta hartara, bi ildo nagusi hauek jorratu ditugu: batetik, lesbianismoak euskal literaturan izan dituen errepresentazioen azterketa egin da (euskal narrazio eta nobelen inguruko ataletan eginiko hautua), eta bestetik, irakurlearen kokapenari eutsi zaio, begirada lesbiarra duen irakurlea osatzeko bidean (baladen atalean eginiko hautua).

Literaturaren eremura hurbildu aurretik, beharrezko iruditu zaigu lesbianismoaz eta identitate lesbiarraz zenbait gogoeta egitea, aztergaia bera kokatze aldera.

Lesbianismoa, begirada historikoa

Ezagun da Historian zehar agerpen eta trataera desberdinak izan dituela lesbianismoak. Gay eta lesbiar harremanez hitz egiterakoan, Grezia eta Erromako garai klasikoa datorkigu burura, garai hartan era publiko eta normalizatuan bizi baitziren (nahiz eta harreman mota hau gazteen ikasketa garaian kokatu, eta helduaroan gizarteak instituzio sozial baterantz bideratu pertsonak, ezkontzarantz eta familiarantz). Testuinguru horretan kokatzen da Lesbos irlako Safok poemagintzan eginiko ekarpena (K.a. VII. mendean).

Erdi Aroaren amaierarekin batera Berpizkundeak indarra hartu zuenean, aro klasikoari begira jarri ziren sortzaileak, eta ondorioz, Saforen lanari buruzko irakurketak

eta itzulpenak egin ziren: ahanzturatik berreskuratu zuten. Nahiz eta irakurketa askok Safok poemetan adierazten dituen maitasun eta desira horiek emakumeenganakoak zirela ukatu, berriro atera zen argitara gai hau, eta batik bat Saforen poema horiek hedatu egin ziren.

XVIII eta XIX. mendeetan zehar bekatu eta delitu izan ziren praktika gay eta lesbiarrak Europan. Are gehiago, XIX. mendearen amaieran Industrializazioa eta Aro Modernoaren hasierarekin sexu-jardun hauen patologizazioa etorri zen: bekatu eta delitu izatetik gaixotasuna izatera pasatu ziren homosexualitatea eta lesbianismoa. Alde bate-tik, medikuntzak “normala” zer den esan zuen, eta beste alde batetik, femeninoa / maskulinoa eta heterosexuala / homosexuala dikotomiak sortu zituen.

Alemanian 1898 eta 1908 urteen artean homosexualitateari buruzko lanak 1000 baino gehiago izan ziren, haien artean urte askotan sona handia eta jarraitzaile ugari izan zituen Richard von Krafft-Ebing-en *Psicopatia Sexualis* (1886) lana. Eragin handiko lan horretan agertzen dira *degenerazio*, *perbertsio*, *kontra-natura*, *hermafroditismo* eta *berezkoleskuratutako* bezalako hitz gakoak, gerora hainbeste zabalduko zirenak gai honi buruz hitz egitean.

1973. urtera arte itxaron beharko dugu AEBetan homosexualitatea buruko gaitzen zerrendatik ateratzeko (DMStik), eta 1983ra arte sexologiari buruzko ohiko eskuliburu batean lesbianismoaren irudi positiboa agertzeko, nahiz eta lan honen eragina ez den handia izan (Sheila Kitzinger, *Woman's experience of sex*).

Orain artekoa Mendebaldeko historiari dagokiona izan da. Amparo Villar Saenzek gure (hurbilagoko) historiako azken 30 urteak dakartzkigu bere artikuluan². Honen araber, Hego Euskal Herrian lesbianismoa eta feminismoa elkarren ondoan landu ziren 1979tik 1995era. 70ko hamarkadan mugimendu feministaren barnean sexualitate

askeari eta lesbianismoari buruzko gogoeta plazaratu zen. 80ko hamarkadan sortu ziren lesbiana feministen kolektiboak ikusgarritasuna bultzatzeko helburuarekin (aurreko taldeetan hau ez zelako lehentasuna).

Aldizkari eta topaketetan komunitatea eratu, diskurtsoa sortu eta kritika soziala egiten zen. Eskubideen lorpena (berdintasun planei kritika) eta aniztasun sexuala (transexualitatea) izan dira aldarrikapen nagusiak 90ko hamarkadatik gaur egunera. Garai honetan eta mende aldaketarekin batera, alde batetik lesbiana feministen kolektiboak desagertu eta LGBT mugimenduarekin bat egin zuten, eta beste alde batetik, enpresa pribatu eta partidu politikoak agertu ziren nolabaiteko merkantilizazio eta instituzionalizazioari leku eginez.

Azken aldaketa horiek bi ondorio ekarri dituzte: bata, berriro ere lesbianen ikusezintasuna indartzea (gayen itzalpean) eta 70ko hamarkadan egin bezala, lesbianak talde mistoetatik atera eta talde espezifikokoak sortzea. Eta bestea, aukera sexualaren kontzeptutik orientazio sexualarenera pasatzea, horrela esentzialismoa bultzatuz (identitatea eta jatorri biologikoaren ideietan oinarrituta).

Lesbianen ikusezintasunak badirau gaur egun. Lesbofobiari kristalezko sabaia gehitu behar diogu horren arrazoen bila abiatzean. Laburbilduz, hurrengoa daukagu, Villar Saenzen hitzetan:

“El discurso actual del movimiento LGTB se nutre de las reflexiones sobre género y sexualidad que se realizaron en la época en las que estuvieron vivos y muy reivindicativos los colectivos de lesbianas feministas”.³

Lesbianismoa, izena eta izana

Gloria Careagak dio adierazpen disidenteengandik urruntzeko eskatzen zaiola jendarteari, eta horrek norbe-

raren fantasia eta desiren ezeztapena dakarrela, eta honekin batera sentimendu hauek dituzten pertsonen ukapena, diskriminazioa eta gorrotoa. Emakumeen arteko harremanak *a priori* ez ziren praktika sexual moduan irudikatzen, gordeleku sentimental bezala baizik⁴. Beraz, ez ziren *status quo*arentzat eta harreman heteronormatiboentzat arriskutsuak. Baina emakume aske eta independenteen agerpenarekin aurreiritziak eta estigmak agertu dira, debekuak eta zigorrak.

Estigma, debeku eta zigor horiei erantzuteko diskurtso propioak sortzen hasi ziren lesbianak. Nork bere identitatea sortzeko eta definitzeko bideak urratzeko, hitza hartuz eta izanari izena emateko ahaleginak eginez. Zenbat buru hainbat aburu. Horixe ere gertatu da identitate lesbiarra definitzerako garaian, ikuspuntuak ugari izan direlako.

Identitate lesbiarra definitzeko lehen joera sexu-jardunaren araberakoa izan zen. 1970eko hamarkadako feministek aukera sexual zena orientazio izendatu zuten, eta horrela esentzial bihurtu.

Monique Wittig-en arabera, homosexualitatea ez da sexu bereko pertsonarekiko desira, konnotatu gabeko desira ere bada: normaren kontrako erresistentziaren desira. Hartara, identitatea eta bizimodua ere bada, edo bestela esanda, espazio sexual, sinboliko, sozial eta politikoa da. Lan honetan azken kontzepzio hau egingo dugu geure: lesbianismoa leku edo kokapen (politiko)a da.

Aditu batzuek gai hau borroka identitario moduan hartzen dute, zapalduta dagoen taldea da lesbianena, alde batetik, patriarkatuak zapaldua, emakumeak diren neurrian, eta beste alde batetik, heterozentrisismoak zapaldua, lesbianak diren heinean. Beraz, zapalkuntza bikoitzaz hitz egiten dute. Jarraian Beatriz Gimeno argudiatzen digu ikuspuntu hau:

“No hay una única identidad lesbiana, no existe la lesbiana auténtica ni esencial, pero habrá una identidad lesbiana que dé nombre al sufrimiento y a la lucha de muchas mujeres o este sufrimiento y esta lucha, y las posibilidades de superarlo, serán barridas de la historia cuando apenas hemos comenzado a asomarnos a ella. Será una identidad contradictoria, fragmentada, incompleta, coyuntural o cambiante, como lo son todas, pero será una identidad que nos permita pensarnos y que impida que se nos niegue”⁵

Jarrera hau dutenen artean oso interesgarria iruditzen zaigu jada klasiko bihurtu den *Compulsory heterosexuality* artikuluan Adrienne Richek esaten duena. Berak bi ideia plazaratu zituen (eta 1970eko AEBetako feminista lesbianek aurrera eramanez zituzten).

Alde batetik, derrigorrezko heterosexualitateari buruz hitz egiten digu hurrengo galdera mahai-gaineratuz: “Berdintasun egoera batean emakumeek bikote heterosexuala eta ezkontza aukeratzeko lituzkete?”. Heterosexualitatea definitzen du emakumeei boterea kentzen dien erakunde politiko gisa, eta aukeratzeko ezintasunari buruz dihardu bere lanean. Jarduera pertsonala eta politikoa da beraz, lesbianarena.

Beste alde batetik, Richek dio ez duela lesbianismoaren kontzeptua maite hitz honek duen kutsu kliniko eta mugatzaileagatik, eta beste bi izendapen proposatzen ditu: *lesbiar izaera* (historian lesbianen presentzia adierazten duena: sistema heteropatriarkalaren kontrako erresistentzia), eta *lesbiar continuuma* (emakumeen arteko harreman mota desberdinak: adiskidetasuna, elkartasuna, konplizitatea, identifikazioa).

“El hecho es que mujeres de todas las culturas y a lo largo de la historia han acometido la tarea de llevar a cabo una existencia independiente, no heterosexual,

conectada con mujeres, hasta el límite que haya permitido su contexto, a menudo creyendo que eran “las únicas” que lo habían hecho (...) los ataques contra las mujeres no casadas hayan ido de la difamación y la burla al genocidio deliberado, incluyendo la quema y la tortura da millones de viudas y de solteras durante las persecuciones de brujas en los siglos XV, XVI y XVII en Europa”.⁶

Hitz bitan, emakumeekin sexua duen, beste emakumeak desio dituen edota patriarkatuari erresistentzia egiteko estrategia moduan beste emakumeekin identifikatzen den edozein emakume da lesbiana Richen arabera.⁷

Adrienne Richen modura Monique Wittig-ek ere heterosexualitatea deseraikitzeke ahaleginari eutsi zion. Richek eta Wittigek heterosexualitatea instituzio politikoa dela ohartaraziko dute, eta instituzio politiko horrek heterosexual izatea derrigorrezko bihurtzen duela salatuko dute.

Baina azken aldi honetan gaiari begiratzeko beste proposamen batzuk ailegatu zaizkigu handik eta hemendik. Judith Butler, Eve Kosofsky Sedgwick, Judith Halberstam eta Beatriz Preciado dira joera honen ordezkarietako batzuk. Jarrera honi emandako izendapena, Queer teoria. Aro modernoko borroka identitarioei kritika egiten diete (feminismoari, gay eta lesbianen mugimenduari), eta aniztasunaren aldarrikapena egiten dute.

Generoa gainditu nahi dute, emakume femeninoa eta gizon maskulinoa aukera bakarrak ez direla aldarrikatuz. Are gehiago, ez dituzte emakume eta gizon kategoriak onartu ere egiten. Transgeneroa proposatzen dute, egokitu zaigun generoaren mugak gainditzeko, eta esperimentatzearen alde egiten dute, mugak haustearen alde eta aukera desberdinak aintzat hartzearen alde.

Judith Butlerren pentsamenduan genero performatibitateaz hitz egiten zaigu. Generoa eraikuntza kulturala

dela esan bazaigu ere, Butlerren ustez rol baten antzezpena besterik ez da generoa. Hortik abiatuta (*drag*) *king* taile-
rrak egiten dira lehenago aipatutako esperimentazioari
bide eginez.

“Judith Butler ha definido agudamente el género como un sistema de reglas, convenciones, normas sociales y prácticas institucionales que producen performativamente el sujeto que pretenden describir. A través de una lectura cruzada de Austin, Derrida y Foucault, Butler ha identificado el género no como una esencia o una verdad psicológica, sino como una práctica discursiva y corporal performativa a través de la cual el sujeto adquiere inteligibilidad social y reconocimiento político”.⁸

Sedgwickek *Epistemology of the closet* (Armairuaren epistemologia) deitutako lana du, eta Halberstamek *Female masculinity* (Maskulinitate femeninoa) izenburuduna. Biek hitz egiten dute generoen mugei buruz eta bietan agertzen dira begiratzeko modu desberdinak.

Sedgwickek dio bi kontraesan handi daudela homosexualitatea eta heterosexualitatea definitzean:

Alde batetik gaiari begiratzeko bi modu daude: Ikuspegi Minorizatzailea (honen arabera gai hau bakarrik interesatzen zaio gutxiengo bati, homosexualei, eta honen adibidea da ‘arrisku taldeak’ izendapena), eta Ikuspegi Unibertsalizatzailea (honen arabera gai hau sexualitate mota guztiak dituztenei interesatzen zaie, jende guztiari, honen adibidea da ‘sexu segurua’ izendapena).

Beste alde batetik, sexu bereko pertsona aukeratzea bi modutan azaltzen da: generoen arteko hasierako praktika iragankorra da edo genero bakoitzaren barruan sentitzen den bereizketarako bulkada.

Sedgwickek armairuaren irudia erabiltzen du ezagunak/ezezagunak, agerian dagoena/ezkutuan dagoena diskurtsoaren mekanismoak argitu ditzaketela esateko. New

Yorkeko *Act Up* taldearen kamiseta batean agertzen dena dakar lehen argudio gisa (armairutik irten naiz *ergo* banaiz nor), eta Michel Foucaulten aipua bigarren argudio bezala:

“No cabe hacer una división binaria entre lo que se dice y lo que se calla; habría que intentar determinar las diferentes maneras de callar (...) No hay un silencio sino silencios varios y son parte integrante de estrategias que subtienden y atraviesan los discursos”.⁹

Sedgwickek dio oso jende gutxi dagoela guztiz armairutik kanpo. Armairua gay eta lesbiana askoren bizitza sozialaren oinarritzko ezaugarria da. Zapalketa bikoitza ekarri duen sistema da: armairuan geratzen dena ezkutaketan, gezurretan ibili beharko da, armairutik irteten denak, ordea, aurre egin beharko dio homofobiari.

“El armario es la estructura que define la opresión gay de este siglo (...) la salida del armario (...) una certeza epistemológica de salvación contra la ambigua privacidad que ofrece el armario”¹⁰

Bereziki polemikoa izan da Halberstamen lana. Batzuen ustez sistema heterosexista indartzera dator bere maskulinitatearen balorazioarekin, eta beste batzuen ustez, generoen sistemarekin apurtzen du maskulinitateak eta feminitateak, hurrenez hurren, gizon eta emakumeekin duten identifikazioa deuseztatu duelako¹¹.

Beste ikerlari batzuek, Beatriz Preciadok, esaterako, sexu-jardunaren inguruko diskurtsoa eratu berri dute. Preciadoren lehen lana den *Manifiesto contra-sexual*-ean (Opera Prima, 2002), dildoa, uzki bidezko sexua eta praktika sado-masokisten deseraiketa egiten da, besteak beste. Alegia, oso estigmatizatuta eta gutxietsiak diren jardunei buelta ematen saiatzen da.

Testo yonkin, bigarren lanean, aro farmakopornografikoan bizi garelako azaltzen digu (biomolekularra eta

semiotiko-teknikoa den garaian, zientzia eta komunikabi-
deak nagusitzen direnean, drogak eta sexua zutabe izanik):
gorputza, sexua eta sexualitatearen kudeaketa soziopoliti-
koa da milurteko berriaren negozioa edo ekonomiaren
motorea:

“La feminidad y la masculinidad son como la de-
presión o la esquizofrenia, ficciones médicas definidas
únicamente de forma retroactiva con respecto a la mo-
lécula con la que se tratan”¹²

Generoa, edo feminitatea eta maskulinitatea, bere
ustez, ez da ez kontzeptu bat ez ideologia bat, ezta *per-
formancea* ere. Ekologia politiko bat da. Subjektibitatea eta
afektuak sortzeko programa bat, gorputza domestikatzeko
teknologia farmakologiko eta ikus-entzunezkoen multzo
bat: autozaintza eta autokontrola eskatzen dituen pro-
zesua: “La programación de género dominante parte de la
siguiente premisa: un individuo = un cuerpo = un sexo =
un género = una sexualidad.” (90. or.).

Heterosexualitatearen erregimen biopolitikoaren ezau-
garrietako bat, Preciadoren arabera, sexu anatomikoaren,
generoaren eta sexualitatearen arteko harreman lineala
zen, baina hormona sexualek hiru maila hauetan erai-
kuntza identitarioen betierekotasuna eraldatuko, irauliko
dute (96. or.).

Ikusi ditugu, beraz, bi garai desberdinetako propo-
samenak: modernitateko bazterreko ahotsak eta postmo-
dernitateko zeharreko jendetza. Kontua da gaur egungo
Euskal Herrian biak bizi direla elkarren ondoan, eta
bigarrena heldu berria dela gure artera. Honela adierazten
digu XXI. mendeko bere inguruko panorama Preciadok:

“No hay aquí sucesión de modelos que serán supe-
rados históricamente por otros, ni rupturas, ni disconti-
nuidades radicales, sino simultaneidad inconexa, acción
transversal de varios modelos somatopolíticos que

operan y constituyen, siguiendo diversas intensidades, diversos índices de penetración, diversos grados de efectividad en la producción de la subjetividad”.¹³

Lesbianismoa, errepresentazio literarioak

1970eko hamarkadan zehar Estatu Batuetan hainbat eta hainbat literatur kritikari lesbiana batu ziren Unibertsitateetan literatura lesbiarraren inguruko ikastaroak emateko, eta diskurtso kritiko lesbiarra osatzeko.¹⁴ Kritika lesbiarraren lehen urratsa tradizio lesbiarraren eraikuntzarekin abiatzen da. Alegia, idazle lesbiarren kate eta historia bat eratzearekin.

Dena den, idazketa lesbiarraren arkeologiak oso argi izan behar du honako hau: sexu lesbiarra, portaera edo subjektu lesbiarrak historiatic ezabatu eta ezkutatu izan dira. Beraz, historian ez dira lesbiarrak bilatu behar, patriarkatuari ezetz esan zioten emakumeak baizik.

Botere harremanak, patriarkatuaren eragina eta espazio material eta sinbolikoak ikertu behar dira, eta baita gorputza, desira eta sexu-jardunak ere.¹⁵ Lilian Faderman-en ustez, iraganean lesbianen arrastoak bilatzeko sexu-jardunak, feminitatearen desbideratze sozialak eta beste emakume batenganako maitasun sentimenduen autokontzientzia bilatu beharko dira.¹⁶

Ahalegin horixe egin zuen Terry Castle-k *The literature of lesbianism* (2003) ikerketa lanean. Liburu horretan bi tesi defendatu zituen: XVI. mendearen erdialdetik gaur egunera arte emakumeen arteko maitasunari buruzko idazlan asko egon direla, kontrakoa uste bada ere, eta lesbianen ikusezintasunaren mitoa, ez baita errealitatea, diskurtso kritiko ofizialean oso errotuta dagoela:

“What begins to surprise after a while is precisely how much has been written on the theme in modern

times, rather than how little, and how complexly various fantasies of love between women have functioned, and continue to function, in the Western imagination".¹⁷

Castlek bere lanean lesbianismoaren topikoari buruzko lanen antologia egiten du¹⁸, 1500. urtetik 1969. urtera bitartean (1969an Stonewall¹⁹ mugarria dago gay eta lesbianen historian data azpimarragarria izan zena AEBetan), Castleren hitzetan, greziarren garaitik hau izan zen portaera homosexualaren lehen normalizazioa men-debaldeko jendartearentzat.

Castle-n azterketaren arabera, emakumeen arteko maitasunari ematen zaion ohiko lehen erantzuna munstroaren irudikapena da, beldurra edo harridura eragiten duena. Beste bi begirada aipatzen ditu gero: safikoa (erantzun sublimea) edo erromatarra (erantzun satirikoa). Ulerkorra bata, eta etsaia bestea.

Begirada edo hurbiltze motak aurkeztearekin batera, Castlek literatura lanetan lesbianek duten espazioa eta kokapena aztertu ditu. *Islanding* deitu dio lesbianen espazio isolatu eta baztertuari; gizonen mundutik aparteko bereizketa fisiko eta sozialari. Izan ere, erresistentzia gune horien bila jo ohi dute lesbiana askok eta askok. Horietariko zenbait lekaimetxea, harema, eskola, baserria, ostalua edo aterpea dira. Esaterako, XX. mendeko literatura lesbitarra urruneko aterpe zahar batean, itsasoaren erdian dagoen itsasontzi zabal eta handi batean, irla batean edota Parisen kokatuko da.²⁰

Bestalde, emakume eta gizon idazleek egindako lesbianen irudikapenak aztertzen ditu. Lehenengoen pastoral ultrafemeninoak papereratzen dituzte, edo neskekin esku luzeegiak dituen emakume berezi eta xelebrea, edo bestela emakume gazteak emozionalki harrapatzen dituen emakume heldu limurtzaile-liluratzailea. Bigarrean eskutik

heldu zaizkigu bi begirada: bata, gehiegizko samurtasuna duena, enpatia eta lilura misteriotsua dituen; eta bestea, irakurlea asaldatzen duen zerbait daraman begirada safikoa da.

Idazlan pornografikoak, XIX. mende amaierako eta XX. aren hasierako poesia eta “eleberri lesbiarra” ditugu jarraian. Lehenak, nahiz eta sexista eta bigarren mailako izan (harreman heterosexualetarako atariko besterik ez delako lan hauen planteamendua), zibilizazio modernoetako gogo paisaian barneratu du lesbier topikoa. Poesian moralak eta estetika agertzen dira edonon. Sentsualitatea eta erotikotasuna darie olerkiei. Eleberriari dagokionez, luzaroan izan da gizonen lana, XX. mendearen hasierara arte, emakumeen generoaz jabetu eta sakondu zuten arte.

Alderdi filologikoari begira izendapen desberdinak aurkitu ditu historian eta testuetan zehar: *lesbianism*, *lesbian*, *sapphism*, *sapphist*, *tribade*, *tribadism*, *tribadry*, *fricatrice*, *fricatrice*, *tommy*, *odd*, *queer*. Aitor Aranaren *Gay hiztegia* honako hau esaten digu lesbianaren izenei buruzko sarreran:

“Erraz pentsa daitekeen bezala, ekarpen gayaren eta ekarpen lesbiarraren arteko desoreka handia da. Hori ikusita, egia ote da jendartearen lesbiana gutxiago daudela gayak baino? Agian bai, baina ez dugu uste horrek hizkera lesbiarra gaya baino murriztagoa dela esan nahi duenik. Azalpena hizkuntz joeretan aurkitu behar dela iruditzen zaigu: gay hizkerako hitz eta esamolde asko eta asko mundu heterosexualekoak diren bezala –esanahia bere hartan utzita nahiz gay ñabardurez egokituta-, esan liteke lesbianen hizkerako hitz eta esamolde ugari gayen alorretik erakarriak direla. Lesbianeaz ari garenez, aipamen txiki bat Hordago argitaletxea 1983an argitaratutako Ramon Etxezarretaren Hiztegi erotikoa lan ederraren aitzakian. Hartan, egileak homosexualari deitzeko euskaraz aurkitu zituen

izenen zerrenda eman eta gero, honako informazio hau eman zuen: “Ez zaigu agertu inon emakume homosexualarentzat izenik” (43. or.). Guk atseginez esan dezakegu, nazioarteko lesbiana izenaz gain, bost izen baino gehiago zerrendatu ahal izan ditugula. Bi adibide: tradizio herritarretik datorkigun joxe-joxepa eta berriki sortu den pikujalea. Gehiago ere bildu ahal izango dira etorkizunean, noski!”²¹

Eta hauek dira berak bildutako hitzak lesbiana izendatzeko: *andrekaria*, *neskakoia*, *bilitisen alaba / ahizpa* (liter), *emakumetxoa* (gazte azkarra/lesbiana atsegina), *aluzalea* (prakt), *motxinjalea* (prakt), *piperropila* (prakt), *potxonzalea* (prakt), *sorgina* (+/-), *ulertua* (orok.), *ulertzalea* (orok.), *lamia* (orok), *joxe-joxepa* (mask), *mari-mutila* (mask), *mariurkulu* (mask), *neskamutila* (mask) eta *emarkia* (mask)²². Guk, lan honetan, *lesbiar* hitza erabili dugu forma orokorrerako (izen eta adjektiboentzat) kokapen politikoaren ideia ekartzeko eta *lamia* hitza izenbururako (zabaltzen ari den berba delakoan).

Ikerketaren amaiera aldera, Castlek lesbiar kokapenarekin lotutako azpigai zenbait aipatzen ditu: ama-alaben arteko harremana eta ahizpen artekoa, haurride-tasuna; adiskidetasun femenino erromantikoa; supernatural edo banpiroak; kultura desberdinak eta desira eta erotismo lesbiarraren irudiak (bainua hartzen, goxokiak jaten eta musuak ematen edo sorbaldak laztantzen agertuko dira horrelakoetan).

Hurbilago dugu Angie Simonisen lana, berak espainiar literaturan diskurtso eta irudikapen lesbiarrak ikertu dituelako²³. Bertan irakurri ahal dugu bi dualitate egon direla lesbianaren irudikapen estereotipikoan denboran zehar:

1. Lesbiana maskulinoa edo *butcha* (eta bere aurkaria: lesbiana femeninoa edo *femme*).
2. Pornografiak sortutako eta sexualki oso aktiboa den lesbiana (eta bere aurkaria: lesbiana asexuala).

Lehena izan da benetan ikusgarria izan dena historian zehar. Patriarkatuak eraiki duen estereotipo horrek islatzen du gizonak botere femeninoari dioten beldurra, mehatxuaren irudi sinboliko bakarra gerran edo maitasunean berarekin lehiatuko den beste gizon bat delako Simonisen hitzetan. Maskulinitatearen imitazio txartzat hartzen da²⁴.

Bigarrena gizonen plazererako objektu sexuala da, harreman heterosexualaren atariko. Sexualitatearen perbertsio penagarritzat jotzen da hau²⁵.

Eta gurean zer?

Castleren ikerketa-lan horretan, literatura aztertzeke kritika literario lesbiarra izan du abiapuntu. Artikulu honen asmoa oso xumea izanik ere, horixe du helburu. Euskal literaturan kritika literario lesbiarrean urrats zenbait egitea, edo orain arte hizpidera ekarri ez diren galdera zenbait aurkeztea.

Literatur kritika lesbiarrean eginiko lehen urrats honetan hiru arlo nagusi aztertu dira: lehenik, ahozko literaturan, poesia edo lirika landu dugu; balada batzuk hartu eta begirada lesbiarrez irakurri ditugu. Inplizitu/esplizitu parearekin bertan agertzen diren eta agertzen ez diren gauzei buruzko gogoeta egitera bultzatu nahi zaituztegu ariketa honekin. Sedgwicken ikuspegi unibertsalizatzailetik begiratzen hasiko gara, beraz.

Bigarrenik, euskal nobelagintzan jarri dugu arreta. Alde batetik, *Nerea eta biok* eta *Connemara gure bihotzetan* aztertu ditugu, eta beste alde batetik, Itxaro Bordaren tetra-

logia. Atal honetan ikuspegi minorizatzailea aurkituko dugu lehen bi lanetan, eta unibertsalizatzailea azken lauretan.

Hirugarrenik, ipuingintzan ikuspegi modernoaren eta postmodernoaren adibideak landu ditugu begirada literarioak nolakoak diren ikertuz eta agertzen diren irudiak aletuz.

Espero dezagun bidaia literario honetan deseraikitze-ko, pentsarazteko eta modu desberdinean begiratzeko aukera izan dezazuela. Gogoratu, guztiok gara *lamiak* Adrienne Richen hitzetan sistemari aurre egin nahi badiogu eta modu askean bizi.

Bibliografia

- ARANA, A. *Gay hiztegia*, Txalaparta, Iruñea, 2005.
- BUTLER, J. *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*, Paidós, Bartzelona, 2001.
- CASTLE, T. (ed.) *The literature of lesbianism. A historical anthology from Ariosto to Stonewall*, Columbia University Press, New York, 2003.
- DESPENTES, V. *Teoria King Kong*, Melusina, Bartzelona, 2007.
- FICCHETTO, R. *La amante celeste*, Horas y horas, Madril, 1993.
- GIMENO, B. *La liberación de una generación. Historia y análisis político del lesbianismo*, Gedisa, Bartzelona, 2006.
- HALBERSTAM, J. *Masculinidad femenina*, Egales, Madril, 2008.
- JULIANO, D. *Excluidas y marginales*, Catedra, Madril, 2004.
- MUJICA FLORES, I. *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*, Ararteko, Gasteiz, 2007.
- PLATERO, R. (koord) *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008.

- PRECIADO, B. *Manifiesto contra-sexual*, Opera prima, Madril, 2002.
- PRECIADO, B. *Testo yonqui*, Espasa Calpe, Madril, 2008.
- RICH, A. "Compulsory heterosexuality and lesbian existence" in Kemp, S. & Squires, J. (ed.) *Feminisms*, Oxford University Press, Oxford, 1997.
- SANFELIU, L. *Juego de damas. Aproximación histórica al homoerotismo femenino*, Universidad de Málaga, Malaga, 1996.
- SEDGWICK, E. K. *Epistemología del armario*, La tempestad, Madril, 1998.
- SIMONIS, A. "Yo no soy esa que tú te imaginas: representación y discursos lesbianos en la literatura española" in R. Platero (koord), *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008.
- SUÁREZ BRIONES, B. "Desleal a la Civilización" in X. M. Buxán (ed) *Conciencia de un deseo singular*, Laertes, Bartzelona, 1997.
- TRUJILLO, G. *Deseo y resistencia. Treinta años de movilización lesbiana en el Estado español (1977-2007)*, Egales, Madril, 2008.
- WITTIG, M. *El pensamiento heterosexual*, Egales, Madril, 2005.
- ZIGA, I. *Devenir perra*, Melusina, Bartzelona, 2009.

Begiradak

Baladak eta lesbianismoa, a ze parea...

Josune Muñoz

Baladetan irakurketa lesbiarra egiteko lana hartu dugu eta ibilian-ibilian bilduma ezberdinetara jo dugu. Inplizitu/esplizitu bikotea hartu dugu, egun osoan lanean egon ondorengo begi lesbier eta nekatuekin begiratu ditugu eta, halere, gure gogoak zertxobait aurkitu du gure buruei eginiko galdera erretorikoen bitartez. Demagun, *Testamentuarena*²⁶ hartzen dugula. Kantu honetan amore-minez hiltzorian dagoen maitale batek bere enterru egunean zer egin behar dion azaltzen dio amoranteari:

Testamentuarena

Izar ederrak urteten dabe
zeru altuan bakarrik
Ezta bakarrik, lagunak ditu
jaun zerukoak emonik.

Zazpi aingeru aldean ditu
zortzigarrena gaixorik
Zazpi mediku ekarri deutsez
India-Madriletatik

Arek igarri, arek igarri
nundik dagoan gaisorik.
amoreminak badituz onek
desendrainetan sarturik

Guzurra dino mediku orrek
nik ez dot amore-minik

Amoreminak badaukadaz be
desendrainetan sarturik.

Gaur arratsean ilgo naz eta
etorri bedi gorpura,
Errosario zuri eder bat
eskuartean/errezetara dozula.

Neu enterretan naroenean
igongo dozu korura,
Andixek bera salto egingozu
Birginia Amaren ortura.

Larrosea ta kabelinea
artungo dozuz eskura,
Jente guztiak esan daiala
neure lutua dozula.

Aingerutxuok esaten dabe
salbean Abe Maria.
Gero guztiok goratu daigun
zeru altuan gloria.
Amen, Abe Maria.

Amore-min hori ezinezko amore batetik dator? Ezinezkoa emakumeen artekoa delako? Amorantea emakumezkoa bada? Derrigorrezko galderak beste era batean irakurri, entzun nahi izanez gero.

Gure baladak aztertzeko eta are gehiago, entzuteko ohitura gizonetzko eran eta ahotsetan (Benito Lertxundi, Ruper Ordorika...) izan da askotan. Ea gure begi lesbia-
rrekin galdera gehiago egiteko baladarik badagoen.

Etxeko alabari²⁷

Askan eder da garia
aren gainean txoria

Eraztun batek hartu lezake
neskatza zure gerria.

Usoak egal gorrizu
moko aldea lumazu
orren aingeru txiki polita
nondik agertu zara zu.

Zure ortuan Madari
adarrak ditu amabi:
Etxe ontako alabatxuak
baba lorea dirudi.

Emakume batek honela kontatuko lioke beste bati?
Nola bestela? Irakurri, entzutearekin batera kantaria gizon
bat dela ondorioztatu behar dugu? Implizitu al dago?
Esplizitu, eta guk ez dugu ikusi nahi?

Adios orain dama gaztea²⁸

–Adios orain dama gaztea
Arantzazura arteko
Hantxen ongo naiz besoak zabalik
zatozenean hartzeko.

Ama Virginia Arantzazuko
askoren debota maitea
Haretzek estimatzen dau
erromerian joatea

Arantzazura erromerian
nahi dozunean etorri
Amoriozko begi ederrak
erakutsiaz alkarri

Panponan behera banoa eta
zer gura dozun esaizu.

Zinta eder bat biali ezazu
borandarerik badezu

Urdina bera zelosa da-ta
berdeak esperantza,
Gorri ederrak sinifikatzen
bihotz kariñoz betea

Hau da, jendea, kanta bat
daukona bakarrik falta bat
Bertso gutxitxo dauzka eta
gehitu behar zaio pare bat.

Arantzazura nijoanean
ez neban besterik gogoan,
Nola joan da nola etorri
kristau fidelen moduan.

Ezagutzen dugu aurreko euskal emakume askoren debozio handia, eta testuinguru txit erlijiosoan agertzen bazaigu ere, kanta zahar hori damen arteko kantutegi baterako proposatzen dugu ahozkotasanak propio dituen baliabideak erabiliz: moztea, itsastea edo egokitzea. Izan ere, 1., 3., 4. eta 5. ahapaldiak bereziki egokiak izango lirateke, horrela nahi izanez gero, balada luzeago edo borobilago bat kanta dezagun.

Ahetzeko anderea²⁹

Hauzeko anderia
urrutian khorpitzez
hor du bere buria
kanpoan da bihotzez

Nor du bere maitia?
nahi nuke egia.

Jinkoak nahi badu
hilzia ukhenen du

Gure jaun Urrutia
Khexian bethi zira
Erradazu zertako
Ni enuzu kanpoko

Hurrunt zite niganik
eztit zure beharrik.
Bazoaza kanpora
adar ene biltzera

Jauna, holako lanak
Hauzeko anderiak
Eztitizu ikasi
hen doazu ihesi

Ele hoiek ahotik
jalkitzen zielarik
Urrutiak bilhotik
therresta du ibili

Jinkoa, zer bizia.
Oi, jaun Urrutia
Ni Hauzeko etxian
nunduzun, bai, bakian.

Hunat jin behar nizun
ene zorthia zuzun
Bihotz min ukheiteko
zure khexerazteko

Ogen gabe zu bethi
minzo zitzaist gogorki.
Othoi, zure begiak
utz ditzala khexiak

Erdia baino ez da. Ahetzeko andereak ez du bere senarra maite, hori bistan da. Urrutiako jauna jeloskorra da eta horrez gain tratu txarra ematen dio andereari. Hona hemen beste kantutegi bat sortzeko garua, hasiera, tratu txarrak salatzen dituen, alegia. Baladaren zati hori beste leku batean³⁰ ikertu ditugun kexu kanten bilduman sartu beharko genuke. Agian, Ahetzeko andereak bere mina arintzeko bide eta laguntza kausi dezake eta kausitu du. Jarrai dezagun.

Goizian goiz jaikirik
goiz ophilak eginik
Hauzeko anderia
lehia dun handia

Zareta bat burian
kanporat jalkitzian
Mus d'Urrutiak zian
baratu bai bidian

Nun zabiltza hain goizik
jauregia husturik?
Galthatzen du Urrutik
begiak oldarturik.

Jauna, ikhusten duzu
nahi balin baduzu
noat orai nabilan
zareta hau burian.

Jente eskeliari
emaiteko sokhorri
Madama Urrutiak
hartu zutien bidiak.

Ophilez zaria beitzen
betherik jente prauben

Urrutiak zarian
eskua ezarri zian.

Ophilak ordu hartan
jin zirien haillikotan.
Urrutiak behala
uste tronpatu zela.

Ehuleko etxera
zoaza bilberaztera?
jauna, ikhusten duzu
orai zuk badakizu

Parka izadazut arren
bekhaitz enuzu izanen.
Emazte hun zirela
orai badit nik proba

Eskaleei jaten ematera joatea aitzakia ona iruditzen zaigu. Ehulea emakumezkoa dela ondorioztatzen dugu ezen senarrak ez baitu zelorik... eta Ahetzeko andereak ehulearekin bazuen erromantzea eta goizean goiz jaikirik egiten dituen “ophilak” ehulearekin jateko baziren? Hortik euskal argotean “opilginak” sartzeko aukera berria...³¹

Goizean goiz jaikitzen da (opilginen arteko ohitura al da?) *Amoros baztertua*³² kantatzen duen ahotsa ere, guk emakume batena entzun nahi izan duguna:

Amoros baztertua

Urtian den alegerena
pazkua maiatzekua
Pazkua maiatzekua zan da
jaiki nintzaren goizian

Jaiki nintzaren goizian eta
pasaiatzeko kalia

Pasaiatzeko kalia eta
egunian da gaubian

Egunian da gabian eta
izarra argi donean

nire laztana kalia dabil
aidiak gonbiatutzen
neu're gonbiaturik nago
eztaietara juaten.

Egun bat gizon ikus nituben
etxiartan sartuten
Beste orrebeste beste bi geio
eskileretan ijotzen.

neure laztanan eztaietan
nik jan nuen usua
nik jan nuen usua eta
haren jan zuen egua.

Neure laztana mai goienian
ni barrenien esaten
Arek niri gainu, nik ari gainu
alkar genduen penatzen

Estudiante barbailasku bat
asi zitzaigun igartzen.
In secolorun eztailela izan
meza barririk ematen

Lehengo pertsonak kontaktzen digu zori txarreko amodio hau. Emakume bi maiteminduta daude baina bat ezkondu behar da. Ezkontza egunean neska gonbidatuta doa, baina ez dago elkarrekin egoteko aukerarik oso urrun ez bada, horrek biei pena dakarkiela. Estudiantea (agian bizkorrena) konturatzen da, baina ez du kontaktuko. Maizkoa da egoera hau, arrunta, maite den emakumea ezkonzen ikustea. Zorionez, geroago etorriko ziren goiz-goi-

zeko opilak batera jateko parada teilerian, Urrutiako anderearen bidea harturik.

*Neska soldadua-ri*³³ buruzko galderak ez dira oraingoak. Betidanik harritu gaitu neska horrek. Euskal Herrian, gainera, antzeko egiazko pertsonaia dugu: Erausoko Katalina. Kanta honen protagonista eta ahots narratiboa Agustina Antonia dugu, Erausoko Katalinaren bide paraleloa eginez, kontatzen digu bere bizitza: “nerau emakumia/ofizialia/letrarik eskolarik/batere gabia” teniente, Buenos Airesen, bi erregimendu, lau balazo bizi ondoren “jaunaren abixua” argi entzun eta moja sartzera doana. Jendarteak ezartzen zizkigun ezkontzak eta amatasuna ekiditeko irteera gutxi aukeran: moja (positiboa) neska-zaharra (negatiboa). Puta ez dakigu geuk aukera edo irteera ote den. Gure baladan ausartena: soldadua. Soldadutik mojara gizonik gabeko bidea. Baliteke gure neska soldadua bide horiek hautatzea emakumeak maitatzen zituelako? Agustina Antoniak honetan ere Erausoko Katalinaren bide paraleloa egingo zuen? Gauza jakina delako Katalinak emakumeekin zituela maitasunak; biri ezkontzeko hitza eman zien, hain zuzen.

*Peru gurea*³⁴ kantak, ere, betidanik eman digu zer hausnartu:

Londresen dot neuk senarra
zirin bedarrak ekarten.

Bera andik dan artean
gu emen dantza gaitzen.

Oi au egia! Daigun jira bi Maria.

Kapoiak dagoz erreten
oilaskotxuak mutiltzen
Orrek ondo erre artean
gu hemen dantza gaitzen.

Oi au egia! Daigun jira bi Maria.

Norekin eta zenbatekin dantzatzen du Mariak? “gu” horretan zenbat emakume gorde daitezke? Hori bai, emakume hauek ez doaz teileriarra goiz-goizeko opilak jaten, hauek etxean geratu eta kapoiak jaten dituzte.

Neura oilanda nabarra
txikarra baina zabala,
Zetan oa i auzora
etxean oilarra donala?

Oi au egia! Daigun jira bi Maria.

Ahapaldi lizunago honetan “oilarra” hitza kentzea eta oiloa/oilanda jartzea besterik ez dugu behar sortzen ari garen kantutegi berrian kanta gori, bero bat izan dezagun.

Lan honetan aipatzen diren liburu guztietan arakatu dugu komentatu ditugun zazpi kanta ekarri ahal izateko. Liburu eta bilduma gehiagori begiratu behar diegu, dudarik ez, adibide gehiago ekartzeko. Horien arteak bereziki probetxagarria suertatu zaigu hau: *Mila euskal-olerki eder*,³⁵ Aita Onaindiak egindako balada, kanta eta olerki bilduma. “Maita-leloak” zatira jo dugu eta gure begi lesbierrek, azkenik, kanta ugari aurkitu dituzte: *Argizagi ederra* (19.)³⁶ kanta, adibidez, amorranteek elkartzeko dituzten arazoei buruz berba egiten dute: ama, goardian, jendeen errana... Bat kexuka agertzen da azkenengo lerroan, egoera eta galdera aspaldikoa zein egungoa dela erakutsiz:

Biok akort ba gira, Nori zer dohako?

Ene maitea (28.), *Barda nun zinen?* (61.)³⁷, *Lili bat ikusi dut* (23.)³⁸ eta *Maitale gibelatua* (26.)³⁹ izenburu adierazgarriko kanta egoera errepikatzen da: gauez, ezkurtuan eta beldurrez bizi behar. Honetan, Batek errefusatzen du. *Plaňu niz bihotzetik* (36)⁴⁰ kanta aldenduta bizi beharrak sortzen duen mina, egoneza eta ezintasuna eza-

gutzen ditugu. *Bortian ahuzki* (42.)⁴¹ kantan elkarrekin izan arte disimuluz bizi izateko aholkua entzuten dugu.

Jendeen erranaren aurrean maiteñoen arteko amodioari ekitean datzala indarra kantatzen dio Nafarroa Beheretik datorren *Nik badut maiteño bat* (25.)⁴² kantan:

Nik ba-dut maiteño bat, oi bena nolako?

Ez da ttipi, ez handi, bai bien arteko,

Begi polita du, dena amorio:

Bihotzian sartu zaut, ezbaizaut jalgiko.

Zuri nuzu hersatzen⁴³, arrosa ederra,

Pena gaitz hoietarik nezazun atera;

Balin badut hortarik hiltzeko malurra,

Bazindukea bada bihotzian pena?

Amodioaren pena, oi! pena kiratsa!

Orai dut ezagutzen harek daukan pena.

Amodioa ezpaliz den bezain krudela,

Ez nezakezu erran maite zaitudala.

Munduan zenbat urhats, oi! eztut egiten!

Ez ahal dira ere alferrak izanen.

Jendek erranagatik guretako ele,

Orotaz trufa neinte, zu ba zindut neure!

Zeruan zenbat izar, maitea, ahal da?

Zure parerik ene begietan ez da.

Neke da partitzia, maitia, enetzat:

Adio nik derautzut denbora batentzat.

Zuri erranik ere, maitia, adio,

Ez nezazula, otoi, ni ukan hastio⁴⁴:

Bainan bai bihotzetik izan amodio,

Etzaitut kitaturen tonban sar artio.

Maitaleen arteko amodioa, halere, beti ez da nahikoa aurrera egiteko, gizarteak inposatzen duen harreman erdutik kanpoko bide berriak propio eraikitzeko. Ezkutuan gorde behar izateak, gainera, tristezia, dudak eta zeloak dakartza, *Izarra* (71.)⁴⁵ kantan, adibidez.

Baladak eta kantak alde emozionala adierazteko erabiliak izan dira. Kexu-kantak gehienak; maitaleen mina, dolua, beldurra eta ezintasuna sarriak dira. Begiratu, adibide baterako, *Txoriñoak kaiolan* (60.).⁴⁶ Batzuetan beste era bateko ñabardurak agertzen badira ere: *Ene maitea* (28.)⁴⁷ kantan maitaleak harreman zail eta mingarria bizi eta bi urte geroago elkartzen dira. Kantatzen duenak beste maite bat du, elkartzea agurtzeko eta barkatzeko erabiltzen duelarik.

“Maita-leloak” zatian kausitzen diren kanta gehienak ezkorrak, kexu-kantak badira ere, (*Azken hasperena* da horren beste adibide bat⁴⁸) *Argizagiak zelutik* (35.)⁴⁹ ekarri nahi izan dugu osorik, gustuko duguna eta ohar baikorra duena, gaurko hurbilketa honi bukaera emateko:

Argizagiak zelutik
Argitzen dizu eijerki;
Ene maite polita eztuzu ageri.
Zeluko Jinko Jauna! Zer eginen dut nik?
Zer eginen dut nik?

Fiatik betere eztuzu,
Mundia irriz ari zaizu;
Batu orotzaz agrada zira zu,
Bat har ezazu, hura aski dukezu,
Horrez segur nuzu.

Urso apalaren malurra
Galduz geroztik laguna!
Triste da beti bere bihotzetik,
Zeren ezpeitu maitatu bat baizik,
Maitatu bat baizik

Amodio berriak
Sendotzen tizu eriak.
Zure begiak ain dira eztiak,
Zeren beitira eniak zuriak
Zuriak eniak.

Honenbestez, bukatu egin behar. Bilketa osoa baino, begirada aldaketa plazaratzea, porturatzea zen asmoa, ahozko tradizioa jarraituz: nolako begirada, halako balada.

Hala ere, ez gara geu baladetara beste begirada batekin hurbildu garen estreinakoak. Izan ere, Itxaro Bordak (eta lan honetan askoz gehiagotan agertuko da, ziur belarriak berotu zaizkiola!) *Krokodril bat daukat bihotzaren orde* poema liburuan (Susa 1986) Milia Lasturkoaren Baladaren bertsioa dakar: *Milia Lastur revisited...*

Bertsio biak, jatorrizkoa eta revisited-a, ekarri nahi izan ditugu ezagutu, irakurri eta dagoen aldea neur dezazuen.

Milia Lasturkoaren Balada

Zer ete da andra erdiaren zauria?
Sagar errea eta ardao gorria,
Halabaya, kontrario da Milia
Azpian lur hotza, gainean harria.

Lasturrera behar dozu Milia,
Aita jaunak eresten du elia,
Ama andreak apainketan hobia,
Hara behar dozu, andra Milia!

Jausi da zerurean harria
Aurkitu dau Lasturren torre barria
Edegi dio almeneari erdia
Lasturrera behar dozu Milia!

Arren ene andra Milia Lasturko
Peru Garziak egin deusku laburto
Egin dau andra Marina Arrazolako
Ezkon bekio, bere idea dauko

Milia Lastur revisited

Hilhotzen karrasiak josirik ahoan
nola aurkituko dun hire sokorria?
maiteko haut Milia ez hadila joan
hator edan dezagun ardao gorria...

baratz aberatsetan ebatsi sagarrak
gordeko ditinagu bide bazterretan.
ahantz oiti Milia sarraski zaharrak
eta suaren kantan bide hats erretan.

belar bustiek egin maitasun ohantzan
etzanen gaitun gero biak bihotza
gauero zazpi itzal ilusteko dantzan.

non dago harria? non dago lur hotza?
eresi hark ziona jartzeko zalantzan
maiteko haut Milia ez hadila lotsa...⁵⁰

Dena dela, euskal literaturak begirada, adibide, izen eta lan lesbiko gehiago topatzeko parada ematen digu, ez pentsa. Gogoratu, bestela, Estibaliz de Sasiolaren lana. Estibaliz Sasiola (1550-1611) leinuru oneko alaba zen. Horrek irakurtzen eta idazten ikasteko aukera eman zion. Madrilgo gortean bizi eta Lazarraga idazlea ezagutzeko parada izan zuen. Patri Urkizuk transkribatu duen⁵¹ Lazarragaren lanean, hiru poema, XXXIII, XXXIV eta XXXV. poemak hain zuzen, esku ezberdinez idatziak dira eta hauen buruan *De la señora M^a Estibaliz de Sasiola* direla irakur dezakegu.

XXXV

Mendi altuan errura daidi,
Aran baxuan eguzki,
Mendiaran guztiak baino
Ene koitaok nagusi.

Ikaz lazten ninduan dontzella batek

Aurten nai ez ikusi,
Laster kanbiatu ninduan
Deseo ebena gaiti.

Patri Urkizuk gizonezkoaren ahotan ipiniak daudela esaten digu... orduan... lehen euskal queer poemaren aurrean gaude? Estibaliz trabestitu egin da kopla sortzeko orduan? Baliteke Estibaliz gure lehen (drag) king-a izatea? Edota beste ohore eta ospe bat zor zaio Estibaliz Sasiolari, alegia LEHENGO IDAZLE LESBIANA izatea? Izatekotan (idazle zein lesbiana) argi uzten digu emakumeen artean ere fidelitate eza izaten dela...

To be continued.

Geografiak

Harreman lesbiarrak nobelagintzan: *Nerea eta biok* eta *Connemara gure bihotzean*

Gema Lasarte

Harreman lesbiarrak, esplizitu nahiz inpliziturik, euskal nobelagintzan kausitzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, ez horixe. Guk behinik behin gorriak ikusi ditugu aztarnarik sumatzeko. Nobelan, genero handia izanik, badirudi oraindik ere inskribatzen diren edo sortzen diren harreman motek, emakumeen arteko sexu harremanez ez dutela deus jakin nahi. Itxaro Bordaren ekarpen eskerga eta bakana oraingoz alde batera utzita (aurrerago helduko baitiogu haren nobelagintzari), bi nobelatan aurkitu ditugu aipatu berri ditugun harremanak: Laura Mintegik 1994ean argitaratutako *Nerea eta Biok* (Txalaparta) nobelan, modu inplizituan bada ere, eta Julen Gabiriak 2000an publikatutako *Connemara gure bihotzetan* (Elkar) nobelan, azken horretan modu irekian. Atzetik aurrera ekingo diogu ikerketari eta Gabiriaren pertsonaiak azterbide izango ditugu lehenik, gerora Mintegirenei heltzeko.

Connemaran gure bihotzetan nobelan, Txemak galdu egin du bere neska-laguna, Eider, auto-istripu batean. Hura ahaztu nahi eta ezinik dabilela, Eiderrek aurreko urtean Irlandara egindako bidaiaren egunkari bat topatuko du, klabe sekretuz babesturiko disketean.

Nobela horretako benetako protagonista Eider dugu, nahiz eta hasiera batean Txema dela pentsatu. Eiderrek ematen dio argia eta norabidea istorio osoari eta Eiderrek

izan ditu harremanak Irlandan, harreman diferenteak, besteak beste Rociorekin. “Ez dakit noiz, ez dakit nola, nire mingainak ez du gehiago Rocioren aurpegia ukitu, bat-batean hantxe behean baitzegoen, musu ematen eta lehenago inoiz sentitu ez dudan lurrikara bat sortzen nire erraietan barrena. Goizak luze jo du.” (109. or.)

Harreman moten nahiz pertsonaien esanahi axiologikoetara hurbiltzeko espazialitateak ematen digun aukera aprobe txatuko dugu, izan ere, espazioa pertsonaien luzapen edo adierazpena baita. Askotan espazioak pertsonaiaren metonimia edota metafora bezala funtzionatzen du R. Wellek eta A. Warren⁵²-en iritziz. Honen harira, Garrido Dominguezek⁵³ dio, erromantizismoan, errealismoan eta espresionismoan espazioak pertsonaiaren egoera animikoa argitu, justifikatu edota islatzen zuela. Guk Eiderrez (lurrikara) zerbait esan beharko bagenu, bizitzaren metafora dela esango genuke, nahiz eta paradoxikoa izan bizi ahal izateko bere buruaz beste egitea. Beraz, paradoxa horri helduz, espazio heterotopikoez hitz egin beharko genuke. Foucault-ek⁵⁴ dio bizi dugun garaian espazioa enplazamenduen amaraunez osatzen dela. Eta nobela honetan, pertsonaiak, harremanak eta espazioak ere enplazamenduen bidez eraikitzen dira. Gure buruari egin beharreko lehen galdera zera da, zergatik gisa honetako harremanak idazteko desplazamenduetara jo behar dugun. Ez da bada izango gauden lekuan ez dagoelako lekurik gisa honetako pertsonaia eta hartu-emanetarako?

Espazio isolatuak, baztertuak

Protagonista, Eider, hilerrian “bizi” da. Leku heterotopikoa Foucault-en hitzetan, jendartearen baitan dagoen kontra-espazioa, norat desplazamendu guztiek eramaten gaituzten. Hilerria da Eiderren atsedeen deslekua. “Eta

heriotzaren besoetatik barreka segitzen zuen, bere mutilari so” (119. or.).

Eiderrek, halere, utzitako egunkarian esaten digu Euskal Herrian hiltzen ari zela eta Connemara bat behar zuela bizitzeko eta bidaiari ekiten dio. Bidaian, Euskal Herritik urrun, Rocio dago eta han Rociorekin harremanak eduki ditzake. Azkenean, Clifford-ek erabiltzen duen *spazio diasporiko* kontzeptua agertzen zaigu, izan ere, Eiderren garapena diasporikoa baita: ez Irlandan, ezta Euskal herrian ere ez dagoena. James Cliffordentzat⁵⁵ diasporak mugan egotea, etxerik eza esan nahi du eta Eiderrentzat eta Rociorentzat ez dago etxerik, ez dago leku lasairik.

Beraz, hilerritik, Irlanda eta Euskal Herria modu diasporikoan lotzen dituen ibilbidetik, era metaforikoan esplikatzen zaigu Rocio eta Eiderren arteko harremana. Eta horren lekuko Eiderren egunkaria dugu, Txemak irakurtzen diguna: Dublin, Cashel, Killarney, Dingle, Lahinc, Connemara, Derry, Belfast... klabe sekretuak izango dira, hitz batean: mugak, aduanak; David Lodgek ez-leku bezala izendatzen dituenak. Bere hitzetan, ez-lekuen espazioak ez du identitaterik ezta harrremanik ere, bakardadea eta antzekotasuna baizik. Beraz, bi hitzetan laburtzeko, Eiderrek Euskal Herria, itotzen eta bizitzen uzten ez dion herria utzi eta bidaia, askatasun bidaia iniziatikoa egiten du, desplazamenduan jartzen da; ezleketan barrena sartzen da eta ezleku horietan sekulan izan ez dituen harremanak egunkari baten bidez eraikita uzten ditu, berriz ere Euskal Herrira, hilerrira bueltatzeko. Existitzen ez diren lekuetan gauzatu ditu Eiderrek harreman lesbiarrak nahiz transgresoreak, askatasunaren metafora izan direnak; Txemak, jendarteak, bere samina azaltzen digu: “Eiderrek engainatu egin zuen. Norekin eta neska batekin... (...) askoz ere gogo handiagoak sortu zitzaizkion herrira bueltatzeko, eta kanposantuko G12 kaleko

hilotzaren aurrean birrikak ondo bete eta puta nazkagarriaaaa! Botatzeko garrasi batean”. (117. or.)

Laura Mintegik *Nerea eta biok* nobelan bi emakumeren arteko hartu-eman iradokitzen digu. Harreman hau Isabel eta Nerea pertsonaiek burutzen dute. Isabel, unibertsitateko irakaslea da, ama, banandua eta 42 urtekoa. Nerea Parisko kartzela batean dagoen etakide gaztea dugu. Isabelek irakasten duen literaturako ikasgaiari matrikulatu da Nerea eta eskutitz bidez literaturari buruz dituen hainbat iritzi jakinarazten dio bere irakasleari. Geroz eta maizago idatziko dizkiote gutunak elkarri. Hasieran, literaturarekin zerikusia duten idatziak; gero, norberaren bizipenak, ilusioei, galderei buruzkoak. Kartzelako aldia bukatutakoan, gutunak amaitzen dira eta harremana bere horretan erortzen da.

Connemara harreman lesbiererako ezleku bezala izendatu badugu, esan behar dugu *Nerea eta biok*-eko harremana gutunen espazioan eraikia dagoela, hortik kanpo ez baitago deus.⁵⁶ Egotekotan, beste bi espazio leudeke: Nerearen espazioa, kartzela, eta Isabelen espazio intimoa. Horiez ere mintzatuko gara, baina hartu-emanaren espazioa, gutunena, beste leku heterotopiko bat dugu. Gutunak itsasontzien antzera espazio flotanteak dira, bere baitan hertsia, baina itsaso zabalari irekia. Itsasontzia heterotopiaren eredurik argiena bada, gutunak ere errealitatearen eta fantasiaren arteko bidaiari nekaezinak ditugu. Liburu honetan Mintegik harreman lesbier inplizitua iradokitzen digu: jendarteari gordea, hertsia, eta bi emakumeen imajinazio eta mundu zabalari erabat irekia. “Zu maitatzen ikasi dut gutunen bidez, hitzez hitz, urruntasunean. Baina, nolakoa izango da sentimendu hau, nire ondoan sentituko zaitudanean? Nola begiratuko dizut begietara, zure eskuak nire eskuen artean daudenean? Intentzua eta latza izan arren, hala ere errazagoa da gutunen

bidezko maitasuna. Baina orain? Zer egingo dugu orain, kalean?” (70. or.)

“Eta ez naiz emezalea. Ez gara. Baina zer da emezaletasuna? Zer da lesbiana izatea? June Mansfield ez zen lesbiana, ez eta Anais Nin ere, eta elkar maite izan zuten, sutsu, desioz, eta biek maite zuten Henry Miller. Virginiak Leonard maitatu zuen, bere senarra, nahiz eta historiak dioen, berarekin inoiz ez zuela harreman sexualik izan, eta bai, aldiz, emakume batekin. Nola zuen izena? Bai, Woolfaren txera sarritan joaten zen laguna, nola zen? Quentin Bell-ek izena ematen zuen Virginiak idatzi zuen liburu hartan.[Ez dakit, ez dut gogoratzen.] VITA SACKVILLE-WEST, bai, hori zen. Simone eta Jean Paul-ek ere urte askotan elkar maite izan zuten, baina hala ere, biok maite zuten batera Gonbidatua nobelan protagonista agertzen den emakumea, Xaviere...” (33. or.)

Isabelek gutunen bidez bere barrua irekitzen dio, bere espazio intimoa eskaintzen dio Nereari, kontzientziaren hausnarrarekin batera lotzen zaio Nereari. Hustuketak, bakardadeak, espazio intimoak norabide bakarrean jartzen du Isabelen izatea: Paris du helmuga. Parisen, Fleury-Merogis dago eta han bere lege propioak eta funtzionamendu autonomoa duen beste espazio edo mundu heterotipokoa: kartzela. Nerearen deslekua.

Connemaran emakumeen arteko hartu-emanen inguruan apenas burutaziorik azaltzen da, Mintegiren lanean aldiz etengabeak dira. Isabelek dio emakumeen arteko amodioa diferentea dela, berezia, sakona, misteriotsua, sensualitatez betea, epela, leuna, goxoa. Bi emakumeren arteko maitasuna, dio Mintegik Isabelen hitzetan, begiradez eta laztanez elikatzen dela.

Bi liburuetan hartu-emanak ezlekuetan gauzatu badira ere, esan behar da *Connemaran* gizonetzko hetero-

sexuala dela harreman horren inguruan bere jarrera azalduko duena; aldiz, *Nerea eta biok*-en emakume heterosexuala da harreman horren inguruan hausnartzen duena. Esango genuke Mintegi gehiago baliatu dela harreman inplizitu honetaz emakumeen arteko harremanez hitz egiteko eta emakumearen kontzientziaren inguruan hausnartzeko: amatasuna, kontzientzia politiko-soziala, bere senarrarekin izandako hartu-emanen inguruko gogoetak. Isabel da protagonista nagusia eta lehen pertsona barrutik mintzo dena, Nerea bera ere, Isabelek kontaktzen digunaz ezagutzen dugu. Bakarrizketa, gizonezko pertsonaien absentzia edo presentzia eskasa, *Nerea eta biok*-en ezaugarriak dira, denak ere kritika feministak aipaturiko lanabesak emakume berria nahiz harreman berriak abian jartzeko edota Gilles Lipovetskyk⁵⁷ aipaturiko hirugarren emakumea hemen dagoela gogorarazteko: Jainko eta gizonezkoen aginduetatik urruntzen ari den emakumea.

Connemara gure bihotzetan-en, arestian esan legez, hartu-emana erabat esplizitua da, izan ere, protagonistak bizitza askatasunarekin lotzen du eta askatasuna maitasun anitzarekin, horien artean hartu-eman heterosexualak nahiz lesbiarrak. Askatasunari kontrajartzen zaion erlazio klase bakarra, Eiderren ustetan, jendarteak eraikitako bikote harreman monogamo-hipotekarioa da. Gabiriak ironia handiz narratzen digu harremanen inguruko istorio hau eta horretarako bikote dikotomikoa eta erreferentziala sortu du, semiotikan ohiko diren oposizioak ondo argudiatuz. Txema/Eider: betiko harreman heterosexualak/harreman askatuak; betikotasuna/askatasuna; Euskal Herria/Connemara...; ez bizitza/bizitza; bizitza/heriotza.

Begirada lesbiarrak Itxaro Bordaren nobelagintzan

Iratxe Retolaza

Euskal idazleen artean bada ibilbide literario osoa begirada lesbiarren presentziaz zeharkatu duen sortzaile bat, Itxaro Borda, alegia. Joseba Gabilondo literatur kritikariak aztertu du Itxaro Bordaren nobelagintza identitate lesbear horren ikuspegitik⁵⁸. Narratzaile, poeta eta saiogile honek, genero guzti-guztietan, molde batera edo bestera jorratu du begirada lesbear hori, batik bat homoerotismo femeninoan oinarritu duena. Bere narrazio labur eta poema askotan emakumeen arteko erotismoari bide ematen dio, emakume baten begietan eta ahotan beste emakume batek sorturiko sentazio erotikoa helaraziz eta mamituz.

Nolanahi ere, nobelagintzan izan dute begirada lesbear horiek sakontasunik handiena eta bilakaerarik aipagarriena, bere lehen nobelatik hasita. *Basilikan* (Susa 1984) bertan, pertsonaia nagusietariko batek jada begirada erotikoa agertzen du beste emakume batekiko, Elixabetek, Ama Birjina ikusi duelako gezurra haizaratzen duen neskatxak, zehazki. Are gehiago, neskatxa horrek begirada lesbear hori Ama Birjinaren irudia imajinatzen duela agertzen du, zehatz-mehatz Ama Birjinaren izterrak gozo eta eder irudikatzen dituenen haragitzen da begirada lesbiarra. Ama Birjina irudikatzean harturiko jarrera homoerotikoa, jakina, *Basilika* nobela osoa zeharkatzen duen probokaziorako jarreratik ere sortua da, Eliza katolikoari kritika egiten dion begirada zorrotzetik sortua, haren begirada hertsia eta kontserbadorea atzekoz aurrera jarri nahi duena.

Baina lehen nobela honetan pasarte batzuetako begirada iheskor dena, ondorengo nobelagintzan, Amaia Ezpeldoi detektibearen tetralogian, sakonduz eta zehaztuz doan begirada lesbiarra dugu. Amaia Ezpeldoi pertsonaia lehen aldiz *Bakean ützi arte* (Susa 1994) nobelan aurkeztu zigun Itxaro Bordak. Detektibe rurala dugu Amaia Ezpeldoi, zuberotarra, gertaera bitxiak ikertzen dituen detektibe xelebrea. Lehen nobela hartatik, gainera, Amaia Ezpeldoi detektibearen ezaugarrietariko bat bere anbiguotasun sexuala izan da, bere begirada erotikoa anitzak. Amaia Ezpeldoiren tetralogia osoan lehen pertsonaia kontatzen zaizkigu ikerketak eta gertaerak, Amaia Ezpeldoi beraren ahotsean. Hortaz, haren begi eta ahotik ezagutzen ditugu gertakizunak oro. Horregatik interesgarria da oso nobela hauetako ahots nagusia den pertsonaia begirada lesbiarrez jardutea, galbaheirik gabeko diskurtsoa sortuz. Dena dela, Amaia Ezpeldoiren lehen nobeletan (*Bakean ützi arte*, Susa 1994, *Bizi nizano munduan*, Susa 1996, *Amorezko pena baino*, Susa 1996) detektibe zuberotarrak batik batik begirada lesbiar iheskor horri eutsi dio, nahiz eta zenbaitetan begirada lesbiar erotikoa haragiztatzera ere jotzen duen. Lehen nobela horietan, Amaia Ezpeldoi batez ere beste emakume batzuen gorputzek (edo gorputz atalek) harengan sortzen duten zirraren berri ematen digu, emeekiko sentituriko sentsazio erotikoa agerraraziz. Kasu horietan, narratzaile nagusiaren begiekin batera (Amaia Ezpeldoiren begiekin batera) doa irakurlea emakume horien guztien ezpain mamitsuetara, izter borobiletara edo bular punpatuetara. Desiraren eremuetara eramaten da begirada lesbiarraren agerpena. Baina lehen nobela hauetan, begirada lesbiar erotikoa han eta hemen topatzea erraz bada ere, ez dugu identitate lesbiarrari buruzko hausnarketarik antzematen. Horixe da tetralogia honetako azken nobelan, Itxaro Bordak Amaia Ezpeldoi

pertsonaiari berriro ahotsa ematean garatu zuen alderdia, alegia, identitate eta nortasun lesbiarra. Hortaz, azken nobela honetan, izenburuak iradoki bezala –*Jalgi hadi plazara* (Susa 2007)–, Amaia Ezpeldoik plazara aterako du bere identitate lesbiarra eta ordura arteko nobeletan batik bat begirada, sentimendu eta zirrara barnekoi zena –nahiz eta irakurlearekin konpartitua izan–, aldarrikaturiko identitate eta kokapen politiko, sozial eta sinboliko bilakatu da. Izan ere, lehen nobeletan begirada erotikotik baten bitartez agerrarazten zen nortasun lesbiarra, oso modu inplizituan. *Jalgi hadi plazara* nobelan, aldiz, armairutik aterako da Amaia Ezpeldoi, plazara egingo du jauzi, eta modu esplizituan hitz egingo du bere nortasun lesbiarraz.

Ikus dezagun zein den Amaia Ezpeldoik nobelaz nobela eginiko bidaia. Izan ere, nobela hauetariko bakoitzean ikertu beharreko kasua Euskal Herriko herrialde jakin batean kokatzen da, bazterretik erdigunerantz eginiko bidaia irudikatuz, nekazal mundutik hirirantz eginiko bidaia ere badena:

- *Bakean ützi arte* (1994): nekazari zuberotar baten desagerpena ikertuko du Amaia Ezpeldoi detektibeak nobela honetan. Zuberoan kokaturik daude gertakariak, eta nobelako hizkerak ere zubererantz egiten du. Eleberriak enpresa-politikak kritikatzeko ditu.
- *Bizi nizano munduan* (1996): ezkontza-egunean ihes egin zuen emakume baten desagerpena ikertuko du Amaia Ezpeldoi detektibeak. Nafarroa Beherean kokaturik daude gertakariak, eta hizkera ere lurralde hartara egokiturik dago. Familiaren instituzio sozialari egiten dio kritika nobela honetan.
- *Amorezko pena baño* (1996): Bardeako Tiro Poligonoan desagertu den intsumiso baten kasua ikertuko du Amaia Ezpeldoik. Nafarroan kokaturik daude

gertakariak, eta hizkera ere lurraldera egokiturikoa da. Nobela honetan politika militaristen inguruko kritika egiten du.

- *Jalgi hadi plazara* (2007): Ipar Euskal Herriko euskaltzain baten desagerpena ikertuko du Amaia Ezpeldoik. Bilbon kokatu ditu gertakariak, oraingoan ere hizkera egokituz. Besteak beste, euskararen inguruko instituzio zenbait kritikatu nahi ditu eleberriak.

Nobelaz nobela eginiko bidaia hori irudikatzen da azken nobela honetan ere. Narrazioa Amaia Ezpeldoik Isturitzeko kobazuloetan dela abiatzen da; bere hitzetan, amaren sabelaren irudiko diren kobazuloetan. Hortaz, tetralogiako azken nobela honek ere bidaia irudikatzen du, kobazulotik hirira egindako bidaia, Zuberoatik (euskal kulturako bazterreko txokotik) Bilbo Hirira eginiko bidaia (euskal kulturaren botere-eremu badena, besteak beste Euskaltzaindiako egoitza nagusia bertan dagoelako). Bidaia horrek garrantzia handia du Amaia Ezpeldoiren identitate lesbiarraz hitz egitean, ez baita kasualitatea Amaia Ezpeldoik Bilbon (eta ez beste inon) hitz egitea lehen aldiz identitate lesbiarraz. Nobelan zehar, Amaia Ezpeldoik berak Bilbo Hiria aniztasunarekin lotzen du, aniztasun horren artean sexu-jarduna ere kokatuz. Badi-rudi Amaia Ezpeldoirentzat Bilbo Hiria urruneko espazio hori dela, Castlek aipaturiko *Islanding* gunea, beste nor-tasun lesbiar batzuentzat Paris edo Berlin denaren parekoa. Izan ere, *Jalgi hadi plazara* nobelan etengabeak dira Bilbo eta Berlinen artean sorturiko lotura sinbolikoak.

Amaia Ezpeldoik Bilbo Hirira eramaten duen kasu Ipar Euskal Herriko euskaltzain baten desagerpena da. Ondorioz, Ipar Euskal Herriko lau euskaltzainen atzetik ibiliko da Bilbon, Euskaltzaindiak egoitza nagusia duen hirian, horietariko baten desagerpena nolatan gertatu den ikertzeko. Kasu horren aitzakian, bere aspaldiko lagun

Carmenekin elkartuko da, aspalditik maite omen duen emakumearekin. Lagunarekin elkartzeak eta harekin sexuharremana abiatzeak sorraraziko ditu bere nortasun lesbiarrarekiko hausnarketak Amaia Ezpeldoirengan. Are gehiago, Carmen bera izango da identitate lesbiar hori plazara jalgitzeko premia agerraraziko diona; hark bultzatuko du “lesbiana naüzu” esatera, aitorpena egitera eta identitate lesbiarra atxikitzera. Hortaz, nobelan zehar Amaia Ezpeldoi detektibe ruralarengan bilakaera sumatuko da: hasieran begirada lesbiarra erotismo kutsuz horniturik dago batik bat, desiraz blai, kutsu sexual ez josita. Nobelak aurrera egin ahala, begirada lesbiarra izaera soziala eta sinbolikoa ere bereganatzen joango da, kokapen aldarrikatua izateraino.

Thriller lesbiarra eta parodia

Ikerketa feministek nobela beltzaren inguruko interes berezia agertu izan dute, genero horretan emakumeek eragin handia izan dutelako. Halaber, hainbat nobela beltzetan emakume-detektibeek arau heterosexualak urratzen dituzte, nortasun lesbiarraren alde eginez. Thriller lesbiarrak aztertu dituzten ikerle feministen artean, Paulina Palmer-en⁵⁹ lana da aipatzekoa. Thriller horien inguruan eginiko azterketan Palmerrek dioenez, protagonistaren kokapen lesbiarra bi modutara gauzatu ohi da: batetik, gutxiengo sexualen arazoaren aurkezpen eta salaketa errealista eginez; eta bestetik, jarrera heteronormatiboak iraultzeko bidean parodia erabiliz. Itxaro Bordak parodiaren alde egin du bere nobeletan, eta ikuskera parodiko horretan egituratu du kritika soziala eta diskurtso hegemonikoen transgresioa.

Identitate gatazkak

Baina ikus ditzagun bilakaera horren gune garrantzitsu zenbait, nobela honetan nortasun lesbiarraren bilakaera beste nortasun gatazka zenbaitekin harremanetan jartzen baita.

Zuberoako bazter batetik Bilbo Hiria erdigunearantz eginiko bidaiak Amaia Ezpeldoi pertsonaiarengan hiru identitate gatazka eragingo ditu:

1. Nekazal identitatea vs. Hiri identitatea
2. Identitate heterosexuala vs. Identitate lesbitarra
3. Identitate linguistiko hegemonikoa vs. Identitate linguistiko periferikoa

Identitate gatazka horiek jada agertu ziren tetralogiaren lehen hiru nobeletan, baina azken nobela honetan hiru gatazkak esplizitu bihurtu dira. Nobelaren hasieran, gainera, Amaia Ezpeldoi berak adierazten du asko aldatu dela azken urteotan, jada ez dela abertzalea, jada ez doala abertzaleek deituriko manifestazioetara. Aldaketa hori esanguratsua da, lehen nobeletan Amaia Ezpeldoi independentistatzat baitzuen bere burua. Aldarrikapen hori osatu eta baieztatu egiten da, gainera, Ezpeldoi detektibeak ikertzen dituen gaien bidez. Joseba Gabilondok ohartarazi bezala, lehen hiru nobeletan Ezpeldoi ikerituriko gertaera guztiak borroka independentistari lotzen zitzaizkion. Aldiz, *Jalgi hadi plazara* nobelaren hasieran Amaia Ezpeldoi deserroturik sentitzen dela adieraziko du: familiarik gabe geratu da, babestuko duen diskurtso kolektiborik gabe (jada ez duelako diskurtso horretan sinesten), eta bere hizkera desagertze horrek beste errotze bateranzko bidea ekarriko du, nortasun lesbarreranzko bidea, baina, nortasun lesbitarra beste bi nortasunekin elkarrizketan garatuko da: nekazal identitatearekin eta identitate linguistikoarekin.

1. NEKAZAL IDENTITATEA VS. HIRI IDENTITATEA

Gizarteak espazioak bi eremutan banatu ohi ditu: nekazal guneak batetik eta hiri guneak bestetik, eta bana-keta dikotomiko horren parodia egiten da *Jalgi hadi plazara* nobelan. Dikotomia hori are hertsiago erabiliko du, Hego Euskal Herria hiri gunearekin lotuz eta Ipar Euskal Herria nekazal gunearekin lotuz. Sinplifikatze eta hertsitze horrek dikotomia horixe barregarri utzi eta baliogabetu egingo du. Baliogabetze hori indartuko da Ezpeldoi detektibeak nekazal gune batzuetan hiri guneetako kultur ohiturak badirela adieraztean, eta alderantziz.

Edonola ere, identitate lesbiarraren garapena hirigunearekin lotuko du. Giandomenico Amendolak *La ciudad postmoderna* liburuan adierazi bezala, hirian identitate subalternoak sortzeko aukerak zabaltzen dira:

“Son las tribus urbanas, agregaciones basadas en modas y en factores de agregación antaño considerados secundarios (...). Más que las determinantes productivas, en la ciudad contemporánea son las modas, las que funcionan como puentes para unir y excluir, para agregar y contraponer (...). Representa la posibilidad de construirse identidades y agregaciones nuevas, libres de vínculos predeterminados de carácter económico, social, político o territorial”.⁶⁰

Hiriak emandako aukera horri lotu bide zaio Amaia Ezpeldoi. Izan ere, hirian zehar eginiko joan-etorrietan nortasun lesbitarra sendotzeko sinboloen bila dabil. Ibilbide militante baten itxura hartzen dute Ezpeldoiaren pa-seoek, hiriak bere nortasun lesbiarraren ispilu bilakatzeko gogo nabaria delako.

Besteak beste, gau giroan eta taberna konkretu batzuetan topatuko du identifikazio eta sinbolo iturria: Engelblau tabernan. Bertan, gay, lesbiana eta transexualen

kultura da nagusi, eta euskaraz egina gainera, are zubereraz ere. Jakina, zubereraz sorturiko kulturagune horrek liluratuko du Ezpeldoiko detektibearen. Bilbon igarotako lehen gaua taberna horretan egingo du; azken gaua, berriz, Bilboko Kafe Antzokian. Han elkartuko dira Engelblau tabernan ezaguturiko lagunak eta zubererazko kantuen ikuskizuna eskainiko dute. Ikuskizuna identitate-erritu bihurtuko da, eta ez da ikuskizun huts izango, ez baita kasualitatea Engelblau tabernatik Kafe Antzokira eginiko aldaketa; Bilbon gune euskaltzale nagusi dena berrasmatzeko gogo nabaria da, nortasun lesbiarrez (gay eta transexual) berrasmatzeko beharra.

2. IDENTITATE HETEROSEXUALA VS. IDENTITATE LESBIARRA

Espazioak bezala, gizarte diskurtso hegemonikoek sexu-jardunak ere hierarkizatzen dituzte. Kasu horretan, hetero-jardunak eredutzat jarriz eta gainerakoak baztertuz. Dikotomia eta hierarkizazio horri ere aurre egin nahi zaio nobela honetan, eta besteak beste, Amaia Ezpeldoiko detektibe matxisten ohiturak parodiatzen ditu, zeinen patetiko izan daitezkeen agerraraziz.

Ikus dezagun, bada, zertan den Amaia Ezpeldoiren nortasun bilaketa hori.

Nobelaren hasieran, Amaia Ezpeldoiren barne-pentsamenduetan begirada lesbiarrak nagusitasuna hartu aurretik, beste baten ahotan adierazten zaigu lehen-lehenik Amaia Ezpeldoiko detektibearen hautu sexuala. Zehazki, desagertu den Gexan Hiriart euskaltzainaren ohar batek ematen digu bere hautu sexualaren berri, baita erlijiosoaren berri ere. Honela mintzo zaio Gexan Hiriart bere semeari Amaia Ezpeldoiri buruz: “Anitzek bezala, ez daukat estimu handitan, bere molde pagano eta *emaztekoiekin*, baina kompetentea ez den arren, efikaza da” (15. or) [letra

etzanak egileok jarritakoak dira]. Ondorioz, Amaia Ezpel-
doiren barne-gogoeta eta barne-ahotsaren bitartez irakur-
leoi emakumezale dela ohartarazi aurretik, beste ahots
batek emango digu hautu horren berri, botere jakin baten
ordezkari den ahots epaile batek, alegia: elizaren boterea-
ren, euskal kulturaren botere-eremuaren eta heteropatriar-
katuaren ordezkari ere baden ahotsak. Adrienne Richek
esan bezala, “boterea hizkuntzaren bidez zure ikuspuntua
ezartzeko gaitasuna da”. Hizkuntzaren botere horri, eta
batez ere instituzionalizaturiko hizkuntzaren botereari
egiten zaio kritikarik sakonena nobela honetan. Detekti-
beak nobelan zehar ahots propioa sortuko du, bere diskur-
tso propioa, boterearen hizkuntzari erantzuteko. Jendar-
teko botere-guneotako ahotsak detektibearen emakume-
zaletasuna mespretxuzko tonuan adierazi ondoren, Amaia
Ezpeldoik aitortuko du Carmen lagunarekin maitemin-
dua egon zela (18. or.), eta aitortza hori egin ondoren,
askotarikoak izango dira une oro nobelan zehar aurkezten
diren begirada lesbiarrak.

Lehen begirada lesbiarrek zerikusi handia dute Amaia
Ezpeldoik berak hautematen dituen emakume-gorputzek
sorturiko zirrarekin eta gorputz horietaz zein emakume
horien jarrerez eginiko balorazioekin. Gehientsuenetan
emakume-gorputzen mugimendu eztiak goratzen ditu,
begi aurrean dituen gorputz emeen sentsualtasuna deskri-
batuz, eta horrekin batera bere desira eta zirrarak agerra-
razi egiten ditu. Erika maitale ohiarekin topo egiten due-
nean agertzen du lehen aldiz desira hori, Erikaren “mate-
lak amodiozko arrosa gorri” (30. or.) direla aipatzean, eta
baita elkar agurtzerakoan Erikak ezpainetan musu ematen
dionean ere (31. or.). Baina Baiona erdian jasotako musu
publiko horrek Amaia urduri jarriko du, eta kezkatu.
Egoera horretan, honako elkarrizketa hau gertatzen da
Erika eta Amaia artean:

- “– Otoi, Erika, ez karrikaren erdian.
- Zergatik ez guk? So egizan hantxetako bikote hura, badun oren erdi bat elkarri musuka ari direla.
- Ez dun berdin.
- Gizon eta emaztea direlako?
- Bai.
- Lesbiana haiz, ni erdi naizen moduan...
- Baiki, baina hobe isildurik, ez?” (31. or.)

Baiona hiri erdian gertatzen den eszena horretan argi geratzen da Ipar Euskal Herriko txoko horretan Amaiak ez duela bere burua publikoki emezale aurkeztu nahi, eta Erikkak lesbiana ote den galdetzean baiezkoa ematen badu ere, argi eta garbi uzten du isilpean eraman nahi duela, agerpen sozialik ez duela nahi. Baina, aipatu dugun bezala, Amaia Ezpeldoiren jarrera aldatuz joango da nobelak aurrera egin ahala, Bilbo Hirian Carmen lagunak bultzaturik bestelako jarrera izango baitu, agerpen publikoak onartuz.

Esan bezala, Carmen Amaiaaren aspaldiko laguna zen, eta 20 bat urteren ondoren berriro ere elkartu ziren; orduan, Amaia ohartu zen Carmenenganako sentimendu hura oraindik ere pil-pilean zela. Carmenekin igarotako momentuetan nabarmenak dira oso Amaiak eginiko deskribapen sentsualak. Hona hemen lehen hitzordu horren narrazioa, Carmenengatik sentiturikoa kontatzen diguna:

“Carmenek katilua ezpainetaratu zuen. Keinuaren sentsualtasuna uhin zitzaidan. Begiak ezpainetarik lepora bultzatu nituen eta agerian zeuzkan bular uren banaguneak irentsi nituen, itsasoak bezain segur. Ustez aspaldian zendutako ene Carmenenganako desirak zitzikatu ninduen. Zer ari nintzen zaharkeria harrotzen, ustel usaina zerien aditz maingukariak haiatzen, laster batean behin betiko ezabatuko zen euskalki baten ge-roaz axolatzen, amodioa hor neukalarik, eskumenean, aitzinean, aiduru, menturaz, agian, lau euskaltzainak

pikutara joan daitezela, oro bat zitzaidan, Carmen nahi nuen” (40. or.).

Lehen topaketa honen ondoren, Carmenek sorturiko sentimendua deskribatu ostean, harreman bat abiatuko dute Amaiak eta Carmenek. Bilbo eta Carmen dira askatasun-iturri nagusia Amaiaarentzat, bere hiritartasuna (bere subjektutasuna, alegia) eskuratzeko bideak, baina, berezi-bereziki Bilboko gune batzuk: gaua eta taberna zenbait. Amaiaaren begietan, Bilbo hirian aniztasuna da nagusi, nahiz eta oraindik ere itzalpera kondenaturiko aniztasuna izan.⁶¹ Bi pasarte hauetan agertzen zaigu ikuskera hori:

“Bilbon aztoratzen nindoan: hasieran bikote konbentzionala zela uste nuena, hurbildu eta bi gizon ziren: kalearen minean zeuden, elkarri musuka” (56. or.).

“Itzalpez itzalpe bazebiltzan arima erratuz emokartzten ziren karririkak, egun argiz ikusten ez ziren bizidunak beraien harpeetarik ausartzen zirelako, eguzkia ezkutatu arau: punki taldeak muturretakoa zeramaten zakurrekin, hippie jantzi loretsuz apaindu bikoteak, gizonak gizonekin, emazteak emazteekin, eta bakarretan, turistak izan zitezkeen hargatik, gizonak emazteekin” (100. or.).

Testuinguru horretan kokatu behar da Amaiak egitiko baieztapen hau: “Bilbon, Carmenekin, hiritartasuna berraurkitzen nuen” (93. or.). Izan ere, Amaiak Bilbon topatzen ditu bere nortasuna askatasunez agertzeko espazio alternatiboak, espazio heterotopikoak. Gaueko espazio alternatibo horiek eta Carmenen gorputzaren espazioa ezagutzearekin batera, Amaiaaren kontzientzian aldatetako gertatuko dira, eta Erikari Baionan isilpean gorde beharreko aitoren zena, alegia, lesbiar nortasuna, Bilbon aldarri bihurtuko da; Carmenen laguntzaz entzungo dugu

Amaiaren ahotan lehen aldiz “lesbiana naüzu”, identitate sexualaz haratago, identitate sozial eta sinbolikoa ere aldarrikatuz.

3. IDENTITATE LINGUISTIKO HEGEMONIKOA VS. IDENTITATE LINGUISTIKO PERIFERIKOA

“Lesbiana naüzu” dio Amaia Ezpeldoik, bere euskalkia erabiliz, eta lehen hurbilpen batean garrantzirik gabeko kontua dirudiena funtsezkoa gertatzen da nobelaren osotasunari begiratuz gero. Izan ere, gizarteak hizketa-ekintzak ere hierarkizatu eta instituzionalizatu egiten ditu, eta esan egiten zaigu zein hizkuntza-eredu den arautua eta egokia, eta zein den baztergarria. Hala, hizkuntza-ereduen kritika ere egiten du Itxaro Bordak nobela honetan. Batetik, kritikatu egiten du Ipar Euskal Herrian sorturiko hizkuntza-eredua, katolizismoaren eta patriarkatuaren eredu ere badena, eta bestetik, Hego Euskal Herrian sorturiko hizkuntza ereduari ere kritika egiten dio, merkantilizazioaren eta profesionalizazioaren eredu delako.

Kontuan hartu behar da euskaltzainaren desagertze eta hilketek XVI. mendeko euskal testu zenbaitekin lotura dutela. Alde batetik, beraz, Ipar Euskal Herriko euskaltzainek bere botereari eutsi nahi diote testu horiek ezkutatuz, testuak erotikoak direlako, eta beste alde batetik, Donostiako botere editorialak testu horiek lortu nahi ditu argitalpen mediatikoa egiteko, balio sinboliko gabeko testutzat baitauzkate.

Hizkuntza eredu instituzionalizatu eta hegemoniko horien ondoan, Amaia Ezpeldoik zubereraren alde egingo du, botereak bere egin ez duen hizkera den neurrian, kokapen politiko lesbiarraren alde egiteko espazio linguistiko aproposena iruditzen zaiolako. Beraz, nobelak euskal literaturaren sortze-diskurtsoaren berrirakurketa ere pro-

posatu nahi du, Etxepareren “jalgi hadi plazara” leloa berrasmatur, imajinario kolektibo egonkor eta zurrun batean urradura zenbait sortuz eta nortasun lesbiarrari bideak zabalduz.

Nobela honetan nortasun lesbiarra garatzeko tradizio linguistiko-literario berria proposatzen da, zubereraren kutsua izango duena. Espazio linguistiko-literario berri horrek instituzionalizatu eta kanonizatu gabeko esperientzia eskainiko luke, eta espazio linguistiko-literario horren muina negoziazioa, bitartekaritza eta migrazioa izango dira.

Ziur asko nortasun lesbiarra espazio linguistiko-literario horretan kokatu eta berreraiki nahi zuelako ez du jo protagonistak Euskal Herritik kanpora. Ez du Berlin edo Parisera joan nahi izan Ezpeldoi detektibeak, nortasun lesbear hori euskaratik eta euskaraz sortu nahi zuelako, euskaltzaletasunetik sortua nahi zuelako.

Laburbilduz, nobela hau, besteak beste, bere emezaltetasuna argitara jalgitzen duen emakume baten kontakizuna da, Isturitzeko harpeen itzaletan abiatzen dena eta Bilbon, neoi-argizko hirian, itzalpetik eta isiltasunetik ateratzeko kementa eskuratzen duena. Baina, batez ere, euskaltzaletasunetik nortasun lesbiarrak zabaltzeko bideak proposatu dituen nobela da *Jalgi hadi plazara*.

Irudiak

Lesbianismoa euskal ipuingintza garaikidean

Amaia Alvarez Uria

Begira, begira, bi emakume elkarri musuka!

Argitu beharreko lehen kontua kontzeptua bera izango litzateke: lesbianismoa literaturan. Gai horri buruz hitz egin denean askok ipuin erotikoak irudikatuko dituzte: bi emakume elkarrekin sexu harremanak izaten. Hemen ez gara horrelakoen inguruan arituko, besteak beste, ipuin horien hartzaile edo irakurlea gizon heterosexuala izaten delako eta egiten den irakurketa nahiko tradizional eta patriarkala.

Guk beste bi ildo jarraituko ditugu: bata aztertutako lanetan agertzen diren pertsonaia lesbiarrak, euren irudia, jarrera eta haien arteko harremanak eta bestea aukera desberdinak ematen dituzten testu irekien irakurketa lesbiarra.

Gaia argitzen jarraituz, esan behar dugu Castleren arabera (ikus atal honen sarrera) *ikusezintasunaren mitoari* buruz hitz egin behar dela. Berak dio literaturaren historian lesbianismoaren gaia garai guztietan agertu dela eta horren ondorioz lesbianen ikusezintasuna mitoa dela.

Egia bada ere ekoizpen literarioetan lesbianismoaren gaia eta irudiak agertzen zaizkigula, errealitatean ikusezin bihurtzen ditu sistema hegemonikoak, “isiltasuna delako heteropatriarkatuak erabiltzen duen erasorik zorrotz eta iruzurtiena”⁶²

Lesbofobia eta misoginiaren tresnak bi dira: emakume eta lesbianak ikusezin bihurtzea edota ikusgarri direnean

haien balorazio negatiboa egitea. Beraz, kontuz hartu behar dugu Castleren baieztapen hori.

Baina, nola begiratu zaio gai honi? Zer ikusi da? Nola idatzi da horretaz? Euskal literaturan ere adibideak badauzkagu? Zelan irudikatzen dira pertsonaia hauek?

Has gaitezen, beraz, ea galdera hauei erantzuna topatzen diegun. Horretarako betaurreko bereziak jantziko ditugu: lesbofobia eta misoginiaren aztarnak antzematen dituztenak, hain zuzen. Atal honetan narrazio labur batzuk aztertuko ditugu. Azken bi hamarkadetan argitaratutako ipuin bildumei erreparatu diegu, eta bertatik hamar ipuin aukeratu ditugu. Kronologikoki ordenatuta hauek izango dira mintzagai hurrengo lerroetan:

1. Arantxa Urretabizkaiaren “Aspaldian (Carmen)” (*Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik*, Erein 1983)
2. Karlos Linazasororen “Bakardadearen eldarnioan I” (*Eldarnioak*, Erein 1991)
3. Xabier Montoiaren “Barregilea” (*Emakume bibotelduna*, Susa 1992)
4. Jasone Osororen “Txanogorritxoren inozentzia” (*Tentazioak*, Elkar 1998)
5. Javi Cilleroren “Baiona blues” (*Hollywood eta biok*, Alberdania 1999)
6. Mariasun Landaren *Inurri bitxia* (Erein 2005)
7. Urtzi Urrutikoetxearen “Olatz Fernandez eta Marta Arana” (*Auzoak*, Susa 2005)
8. Uxue Apaolazaren “Bueltak” (*Umeez gezurra esaten dutenetik*, Erein 2005)
9. Katixa Agirrerren “Festa gonbidatuak” (*Sua falta zaigu*, Elkar 2007)
10. Eider Rodriguezen “Apur bat zoroa” (*Haragia*, Susa 2007)

Nork begiratzen du?

Berak bazekien handik landa ez zituela bi txanpoi zoragarri haiek gehiago ikusiko, ez zuela gorputz bihurtun haren goritasuna bere esku loratuetan gehiago sentituko, ez zutela inoiz iada hitz melodiotsu goxoek gehiago goizalba zetorrenean iratzarriko.

Karlos Linazasoro

Zergatik irudikatzen dugu gizon bat emakume bati begira horrelako pasarte bat irakurtzean? Zerk esaten digu “bera” gizonetzkoa dela eta “gorputz bihurtun” hori emakumea? Baladetan ikusi dugun bezala, ohituta gaude subjektua gizon, beraz, neutroa, eta objektua emakume, beraz markatua irudikatzen. Begiratzen duena, aktiboa, gizona da, eta begiratua, pasiboa, emakumea hortaz. Honetaz gain, “bikotea” irakurtzean gizona + emakumea datorkigu burura. Estereotipo eta eredu finkoen bidez irakurtzen ditugu bai errealitatea, baita fikzioa ere.

Desberdin irakurtzeko gonbitea egingo dizuegu hurrengo lerrootan. Linazasororen testua, goiko pasartean ikusten dugun bezala, testu irekia dugu, bi pertsona zehaztugabe agertzen zaizkigu: *bera* eta *maitea*. Maitalearen hutsuneak protagonistari utzi dion bakardadeaz mintzo da. Desamodioaren erradiografia egiten digu protagonistaren logelaren gaueko argazki baten bidez. Bi emakumeren artean gerta daitekeen istorio bat, zergatik ez? “Begi guztiak ez dabe bardin ikusten.”

Betiko begirada

Jasone Osorok Txanogorritxoren ipuinaren bertsiotzat egin digu; protagonista “gazte eta xaloa” otsoaren

“atzaparretan” amaitu beharrean neska gazte beltzaran baten gorputzean kiribilduta ikusten dugu zelatan dagoen otso *voyeur*raren begietatik. Narratzaileak kontatzen digu otso pedofiloak bere baitan duen borroka txano gorridun ume ilehoria ez ukitzeko, ez bortxatzeko. Eta azkenean, otsoak bi emakume gazteen arteko harreman sexualak ikustean “inozentzia” zer den ikasten duela diosku.

Lesbianismoa (homosexualitatea oro har) historian zehar bekatu, delitu edota gaixotasun bezala ulertu izan da. Ipuin honetan bekatua otsoarena da eta Txanogorritxo eta beltzaranari “esker” otsoaren hobena miragarriro desgertzen da, harreman lesbiarrak inozenteak, errugabeak eta heldugabeak omen direlako.

Erabiltzen diren hitzak erlijio kristautik hartutakoak dira (*inozentzia, errua, bekatua, tentazioa, birjinala*) eta horrekin lortzen duena ikuspegi dualista ezartzea da: gaizkia eta ongiarena. Horren harira pare dikotomikoa sortzen du: harreman heterosexuala (otsoa: ar pedofiloa eta Txanogorritxo: neskatila zintzoa) vs. harreman lesbiarra (bi neska gazte eta eder elkarrekin “jolasean”) eta binarismoa indartu.

Nahiz eta onartu behar dugun ohiko irakurketa hegemonikoari⁶³ buelta eman nahi diola, inbertsioarekin arau heteropatriarkala auzitan jarriz, ez du lortzen beste irudikapen baztertzailerik batzuei izkin egitea.

Hemen lesbianismoaren irudi topikoetako bat⁶⁴ daukagu: bi emakumeen arteko harremanak sentimentalak, azalekoak, lagunartekoak dira, beraz, ez dira aintzat hartzekoak, ez dira “arau heterosexistarentzat” arrisku-tsua⁶⁵. Harremana sexuala izan beharrean sentsuala da gehienez jota, edo elkarren sostengurako, lagun minak dira, besterik ez.

Ikusi gaitu!

Javi Cilleroren eta Katixa Agirreren kontakizunetan kanpokoan begirada agertzen da eta horrekin batera epaitzeko eta zigortzeko mehatxua. Lesbofobiak⁶⁶ lesbianengan jarrera desberdinak eragiten ditu. Batzuek ikusgarritasunaren alde egiten dute jarrera militantea hartuz eta feministen *personal is politic* lema bere eginez euren aukeraren defentsa egiten dute egunez eta gauzez, etxean eta kalean.

Beste batzuek lotsa eta erruduntasun sentimendua izaten dituzte, autozentsura egiten dute. Kontrol sozialetik eta estigmatik ihesi doaz normalitatearen bila. Ondorioen beldur dira eta modu klandestinoan bizi dute euren aukera, bizitza bikoitza egiten dute espazioak eta denborak desberdinduz.

Hemen gertatzen dena, Dolores Julianok dioen moduan, arauen barneratzea da. Arauak ikusezinak dira, antzeman ezinak. Txikitan barneratzen ditugu sozializazio garaian eta auzitan jartzen ez diren gauzen artean daude. Zalantza egiten dugu soilik gure portaerek euren mugekin topo egiten dutenean eta orduan hasten dira arazoak. Emakumeak euren menpeko rolaz nazkatzen direnean eta askapenerako bideak urratzen hasten direnean biolentzia soziala jasan behar dute. Biolentzia egitura soziala mantentzeko eraikuntza kolektiboa da eta.

Sedgwickek dioen moduan, isiltasuna diskurtsoa bezain gurarizko eta eraldatzailea da. Beraz, esaten ez denak esaten denak besteko pisua eta garrantzia dauka. Eta esaten den arte, armairutik atera arte, ez da errealia izaten, ez da mamitzen, ez da benetan gertatzen. Batzuk armairutik irteten⁶⁷ dira eta beste batzuk barruan geratzen.

Bi jarrera horiek aurki ditzakegu aipatutako “Baiona blues” eta “Festa gonbidatuak” ipuinetan. Nahiz eta jarrerak ia kontrajarriak izan, bi narrazioetan minez bizi dute

harremana bi protagonistek: batak gaztetako oroitzapen urrunen bidez eta besteak kanpoko onarpenaren beharrean.

Cillerorenean hurrengoa irakurri dezakegu:

“Iraileko egun batez Marierekin jaitsi zen Chambre d’Amourera bizikletaz. Lanbroa itsasertzeraino zabaldua zegoen, eta kafetxeko zerbitzaria begira gelditu zitzaien, elkarri musuka ari zirenean txokoan”.

Agirrerenean bi protagonistak, Patricia eta MJ, elkarri besarkatuta eta musuka ari dira euren etxeko sukaldean. New York utzi eta Pennsylvaniara joan dira anonimatua- ren bila, bizitza bikoitzaren zama ahalik eta arinen bizi- tzeke gogoarekin, isolatuta eta jendartetik urrun, babes- tuta. Baina auzoko Jimmy mutikoak leihotik begiratu eta ikusi egin ditu. Ikusi ditu eta harrapatu dutenean korrika joan da. Jarraian MJren erreakzioa daukagu:

“MJ zuri dago. Ez da mugitzen. Berak ere hartu du sustoa mutila ikustean. Ez zuen halakorik espero. Ez leku bakarti honetan, bizilagun urrunen parajea, non eta Pennsylvaniako azkeneko konderrian. Bere sukaldean, bere leiho pribatuan. Baina hala jazo da. Beste behin ere gertatu zitzaion”.

Ikusezintasunaren ondorioak

Urtzi Urrutikoetxearen mikroipuin edota elkarriketa laburrean Marta eta Olatz dauzkagu, taberna batean te beroa hartzen kanpoan negu hotza dela. Elkarren gusto- koak dira baina hurbiltzen saiatuz gero, jakinarazten ba- diote elkarri, jaso lezaketen ezetzari baino areago, marji- nazioari diote beldur.

“– Teie, esniegaz?

– Bai, apur bet, mesedez. Eskerrik asko. Azukera gehi- dxaurik?

- Kutxarada bi. Bero dau ondino.
- Lasai hartuizu, eztau prisarik. Ederto berotuko zatu, holango egunien.
- Salda beroa hartuten gabizela emoten dau.
- Nik eskuek arrimau biodaz ba. Hotzitude nabil.
- Ekastezuz eskutxuok. Bero-bero igurtzikotsudaz, inok igarri barik.
- Mmm... Edaizu kafe, hotzitu orduko.
- Bart zugez in dot ames.
- Gurotsut.
- Zer?
- Ezebez. Lelokeri bet.
- Ni'pe bai.
- Zer?
- Ezebez. Itxizu”.

Euskal Herrian heterosexualen artean ligatzea zaila dela esaten dutenek ez dakite zenbateraino den hori egia lesbianen artean. Egoera normalizatu, onartu eta nagusitutakoan oztupoak egoten badira, atera kontuak marjina-tutako, gaizki ikusitako eta tabu den egoera batean! Lehen esan bezala esaten ez dena ez da existitzen, beraz, esatearen eta ez esatearen artean amildegi zabala dago kasu hauetan. Horren adibide xumea da Urrutikoetxeak papereratutakoa.

Zu zara nire begietako ninia...

Historian zehar lesbianismoaren gaia modu desberdinetan agertu izan da literaturan. Sarreran ikusi dugun moduan, *The literature of lesbianism* lanean egileak azken bostehun urteetan egon diren begiradak zerrendatzen dizkigu, eta haien artean emakume idazle batzuen lanetan errepikatzen diren pertsonaiak dira Arantxa Urretabizkaia eta Eider Rodriguezen lanetan aurkitu ditugunak: “emakume gazteak emozionalki harrapatzen dituen emakume heldu limurtzaile-liluratzailea”, edo bestela esanda, ema-

kume heldu liluragarria eta liluratutako emakume gaztea: Carmen batean eta Begoña bestean. Bien artean emozio handiak biziko dituzte eta gazteak gauza berriak ikasten dituen bitartean helduak nolabait erabiliko du gaztea.

“Aspaldian” ipuinean Carmen da emakume heldua eta protagonista-narratzailea gaztea. Lehen pertsonan idatzita dago, tonu autobiografikoan, eta narratzaileak Carmenekin ikasitakoak kontatuko dizkigu. Carmenek bizitzari begiratzeko beste modu bat erakutsiko dio, pentsatzen eta sentitzen ikasiko du berarekin eta protagonistaren nortasuna osatzen eta eraikitzen lagunduko dio harreman honek. Maitasuna ezagutuko du Carmenekin, zoriontasuna eta konplizitatea. Egunerokotasunetik ihes egiteko modua eskainiko dio, amets egiteko aukera.

Baina azkenean bakoitzak bide desberdinak hartu eta elkarrengandik banantzen dira. Oso desberdinak ziren bien munduak, loturak eta beharrak eta protagonista gazteak bere sustraien aginduari jarraitzen die (bere gurasoengandik hurbil geratuz eta bere herriarekiko loturari eutsiz) Carmen helduak jendartearen aginduei segitzen dien moduan (elkarrekin azken aldiz egon eta urte eta erdi beranduago gizon batekin ezkontzen da).

Rodriguezen ipuinean ere harreman mota hau agertzen da, agian ez hain idealizatua, hain espirituala, baina heldua eta gaztea agertzen dira (Begoña eta Matilda). Protagonista-narratzaileak kontatzen digu istorioa (Matilda gaztearen begietatik ikusten dugu) eta hau ere emozio eta aldibaterakotasunarekin lotutako harreman desorekatu eta interesaren araberakoa da.

Bi ipuinetan erreplikatzten diren bi kontu aipatu nahiko nituzke: aurretik izandako amorante gizonetzko bati egindako erreferentzia eta protagonista gazteak gurasoekin duen inkomunikazioa eta harreman txarra. Kontu hauen irakurketa positiboak gogora ekartzen dizkigute AEBetan

feminista lesbianek aldarrikatzen zuten emakumeen arteko elkartasun eta konplizitatea. *Erotismo femeninoa* deitzen zion adiskidetasun berezi honi Audre Lordek eta *continuum lesbiarra* Adrienne Richek⁶⁸.

Horrekin lotuta, Monique Wittig feminista lesbiar frantsesak *emakume* izaera kolokan jartzen du gizonekiko hareman heterosexual eta patriarkalean oinarritzen delako, bere hitzetan, izendapen hau. Lesbianak emakumeak ez direla aldarrikatzen du, arau horretatik libre direlako, menpekotasun egoeratik kanpo daudelako.

Non dago euskal Lesbos?

Castlek dio irletan, isolatutako espazioetan agertzen direla lesbianentzako espazioak literatur testuetan (*islanding*), gizonen mundutik aparteko espazioak, eta Paris dela babesleku nagusia Mendebaldeko literaturan. Euskal literaturan ere irla modukoak daude: landa eremua, hiriguneetatik urrun dauden herri isolatuetako txaletak, mendialdea eta hondartza, espazio ireki eta aldi berean pribatuak izan daitezkeenak (“Aspaldian”, “Baiona blues” eta “Festa gonbidatuak” ipuinetan, adibidez).

Baina horren nolabaiteko kontrako espazioa ere badago: espazio itxi (eta publiko)etan aurkitu daitekeen anonimotasuna, jendearen arteko bakardade hiritarra: tabernan eta etxeko logela nahiz bainugelan (“Bakardadearen eldarnioan I”, “Txanogorritxoren inozentzia”, “Olatz Fernandez eta Marta Arana” eta “Bueltak” ipuinetan adibidez).

Euskal literaturan Parisen baliokidea Bilbo izango litzateke, Itxaro Bordaren nobelagintzari buruzko atalean ikusi dugun bezala eta Urtzi Urrutikoetxeak erakusten digun bezala (ikus Aranaren hiztegian Bilbori buruz egiten duen oharra Itxaro Bordari buruzko atalean).

Miopea betaurrekorik gabe begira

Miopeak betaurrekoak kentzen dituenean irudien mugak lausotzen dira. Irudiek zehaztasuna galtzen dute, koloreak nahasten eta irudiaren osagai batetik besterako aldea desagertzen dira. Hori egitea proposatuko dizuegu hurrengo bi narrazio laburretan. Uxue Apaolazaren eta Mariasun Landaren ipuinetako protagonistek euren gorputzei begiratzen diete eta deseraikitzen dituzte. Has gaitzen Landaren narrazioarekin:

“Inurri bat ez zegoen batere gustora bere buruarekin, ezta batere baina.

Eta kirurgia estetikoa egitea pentsatu zuen.

Hanka bat kendu zioten.

Burua handitu zioten.

Antena parabolikoa jarri zioten.

Eta urdin argiz pintatu zuten.

Polit-polita geratu zen horrela.

Hain polita geratu zen, non oso bitxi geratu baitzen. Oso bitxi.

Gainerako inurriek inurri estralurtarra zela uste zuten.

Eta inurritegitik kanpora bota zuten.

Bera ordea pozik zegoen. Oso originala iruditu zitzaion”.

Lehenago esan dugun moduan, sozializazio garaian barneratzen ditugu genero desberdintasunak, hain justu, narrazio honek proposatzen duen adin tartean, 5-7 urterekin. Horregatik da hain interesgarria ipuintxo hau (nahiz eta hemen ilustrazioak faltan izan eta honen ondorioz ipuina erdizka besterik ez agertu). Ahatetxo itsusiaren bertsio berritua izan daiteke batzuentzat ipuin hau baina nik uste dut oso gai mamitsuak ukitzen dituela hogeai orrialde hauetan: identitatea, irudi fisikoa, araua ez onartzea, teknologia, jendartearen onarpena, ...

Donna Harawayk eta Beatriz Preciadok esandakoak ekartzen baditugu hona *cyborg* eta transgeneroa dauzkagu aurrez aurre: teknologiaren eta medikuntzaren laguntzaz norberak bere gorputza eraldatzeko eskubidea eta aukera. Ezarritako rolarekin konformatu beharrean esperimentazioaren bidez aro farmakopornografikoaren⁶⁹ kumeek euren buruak deseraiki eta berreraikitzeke lana hartzen dute. Genero eta sexuaren continuumetan aurrera eta atzera joateko aukera. Pentsamendu binarioa, eta horrek ezartzen dituen muga eta zigorrei muzin eginez, inposatutako bi aukera baztertzaila eta orokortzailak desegiteko aukera.

Hurrengo ipuinean, kasurako. Apaolazaren “Bueltak” ipuina ere aro farmakopornografikoan kokatu dezakegu (postmodernismoan nahi baduzue). Narrazio honetan gainera, bi aldeak agertzen dira: farmakoa (protagonistak drogaren bat hartzen du) eta pornografikoa (bere gorputzaren irudia zatikatzen du narrazioak aurrera egin ahala sexu jarduna duela buruan.

“Bereizten ikasi behar da, hortxe dago koska: non irribarre egin, non inoiz ez esan negar egin duzunik. Kokaina honek fosforeszente egiten nau. Kosta egiten da ondo xehatzea: koskorretan itsatsirik dago nire maskulinitatea, eta baita feminitatea ere. Komunikatzen bezain laster ohartu naiz ezker besoari ez zaiola egitekoa oso argi geratu. Galduta dabil, eta batere solturarik gabe saiatu da gerriari eusten. Ezbaiak ez dira barkatzen. Bigarren pausoa eman aurretik erori egin da. Ezker besorik gabe geratu naiz. Bereizi. Hori psikiatrak ongi irakatsi zidan. Noiz emakume izan, noiz gizon, etxeko komuneko hiru metro karratuetan baizik ez negar egiten”.

Judith Butlerren genero-performatibitatea agertzen zaigu hitzotan. Horretaz gain, baita Jaques Derrida eta Beatriz Preciadoren deseraiketa ere:

“Gurasoen kontua izango zen ikasi ez nuen hura ez ikasi izana? Amek alabei menderik mende kontatzen dieten sekretua? Ahaztu egin zitzaion nireari? Lo geratu ote zitzaidan generen bat? Komunean barregura sortzen duen hori? Noiz hasi ziren horrela irribarre egiten? Nola zekiten zer jantzi? Noiz ohiutxoak egin? Nola bereizten zuten zein mutili komeni zen kasu egitea? Zein neskari? Zein jenderi? Izango du zerikusirik ikasi ez nuen hark guztiak titiak ez haztearekin? Eta ez dira hazi”.

Egia, sudurraren ondoan begia

Bi gauza ondoriozta ditzakegu. Alde batetik Castlek dioen moduan, pentsatzen duguna baino gehiago agertzen dela lesbianismoaren topikoa euskal literaturan ere, (nahiz eta lan honetan lagin bat besterik ez agertu), azken hogeita hamar urte hauetan behintzat. Berak komentatzen dituen pertsonaia eta espazio batzuk ere gurean agertu zaizkigu: batez ere emakume heldu liluratzailerak eta emakume gaztearena eta landa eremua eta hiriko taberna.

Bigarren ondorioa hurrengoa da: batzuek modernitatetik postmodernitatera salto egiteko unea heldu dela esaten duten arren, (Joseba Gabilondoren literatura postnazionalerako proposamena, adibidez), ikus dezakegu garai, terminologia, pentsamolde eta jokaera modernoak eta postmodernoak elkarren ondoan bizi direla gaur egun, elkarren osagarri izanik aldi berean. Horregatik hitz egin dezakegu genero ikuspegiaz, queer teoriaz eta transgeneroari buruz aldi eta solasaldi berean eta elkar osatu eta aberastu: emakumea, lesbianismoa, queer eta trans bezalako berbak elkarren ondoan ipiniz eta aztertuz.

Oharrak

- ¹ *Sareinak* literatura eta feminismoari buruz 2007tik euskaraz diharduen blog bat da. Bertan hasi ziren lau partaideek idatzi dute atal hau, lesbianismoari dagokiona hain zuzen. Informazio gehiago nahi izatera jo hurrengo helbidera: <http://eibar.org/blogak/sareinak>.
- ² Villar Saenz, A. “¿Lesbiana? Encantada, ¡¡Es un placer!!: Representación de las lesbianas en Euskal Herria a través de los grupos organizados” in R. Platero (koord) *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008. Honi buruzko informazioa zabaldu eta sakondu nahi badugu jo *Deseo y resistencia* liburura, estatu espainolean azken 30 urteetan lesbianismoaren mugimenduari buruzko lana egin baitu Gracia Trujillok. (Trujillo, G. *Deseo y resistencia. Treinta años de movilización lesbiana en el Estado español (1977-2007)*, Egales, Madril, 2008.
- ³ Platero, R. (koord) *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008: 82.
- ⁴ Sexua zer den eredu maskulinoak definitzen duenez (erekzioa, penetrazioa, eiakulatzeta) eta genitalitatearekin identifikatzen denez, portaerak sexualtzat hartzen dira eredu honetara egokitzen direnean bakarrik, nahiz eta honen emaitza ezin zaien emakume guztiei aplikatu. Baina, orain ikusiko dugun bezala, praktika sexualak baino gehiago da lesbianismoa.
- ⁵ Gimeno, B. *La liberación de una generación. Historia y análisis político del lesbianismo*, Gedisa, Bartzelona, 2006: 35.
- ⁶ Rich, A. “Compulsory heterosexuality and lesbian existence”, in Kemp, S. & Squires, J. (ed.) *Feminisms*. Oxford University Press, Oxford 1997: 48-49.
- ⁷ Gimeno, op. cit.: 38.
- ⁸ Preciado, B. *Testo yonqui*, Espasa Calpe, Madril, 2008: 86.
- ⁹ Sedgwick, E. K.: *Epistemología del armario*, La tempestad, Bartzelona, 1998: 14
- ¹⁰ Ib.: 96.
- ¹¹ Halberstamek maskulinitate ez-normatiboari buruz hitz egiten digu. Feminitate ez-normatiboari buruzko gogoeta bat ezagutu nahi baduzue irakurri Itziar Zigaren lana (*Devenir perra*, Melusina, Bartzelona, 2009).
- ¹² Preciado, op cit.: 51

- 13 Ib.: 94
- 14 Suárez Briones, Beatriz. “Desleal a la Civilización” in Buxán, X. M. (ed) *Conciencia de un deseo singular*, Laertes, Bartzelona, 1997: 270-271.
- 15 Gimeno, op. cit.: 37
- 16 Gimeno, op. cit.: 46
- 17 Castle, T. (ed.) *The literature of lesbianism. A historical anthology from Ariosto to Stonewall*, Columbia University Press, New York, 2003: 48.
Zehaztapen bat egin behar dugu hemen. Bi plano desberdindu behar dira: bata errealitatearena, sistema patriarkalak lan handia egin du bertan emakumeen ekarpena eta lesbianen existentzia ikusezin bihurtzeko, eta fikzioarena bestea, tarteka emakumezko eta lesbiar pertsonaiak agertu dira honetan, ekoizpen literarioa egon dela argi utziz.
- 18 Bere lanean ez du bizimodu edo identitatea bilatzen, gaia, topikoa edo ideia baizik. Ideien historiari erreparatzen dio, kasu honetan lesbianismoarena, eta horrela definitzen du: Sinismen kolektiboak, gogoaren jarrerak eta aurreiritzi filosofikoen bilakaera denboran zehar.
- 19 Taberna gay baten kontrako jazarpen poliziala salatuzko 1969ko ekainean New Yorken egon ziren istiluak dira izen horrekin eza-gutzen direnak, hauek gay askapenerako mugimendu modernoa (edo LGBTQ+, dagoen azken izendapena) abiarazi zuten eta ekainaren 28ko eguna ezarri. Simonis Sanpedroren arabera, gu-rean postfrankismoa edo trantsizioa dira mugariak.
- 20 Paris izango da psikologikoki sendatzeko eta askatzeko leku erabiliena Castleren hitzetan. Hala ere, hori baino lehenago Berlin izan zen aukera hori ematen zuen hiri europarra Irmgard Keun-en *La chica de seda artificial* (Minuscula, 2001) lanean irakurri ahal dugunez. Euskal Herrian Bilbo dela esango dugu aurrerago.
- 21 Arana, A. *Gay hiztegia*, Txalaparta, Iruñea, 2005: 11-12.
- 22 Aitor Aranak bere oharretan eta guk parentesi arteko hitzekin hitz bakoitzaren konnotazioaren berri eman nahi izan dugu. Hauen arabera ikus daiteke lesbianaren irudiaren ezaugarri sozial nagusiak, estereotipoa osatzen dutenak, zeintzuk diren: praktika sexualari erreparatzen diona eta irudi eta portaera maskulinoa dituen.
- 23 Simonis, A. “Yo no soy esa que tú te imaginas: representación y discursos lesbianos en la literatura española” in R. Platero (koord), *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008.

- 24 Nahiz eta Halberstamen ustez, maskulinitateak gehien aberastu dituztenak lesbiarrak izan diren, eredu maskulino berriak sortuz.
- 25 Annie Sprinkle, beste batzuekin batera, *postpornoaren* proposamena lantzen ibili da arlo honen berrirakurketa feminista eta *queerra* eginez.
- 26 Arejita, A. *Mendebaldeko euskal baladak*, Labayru, Bilbo: 50-51. or.
- 27 Murua, A. eta M.J. Pagola *Ahoz aho: ahozko euskal literaturaren antologia*, Erein, Donostia, 1984: 62.or.
- 28 Etxebarria, I. *Arantzatzuko balada*, Labayru, Bilbo, 2003: 100-101. or.
- 29 Lakarra, J, K. Biguri eta B. Urgell (ed.). *Euskal baladaren azterketa eta antologia*, Hordago, Donostia, 1983. Bigarren liburua: 39-42 or.
- 30 Ikus <http://eibar.org/blogak/sareinak>, “Gure iritzi apalean” saila [2007/07/03]
- 31 Gogoratu sarreran Aitor Aranaren lexikoan *pipperopila* agertzen zela.
- 32 Lakarra, op. cit.: 52. or.
- 33 Ib.: 143. or.
- 34 Ib.: 148. or.
- 35 Onandia, S. *Mila euska-olerki eder*, Kameldar Idaztiak, Amorebieta, 1954.
- 36 Ib.: 55. or.
- 37 Ib.: 87.or.
- 38 Ib.: 78.or.
- 39 Ib.: 61.or.
- 40 Ib.: 69.or.
- 41 Ib.: 75. or.
- 42 Ib.: 61. or.
- 43 Fidatu
- 44 Haserrea
- 45 Onaindia, op. cit.: 94.or.
- 46 Ib.: 87. or.
- 47 Ib.: 63.or.
- 48 Ib.: 95. or.

- 49 Ib.: 68.or.
- 50 Borda, I. *Krokodil bat daukat bihotzaren ordeztz*, Susa, Zarautz, 1986: 71.or.
- 51 Urkizu, P. (ed.) *Joan Perez de Lazarraga. Dianeaz & koplak. Madrid 1567*, Erein, Donostia, 2004.
- 52 Weltek, R & A. Warren. *Teoría literaria*, Gredos, Madril, 1966.
- 53 Garrido Dominguez, A. *El texto narrativo*, Síntesis, Madril, 1993.
- 54 Foucault, M. *Las palabras y las cosas : una arqueología de las ciencias humanas*. Siglo XXI, Mexiko, 1968.
- 55 Clifford, J. *Dilemas de la cultura: antropología, literatura y arte en la perspectiva posmoderna*, Gedisa, Bartzelona, 1995.
- 56 Joseba Gabilondok proposatu izan du emakume idazleek euren narrazioak Euskal Herritik kanpoko espazioetan kokatzeko joera izan dutela. Ikus egilearen “Erbeste amatiarretik utopia pertsonalera: emakumezko idazleen politika kulturala” eta “Eta Oñederrak sugeari esan zion: nazioaren krisia adieraziz” lanak, in *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, EHU, Bilbo, 2006.
- 57 Lipovetsky, G. *La tercera mujer : permanencia y revolución de lo femenino*, Anagrama, Bartzelona, 1999.
- 58 Gabilondo, J. “Itxaro Borda: migrantzia melankolikoa eta ni lesbiar nazional baten idazketa”, *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, EHU, Bilbo, 2006. Artikulu honetan Joseba Gabilondok tetralogiaren lehen hiru nobelak aztertzen ditu. Horregatik, hemen lehen hiru nobela horiei erreferentzia egingo bazaie ere, batez ere azken nobelaren inguruan arituko gara.
- 59 Palmer, P. “The Lesbian Thriller: Transgressive Investigations”, in Messent, P. (ed.), *Criminal Proceedings: The Contemporary American Crime Novel*, Pluto, Londres, 1997: 87-111.
- 60 Amendola, G. *La ciudad postmoderna*, Celeste, Madril, 2000: 88-89
- 61 Kontuan hartu behar da Bilbo Hiria izen dela Euskal Herrian sexualitate askearen aldeko aldarri nagusiak bildu dituen. Gogoan izan 1979ko abuztuan, Bilboko Aste Nagusiko abestia La Otxoaren *Liberate!* izan zela (Bilboko jai herrikoien bigarren edizioan). Sasoi horretan *drag-queenak* oso “agerikoak” ziren eta oso onartuak. Aitor Aranak, bestalde, *Gay hiztegi*an “Bilbora joan” leloa *ligaturen* esanahira biltzen du.

- 62 Platero, R. (koord) *Lesbianas. Discursos y representaciones*, Melusina, Bartzelona, 2008: 72
- 63 Harreman heterosexualak ongiarekin lotu ohi dira eta harreman gay, lesbiko edo transgeneroak gaizkiarekin.
- 64 Artikulu honen hasieran lesbianismoaren beste irudi topiko bati buruz hitz egin dugu: gizon heterosexualentzat ekoiztutako narrazio erotikoez hain zuzen, pelikula, komiki eta ipuin bildumetan aurki daitekeena emakumeak objektu sexual gisa irudikatuta begira dagoen gizonaren plazererako.
- 65 Ikusi ere, ez dira ikusten normalean. Sexu bereko bi pertsona kaletik eskutik oratuta doazenean gizonak badira bikote dira (edo elkarrekin sexua dutela ondorioztatu daiteke) eta emakumeak badira, lagun minak besterik ez dira. Sarreran irakurri dugun bezala hau gertatzen da sexua eredu maskulinoaren arabera irudikatzen dugulako: zakilarekin sarketarik, koitorik ez badago ez dago sexurik.
- 66 Lesbofobia homofobia (sexu berekoekin harremanak dituenganako izu edo higuina) gehi misoginia (emakumeenganako izu edo higuina) da. Emakume lesbianek jasaten duten zapalkuntza bikoitza. Aitor Aranaren hiztegian: “lesbianenganako homofobia. Haienganako gorroto edo amorru zentzugabea” (132.or.)
- 67 Aranaren hiztegian “armairutik irtetea” da: “inguruko jendearen aurrean norberaren homosexualitatea ez gehiago ezkutatzea” (30. or.)
- 68 Lesbiar izaerari buruz hitz egiten duenean heteropatrarkatuari erresistentzia egiteko eta erantzuna emateko bideari buruz ari da. Eta continuum lesbiarra emakumeen arteko harremanak: identifikazioa, adiskidetasuna eta konplizitatea izango litzateke; afektibo-sexualak izango dira harremanok, gradu desberdinetan (feminista beltzen “sisterhood is powerful” esaldiarekin lotu genezake).
- 69 Preciadoren hitzetan egungo ekonomiaren motorra, azken iraultza teknologikoa da aro farmakopornografikoa. Subjektibitateak salerosten dituen sistema. Generoa protetikoa izatetik molekularra izatera pasatu da aro honetan hormona sexualen trafiko legal eta ilegalarekin.

Nazioa, sexualitatea eta identitateak

Queer Euzkadi edo Manifestu Marianoa (Sasiko Euskal Herri Burujabe Baterantz)

Joseba Gabilondo

“the Basques are the queerest and staunchest of the Spanish minorities... Their Catholicism is so dour and stolid as to be almost Calvinist in flavour.”

(Jan Morris, *Spain*).

“Ez zarete inoiz grekoak izan,
zertarako gogoratu orain
aspaldiko garaiak?
Barbaroak ailegatzen zaizkizue,
zergatik nigar hori?
Inoiz ez ziren hemen pausatu
benetako jainkoen begiradak”.

(R. Arregi, *Hari hauskorrak*)

Introibo ad altarem...

Badirudi berandu gatozela, eta are beranduegi ere heldu garela, euskal literaturak bere aura politiko-askatzailea galdu duen honetan (no harry no herry no more, oh poor Aresti), ezkerrek berak ere Euskadi sarien injustiziari negar egitea baino proposamen iraultzaileagorik

azaltzen ez dakien garaiotan.¹ Berandu gatzela dirudike, emakumeek (lesbianak barne) beren manifestu kolektiboa ere atera baitute (*Gutiziak*, 2000) eta jada emakumeei Euskadi saria ere “oparitu” baitiete (gutxiengoek inoiz ezer merezi ez baitute/gu eta emandakoa opari sinbolikopolitiko bezala eskaintzen baita). Euskaldunen artean espainiarrok behintzat (hala nola massachusestarrek, ba al da euskal hegoafrikarrik?) ezkontzeko eskubidea dugun honetan (eta besteek laster edo berandu burgesiaren instituzio hain dudagarri honetan sartzeko aukera izango dutela segur gauden honetan) zer du homosexualitateak esateko eta kontribuitzeko? Nortasun biopolitikoen (klasea, generoa, sexualitatea, arraza...) borroka itxuraz aspergarri eta predezible honetan azkenaurreko izatea tokatu al zaigu, etorkinak hurrengo gutxiengo modako bihurtu aurretik, nortasun sozial berrien teleologia ekidinezin, beharrezko eta susmagarri honetan? HIESa bezala, modatik pasata baina oraindik ere arazo ekidinezin tematia garella esatera al gatoz? Beraz berandu eta oso epe laburrerako etorri al gara, kulturaren eta gizartearen normaltasunaren putzu memorio-gabea berriro beste norbanako normal guztiekin murgildu aurretik? Distira labur eta indargabeko izar izatea tokatu al zaigu azken batean? Debekuaren sasoian taberna gayek zuten arrisku eta ez-legezatasun hori galdu bezain pronto, tabernetara joatea utzi diogun jende itxuraz normal eta aspergarrien gainbehera aldarrikatzera al gatoz? Egungo jario hitzun baina aspergarria debekuaren sasoiko isiltasun arriskutsu baina zoragarria baino hobea ez dela aldarrikatzea baizik ez al zaigu geratzen?

Edo begira diezaiogun gure epokari beste aldetik, oraindik ere geratzen zaigun alde erreibinkatzailetik. Idazlan mariano bati ere (mari-txu, mari-matxo) Euskadi saria noiz emango dioten protestatzera al gatoz –zeren Itxaro Bordari ez zioten saria eman bere joera marianoengatik–

nolabait Eusko Jaurlaritzak ere bere neoliberalismoan idazle
 jatortzat onar gaitzan eta Sabinok berak agian hilkutxatik
 azken besarkada bat eman diezagun, erretrospektiboki
 bada ere –gero gobernu nafarra, frantsesa eta diasporikoak
 EJren etsenpluari segituko zaizkion esperantzaz, jakina.
 Sabinoren seme-alabatzat onar gaitzaten esperantzatan
 etorri al gara beraz? Alegia gutxiengoan onartze jokoan
 erori behar al dugu, gu amabirjina santuaren jarraitzaile
 akzidental baina fededun garen maritxu, marimatxo eta
 maruja guztiok? Are, desdenbora honetan, EHGAMek
 jada urte ugari dituelarik, *La Muerte de Mikel* (1984) eta
 El Diputado (1978, Eloy de la Iglesia donostiarrarena)
 aspaldi ikusi ditugun honetan, kultura gay-queer ez-
 literarioaren atzetik al gatoz, berandu, HIESA bera arazo
 kontrolatu bihurtu denean eta berataz ia ezer idatzi ez
 dugunean, euskaldunik txintxoena bezala, orain artean
 beren desira publikoki azaltzera ausartu ez diren idazle
 euskaldun txintxo-fededunen antzera? Geu al gara Aitor-
 Sabinoren errepublikako azken euskaldun zintzoak, orain-
 dik ere onarpena lortu ez dugun eta nahi dugun azken
 euskaldun oraindik ez erabat euskaldunduak?

Zeren gure artean lokak, marujak, tortillerak, uler-
 tzaileak, butchak, atzelariak, marikitak eta erreginak ugari
 izan dira, baina idatzi, ez dute idatzi, Yehuda Halevi
 (1075–1141) eta Katalina Erauso (1592-1650) errebindi-
 katzen ez baditugu behintzat gure aitzindaritzat –biak
 euskaldun-basko maritxu-marimatxoak baina euskaraz
 idatzi ez zutenak. Neurri batean, eta gure Luis Michelena
 ohoretsuaren hitzak gogoratu, galdetu behar diogu gure
 buruari queerrok edota marianook (alegia tribu ez-
 heterosexualeko guztiak) ote garen Trentoko Kontzilioak
 eta Inkisizioak Euskal Herrian ezarritako debekuen
 ondorioz, gure artean desirari inposatu zaion 500 urteko
 opporraldiaren azken pairatzaileak. Trentokoa gainetik

kendu ezin dugula eta halere astindu nahi dugula esatera etorri garen azken euskaldun mariano txintxo-fededunak al gara? Oscar Wildeek, Juan Goytisoloek, Radclyffe Hallek, Jean Genetek, Virgilio Piñeraek eta Gertrude Steinek sortutako eskandalu eta lurrikara libidinalen ezean, ezaren seme-alaba bezala, nolabaiteko lekukotasun queer apaltxo bat errebindikatzera al gatoz? Iñigo Lamarcak (*Gay nauzu*, 1999) hain ondo azaldu digun normaltasun honetan –normaltasuna frogatu beharrak normaltasunez bizi garela frogatzen badu ere– geu ere subjektu neoliberal ondo asimilatuak izateko eskubidea dugula aldarrikatzera etorri al gara? Gu, mariano akzidentalok, literatura kanonikoaren elizan jaunartu nahi dugula esatera etorri al gara? 80ko hamarkadaz gero EJ-ren bizkarretara aberastu den euskal elite berriak bizar eta alkandora che-guevaratarrak alde batera utzi eta jatortasunetik yuppytasunera lotsagabeki salto eginez Gucciak eta Pradak idoro baino askozaz aurretik, Londresa eta Parisa erosketetara jada joaten ginela aldarrikatzera al gatoz, Cristóbal Balenciaga eta Paco Rabanne (alias Francisco Rabaneda Cuervo) gidari ditugula?² Ez, of course.

Eta artikulu honen eduki konkretura jaitsiz, eta beraz nire buruaz zehazkiago hitz eginez, esan dezadan azken urteotan irakurri dudan teoria queer guztiaren banderatu ilustratuaren eta argi-ekarlearen (kristoforoaren) papera egitera ere ez natorrela, Michel Foucaultak, Eve Sedwigek, Judith Butlerrak, Judith Halberstamak eta Joseph Massadak aipatuz. Ez nator euskal idazle queer guztien ekoizpena (literatur) teoriaren makina txorizogilean alde batetik sartu eta bestetik lukainka estandar queer baina euskaldunak (hori bai) bezala atera, aurkeztu eta saltzera. Konturatzeke bada ere, campak gurean duen zirkulazio garrantzitsua kontutan harturik, uste dut irteera camp-queer duin bakarria kontrakoa izango litzatekeela: lehen idazle

gaya, demagun Tubal, euskalduna zela frogatu eta literaturara queerraren hasieran, beti bezala, euskaldun bat ere bazela egiaztatzea (edota Oscar Wilderi lagun, senargai edota laguntzaile euskaldun bat topatzea). Aitor ere abiapuntu ona litzateke. Beno, edota paganoenek Mari aurre-kristaua har dezakete Euskal Herri lesbiar-matriarkal baten abiapuntu camp ezin hobetzat –eta hauek ere marianoak lirateke, bestelako Mari bat abiapuntutzat izango badute ere. Edota, gurean estandarra den beste maniobra tipikoari atxikirik, euskaldun denak gay garela froga genezake; ez litzateke zaila izango. Izan ere, Edipok ez du arrakasta handirik izan gurean eta aitzitik seme-alaba neurotiko eta amatiarrak armada ditugu gure artean. Are, denok garela lesbianak egiazta dezakegu, gizonak barne, eta horregatik horrenbeste ile motz dagoela Aitorren lurralde hauetan. Hor, konpondu dugu arazoa erarik euskaldun eta campenean (hemendik aurrera eta Euskaltzaindiak eskumika ez nazan “kanp-a” idatziko dut).

Baina ez, ez gatoz/nator berandu; lehenengo idazle gaya ez zen euskalduna eta, nahiko balute ere, euskaldun guztiak ez dira lesbianak. Zerbait izatekotan, denok gara mariano, Arantzazuko basilikak gu guztion epizentro libidinala izaten segitzen baitu (jakina homosexualok jatorrak izango gara guztiok, dudarik gabe, baina inperialistak ere bagara *comme il faut*, zeren hau idazten duena gipuzkoarra baita... beraz Estibalitzekoa eta Leirekoa ere aipatu behar edota Begoñakoa edota beste edozein eliza-ermitakoa... marianismoa glokala izan baita *avant la lettre*). Ez da kasualitatea, gure lehen idazlan queerra, gu guztion sorrera historikoa markatzen duena, Atxagaren alegoria nazionalari aurreratu zitzaiona, Itxaro Bordaren *Basilika* (1984) jeniala badugu. Ora pro nobis! Hor, badugu jada euskal kanon marianoa eta bere ama agurgarria! Itxaro, we love you!

Beno eta orduan zer? Izan gaitzen kanpak eta maria-noak eta esan dezagun fede berria ekartzera gatzela Euzkadira (zeren Euskal Herri kanpa z-taz idazten baita, Euzkadi *mon amour*); hori bai fede berdadero eta bakarra! Neoliberalismoak eta globalizazioak Euskal Herrian sortu duen asperdurazko giroan lurrikara bat sortzera gatzela esan dezagun, Euskal Herriaren libidoaren independentzia lortzera gatzela aldarrika dezagun. Izan ere independentzia lurraldearekin has badaiteke ere, desirarekin ere martxan jar daiteke, libidoak ere bere lekua baitu edozein iraultzatan. Desiraren errepublikaren independentzia eskatzen dugu. Bestela galdetu XX. mendean egin diren iraultza guztiei, gehienetan sexualitate burges hemeretzitiar aspergarria iraultzailatzat pasatzen saiatu baitzaizkigu “hombre nuevo” bezalako ideologiek (Kuban oraindik bizirik segitzen duena agure zahar bati esker). Ez da ideia berria; gure artean askok oraindik “euskal gizon berria”-n sinesten zuten/genuen momentu batean, Iñaki Mendiguren-en eleberriko gazte ederrak zera dio bere maitale (pedofilo)ari:

“– Ni ez nago gizarte hau aldatzeko borrokatzearen aurka baina ez ditut egitura sozial eta politiko berriak bakarrik nahi, gero, adibidez, jendeak ezin badu nahi bezala elkar maitatu gaitzesia izan gabe.”³

Alegia, ez dugu Euskal Herri independente-burujabe oso sozialista oso iraultzaile edota oso jeltzale baina era berean oso burges heteronormatibo aspergarria nahi, ezta? Hemen iraultza bat baino gehiago daude, eta bata besteari makurtu beharra burgeskeria neoliberala baino ez da. Hau da manifestu honen lehen fedezko artikulua marianoa. Hitz dotoreagotan esateko, berau da postnazionalismoaren funtsa eta jite kritikoa: nazionalismoak iraungo duela onartu (Habermas bezalako neoliberal idealisten aurka)⁴ baina nazioak eremu politiko bakar edota nagusia izan

behar duela kuestionatu, nazioaren eta biopolitikaren artean tarte politiko berri bat, postnazioa, zabalduz. Emakumeekin batera, nazioa eremu politiko bakartzat kuestionatzen hasi garenok geu garenez, mariano-marikitok, geu ginatete lehenengo subjektu postnazionalak Euskal Herrian. Gora Euskal Herri postnazional eta libidoaskea! (=buruaskea). Ulertu al duzu? Ulertzen al duzu? Beste ezulertzaile denei ulertarazi behar diegu gure fede mariano berria.⁵

Historia

Orain hilabete batzuk leitzen nuen *Berria*-n: “Bilgune Feministak, berriz, 1497an Donostian homosexualitateagatik zigortutako Beluntzako Katalina eta Oiartzungo Maritxu izan zituen gogoan”. Argi dago, euskal nazio queer bati tokatzen zaiola euskal historia errepasatzea, ez anekdota eta gertakari historiko gehiago aurrez ezarritako entziklopedia (añoamenditar-eusko-ikaskuntzar) bati eransteke, baizik eta ordena entziklopediko hori bera kinkan jartzeko. Izan ere, gure kinka modernitatea baita, entziklopedia eman zigun aroa bera. Bestela esanda, Erdi Aroan desirak nola halako askatasuna izan bazuen, gure Beñat Etxepare lekuko, Leizarraga eta enparauekin, eta zehazkiago Inkisizioarekin, desiraren aldi edota garai iluna hasten baita, non estatuak desira zein etnizitatea gero eta gehiago erregulatu eta kontrolatuko dituen (bi estatuetan espainiarra eta frantsesa, Torquemada, Avellaneda eta Lancre-ren eskutik). Egun, desirak estatuaren baiespena lortu badu ere, langileria, feminismoa eta mugimendu gayei eskerrak, erretrospektiboki, modernitatea azaltzen zaigu desiraren garairik anker eta ilunena bezala. Alegia modernitatea da desiraren garai iluna, erdi aroa. Kritika postkolonial hispanikoari jarraikiz, hala nola Walter

Mignolo-ren *The Darker Side of the Renaissance* (1996), modernitatea, hispanoa zein frantsesa (eta beranduago anglosaxoia) postula ditzakegu, Euskal Herri (mariano)aren aro ilun bezala: egiazko Erdi Aroa.

Alegia, eredu marxistari jarraikiz historia egundaino klaseen arabera egin bada, eredu hauek ez dute historizatzen, abiapuntu propio bezala hartuta, modernitateak hizkuntzari (euskarari) eta libidoari egiten dizkion eraso erabatekoak. Alde honetatik, Inkisizioaren etorrerak, Lapurdira, Nafarroara zein probintzia “vizcaino”-etara, ez du bakarrik euskararen subalternizazioa ekartzen (alegia euskarak juntetako hizkuntza politiko izateari uztea) baizik eta euskal libidoaren kontrol kristaua. Andrés Amañarica-k XIII. mendean aipatzen zuen Kalahorrako gotzainaren direktibaren ondoan “semeek apaizei (aitei) meza ospatzen lagun ez diezaietela”, XVI. mendeak elizaren eskutik dakarren agindua libidoa erabat kontrolatzekoa da. Julio Caro Barojari jarraikiz (*Las brujas y su mundo*, 1961), Inkisizioaren historia ikertu bada ere, oraindik ere hurbilpen libidinal bat behar dugu, Inkisizioak eragindako kalte eta errepresio libidinala aztertzeko –gure Ignazio Loiolakoak eratutako kontrarreforma ere kanpoan utzi gabe. Alegia, eta egundaino European doxa den historiografiari itzuli eginez, aztertu behar dugu modernitateak euskalduna bezalako gutxiengo etniko bati eragin dion kaltea. Alegia modernitatea aro ilun eta atzerakoi bezala aztertu behar dugu.

Izan ere, Michel Foucaultek bere *Histoire de la sexualité*-n (1976), aitoren kristaua ezartzen badu estatuaren botere pastoralaren oinarrian, argi dago Euskal Herrian norbanako aitortza ekintza sekundarioa dela Inkisizioak ezartzen duen gizarte transparentziaren ondoan, hemen aitortza ez baita norbanakoa, indibiduala, baizik eta gizarte mailakoa eta komunala –zenbait autorek pika-

reskaren generoa aitortza agindu hauen ondorioztat esplikatzan badute ere, gurean ez da halako generorik sortzen. Are, aitortzak hizkuntza eta libidoa bateratzen ditu: euskara sorginen hizkuntza denez, sorginen sexualitatea eta libidoa etniaztaturik suertatzen dira. Beraz eta Foucaulten aurka, libidoa ez du estatuak indibidualki kontrolatzen Euskal Herrian aitortzaren bidez. Aitortza bigarren mailako praktika beharrezko eta garrantzitsua da, bere bigarrentasunean. Bestela esanda, eta teoriara iraganez, euskal libidoaren historiak Foucaulten ekarpenik zentralenetako bat, biopolitika, birpentsatzea eskatzen digu. Eta agian hemen has gaitetzke Erdi Aroko euskal emakumezkoen bertsolaritza ere pentsatzen, hain zuzen, modernitateak erreprimetuko duena, hor nonbait Garibai eta gero.⁶

Era berean, gure betebeharra da, azken 500 urteotan estatuaren kontrol pastoral biopolitiko eta ez-biopolitikoak zartatu duten gizaki, ekintza eta praktikak dokumentatzea, euskal libidoaren Erdi Aro ilun hori (modernitatea) bere historikotasunean uler dezagun. Jarauntsi moderno hori ondo historizatzeke, probintzia batzuetan hain hedaturik zeuden jendetza sasikoak, aitarik gabeko familiak, ihardun sexual alternatiboak eta abar aztertu behar ditugu. Alegia, matriarkalismo ez-existente baten eta otzantasun baserritar baten mitoez orain artean azaldu zaiguna historizatu behar dugu, bertan dauden momentu queer guztiak erreskatatzeko, ez bitxikeria historiko gisa, baizik eta modernitate ilun eta atzerakoi horren froga gisa.

Modernitate horren azken mendera ailegaturik, XX.a, eta kasu historiko berezi bat hartzeagatik, Txirrita bertso-lariarena, sagardotegitako kultura homosoziala aztertu behar dugu, azterketa hori zaila suertatuko bazaigu ere datu ugariren faltan. Zail da sinestea egunetan hedatzen zen sagardoeko eta bertsozko kultura horretan, ahoa literaturarako edo janedanerako bakarrik erabiltzen zela, eta

bestelako zuloek estalirik irauten zutela. Txirrita mutilzahar hil zen, eta gure panteoi queerrerako Txirrita errebindikatzea beharrezko dugu; bertsolari-sagardotegi kultura homosozial horretan bizitza queer arrunt bazela ezin baitugu ukatu. Ez, ez dut esan nahi Txirrita homosexual estandarra zenik; hori “orainaldismo” historikoa da (egungo kategoriak lehenaldiari tartekaritzarik gabe aplikatzea). Alabaina, lehenaldiaren lurralde ez-heteronormatiboak guretzat errebindikatu behar ditugu, Txirrita bezalakoak barne.⁷

Beste hainbeste Loiolako Ignazioren egunkari izpiritualeko debozio eta sumisio negar etengabe horiekin ere (ia egunero aipatzen du negarra mistizismozko zeinutzat). Edota oso gizon-emakume txit garrantzitsu eta txit heterosexualen irakurketa oso queerrak egin ditzakegu, izan ere oraindik euskal nazionalismoaren historiografiak ez du galderarik zentralena, misteriorik marianoena, erebelatu: gure Sabino txit agurgarria birjin hil al zen? Bada susmorik.

Antropologia eta literatura

Era berean, eta garai postmodernora iritsirik, alegia modernitate ilun horren bestalde historikora, zelebritate lokalen (La Ochoa...), subjektu anonimoen, taldeen, tabernen eta bestelako bilgune eta ekintza queerren historia bat egiteko beharrean gaude; nik neuk, gipuzkoarra naizen aldetik, *La cuesta del culo* bezala ezagutu dudan lekua eta garaia gogoratzen ditut (San Francisco auzoa Bilbon, etc.). Izan ere, modernitate ilun horren amaieran Euskal Herria gehien aldatzen duen beste gertakari historiko eta soziologikoa industrializazioa baita; eta industrializazioarekin estatu espainiarreko beste eskualdeetatik datozen etorkinen presentzia berria genuke. Lehen etorkin horiek hil aurretik ere, berauen antropologia queer bat egin behar

dugu, elkarrizketa literatur teknologia bezala erabiliz, euskaraz, gazteleraz eta behar diren beste erdaretan. Alegia, 50-80 hamarkadetako antropologia queer bat egiteko dago, bertan hezi ziren etorkinen eta bestelako euskal subjektu queerren historia elkarrizketen bidez jasoz. Desira, Lacani jarraikiz, ezak definitzen badu, 50ko hamarkadaz gero desira, bere alderdi geopolitikoan behintzat, etorkinen arabera definitzen dela konkluditu behar dugu: etorkinaren gorputzarekiko desiraz, etorkinarekiko indiferentziaz edota, are, higuin arrazistaz eta klasistaz.

Antropologia hau zein aberatsa izan daitekeen ikusteko, ahozko kulturatik jaso ditudan eta egiaztatu ezin izan ditudan bi istorio kontatuko ditut. Bata etxean entzuna, bestea lagun batek kontatua; agian biak apokrifoa, baina bere apokrifotasunean jaso ez dugunaren eta jaso beharko genukeenaren zeinu.

Deba garaiko herrixka batean jaio eta Euskadiko auresku txapeldun bihurtu zen gizon gay bat, 70ko hamarkadan senargai etorkin batekin jarri omen zen bizitzen herrian bertan pisu batean, zeina hain zuten garbia eta ondo dekoratua non herriko emakume gehienek inbidiaz goraiatzuten baitzuten (klixearen eta egiaren mugak hemen antropologiak bakarrik erabaki ditzake). Gure gizona auto istripuan hil eta antza senargai etorkinaren familia ere etorri omen zen Andaluziatik hiletetara. Herriko jende gehiena han bildu zelarik, euskal siltasun eta seriotasun estereotipokoenean, senargaiak eta bere amak negarrari eman omen zioten “por que a mi hijo se le ha muerto su marido” eta antzerakoak esanez. Azkenean, antza, herri osoak negarrez amaitu omen zuen. Estereotipo (erdi-arrazistaz) beterik dagoen istorio hau dokumentatzea beharrezko genuke.

Era berean, eta apokrifoa izan daitekeela azpimarratuz, esan dezadan entzun nuela istorio bat non ETAKo

bi preso gizonetzko, urteen buruan kartzelan maiteminduak, ETA militarra utzi eta ETA politiko-militarrera pasa zirela, lehenek ez baitzuten homosexualitatea onartzen beren plataforma politikoan eta bigarrenek aitzitik bai. Kartzelatik atera ziren eta ateraz gero zer egin zuten ez zidan nire informatzaileak argitu. Karlos Garrindoren *Ni naizen hori* (1992) ez da liburu isolatu bat.

Ez ditut goikoak istorio nahitaez egiazkotzat jotzen, baizik eta oraindik ere hor dauden eta jaso behar ditugun istorioen aberastasunaren indize bezala. Badugu memoria historiko queer bat, paperean gutxitan jarri duguna.

Batez ere Hego Amerikan “testigantza” generoaren eskutik landu den ihardun antropologiko-literario honek, egia eta fikzio arteko muga beti ere irristakorrak bere aberastasunean konplikatu egin behar ditu. Iñigo Lamarcaen lana hemen ezarri beharko genuke eta idatziko diren beste lan ugariaren abiapuntutzat ongietorria eman beharko. Espekto antropologiko-literario honen bestaldean, fikzio historikoaren aukera ere badugu, Juan Luis Zabalak *Agur, Euzkadi*-n (2000) saiatua, non Lauaxeta azaltzen zaigun homosexualtzat. Nahiz eta gurean drogek eta bereziki heroinak markatu HIES kasuen gehiengoa (ikus adibidez Juan Luis Zabala beraren *Galdu arte*, 1996), gure esperientzia itxuratu duen gertakari hau oraindik ere ez dugu taxuz kontatua.

Hegemonia, maskulinitatea eta amatasuna

Historia bere doxa modernotik atera behar dugun bezala, hegemonia nazionalak kuestionatu behar ditugu era berean (euskalduna, espainiarra, frantsesa...), izan ere 90ko hamarkadaz gero dakigu sexualitatea, generoa eta nazioa ere ez direla hiru errealitate desberdin eta diskretu (klase sozialaz gain), baizik eta elkarrekin biopolitikoki

ehundurik sortzen direla, elkarren artean hierarkia, hegemonia eta diskriminazio forma desberdinak eratuz. Eta Foucaulten biopolitikaren historiak gure modernitate iluna zuzenean pentsatzeko balio ez digun bezala, hemen ere nazio eta sexualitate arteko erlazioak aztertu dituztenen lanek ez digute zuzenean balio gure kasua pentsatzeko (1985an George L. Mosse-k argitaratutako *Nationalism and Sexuality: Respectability and Abnormal Sexuality in Modern Europe* -z gero hedatzen direnak hain zuzen). Izan ere, hegemoniarik inoiz izan ez duen (eta beraz bere naziotasunari buruz ere adostasunik ez duen) eta lurralde politiko desberdinetan sakabanatuta egon den etnia bat gara, kasurik onenean (burujabetza lortzeko hau oztopo salbaezina ez bada ere).

Alabaina, horrek ez du esan nahi abertzaletasun espainiar, frantses eta euskaldunek⁸ ez dutenik diskurtso hegemoniko nazionalistarik eratu, beren estatuez zein Euskal Herriaz. Lehen aipatu bezala, diskurtso hegemoniko hauek beti ere sexualitate eta genero egitura berezi batzuen arabera eratzen dira. Ala, edozein literatur ihardun zein azterketaren betebeharra da hegemonia hauei begiratzea, ez politika tradizionalaren behategitik, baizik eta generoaren, sexualitatearen eta desiraren ikuspuntutik. Alegia, modernitatearekin bezala, ikusi behar dugu nazionalismo euskaldun, espainiar eta frantsesek gure libidoari –gure desirei eta ihardunei– nola eragin dioten eta, ondorioz, nola egituratu gaituzten. Lan hau zehazki eginez gero, gure nazionalismoei buruzko oso ikuspegi desberdin bat lortuko dugula ez dago dudarik, hain zuzen oso kritikoa izango dena eta beraz nazionalismo horien arteko antagonia politikoetan zuzenean harrapaturik suertatuko ez dena (espainiarra versus euskalduna eta abar).

Argi dago Errenazimenduko apologistez gero (Gari bai, Poza...), eta gertuago, 98ko belaunaldiaz gero (Baroja,

Unamuno...), euskaldunak izan direla gutxiengo giltzarrietakoa nazionalismo espainiarra itxuratzen (Andaluziako latifundistekin batera, hauek hedatuko baitute ijitu/romen bidez abertzaletasun espainarraren beste estereotipoa, orientalista). Egun ere, Savater, Azurmendi edota Juaristi bezalako euskaldunek giltzarri izaten segitzen dute nazionalismo espainiar neoliberal eta global bat hegemonikoki legitimatzeko orduan. Hau guztia ezaguna da. Ezaguna ez dena, euskal-espainiar arteko erlazio historiko-nazionalista horietan hedatu diren egitura maskulinistak dira -izan ere nazioaren subjektu unibertsala beti maskulinoa eta heteronormatiboa baita. Alegia, beste nonbait azaltzen saiatu naizen bezala,⁹ nazionalismo espainiarrari oinarri ematen dion maskulinitatea historikoa da, eta histeria honen atzean euskal subjektuaren lehentasun historikoa dago, alegia “euskaldunak espainiar guztiak baino lehenagoko espainiarrak izatea” defendatzen duen ideologia euskalduna –jatorriz euskalduna ez bada ere, ikus adibidez Lucio Marineo Sículo gaztelako gorteko intelektuala. Egitura hau fantastikoa da, baina, bere fantasian, oso efektu errealak ditu nazionalismo espainiarra egituratzean. Alabaina, egitura hauek batez ere historiko bezala ulertu eta analizatzeak oso ikuspegi desberdin bat damaigu nazionalismo horietaz, izan ere trauma litzateke histeria horren eragile eta historia oinarrizko; beraz trauma ikertu beharko genuke, literaturaren bidez zein teoria queerraren bidez.¹⁰ Antonio Muñoz Molina hain abertzaileak, kasuko, oso literatura maskulinista-historikoa idatzi du (*Invierno en Lisboa* donostiarrarekin hasita, 1987). Aitzitik Luis Martín Santos euskaldunak trauma hori gainditzen duen lekune batetik (probintzietatik, frankismo garaiko Donostiatik) idatzi du eta nabari da histeriari ihes egiten diola bere literaturan artikulatzen duen maskulinitateak.

Era berean, eta Frantziaren kasura itzulirik, saiatu naiz beste nonbait Frantziaren imaginario nazionalen euskaldunek duten lekua aztertzen.¹¹ Galera postkolonialezko melankolia maskulinoak definitzen du nazionalismo frantsesak Euskal Herriarekin duen erlazioa: gobernu frantsesak, Frantziatik kanpo egindako saio inperialisten gorabeherak konpentsatzeko, estatu barnean “kolonia” turistiko bat burgesia garaiarentzat sustatzeari helduko dio (Anton Abbadiek ere, Niloaren sorrera idoro ez zuen etsipenak jota, etxeko “natiboak” aztertu eta sustatzeari emago dion bezalaxe). Frantziaren kasuan, eta egundaino, Euskal Herria hutsik dagoen eta beste edozein frantses burgesek disfruta dezakeen espazio turistiko (postkolonial) hutsa izan da, non biztanleria paisaiaren parte baino ez den. Hauxe da, hain zuzen, Pierre Lottiren *Ramuntcho* (1897) eleberriak finkatu duen estereotipoa: eleberrian gainera Erramuntxo Ameriketara joango da (eta andregai konbentura, berriz ere espazio soziala hustuz turistentzat). Estereotipo honek Euskal Herrian izan dituen eraginak, nik dakidalarik, inork ez ditu oraindik aztertu bere dimentsio sexual eta generozkoan. Are, Martín Santosek, Erramuntxoren paradigma frantsesa Euskal Herri osoari hedatuz, defendatu zuen euskaldunok “Erramuntxoren sindromea” genuela. Sindrome horrek definitutako subjektuak baino, hegemonia nazional frantses berezi baten pairatzaile ginateteke, kasurik onenean.

Azkenik eta Euskal Herri barrura etorririk, eta berriro ere literaturatik abiatuta, aztertu behar dugu, Eusko Jaurlaritzaren eta EAE-ren zentraltasunaren ondorioz, euskal abertzaletasunak sortu duen kultura EAETar edota EAE-zentrikoa. Kultura honetan, eta literaturari begiratu, emakumeak (heterosexualak zein marianoak) erabat deserriturik zeuden orain gutxi arte; onartzen zitzairen lekune-rol sozial bakarra, ama aberri-abertzalearena zen.

Ondorioz sortzen zen hegemonia nazionalista maskulinoa erreferentzia ezkorrez legitimatzen zen: alegia gal-tzailearen negarraren indarrez (biktima bakar izatearen pribilegioaz). Bestela esanda, maskulinitatea zen pribilegiozko subjektu politiko bakarra, galera sufritzen zuen eta ulertzen zuen bakarra, eta beste guztiok maskulinitate heteronormatibo honen arabera pentsatu behar genituen gure historia eta galera propioak. Alegia maskulinitate nazionalak bere burua ezkorki, absentziaren-galeraren bidez, legitimatzen zuen, lehen begiratu batean ezkortasunak eta hegemoniak egitura kontrajarriak ematen badute ere.

Alegia, Euskal Herrian abertzaletasuna Francoren diktaduraren aurkako indar hegemoniko barneko bezala 60ko hamarkadan eratzen denez, har dezagun momentu hau. Oteizaren *Quousque tandem...!*, *Ensayo de interpretación estética del alma vasca* (1963) euskal kulturaren “arimaren” interpretazio eraginkor eta zentralena bihurtzen denean, hain zuzen “arima” horren erdian, alegia “euskal gizonaren” esentziaren muinean, “gizona” euskal eta hegemoniko bezala definitzen duen egituraren erdian, hutsa topatzen dugu, eza. Eta huts/ez hori, Oteizak euskal kultura eta politikaren helmuga bezala ere postulatu du, alegia lehenaren eta geroaren eratzun moebiustar gisa jokatzeko duen egitura: gerora ailegatzeko lehenaldira jo behar dugu ezaren bila.

Era berean, Arestiren poesiak imaginario abertzalean uzten duen egitura eta metaforarik nagusienean eza dugu: guztion heriotza eskatzen duen “nire aitaren etxe” sadikoa (*Harri eta herri*, 1964). Alegia etxe patriarkal eta hegemonikoa, euskal abertzaletasunaren ideologian, hutsik geratzera deitua den egitura ezkorra dugu.

Psikoanalisisira salto egitea zail bada ere artikulua honen espazio mugatuan, esan dezagun euskal abertzaletasunak bere subjektu hegemonikoa *kastratutzat* legitimatzen duela. Eza, hutsa, gabezia eta antzerako egitura ezkorrak

beti ere kastrazioaren seinale dira. Alegia, bi estatutan banaturik eta beraz burujabetzarik ez duen abertzaletasun batek bere diskurtsoa maskulinitatearen ezaren bidez definitu du: soberanotasuna ez duen baina hala ere nahiko lukeen boterezko subjektu abertzale maskulinoaren erre-presentazioa, ironikoa badirudi ere, kastrazioan oinarritzen da. Are subjektu maskulino hau, bere kastrazioa dela medio, beti ere ikusezina suertatzen da.

Subjektu hau ikusgarri egiten duen figura, ironikoki, ama abertzalea da. Emakumea deserriturik badago ere, ama euskalduna maskulinitate huts edota kastratu horren presentzia erreal bakartzat goraiatzen da, aita kastratu eta beti ikusezinaren legea amak indartzen baitu diskurtso abertzale hauetan. Sasoi bateko elkarrizketa estereotipikotara itzuliz, baina beren zentzu historikoa berreskuratuz, esan dezagun ez dela kasualitatea euskal don Juanik ez badugu XIX. mendez gero (Rousseau-ren lagun zen Altuna azkoitiar ligo eta dongiovaniarra abiapuntu ona izango bazatekeen ere).¹² Aitzitik, apaizak eta ama kastratzaile-neurotikoak euskal kulturaren imajinarioaren zentroan ezarri baditugu, berauok hegemonia nazional maskulinista kastratu eta ikusezin baten erreferente eta adierazle ikusgarri bakar bihurtu ditugulako izan da.¹³ Hala, hegemonia maskulinista kastratu hau errebisitatu behar dugu, literaturari, teoriari eta bestelako diziplinei helduz.

Goikoa erabat teorikoa ez dela azaltzeko, eman dezadan oso etsenplu zehatz eta zentrala, hegemonia nazionalista maskulinistaren kastrazioa argi nabaritzen duena. Atxagaren *Obabakoak*-en (1988) gizonezko gehienak sinbolikoki kastratutakoak dira: umeak, giza animaliak, nanoak, zoroak, agureak. Eta hain zuzen, gure kultura abertzalearen hegemoniaren erdian kokatzen den idazlan honek, maskulinitatea zuzenean aurkeztu duenean, bere kastrazioan hegemoniko, orduan emakumeak, eta bereziki

ama kastratzaileak, idazlanetik deserriratuta bezala azaldu dira (“Camilo Lizardi”-n ume-basurdeak “ama, ama” garra si egiten duenean adibidez). Obabako maistra-andereñoak ere ume bat du amorante frustratutzat. Gauza bera egiazta liteke beste hiru alegoria nazional nagusienekin: Joan Mari Irigoienen *Babilonia* (1989) eta Andu Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) eta *Otto Pette* (1994): subjektu maskulinoen suntsidurak (eta emakumearen marjinatzeak) ematen die zentzu alegoria nazional hauei. Saizarbitoriaren narrazioak egituratzen dituzten euskal ama falikoez ez da gauza gehiegi erantsi beharrik. Agian, bere azkenetako lan batean, *Gorde nazazu lurpean* (2000), kastrazio hau pentsatzen eta ironizatzen hasi dela erantsi behar dugu, bertako protagonista gizonezko gehienek berreskura ezin duten zerbait baitute falta: hezur bat, zango bat, eskutitz faliko bat, eta abar.¹⁴ Eta jakina, zer dute literatur instituzio espainiarrek nahiago, euskal maskulinitate kastratu baina hegemonikoaren alegoria baino? Eman diezaiogun saria! Alegia, maskulinitatearen jokoan nazionalismo guztiak bat datoz; hor ez dago kinkarik. Hemen, bistan dago, “gixon” eta “gizontto” terminoek beste zentzu bat dute.

Horiek horrela, literatura eta kultura euskaldun queer batek ezin ditu hegemonia nazionalistaren egitura maskulinista kastratu horiek bere hartan egia historiko kuestionaezintzat onartu eta beraui jarraikiz idatzi. Aitzitik, literatura marianoak beti ere berea zaion gehiegikeria kanp eta kitxaz (*kitsch*) baliaturik, egitura horiek kritikatu, historizatu eta kuestionatu behar ditu. Are, literatur ihardun mariano horretan gehiegitasunak ematen duen plazera azpimarratu behar da; faborez kritika hotz, aspergarri eta serio gehiago ez, horiek dagoeneko baditugu (neureak barne!). Istorio triste eta masokista gehiago faborez ez; aita

abertzale kastratu baina hegemonikoari makurtzea narra-
tzen baitute (norbere kastrazio-hegemonia aldarrikatzea).

Masokismoak eta sadismoak, Deleuzek aparte sortzen
direla gogorarazten digunez, esan dezagun badutela bere
lekua euskal literaturan eta kulturaren ere. Baina, hain
zuzen, beste edozein praktikatan bezala, baimena eta hi-
tzarmena behar dira tarteko. Goian aipatutakoak,
sadismo/masokismo inposatuak dira: euskal maskulinitate
hegemonikoak inposatutakoak. Beraz, lehen-lehenik bere
unibertsaltasunetik atera eta bere izaera sadiko/masokista
historikoetan aztertu eta desnaturalizatu behar ditugu.
Hortik aurrera, sadismoa eta masokismoa ere landu be-
harko ditugu, baina ez ihardun hegemoniko eta natural
bezala. Aukera sexualak ez dira inposatzen, hori ez da
demokratikoa (desiraren demokrazia inbertituaz min-
tzatzen bagara ere). Kaja Silvermanen lana abiapuntu
beharrezko dugu oraindik, berak espero ez zituen emai-
tzak aztertu eta pentsatu beharko baditugu ere.¹⁵

Are, euskal literatura queerrak bestelako desirak, bes-
telako plazerak, beren gehiegitasunean hegemonia
nazionalistaren egiturak mukurutzen dituenak eta beraz
azken batean ez-nazionalista suertatzen dituenak sortu
behar ditu: ez euskaldunak, ez espainiarrak, ez frantsesak
(gehiagikeriaz euskaldun, frantses, espainiar). Euskal lite-
ratura queerra maskulinitate hegemoniko horren gehiegi-
keria edota exzesoz definitu behar da: haren atzean kokatu
behar da, atzelari finak izan gaitezen. Honetan ere, Itxaro
Bordaren *Basilika* dugu aitzindari paregabea. Gure idazle
mariano aitzindarietako batek ere, Andolin Eguzkitzak,
bere *Urkidian zehar* (1987) txit abertzale eta maskulinista
idatzi zuenean ere (non etxeko seme on eta zintzoa, gerra
zibilean borrokatu eta frankismoan konzentrazio zelaiak
ere jasandakoa, halere emakume txar batekin ezkontzen
den eta azkenean hiltzen den) maskulinismo hori kritikatu

egiten du, etxeko emakumeen ikuspuntua emanez. Alegia, seme kastratuari maitasuna eta kritika eskaintzen diote etxeko emakumeek eta hala, abertzaletasunetik at dagoen ikuspuntu bat sortzen irakurlearentzat.¹⁶ Andolin, we love you too!

Juanjo Olasagarren eleberria ere (*Ezinezko mailetak*, 2004) bide horretatik doa. Hain zuzen herrixka txiki batean hazi eta ETAKo komando batean sartzen den gay gazteak, Carlos/Bazter, Londresa jo behar du azkenean bere bizitza esploratzera; azkenean, bertan hiltzen da kantzerrez. Euskal lagunak eta ingelesak biltzen direnean lehenengo hiletetan eta gero, hileta-ondoan, pub batean, bi iraultzaz mintzatzen dira, iraultzok agian porrotatuak badira ere: Ingalaterran hegemonia nazionala kuestionatzen ez zuten (eta indiarrak edota pakistandarrak marjinatzen zituzten) gayek egin zuten iraultza sexuala 60-70ko hamarkadetan eta Euskal Herrian beste subjektu eta arrazoiak (hala nola gayak) marjinatzen zituen ezker abertzale nazionalak egin zuten iraultza abertzalea 70-80ko hamarkadetan:

“Ze esan nahi du gudari?” galdetu zuen traje mo-reari ez zegokion dzangada batez pinta bukatu ondoren [lagun ingeles batek].

“Gu ETAKoak izan ginen” [lagun euskaldun batek].

“Nor zuek. Carlos ere bai?”

Bertan txikitzeko gogoak bor-bor egin zion Fermini.

“ETAKoak!” garrasi egin zuen Ikek espantuka altxatu eta Marck besarkatzen zuela. “Terrorista batekin bizi izan gara. Ze morboa!”

“Ike une batez bada ere utziko diozu beste bat izateari” aurpegiratu zion Marckek.

“Beste bat. Ni beti naiz ni”.... “Zuk ere amestu zenituen bikote modu berriak, sexu modu berriak, bizi-modu berriak, gayak bai gayak, saiatzeko nahia. Galdetu Seani, edo Sydneyri. Ez dute heterosexual arrun-

tak bizi diren moduan bizi nahi. Ez dute bikote bakarra nahi, ez dute familia arrunt bat egin nahi, gu gara familia....”

Marckek komunera alde egin zuen ezer esateko ez gauza nonbait.

Isiltasuna ezarri zitzaien. Seanek barraren atzean pinta gehiago ateratzeari ekin zion....

“Gainera hauena baino iraultza ederragoa izan zen gurea” murduskatu zuen Ikek Harakin seinalatuz.

Fermin Harakinen erasoaren zain gelditu zen une batez baina erantzunik ez zetorrela ikustean ez ziola aditu erabaki zuen.

Diskurtso gehiegizko honek (“iraultza ederragoa izan zen gurea”), politika eta bere hegemonia beste ikuspuntu batetik ikustatzeko aukera ematen digu. Alabaina, eleberri honetan ere azpimarratzen dena, euskal abertzaletasun hegemonikoari kritika queer bat egiteko aukera-eza da. Eleberri honetan ere, bi iraultza eta diskurtso hauen bateratze ezinezkoa, edertasunaren gehiegitasunean bakarrik lortua, protagonista hilez errepresentatzen da: protagonista euskaldun-iraultzaile-queerra hilez bakarrik azal daiteke lekune honen ezinezkotasuna. Eleberriak hildako protagonistaren errautesak Euskal Herrira itzuli ezin daitezkeela adieraziz amaitzen du.¹⁷ Beraz, eleberriak ez du gainditzen kastrazioaren diskurtso hegemonikoa, baina, lehen aldiz gure literaturan, era marianoan kritikatzeko du: ez du naturalizat onartzen. “Itsusia” dela ere iradokitzen du.

Are, eta hau ere gehiegitasunez esan dezadan, oraindainoko hegemonia nazionalista maskulinistek aurkezten dizkiguten eszenario libidinal tristeak (histeria, kastrazioa, melankolia) kontutan harturik, nik uste Euskal Herriaren independentzia eskatu behar dugula, desiraren izenean, baina ez estatu espainiar-frantsesen aurka bakarrik, baizik eta *euskal nazionalismo guztien aurka halaber*, horrela

bakarrik salbatuko baititugu gure buruak. Zergatik ez du inork idatzi, *Kutsidazu bidea Isabel-en* (Sagastizabal, 1994) bidean, nazio mariano euskaldun baten istorio kanpa, Itxaro Bordaz gain?

Gure euskal historia beti ere subalternoa izango denez eta gure artxiboak mugatuak izango direnez, literaturak hartu behar du parte aktiboa falta zaizkigun hutsune eta tarte historikoak betetzen, ez sasi-fideltasun historikoz, baizik eta probokazioz, pentsa eta desiraraziz. Gure bi talde queer historiko nagusienak, apaiz-mojak eta neskazahar-mutxurdirin-mutilzaharrak (zakilurdirinak?) ditugu. Bi talde hauek nik uste historiaren ahanzturatik atera behar ditugula eta, Eliza berriro ere aurka izango badugu ere, idazteko aukera paregabeak emango dizkigutela. Edo bestela esanda, eta hau karga kanp handiz irakurri faborez, galdu ditugun moja-apaiz horien lekua hartu behar dugu, gu bihurtu libidoaren moja-apaiz mariano berriak! (intelektualak edo idazleak izatea baino mila aldiz hobea).

Irakurketaren aldetik ere eman dezadan beste eredu pare bat. Jokin Muñozen *Antzararen bidea* (2007) bezalako liburuetan pertsonaiarik interesgarrienak bigarren mailakoak dira, hala nola Gigi, zeina eleberrian heterosexual bezala aurkezten bada ere, dudarik gabe, gure tradizio marianorako berreskuratu behar dugun; izenarekin hasita pertsonaia gehiegizkoa baita (eta pertsonaia nagusi gay baina ez hain konbentzigarria baino interesgarriagoa). Aspaldian ez dut pertsonaia marianoagorik topatu euskal literaturan.¹⁸ Gauza antzeratsua gertatzen da Jasone Osororen *Greta*-rekin (2003) ere.

Volgako batelariak 2008an argitaratu zuten “Postindependentzia (a postponed manifesto)” ere, bide horretatik doa: politika politikaren aurka gehiegitasunez irakurtzea, edozein kultur arlotan independentziarako bidea bilatuz (<http://eibar.org/blogak/volga>). Nik neuk oraindik ere na-

hikoa mariano ez diren kritika baino ez diet egingo, hots, oraindik ere nazionalismo heteronormatiboaren naturaltasuna ez dutela nahikoa kuestionatzen (hori diasporatik esatea erraza bada ere).

Teoria ere berreskuratu eta berrirakurri behar dugu. Guraso zuberotarrak dituen Luce Irigaray feministaren lana berreuskaldundu behar dugu. Euskal Herrira ekarri behar dugu, bere lana euskaraz argitaratu. Euskal panteoi marianoan argizariak jarri behar dizkiogu Luceri.

Eman dezadan azken adibide bat, gaia Euskal Herri kontinentaletik atera eta diasporara eramateko: *Brokeback Mountain* (Ang Lee, 2005). Bi protagonistak Brokeback mendira eramaten dituen langilea “the Basque” (David Trimble) bezala azaltzen dela kontutan harturik, ugazaba “Joe Aguirre” (Randy Quaid) dela jakinez, eta mendebalde amerikarreko artzain kulturaren euskaldunak oso garrantzitsu izan direla kontsideratuz, ez da behar gehiegikeria handirik, pertsonaia nagusiak istorio-filme alternatibo batean euskaldunak direla pentsatzeko edota literarioki birsortzeko. Alegia, diaspora ere espazio marianoa dugu eta gainera, aipatu filmaren arrakasta ikusita, euskal kultura queerra globalizatzeko biderik zuzenenetakoa.¹⁹

Desira eta sasia

Nonbait irakurria naiz, Eloy de la Iglesiak inoiz filmatu ez zuen film batean etar bat eta guardia zibil bat, biak gizonezkoak, maitemindu egiten direla eta azkenean, *comme il faut*, elkar hiltzen dutela. Era berean, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*-n, euskal aita sadiko batek eskatzen digun sakrifizio nihilista eta kastratzailearen ondoan (nire aitaren etxea defendituko dut/todo por la patria), bada beste lekune eta eszena bat, liburua ondo irakurritakoan, pentsamendu eta poetika arestiarrari askozaz ere

erdigunekoago suertatzen zaiona: portua. Izerditutako gizonak portuan, euskaraz eta gazteleraz maldizioka, alienazio bera biziz, etorkinak eta bertakoak halatsu. Film porno baten hasiera ere izan litekeen beste eszena arestiar hori sorosi behar dugu, bertan sortzen baita *Euskal Herri Sasikoa*. “Sasiko” diot, Juan Goytisolok (Bermeoko aitona zuena eta bere autobiografiak itxuratzen dituen zentraliki) erabiltzen duen “bastardeo”-an inspiratua, baina gainera, gure kasuan, sorkuntza eraberritzaile eta kutsatzaile guztiak, egiazki desiraren fruitu direnak, sasia sortzen direla azpimarratzen duena. Alegia, desiraren lekune propioa sasia dugu. Eta sasiak gure literaturan duen lekua ikusteko, honako aipuak topatu ditut, bi apaizen, bi Agirreren, lanetatik:

Ikusi dezu nola erantzun didan Mari-Batistak? Bigunago zegoan sasiko masustarik elduena baño (Estaba más suave que un guante....). Domingo Agirre, *Garoa*. 1912.

Etxekoak esaten zioten etzala itxura, erbestean, “edozeñekin”, aide guraso-gabe, sasiko baten irudian senartzea.... (A la manera de un expósito o inclusero). *Garoa*.

Elizara-barik ezkondu? Sasikoa dala uste al dozu geure alaba? Ez orixe! ta eztaukagu sasi-ezkontzetarako, España-ko erregeagaz izanda-be!... (No pretenderás que la entreguemos para concubina de nadie). Domingo Agirre, *Kresala*. 1906.

Sasiko abereak bezala bizi dira.... (Como bestias; como irracionales). Juan Bautista Agirre, *Platicac*. 1850.

Orotariko hiztegia-n ere, honako esaera eta esaldi interesgarriak irakur litezke:

Moisek ikusi zuen sasi bat ez erretzen. Hm 91.

Sasiak eta arantzak belarriak daukez. (G-azp).

Esakerak diñuan moduan: sasia zarraparria danian, zerbait izaten da. SM Zirik 62.

Sasi-kristo eta sasi-profeta asko azalduko baitira. Ir YKBiz 411.

Jean Luis Davantek izkiriaturako obra honek gogorarazten du sasia hartu zuten herritar ugarik gogor egin zietela... tropa aleman naziei. Egunk 21-7-2001.

Sutu da sasiya, ez du orain asiya. Ib. 119.

Sasibide ederrean sartu-arazi zuen sartu ere! Loidi 30.

Joan beti txorratus (arima) penitenziaren sakramentuas, ezpada nai itzuli daien sasidi itsu bat (372). LE-Ir.

Zillegi ez zutenak sasi-ekondurik elkarte erioгарrien besoetara etorri bai dira. Zait Sof 24.

Etxea lur-iota, ta inguruak sasituta gelditu ziran. Zait Plat 53s.

Goiko aipuek argi uzten duten bezala, gurean sasia bekatuaren, lege-ezaren, galeraren eta naturaren lekune eta aldia da. Alegia, sasia beti espazio-denbora ezkor bat da, baina hain zuzen horrexegatik, desiraren lekune pribilegiatua ere bai. Eta jakina sasiko subjektua beti da gezurrezko: sasi-idazle, sasi-gizon, sasi-emakume, sasi-kritiko....

Desira modu askotara defini badaiteke ere, neure definizio propioa zera litzateke: politika eta historia eteten eta suspenditzen dituen aldi-lekua (kronotopa) genuke. Alegia, politikak eta historiak definitzen dituzten eta itxuratzten dituzten baina era berean kontrolatzen ez dituzten aldi-lekuek definitzen dute desira. Izan ere, desira beti gabeziaren desira da; alegia ez garenaren eta ez dugunaren nahia da desira.²⁰ Eta hain zuzen horrexegatik, gure desira garenak eta dugunak definitzen du ezkorki; garenak ez

garena definitzen baitu, dugunak ez duguna definitzen duen bezala. Bertatik Lacanek desira Bestearen desira bezala definitzea. Alegia, gu bizi garen orden sozial eta politikoak (Besteak, B larriz) definitzen du ezkorki gure desira. Eta desiraren egitura ezkorra delako, desiraren kronotopoa definizioz da kontrolaezina, definiezinaz. Ondorioz, desira askotan erabat politikoki-ez-zuzena dugu (*politically incorrect*). Alegia, gure jakintza, ezagutza eta segurtasunak desafiatzen ditu desirak eta legezkoa ez dena, onargarria ez dena, aitorezina dena bihurtzen du bere oinarri. Alegia desiraren lekune naturala sasia da; desiratzen dugunean sasiko bihurtzen gara. Eta desira ere ez dugu hitz totemiko bihurtu behar. Abjekzioetik gertuago, baina desirarekin lotuta datozkigu beste eraketa libidinal zoragarri horiek: afektuak, erresentimentua, higuina....

60ko eta 70ko hamarkadetan ezker progreenak desiran ezarri zuen esperantza askatzaileak naif samarra badi-rudi ere XXI. mendetik (gogoratu Deleuze eta Guattarik formulatu zituzten “makina desiratzaileak” kapitalismoa desegiteko eskizofreniaren bidez edota Marcuseren teoria sexualak). Egun, Slavoj Zizek bezalako autore postmarxistek, Alain Badiouren eraginez hein batean, benetako politika desiran dagoela azpimarratzen segitzen dute, baina ez desirari kasu egin behar diogulako, baizik eta desira bere azken mugetara eramanez, desira desegin egin behar dugulako, desira zeharkatu eta bestaldean ateraz, desira atzean utzi duen politika berri batean murgilduz. Neuk susmoa hartzen diot teoria berri hauen atzean oso kategoria marxista zaharra dugula: alienazioa. Alegia desira alienazioa da postmarxismoarentzat. Kasu oso arrunt bat aipatzeagatik: txokolatea desiratzen baduzu, ahalik eta txokolaterik gehien jan, azkenean txokolatearen desiraren distortsio libidinala (alienazioa) atzean utziko baituzu, txokolateaz harantzago, txokolatearen desira atzean utzi

duen subjektu berri bezala bestaldean azaleratuz. Kasu politikoago batetara pasatuz: euskaldunek independentzia desiratzen badute, onena independentzia hori ematea da, lortu bezain pronto berriro ere damuturik estatuaren magalera itzuliko baitira espainiar eta frantses txintxoena bilakatuz edota elkar hilko baitute arazoa behin betiko konponduz.

Proposamen deleuziar eta postmarxistetan ez bezala, ez dut uste desira desegin egin behar denik, desira bere mugetara eraman behar denik, bestalde ez-alienatu batean zoriontsu esna gaitezen. Hori egitea, desirari ez duen garrantzia politikoa ematea da. Alabaina, garbi dago edozein egitura politiko edota sexualetan desira osagarri nahitaezko eta zentrala dela, eta beraz hala aztertu behar dugula. Oraindaino euskal literatura eta kultura heteronormatiboak eman ez dion garrantzia eman behar diogu desirari. Gure lekune marianotik, desirari entzun egin behar diogu, desiraren alderdirik sozial, politiko eta publikoenak azalduz eta esploratuz. Alegia literatura heteronormatiboak naturalizat eman duen desira (aberriarekikoa, familiarekikoa, beste sexuarekikoa....), guk betidanik sasian bizi izan garenok, desira naturala ez dela dakigun azken subjektuok, sasikook, desnaturaldu egin behar dugu.

Eman dezadan adibide ia ebidentea baina oraindik aztertu ez duguna: Euskal Herritik Kubara joaten den turismo sexuala. Ez da dirudien bezain ebidentea edota argia arazoa. Turismo horren objektu nagusia kubar beltz eta mulatoak direla kontutan hartuta, zein da desira honen azpian dagoen gabeziako egitura desiratzaila? Gure buru euskaldunak beltz eta mulato bezala kontsideratzen al ditugu Espainian? (ez nago ziur turismo hau Iparraldetik ere egiten den). Sabinoren arrazismoa, zeina agian sorreraz espainiarra den, oraindik ere barnean al daramagu? Sasiko arraza al gara? Ala Espainiari enbidiaz

desiratzen diogun jite inperialista berreskuratu nahi dugu eta ezinezkoa den euskal inperialismo bat Kuban berbizi? Euskal abertzaletasunaren desirarik politikoki ez-zuzenena espainiar/frantses bete bihurtzea litzateke.

Beste maila bateko desirara pasatuz: literatur eremuan euskaldun izatea lege ofizial bihurtu zaigun honetan, euskaraz hitz egitea eta idaztea betebeharrak ia ofizial bihurtu den honetan, ez al dugu gure hizkuntza eta literatur desiren azken objektu sasikoa beste erdaratan (gaztelera, frantsesa, ingelesa...) topatu? Alegia euskaldundu garen honetan, azkenean euskaraz idatzi eta irakurri dezakegun honetan, alegia euskara barnetik bizi gaitezkeen momentu hauetan, ez al du gure desira sasikoak beste hizkuntzetan gure literatur objektu aitorezin eta politikoki-ez-zuzena idoro? Ez da arazo sinplea, zeren euskaraz idatzi eta irakurtzetik sortzen da desira sasiko hau, ez alderantziz: ez gara euskaldun traidoreak, baizik eta euskaldun "normalak" eta normalizatuak (legezkoak) eta, ondorioz, desira legeaz bestalde ezartzen dugunak.

Eta era berean, desiraren mapa bere konplexutasunean aztertzeke, ez al dira Euskal Herrian bizi diren eta euskara ez den beste hizkuntzetan idazten duten idazle euskaldunak idazle euskarazkoen estatusa desiratzen hasi? Ez al da euskaraz idazten ez duten idazle euskaldun (basko) hauen azken desira aitorezina euskaraz idaztea, euskarazko idazle bihurtzea? Beren bikoiztasun linguistikoak sortzen dizkien segurtasun-gabezia guztien amaiera eta bakea ez al dute euskararen imajinatzen? Alegia, Euskal Herrian, benetako literatura ez al da Bestearen literatura, ez dugun eta ez garen literatura hori? Diglosia al da gure literatur desiraren oinarria?

Idazle eta kritiko queerrok kanparen gehiegitasun kritikoari heldu behar diogu, desira hauek esploratzeko, sasiko hizkuntza bikoitzak asmatzeko, gure hizkuntzatik

bestea nola desiratzen dugun errepresentatzeko, hitz batean, hizkuntza propio eta zuzenik ez dagoela aitortzeko. Gure euskara (edota gaztelera, frantsesa eta ingelesa) beste hizkuntzek kutsaturik idatzi eta ahoskatu nahi dugula aitortzea da sasikoaren lana -hizkuntza zapaldua, euskara, “ederragoa” dela lotsarik gabe aldarrikatzeko kanparen izenean. Are euskara literario garbi, garbizale eta zuzena ere, egun hain nagusi dena Euskal Herrian, kinkan jartzea eskatzen digu sasiak.

Aipa dezagun gurean oraindik ere kastratzen gaituen azken zeruertz libidinala. Gurean literatura saltzea, *best seller* izatea, onartu ezin den, inork aitortu nahi ez duen, baina guztiek desiratzen dugun gertakaria da. Izan ere, modernismoaz gero dakigu legearen onarpena nahi duen idazleak, errespetua eta begirunea sortu nahi duen idazleak, ezin duela era berean irakurle arruntaren, masen, objektu desiratu bihurtu. Alegia, desira ez garena delako, idazleak bi aukera ditu bakarrik: legea ala desira, Euskadi sariak ala merkatua. Sasiko literaturak ez du alternatiba hau serio hartzu behar; kanpari, kitxari, ironiari, gehiegitasunari heldurik, dikotomia honen kontraesanak azaldu behar ditu sasi-literatura marianoak haren azpian dagoen ideologia burgesa salatuz.

Gauza bera janarekin eta modarekin. Euskal kulturaren, jana eta jantzia legearen aldean jartzeko ihardunak bihurtu dira: europarrak baino europarrago, globalizazioa baino globalagoak garelako aldarrikatzeko diskurtso bihurtu dira. Izan ere, Euskal Herrian bezala ez da inon jaten! Eta azken aldi honetan, jantzi ere oso elegante eta global jantzen ditugu gure buruak. Bi ihardun normalizatzaile eta legeztatzaile hauen aurka, janaren eta modaren sasia esploratu behar dugu, normalizatu nahi izatearen desira neoliberal ezinezkoa esploratuz, gehiegitasunaren, kanparen, kontraesanaren bidez. Euskal Herrian modak eta janak ere

sasikoa izan beharko du: ez-neoliberala, ez-europarra, ez-globala, eta, era berean, neoliberalismoaren, batasun europarraren eta globalizazioaren gehiegitasuna, guzti horren exzesoa. Izan gaitezen benetan eleganteak, gure desiren arabera jantz gaitezen; jan dezagun desiraz. Santi Santamariaren polemika (*La cocina al desnudo*) bide honetatik doa.

Nire beste desira objektu faboritua: Guggenheima. Eztabaida ugari izan dira, eta izango dira, Guggenheimak benetan onura egin dion Euskal Herria-EAeri ala neoliberalismoaren zaldi troiarra suertatu den. Garbi dago bietatik izan duela eta azken batean euskal neoliberalismoaren inaugurazioaren monumentua dela. Baina are gehiago, bota ezin dugunez gaur egun, irakurri egin behar dugu. Izan ere Frank Gehryk asmatu du: balea, alkatxofa, Puppy txakurraren etxea eta bestelako metafora ugari sortarazi dituen museoak badu bere irakurketa queerra. Hots, altzairu bilbotar tradizionalaren berpizte neoliberalaz jantzirik –titanioa– azaldu zaiguna, euskal sexualitate publiko eta tradizional trentoar-katolikoaren eztanda barrokoa dugu: titanioaren aberastasunez adierazirik, behiala urrezko zutabe salomonikoetan bezala, barrokoak berez erreprimitzen duen eta gehiegikeria espektakular bezala azaltzen duen sexualitatea dugu Guggenheimak adierazten diguna. Neoliberalismoaren gehiegikeria libidinaren adierazle titaniozkoa dugu Guggenheim. Oraingoan, ez dugu inperialismo espainiarra (barrokoa) baizik eta amerikarra (neobarrokoa) ere. Eta beraz Las Vegasen estiloko gehiegikeria espektakularrean, sexualitate euskaldunaren titaniozko errepresioa eta, era berean, eztanda neobarrokoa ikusta dezakegu. Bestela esanda, euskal sexualitatearen titaniozko kastitate-gerriko neoliberala guke Guggenheima azken batean. Gure irakurketek dildo bihurtu behar dute, euskal libidoa zoratuko duen tekno-

logia sexual marianoa –Beatriz Preciadoren kontra-sexualitate oraindik ere kartesiarretik (kartesianismo dekonstruitutik) haratago.²¹

Eta terrorismoa-borroka armatua ere sasikoa al da? Literatura terrorista-armatua egin behar al dugu? Sasikook terrorista-borrokalaria bihurtu behar al dugu? Ez, terrorismoa-borroka armatua ere legearen aldean kokatzen da, legea izan nahi duen eta ezin duen subjektuaren ihardun maskulinista da terrorismoa. Terroristaren desira estatu maskulinista da: beste estatu bat. Aitzitik, sasia beti ere estatuaz bestalde dago: estatu espainiarra, estatu euskalduna, estatu frantsesa, estatu jeltzalea, estatu HBkoa. Sasia estatuaren bestaldean dago. Are literatura queer batek estatuaren desira aztertu eta kritikatu behar du, estatua-erekiko desirak sortzen dituen kontraesanak azalduz, estatua ere sasira eramanez. Bestela badakigu emaitza: estatuak, terrorismo-borroka armatuaren emaitza denean ere, sexualitate burges heteronormatiboa ezarriko digu.²²

Alegia gure desiren galderak sasira garamatza. Euskal Herri garbi, neoliberal, europar, zuri, heteronormatibo, txintxo eta baketsu batetik ateratzen gaitu desiraren galderak eta gu guztia ez garen, gure buruak definitzeko ezeztatu dugun guzti horren lekune ezkorra, sasira, eramaten gaitu. Bestela esanda, literatura marianoak sasiko literatura izan behar du. Proposamen deleuziar eta zizekiarrak ez bezala, ez dut uste desiraren errepresentazio eta lanketak askatu egingo gaituenik; askatasunak beti ere legearen aldean amaitzen baitu eta bere desira propioa sortzen. Izan ere desira eta sasia aldi-lekune edota kronotopo aurrez definiezin eta kontrolaezinak dira. Beraz, desiraren esplizitazio eta idazketa kontzientea lortu eta gero bakarrik erantzun diezaiokegu galdera honi. Desira errepresentatzeak legekoa eta sasikoa dena kinkan jartzen du, eta gehiegikeria horretatik, aurrera jotzen laguntzen,

egungoa ez den eszena sozial eta politiko berri baterantz, desiraren lanak nola jokatzen duen jakinarene gainean, desiraren esperientzia dugun subjektu jakintsuago (ez arrazionalago) bezala. Alegia literatura sasikoa lokala eta kritikoa da. Eta are, literatura mariano-sasiko-queerrak ghetto literatura ez dela ulertzen laguntzen digu: izan ere euskal desira du bere azken objektu, ez praktika sexual pribatu eta “higuigarri” bat.²³

Eta desirak eta sasikotasunak manifestu antzeko lan hau amaitzen utziko didan azken galdera batera nakarte: klase ertain berriaren asperdura global-neoliberalak. Egun oraindik euskal ipuingintzak eleberriak baino indar handiagoa duen honetan, gure gizartea bere konplexutasun ez mimetikoan (edota heteroglosikoan) aztertzeko, ipuinei begiratu halako konstante bat isolatu dut, neoliberalismoak “klase sozial” kontzeptu marxistari ezarri dion tabu estatusa erreskatatzea eskatzen didana, sasiko operazio osasuntsutzat. Izan ere, ipuin gehienok, Txekhov eta Carver-en artean kokatzen den tristeziaren eta hoztasunaren genealogia baten kronika bilutsa baitamaigute. Alegia badirudi ipuin guzti hauek 90ko hamarkadako hedapen ekonomiko euskaldunak eman duen klase ertain berri postindustrial, postmoderno eta globalak sufritzen duen *spleen* eta *ennui* unibertsalaren berri ematearen beharra, agindua, sufritzen dutela. Alegia literatura honek, lehen begiratu batean, desira-gabea dirudi: tristeza eta aspertua bere pribilegioan. Bigarren begiratu batean aitzitik, desira non dagoen hobe azter daiteke: aita fantasmatico eta neoliberal batentzat idazten dute, aita euskaldun fantasmatico honek debekatzen baitu plazera eta desira (eta hau ere absente agertzen da, alegia bere ikusezintasunean ikusgarri). Klase honen desira, beraz, masokista da: aitaren kastrazioari bere burua eskaintzen dio, era horretara beste inork ere ezer disfruta eta desira ez dezan. Alegia, klase ertaina ertain

izan dadin, inor ertaintasun horretatik atera ez dadin, aita kastratzaile-kastratu eta ikusezin bat postulatzan dute ipuinok euskal gozamenaren subjektu bakartzat.

Nik uste literatura marianoak zerbait egin behar badu sasira joatea dela, desira ertain hori zikintzeko, kutsatzeko, bere ertaintasunetik ateratzeko, fantasiaz kutsatzeko, bere ezinegon eta asperdura neoliberaletik askatzeko. Helburua ez da iraultza edota zoriontasun betea (edo alienaziotik askapena). Helburua desira ertain masokista horretatik haratago gehiegitasunez beste lekune-aldi batzuk esplora-tzea da. Egun, fantasia erreskatatu behar dugu, fantasia sasiko bat, literatura irakurtzen segituko badugu eta guztiok mariano bihurtuko bagara.

Oharrak

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet hurrengo lagun, lankide eta ikasleei modu oso desberdinetan lan honetan laguntzeagatik: Mikel Hernandez Abaitua, Ibon Egaña, Juanjo Olasagarre, Beatriz Diaz eta Alain Galindo. Lan serioegi eta akademikoa ez bihurtzeko, aipuak, ezagunak edota eskuratzen errazak ez direnean bakarrik aipatu ditut beren osotasun bibliografikoan.

² *The New York Times*-i eskainitako elkarrizketa batean Rabannek zera dio:

“L.E.: There seems to be something special about the Basque region. Balenciaga, the Courreges and you are from there. What do you think it is about the area that produces such talent?”

P.R.: In the back there are the mountains, and in the front is the sea. You have all of the possibilities in the world. It’s not the same if you live in a flatland area — not the same vibe or inspirations. When you are born in front of the sea, you have the desire for the future and to go as far with it as you can.

R.A.: The Courrèges were obsessed with light, as you are.

P.R.: Yes, that is because there is a special light in the Basque area. The people of Basque are descendants of Atlantis. It is the oldest language in the world. I remember my life in Atlantis.”

Garbi dago, marianoek Atlantisetik gatozela eta ez Noeren arka pasatu zen Ararat-Aralar hartatik, Tubali jarraiki.

- ³ Mendiguren, I. *Haltzak badu bihotzik*, Elkar, Donostia 1990: 86.
- ⁴ Habermasek eta bere jarraitzaileek (ugari Espainian) nazioa eta nazionalismoa gainditu ditugula aldarrikatzen dute, atzeko atetik “patriotismo konstituzionala” nazionalismo berritatz sartuz, nazionalismo neoliberalizat hain zuzen, bertatik Habermas neonazionalista izatea nire iritziz.
- ⁵ Egia esan, nik neuk ez dut inoiz “ulertzen al du/duk/dun/duzun?” zorieko esaera hori entzun. Baina urteak daramatzat diaspora euskal-mutuan, beraz eta hipotetikoki edo utopikoki bada ere uler dezagun, uler dezadan.
- ⁶ Oso kontziente naiz, Foucault doneak ez duela onartzen “libido” ahistoriko baten existentzia. Alegia, modernitateak berak bere desira sortzen du aginte pastoralaren bidez. Alabaina, goiko historia libidinala Foucault-en aurkakoa denez (izan ere Foucaulten arkeologien heroi ez aipatu baina beti ospatua modernitate frantses-europarra baita), hitz kanp bat hartu dut (libidoa) eta ez beste hitz teknikoago baina analizatuegi bat (desira), Foucaulten kontra kritika euskaldun kanp bat hasteko.
- ⁷ Txirritak andregaiari behin emandako arrazoi ekonomikoen atzean, bestelako libido eta sexualitatea (orala) ikus daiteke: “Ni egunean bost peza irabazteko kapaz naz –asko omen zan ordurako–. Bañan egun berean sei peza gastatzeko ere bai. Ta biok gaizki bitzitzea baño, obe izango da bat bakarrik gaizki bitzitzea, ta ez det pentsatzen ezkontzerik” (Zavala, A. *Txirrita (Jose Manuel Lujanbio Retegi, 1860-1936. Bizitza eta bertsoak)*, Auspoa, Tolosa, 1992: 48. or.). “Mutilzar” kapituluan Zavalak jasotzen dituen bertsoetan, Txirrita zaharrak inoiz ezkonduko balitz nolako eztaiak ospatuko lituzkeen esplikatzan du ironikoki: suzko zezanak Zurriolan, napar zezanak, Machaquito eta Bombita torero “kastillanoak”, dozena erdi urdaiazpiko, Aragoiko kapoiak, eta abar aipatzen dira. Andregai ezkontidearen aipamenik bat ere ez (49). Eta gainera, bere mutilzahartasunari ere alderdi politikoa gehitzen dio: “semeak gerrâ [gerrara] ez joateagatik / mutil zar gelditu nitzan” (200). Azkenik, bertsolaritzaaren garaiko jite homosoziala argi azaltzen du bere buruari honela zuzentzen zaionean: “mutil zaarra zerade baño / bertsolari askoren aita” (206).
- ⁸ Eta hein txikiagoan, beste abertzaletasun diasporikoek ere.
- ⁹ Orain artean gauza hauetaz idazten bakar xamar ibili naizenez, aurrerantzean zenbait lan propio aipatuko ditut, manifestu hau

idazten lagundu didatenak. Jakina, guztiok dugun ikutu nartzisista eta promozionalak ere badu parterik honetan. Ikus nire “Históricos con casta: Masculinidad y hegemonía nacional en la España de fin de siglo. (Para una arqueología feminista, torcida, marxista, poscolonial y posnacional del noventayochismo).” Zecchi, B eta R. Medina (ed.) *Género y escritura: 1850-2000*, Anthropos, Bartzelona, 2002: 120-61.

- 10 Euskal lehentasun fantastiko honen atzean dagoen trauma, eta hau garatu-frogatu gabeko teoria litzateke, zera dukegu: euskal lehentasunak judu-mairuaren lekunean ezartzen duela nazionalismo espainiarrak, odol garbikoa ez den subjektu bezala itxuratuz. Hots, odol-garbitasun-etzaren trauma (konbertsoaren trauma) sortzen dio euskal lehentasunak abertzaletasun espainiarrari. Hain zuzen horregatik, bi nazionalismo hauek arrazistak dira beren sorreran.
- 11 “Euskal literatura modernoaren sorrera postkolonial eta gayaz. Anton Abbadieren ekarpena birpentsatuz.” Arkotxa, A. eta L. Otaegi (ed.) *Euskal Gramatika eta Literatur Ikerketa. Iker 14.2. Literatur alea*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2003: 81-88.
- 12 XIX. mende aurreko euskal konkistatzaile-kolonizatzaileak beste paradigma libidinal batekoak digutu eta beraz gure identifikazioetarako objektu zailagoak.
- 13 Ez da kasualitatea, idatzi diren lehenengo istorio lesbiarrak amatasunarekin kezkatuak zeuden idazle heterosexualek idatzi badituzte: Arantxa Urretabizkaia eta Laura Mintegi.
- 14 Azpimarratzekoa da, euskal literaturen generorik garrantzitsuena eta irakurleriarik handiena duena ere umezkoen literatura dela.
- 15 Silverman, K. *Male Subjectivity at the Margins*, Routledge, New York, 1992. Ikus nire lehen saiakera bat: “Terrorismoa memorioztat: eleberrri historikoa eta masokismo maskulinoa.” in *Nazioaren hondarrak: euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, EHU, Bilbo, 2006: 215-42.
- 16 Nahiz eta bere azken eleberrian, *Herioaren itzalpeetan* (1998), euskal abertzale historiko exiliatuarekiko oso idazketa homosozial eta hegemonikoa hedatu.
- 17 Neu ere saioa egina naiz: “Madril, New York, Tokyo” (1992). *Apokalipsia guztioi erakutsia* liburuan jasoa (Erein 2009).
- 18 XVII-XVIII. mendetako lirika herrikoia berbisitatu behar dugu euskal desirak izan duen formulaziorik aberats eta poetikoena aztertzeko. Heteronormatiboa badirudi ere, egin ditzakegu bestelako irakurketak.

- 19 Hau ere neuk zuzenean egiaztatu ez dudan istorio antropologikoa da. Antza, artzainek arboletan aitzoaz idatzitako mezuen artean bat ba omen da “nueva carne” diona. Jakina “carne” hori okela ala haragia den, diferentzia handia.
- 20 Gabezia traumak eta kastrozioak sortzen dituela psikonalisiak postulatu badu, nire teorian hau inplizituki onartzen dut.
- 21 Preciadoren lanak (*Manifiesto contra-sexual*) gurean izan duen eragina kontutan harturik, kritika euskal mariano bat egitea beharrezkoa da.

Lehenik esan behar, Preciadok estatua sexu-tik berezi eta kanporatzen duenean, defektuz, sexua (eta kontra-sexua) praktika pribatu eta beraz burgesa bihurtzen duela, izan ere pribatutasuna bera ez baitu kritikoki pentsatzen.

Bigarrenik, Preciadoren kritikak frogatzen badu ere dildoa dela sexu ororen izaera teknologikoa begibistaratzen digun elementu-suplementoa, hala ere, dekonstrukzio orori gertatzen zaion bezala, Preciadoren diskurtsoak eta berak proposatutako kontra-sexualitateak dikotomia horretan harrapaturik amaitzen du eta beraz azken batean dikotomia hori berriro ere erreifikatu egiten du: alegia Preciadoren kritikak kartesiarra (subjektu/objektu) izaten segitzen du.

Hirugarrenik, Preciadok dildoa fetitxea ez dela argiki frogatzen badu ere, dildoa ez du inoiz salgai/merkantzia bezala planteiatzen eta beraz sexua merkatutik kanpo, eremu ideal batean, kokatzen du. Zentzu honetan eta dildoari esker, Preciadok kontra-sexualitatea bera bihurtzen du fetitxe: kontra-sexualitatea merkatutik kanpo geratzen den eta merkatua ezkututzen digun fetitxe/fetitxismoa baino ez da. Dildoa *teknea* bada, teknea beti *eikonomos* bat ere bada. Azkenik, oso salbuespen geopolitiko gutxirekin (eta filosofia dekonstruktibo batetik salbuespen geopolitiko hauek hain zuzen testuaren suplemento nagusi eta zentral direla argi ikus daitekeelarik), Preciadoren kontra-sexualitatea Frantzia, Estatu Batuak eta Ingalaterra artean hedatzen da. Lehen mundu zuri eta inperialista hau da kontra-sexuaren eta dildoaren eremu erreifikatu eta naturalizatua: hortik kanpo sexua naturala da eta kontra-sexualitatearen aukera ukatzen zaio. Preciadoren dildoa neoliberal da, bere dildo globalizatu eta zibernetikoaren geopolitika ez baitu pentsatzen (eta honetan postestrukturalismo frantsesaren akats geopolitiko eta euro-zentrikoak errepikatu baino ez ditu egiten). Eta hain zuzen horregatik beste mundu guztia bihurtzen da (bere jaioterri Burgos eta estatu Espainia barne) Preciadoren kontra-sexualitatearen suplementua, kontra sexualitatearen kontrako sexualitate, kontra-kontra-sexualitate, dildo inperialista-neolibera-

laren dildoa. Dildoaren sorrera kolonian kokatu behar da (XV. menderaino jaisten bagara bakarrik). Goma bera ere kolonietatik dator.

- ²² Leo Bersaniri jarraikiz, zenbait autorek azken urteotan tesi anti-soziala eztabaidatu dute: Caserio, Dean, Edelman, Halberstam, Muñoz. Estatuak hegemonia kuestionaetzina duen lekunetan (AEB) hedatu den eztabaida da (PMLA 121.3 (2006): 819-36). Euskal Herria bezalako lekune batetik, tesi oso klase-ertainekoa eta narzisista dirudi berorrek. Alegia, eztabaida zera da: subjektu queerrak hiritar zintzoa edota lege-hauslea izan behar al du? Are, ez da kasualitatea Foucaultek inoiz estatuari ikerketa luze eta berezirik eskaini ez bazion: berak aztertutako instituzio guztien euskarria estatua baita eta beraz estatua da bere ikerketen muga gaindiezina. Alde horretatik postfoucaultiarrak izan behar dugu.
- ²³ Joseph Massad palestiniar-jordaniarrak salatu du lehen mundutik kanpo geratzen diren subjektu ez heterosexualak “gay” bezala definitzea inperialismo-kolonialismo ihardun berri bat dela. Gure artean ez dut antzeko eztabaidarik ezagutzen. Massad, J. “Re-Orienting Desire: The Gay International and the Arab World”. *Public Culture* 14.2 (2002): 361-385

Dragak konfesionarioetan *Batita Haundiaren irakuketa bat*

Juanjo Olasagarre

“Goiz ala berant, denak jakiten dira” bukatzen da *Batita Haundia* (Daniel Landart, Kutxa Fundazioa 1994). Lelo hori izan daiteke Mendebaldeko edozein gay edo lesbianaren beldurraren iturri, baina baita ere bere askatasunaren aldarri eta esperantza, goiz ala berant dena jakiten denez aurre egin beharko baitio jakite horri, berebiziko garrantzia duen uneari, armairutik ateratzeari, hain zuzen, bere burua ezagutzera emateari, horrek eragin ditzakeen kontraesan guztiekin.

Beraz argumentua laburtu ondoren Oscar Wilderen endredo antzerkia dirudien nobela honetan gauzatu, itxi, aurrez-aurre paratu, eta alderatzen diren armairu-konfesionarioak aztertzen saiatuko naiz. Armairu-konfesionarioen ondorioz azaleratutako “egiekin” pertsonaiak nola lehiatzen diren argitu nahiko nuke ondoren, nobela kokatzen den testuingurutik abiatutik, Iparraldeko herri txiki bateko gizarte euskaldun-nekazari-hiper katolikoan.

Euskalduntasuna (abertzaletasuna barne) eta nekazal kultura biltzeaz gain, Batita Haundia pertsonaia Joanes Artzaiairen hogeigarren mendeko aldagaia izan daitekeen, aurrera dezagun hipotesia titular eskandalagarri (sic) moduan: Joanes Artzaiak desio homosexualak zituen.

Irakurleari argitu nahi diot tipografia honetan idatziko ditudala nire gogoetak zein beste zenbait liburutako aipuak eta beste hizki mota bat erabiliko dudala Landar-ten nobelako pasarteak hona ekartzeko. Ez nahastearren, batez ere.

Argumentua

Batita Haundiak, soroan lanean ari dela, erori eta ohean pasatzen ditu egun batzuk. Bertan jaiki ezinik dagoela hil ezkilak entzuten ditu. Alabari galdetu ondoren jakinen du bere betiko adiskide mina, Manez, hil dela.

Batita ahuldurik ageri baldin bazaigu ere, etxebeteko gizona da, sendoa, euskalduna, kristaua, Jainkoaren legearen arabera bizi dena, eta handia, hortik nobelaren izenburuko izenondoa.

Manez eta bien arteko harremana gogoratuko du, etengabeko *flash-back*etan Batitak. Mutiletan elkarri zakilak erakutsi zizkioten hura, gudatik itzulerakoak eta abar.

Batitak txarrera egingen du eta ezin izanen du Manezen hiletara joan. Haren oroitzapena gogoan, gertakari latz bat nola kontatu zion akordatuko da. Batita Bigarren Mundu Gerran Alemaniako herri batean preso zegoelarik Gertrudekin, bertako emakume batekin, emaztea eta haurrideak etxean dituela, izandako harremana gogoratzen du. Gertrud haurdun gelditu baina umea gaizki osatua jaioko da eta gero hil egingen da. Batitak ihes egingen du herri hartatik baina berriz ere preso hartu eta Rawa-Ruska kontzentrazio zelaira eramango dute. Manezek Batitaren aieneak aditu ondoren kontsolatu egingen du, inori kontatuko ez diola agindu ondoren.

Manezekin egin bezala Batita herriko apaizarekin konfesatuko da. Apaizak barkamena emanen dio ondoko hitzak ahoratu ondoren: “Eta egunero otoitz egin ezazu

zure seme bat Jesus Kristoren zerbitzari leial bilaka dadin. Orduan bai, Zeruko Argiak barkatuko dizu nik orain egiten dizudan bezala... Aitaren, Semearen..."(92-93)

Batitak gerra ondoren sortu den bere seme Gabriel elizari eskaintzen dio, apaiz bihurraziz. Handik urte batzuetara Batitak jakinen du emazte Dominikaren ahotik, azalpen gehiegirik gabe, Gabrielelek apaizgoa utzi eta hiri batera alde egin duela bizitzera. Ordutik, Gabrielelek eta Batitak ez dute elkar ikusi.

Erietxeko ondoko ohean Martin Ibar dauka Batitak, Iparraldeko euskal kantari bat; Hegoaldean ezagunagoa dela iradokitzen da, hala ere. Martin Ibar, Batita ez bezala, bakarrik dago, emaztearengandik banaturik, seme-alabarik gabe. Iloba baino ez duela aitortuko dio Batitari, kartzelan bere erruz, berak bideratu baitzuen abertzaletasunera. Nobela bukaeran arlote abiatuko da.

Eta halako batean Gabriel sortuko zaio ospitalean, gizon beltz batez, Simbaba, lagundurik

Batitak apaizgoa zergatik utzi zuen galdetzen dionean Gabrielelek azalduko dio behin mutil gazte bat konfesatzen ari zelarik zerbaitez ohartu zela, eta mutil hari jarraitu ziola arratsalde osoan. Gero uste zuela pasatuko zitzaioela baina liburu pila irakurri ondoren "jaidura hori tipitipitik neukala. Sortzez nintzatekeela horrela, horrelakoa..."

Batitak Dimitri, homofobiaren eraginez gudan bere buruaz beste egin zuen soldadu bat gogoratuko du.

Gabrielek homosexuala dela ohartu ondorengo bizimodua eta amari nola aitortu zion gogoratzen du narratzailearen bitartez: amak biziotzat jotzen du Gabrielelek aipatutakoa eta isilean gordetzeko agindu.

Hurrengo egunean etortzeko manatuko dio Batitak. Tartean Batitak laguntza eskatuko dio hil berrietako Manezi. Eta horretan ari dela Manezen alarguna agertuko zaio. Biek Manez gogoratuko dute eta badoala Gabriel agertuko da.

Batitak zerbait kontatu behar diola esanen dio eta Gabrielelek, apezarenak eginez, “nahi duzu laguntzea” formula erabili ondoren, badakiela aitortuko dio. Orduan Batita estonatu egiten da, nola ote den posible, norik esan dion. Gabrielelek amak, Dominikak, aitortu ziola argituko dio. Batita harri eta zur gelditzen da. Izan ere, bizitza osoan gordetako sekretua sekretu jakina da. Gutun bat ailegatu zen Alemaniatik, Batita Rawa-Ruskan zegoen bitartean, Gertruden amak bidalia, bertan Gertrudek bere burua trenera bota zuela zioela argituko dio Gabrielelek Batitari. Batitaren deitorea sikiera Dominikari erran banio. Eta azkenean errua gerrarena dela laburtzen du.

Gabrielek alde egiten du eta Batitak dena kontatuko dio Martin Ibarri zeinak bere adiskide idazle bati kontatuko baitio izkriba dezan (gu irakurtzen ari garena delarik idazle horrek kontatutakoa). Batita hil eginen da, bakean.

Egiaren teknologia

Argumentuan argi ageri denez nobela hau esateari buruz da, edo hobe esanda aitortzeari buruz. Zenba ditza-gun nobelak azaltzen dizkigun aitortza guztiak, kronologikoki ordenaturik.

1. Batitak Manezi: adulterioa eta seme hila da aitortzen dena.
2. Batitak apaizari: adulterioa eta seme hila.
3. Mutilak Gabrieli: Gabrielelek bere buruari bere homosexualitatea.
4. Gabrielelek amari: bere homosexualitatea aitortuko dio eta amak biziotzat joko du.
5. Amak Gabrieli (elipsian): senarraren adulterioa eta seme gaizki osatu hila.
6. Gabrielelek aitari: homosexualitatea.

7. Aitak Gabrieli: bosgarren aitortza gogoratuz Batitak esan beharrean Gabrielelek formulatua: adulterioa eta seme hila.
8. Martin Ibarrek: ilobaren abertzaletzea.
9. Errelato markoaren aitortza: Martin Ibarrek idazleari egindakoa.

Horrela ikusirik esan daiteke bi egia daudela jalgi nahian: Batitaren adulterioa eta haren ondorioa: seme gaizki osatu hilaren jaiotza-heriotza, alde batetik, eta Gabrielen homosexualitatea, bestetik.

Eta biak egia bera balira, bakoitza bere sisteman egindako “oker” bakarra (onar dezagun okerraren kategoria, oraingoz bada ere) 1.tik 8.era argia ikusi nahian dabilena?

Nobela hau “Egia-egarria” deituko genukeen beharrez zeharkaturik dago. Sarreran aipatu ditugun aitortu –ez aitortu bikoiztasunean tratatzeari buruzko ez gain, azpimarratu beharko dugu nobela honetako egia-egarria areago doala, hainbeste, Foucaulten hitzetan, aitortza bilakatzeko baitu egia sortzeko teknologia nagusia. Eta nobela honetako konta-materialik garrantzitsuenak, gehi dezakegu guk.

Foucaultek bere *Jakiteko Nahian* dioenez Kontrarreforman hasi eta gaur egun arte irauten duen egarria da egiarekiko hori, gero azalduko dugun bezala, nobela honetan diakronikoki ageri zaiguna, Batita Haundia XIX. mendeko pertsonaiatzat, aurre-modernoak, beraz, eta Gabriel XXI.ekoa, posmodernoak, joko genituzkeen neurrian, erabat horrela ez baldin bada ere.

Segi diezaiozun Foucaulti une batez:

“Konfesioaren zabalkundea, eta haragiaren konfesioa, gero eta hedatuago daude. Kontrarreformak nazio katoliko guztietan urteko konfesioaren erritmoa zabalitzen duelako. Norbere buruaren azterketaren arau ze-

hatz-mehatzak ezarri nahi dituelako. Baina batez ere, gero eta garrantzi gehiago ematen dielako –beste bekatu batzuk bazterrago utziz– haragiarekiko gorabehera guztiei: pentsamendu, desio, irudikapen “lizun”, irudipen, arima eta gorputzaren arteko joan-etorri, denak sartu beharko du konfesioaren eta zuzendaritza izpiritualaren jokoan.

Pastoral berriaren arabera sexua ez da, zuhurki, aipatu behar; baina bere ertz, korrelazioak eta ondorioak adar guztietan zehar jarraitu eta aztertu behar dira (...) Orduan beharbada ezartzen da lehengo aldiz, derri-gortze orokor baten moduan, mendebalde modernoari dagokion berezko ezaugarri hori.

Ez naiz sexuaren legeei dagozkien hutsak konfesatzeko beharrari buruz ari, penitentzia tradizionalak eskatu bezala; baizik eta esan, norbere buruari aitortu, eta beste norbaiti oro esateko lan ia amaiezinari buruz; oro dagokiolarik plazeren jolasari, sentsazioei, pentsamenduei, zeinak arima eta gorputzaren bidez, sexuarekin zer ikusi duen(...)

Manamendu bat planteatzen da: legearen kontrako ekintzak konfesatzeaz gain desioa, desio guztia, diskurtso bilakatu.” (27. eta hurrengoak)

“Dena dela, [konfesioa] hainbat frogatatik iragateko erritualez gain, tradizioaren autoritateek emandako bermeez gain, lekukotasunez gain, metodo zientifikoaren behaketa-frogatze prozedurez gain, egiatzkoa ekoizteko teknika egokiena bilakatu zen Mendebaldean.” (74. or.)

“Orain aitortzeko betebeharra horrenbeste alde ezberdinetatik datorkigunez, horren dugu gure baitaratua ezen ez baitugu gehiago estutzen gaituen botere baten ondoriotzat jotzen; alderantziz, iruditzen zaigu, egiak, oroz gain, gugandiko ezkutuen argitara ateratzea “eskatzen” duela; eta ez badu hala egiten iruditzen zaigu hertsadura batek heltzen diolako dela, botere baten bortxa gainean duelako, eta askatasun antzeko baten

prezioaren truk artikulatuko dela. Aitortzak manumitetu egiten gaitu, botereak isiltasuna ezartzen du; egia ez da boterearen eremukoa, alderantziz, askatasunarekiko jatorrizko ahaidetasuna du” (75-76. or.)¹

Ikus ditzagun orain nobelan ageri zaizkigun aitortza guztiak aipu horren argitara.

1. Batitak Manezi: adulterioa eta seme hilaren jaiotza

Zoriontsu ziren bai. Baina Batitak arrenkura bat bazeukan. Eta ez tipia! Duda bat. Duda bat baino gehiago... beldur bat. “Ez zioat erran behar. Ez. Hobe diat, egun, isilik egotea... Geroxeago mintzatuko natzaiok...” Bestaldetik indar batek bultzatzen zuen “ez dezakek hori hirezat bakarrik atxik... Manezek konprenituko hau. Lagunduko. Erraiok beroan bero!” Kezkatu, urduri, Batitak ez zekin batere zer egin...

Bazkari hasieran, mila gauza aipatu zuten, nahas mahas. Gehien mintzo zena: Manez. Ahoan pasa ahala bazetorkion! Funtsean, Batitak hori nahiago zuen, bera, ororen buru, ez hain gustuan izanez, dolutua bezala, bazkari hori antolaturik. Alta, janari arraroa zen! Lehenik, eltzekari on bat jan zuten. Gero aingirak, perrexila eta gatz piperrak ez baitzituzten eskas, eta ondorik, oilaxkoari lortzarekin, Manezek, bat batean Batitari galdatu zion:

“Eta... zer huen errateko?”

Batitak, bere burua zuritzen sentitu zuen. Gorputzeko menbroak gogortzen. Zer egin behar du? Manez, bere adiskide minari gezur eder bat sakatu? Edo, berdin ihesari eman? Ez daki. Zinez, ez daki. Galdua da. Bihotza zanzanza ari zaio hatsa tapatuz. Delako gertakari higuigarri hura ikusten du. Geldi-geldia ikusten. Hauxe tortura! Izerditan plantatzen da. Ez dezake hitz bakar bat ahoska.

Zer duk gizona? Mintza hadi...

Batitak, bere aurpegi serioena hartuz, Manez otoiztu bezala zuen:

– Zin egin behar didak...

Manezek, klikez bere baso arnoa hustu zuen eta doi bat harritua:

– Zer derasak? Zergatik zin eginen diat?

– Alemanian ez nauk behar bezala gobernatu eta...

Baina... ezin zezakeat segi, ez baduk zin egiten...

Manezek burua altxatuz, alegia deusez, bazter oroara begiratu zuen eta apur bat bildutasunean egonik, erdi aho-petik:

– Fundi! Ez dudala inori erranen...

(...)

– Dominika tronpatu diat. Tronpatu! Ez zioat lehen bezala begiratzen ahal! Iruditzen zaidak, ni baitan zerbati irakurtzen duela... Uste diat mesfidatzen dela. Beldur nauk, Manez..."

(...)

– Gertrud zinez maite huen? Ala bakarrik...

– Maite nuenez?! A! Mutikoa... erotzerainokoan maite nian... Eta oraindik ere, egunero, hari pentsatzen diat. Batzuetan, Dominikaren aurpegiari so nagoelarik, Gertrudena agertzen zaidak.

(...)

– Ez. Hastetik denak garbiki esplikatuak nizkioan; ni, gerla finitzearekin sortetxera etorriko nintzela! Hemen bizi nahi nuela...

– Eta beraz

– Beste zerbait ere gertatu baita...

– Zer?

– Nigatik, oroitzapen bat gustatuko zitzaiola eta..., bizi guztirako oroitzapen miragarri bat... Hiru, sei, hamar hila-betez konpreniarazi nahi izan nioan ez nuela onartzen, ez zela zilegi, ez genuela eskubiderik, bekatu hilkor bat zela eta

horrelako, baina amodioak ez baitu neurririk, azkenean haren desira garrantzitsuena konplitu genian: haur bat konzebitu (...)

–Ez hila sortu huan.

2. Batitak apaizari: adulterioa eta seme hila

...gertatu zitzaion zorigaitza. Hura zen hura, benetako infernua: gorputzaren eta izpituaren etengabeko oinazea!

Baina Bazko hurbiltzearekin, bere burua arras hobenduntzat zeukanaren baitan, halako itxaropen bat sortu zen...

Azkenean norbaiti aitortzen ahalko zion.

Apezaren saihetsean belaunikatu zelarik, lehen hitzak ezin ateratuz, zinez lanak ukan zituen. Eskerrak apez gazte goizegi zaharkituak ahal bezain zintzoki lagundu zuela. Baina gero, beroan bero, ixtorio guztia kontatu ziolarik konfesorraren aldi izan zen, mutu gelditzea! Eta bulta on batez Batitak uste ukan zuen apezak ez ziola Eliza Ama Sainduaren barkamena emanen. Ordu latza izan zen hura ere.

Apezak, burua higituz, begiak ireki zituenean, Batita harritu zen: haren begi zorrotz-zorrotz haietan iruditu zitzaion Jainkoaren beraren aurpegia ikusten zuela eta bihotz gainean zeukan korapiloak oraindik gehiago min egin zion.

– Gerla madarikatua! Gure familiak desegiten ditu, gure gorputzak suntsitzen, gure arimak usteltzen...

Hori entzutean, Batita, urrikiaren urrikiz arrunt joa, nigarrez hasi zen eta apezak erran zizkionak oro, ez zituen denak behar bezain ongi endelegatu, garrantzitsuenak salbu:

– Egin duzuna gerlako istripu bat izan dela, erran nezake. Baina gaizkia, gaizki da. Eta zuk, gaizki egin duzu! Zure bizi guztian, ez dezazula ahantz Jainkoaren amodioa gain-gainetik laidostatu duzula... Gerla hau burutzean oraino bizi bazara, zoaz zure etxera... eta ez zaitezela zure familiaz baizik axola. Hartaz bakarrik! Entzuten nauzu!?

3. Mutil batek Gabrieli: Gabrielek bere homosexualitatea bere buruari

Konfesatzen ari nintzen larunbat arratsalde batez hasi zen dena... Edo bederen, orduan nuen zinez sentitu.

– Zer?

– Eliza barnean sekulako hotza izanez, sakristian ariko nintzela jakinarazi nuen. Leiho aldean ezarri nituen bi aulki. Kanpoan eguzkia apal eta zuri. Besteak beste, gizon gazte bat belaunikatu zen ene ondoan. Hogeita bi, hogeita hiru urte zeuzkan. Batere funtsik gabe, ongi begiratzen nion. Eguzki arrai batek argitzen zion aurpegia. Bihotza saltoka hasi zitzaidan. Haren edertasunak itsutu ninduen. Ez nuen gehiago entzuten ahal ere zer zerasan. Orenak egonen nintzen hari so eta so. Xoratua. Liluratua. Eskerrak azkena zela, konfesatzeko. Karrikaz-karrika, luzaz ibili nintzaion ondotik. Pentsatzen dut ez zela hura deuseri ohartu. Gau guztian gero ez nuen begirik hetsi. Arrunt nahasia nintzen. Galdua. Burua sutan neukan, ez nekien batere zer gertatzen zitzaidan. Ez nintzen gehiago ni. Edo hobeki erran, ene barne barneko ni hura, egiazkoa, erreala, azkenean eta deblauki, zer bezala ikusi nuen...

Gabriel isildu egin zen.

4. Gabrieleke amari: bere homosexualitatea

– Bai. Denetaz mintza zitekeen. Salbu... printzipalenez! Nori erran beraz? Gogoeta parrasta baten ondotik, bere indarrak oro bilduz, horra erabakia hartua?

“Sortu nauen ama izanen da lehen pertsona, egia osoa jakinen duena!”

Lourdesen, bazkal ondo batez...

Amaren harridura! Eta mina. Nigarrek busti ez zuten begitarte hura itxuraldatu zen, semeari, hotz-hotza eta garbiki ahoskatuz botatzeko:

– “Zer, gainera, b.i.z.i.o. hori baduk?!”

*Bizioa! Ai! Edozein hitz edo hitz guztiak nahiagoko zitu-
tuen entzun Gabrielelek, hori baino. Nahiz bazekien, jendeek,
orokorki, horrela pentsatzen dutela...*

*Amak semeari eskuak hartu zizkion, berenen barnean
goxoki tinkatzeko, neguan, ahuleziaz elur gainera erori txo-
ria, bi esku ahurren erdian ezartzen den bezala, berotzeko...
Eta erran zion:*

– “Gabriel, nire seme maitea...nik, gauza horietaz, fitxik
ez zekiat, baina Jainkoaz, senda hadi!”

– “Ez naiz eria, ama. Ene izatea horrelakoa...”

– “Hire onetan, ez sekulan gehiago horrelakorik aipa. Ez
neri. Ez beste nehuri!”

Gabrielen homosexualitatea amak *b.i.z.i.o.*tzat jotzea gerorako utzirik, amaren keinua komentatu nahi nuke. Arraroa da. Segur aski nobela bainoago ni erretratatu-
nau ondoko komentario honek baina iruditzen zait ez dela oso keinu euskalduna (?) amaren eskuak hartzekoa, areago nobela guztian zehar une hau izanik pertsonaiek elkar uki-
tzen duten une bakarra. Honen harira akordatu naiz Jo-
xean Agirrek –mundu berdintsua islatzen du, nekazal gi-
roko euskal mundua, hain zuzen–, zera esaten digula kei-
nuari buruz *Elgeta* (Kutxa Fundazioa 1996) delako nobelan:

“Espantu pixka batekin imajinatzen ditut batzuetan hitzik eta jectorik gabeko gizarteak, non emakumeak itzal geldituta eta mutuak diren baserrietako sukalde bazterretan eta gizonezkoak hitz bakun eta laburrekin mintzatzen diren. Gazteek kolpeka adierazten dituzte beren bozkarioak eta elkarri agur egiteko bostekoa luzatu beharrean, barrabiletatik heldu eta astinduak ematen ere ikusi ditut.

Norbere nortasuna gauza bitxiegia da gizarte horietan. Urtean behin joaten dira buru-makur apaizaren aurrera eta belaunikaturik beren bizitzari buruzko

zerbait esan beharrean aurkitzen direnean, estutu egiten dira. Trantze gaizto horretatik ateratzeko dotrinan ikasitako formulak erabiltzen dituzte. Lanegun batean pasirari ibiltzea bekatu zen, bigarren aldiz enamoratzea tragedia bat eta izerdirik gabeko lana gaizki ikusia zegoen. Elgeta bezalakoek ez zuten lekurik gizarte horretan“

Gazteek elkar agurtzeko barrabilen ukitzea (*Batita Haundian* ere badago horrelako une bat) homoerotismo hertsia moduan interpreta badaiteke ere, orain gehiago interesatzen zait seinalatzea, geroko argudio bat indartzeko besterik ez bada ere, eszena horretan ageri den Levi Straussen Kulturaren definizioa: elkartruke harremanezko ezkontza ez gizon eta emakume baten artean baizik eta bi gizonen artean non emakumea trukeko gaia baino ez den.

Ildo honetatik, Luce Irigaray areago doa, izan ere, feminista belgiarrarentzat, emakumea heterosexualitatearen ekonomia sinbolikotik kanpo dago, ez du ezer sinbolizatzen, ez eta Levi-Straussen teorian elkar trukatzeko duten objektua ere, eta ondorioz emakumea ez da ezer. Eta neurri horretan Bestea ere ez da². Heterosexualitatea, orduan, gizonen arteko homosexualitatean, edo homoerotismoan oinarriturik izanen litzateke. Galde daiteke beraz nor da *bestea* elkarri barrabilak ukitzen ardi diren bi mutil horien artean? Nork dauka eskuan falo lacaniarra? Nor da faloa?

Beraz, keinua gizonarengandik gizonarenganako baino ezin da izan, eta gizontasuna ezarririk dagoen gorputzaren atal horretan. Horregatik egiten da *Batita Haundian* horren lekuz kanpokoa Dominikaren keinua semeari eskuak hartzen.

5. Amak Gabrieli: aitaren bekatua

– *Urrunegi joan haiz. Orain mintza hadi, Gabriel!
Nork erran dauk hiri?*

– *Amak.*

Elipsian ematen zaigu nobelan ama, aitaren bekatua Gabrieli aitortzen. Aitorpen horren laburpena, hala ere, gero jasoko dugu, Batitak semeari egindako ez-aitorpenean.

6. Gabrielelek aitari: bere homosexualitatea

– *Ez ditut oraindik ikusiak. Zu nahi zintudan lehenik agurtu. Zurekin lehenik mintzatu. Zuk bainazu, jakin dudanez, bortizkienik kondenatu...*

– *Nork erran dauk hori?*

Gabrielek poxi bat dudatu zuen. Baina zer? Ez ote zen, egia oso-osoa bere aitari erratera etorria?

– *Amak. Ama... zenak. Harekin beti ontsa izan naiz. Aste guztiz, elkarri eskribatzen genion edo telefonatzen... eta urtean behin, beti, Lourdesen, elkarretarazten ginen, alegia deusez, hiru egun pasatzera zetorrelarik, beilaz.*

(...)

Dominikak ez zion egundaino horrelakorik aitortu. Hauxe kolpea. Halere, aski kalipu ukan zuen galdatzeko:

– *Zergatik beraz ez hintzen amaren ehorzketara etorri?*

– *Ez nuelako aski goiz jakin. Eta jakin banu ere, ez da batere errana agertuko nintzelarik. Zure beldurrez?*

– *Zer derasak?*

– *Ez ahal duzu maiz errepikatu, zu bizi zineino ez nuela sortetxearen zangorik sartuko?*

– *Aitak ez zion deus ihardetsi.*

Gabrielek segitu zuen:

– *Eta... ez ninduzula sekula gehiago ikusi nahi... Egia ez da hori?*

– *Dolu diat horrela mintzaturik zinez dolu. Baina ez duk konprenitzen ahal zenbat sufritu dudan...*

– *Zer uste duzu ala, ez dudala nik ere biziki sufritu? Eta oraino ere sufritzen?*

– *Gabriel... orain hainbeste urteren buruan, jakin nahi nikek...*

– *Zer?*

(...)

Gabrielek ere alta, ongi baino hobeki konprenitua zuen aitaren galdera baina nondik has, eta xuxen, zer erran? Gainera, balio zuena, hezur eta larru zen gizon dohakabe horri egia osoaren esplikatzeko hasteak? Ez ote zion min bortitzegia eginen, eta ororen buruan, debaldetan... Eta tanpez hiltzen balitz?

– *Jainkoaren maitez eta Elizaren errespetuz utzi nuen apezgoa. Konfesatzen ari nintzen larunbat arratsalde batez hasi zen dena... Edo bederen, orduan nuen zinez sentitu.*

– *Zer?*

– *Eliza barnean sekulako hotza izanez, sakristian ariko nintzela jakinarazi nuen. Leiho aldean ezarri nituen bi aulki. Kanpoan eguzkia apal eta zuri. Besteak beste, gizon gazte bat belaunikatu zen ene ondoan. Hogeita bi, hogeita hiru urte zeuzkan. Batere funtsik gabe, ongi begiratzen nion. Eguzki arrai batek argitzen zion aurpegia. Bihotza saltoka hasi zitzaidan. Haren edertasunak itsutu ninduen. Ez zen nuen gehiago entzuten ahal ere zer zerasan. Orenak egonen nintzen hari so eta so. Xoratua. Liluratua. Eskerrak azkena zela, konfesatzeko. Karrikaz-karrika, luzaz ibili nintzaion ondotik. Pentsatzen dut ez zela hura deuseri ohartu. Gau guztian gero ez nuen begirik hetsi. Arrunt nahasia nintzen. Galdua. Burua sutan neukan, ez nekien batere zer gertatzen zitzaidan. Ez nintzen gehiago ni. Edo hobeki erran, ene barne barneko ni hura, egiazkoa, erreala, azkenean eta deblauki, zer bezala ikusi nuen...*

Gabriel isildu egin zen.

Batita Haundiak behako latz bat bota zion bere semeari ta begiak hetsi zituen.

– Denei pentsatu nian, horri salbu...

– Nik ere, hastapenean, uste nuen, “pasatuko” zitzaidala... Ez zela momentuko “deabrukeria” bat baizik... Baina egunak joan, egunak etorri, ene “mina”, beti hor baitzen, goizetik arrats, kezkgarri. Eta gai horretaz liburu asko irakurri ondoan bai eta gogoeta franko eginik, ohartu nintzen, jaidura hori tipitipitik neukala. Sortzez nitzatekeela, horrelakoa...

– Gabriel ez dik balio segi dezaan. Ez haut konprenitzen ahal.

– Entzun behar nauzu, halere...

– Gauza bortitzegiak dituk horiek enetzat. Ezin diat...

Gabrielen “afera” ulertzeko modu desberdinak aipatzea gustatuko litzaidake. Amak “b.i.z.i.o.” izendatuko du, Batitak, aldiz, ez dio izenik ematen, “gauza bortitzegiak” direla laburbiltzen duelarik.

Aitorpen horren aurretik eta atzetik Gabriel, aitaren aurpegi desitxuratua parean, damu da mintzatu izanaz, Eve Kofosky Sedgwickek “esteka bikoitza” moduan zehazturiko horretan kateatua baitago, esaten badu, bere identitatea eraikitzen has daiteke, baina ondokoak min ditzake, ez badu esaten betiko armairuan geldituko da.

Areago. Esan genezake esteka bikoitza aitortzaren baitako ezaugarria dela: aitortzen ez dena ez da existitzen, aldiz, aitortzen dena, “homosexula naiz” –seinalatuko digute Foucaultek zein Kofosky Sedgwick–, boterearen kategoriez osaturik dator, hau da, sexu bereko objektua aukeratzea, ez portaera, baizik eta izaera bilakatuko dute medikuntzak, psikiatriak eta abarrek.

Nobelan zehar, hala ere, ez da homosexualitatea aipatzen, aldiz, Gabrieli gertatzen zaiona beste zenbait izenez

izendatzen da baina ez homosexualitate hitzarekin. Gero frogatuko dugun bezala, nobela honetako pertsonaia batzuk, Batita, hain zuzen ere, homosexual hitza sortzeko beharrezko medikuntza eta psikiatriaren diskurtso aurretikoak direlako, hortik bere “ez haut konprenitzen” edo “gauza bortitzegiak”.

Amaren hizkera, aldiz, pixka bat psikologizatuago dago, lehen aipatu dugun egiaren bilaketa horretan, aipatu bezala b.i.z.i.o izendatuko du, hitzak eliza eta baita ere diskurtso medikura eramaten gaituelarik.

Gabrielen, azkenik, homosexual hitza aipatzera ausartzen ez bada ere medikuntza, erlijioa eta psikiatriari dagokio: eritasuna (“medikuz mediku ibili nintzen”) “printzipalena”, “nire barrukoa zen bezala ikusten nuen”, “momentuko “deabrukeria”, “ene “mina”, “jaidura hori tipitipitik neukala”. Ikusten den bezala Gabrielen diskurtsoan dagoeneko Foucaultek arestian seinalatutako izaeraren ikuskera dago.

Aitak, bestalde, Gabriel saritu egiten du mintzatu izanagatik:

“Hi ere, maite haut Gabriel. Eta kasik erran nezakek lehenago baino gehiago maite haudala, orain. Zintzotasun osoenarekin, gizonki mintzatu hatzaidalakoz. Milesker. Estimutzen diat hire kuraia. Ez diat dena konprenitzen ahal. Baina errespetatzen haut, Gabriel. Hemendik aitzina, haizen bezala, onartuko eta maitatuko haut”.

Aldi berean, Martin Ibarrek hitz hauekin adoretzen du Batita bere bizitzaren istorioa kontatzen dionean: “Egia erran, ez da nik uste nuen bezain arrunta zure istorioa... Eta nolako *kuraia!* Nik ez dakit horrelakorik kontatuko nizunentz... Ez zaitut nornahi!” (letra etzana gurea)

Gabriel ukatu nahi zaionaz beztitu du Batitak: *gizonki portatu haiz*. Nolabait homosexualitateak testuinguru

horretan izan zezakeen balore subertsiboa bere horretan deuseztatuz; aitortu duzunez, botereak baiezkoa ematen dizu, baina beti ere, botereak markatutako parametroen baitan. Zer izanen litzateke Batitari Gabriel eme, luma-dun, amaneratu bat paratu izan balitzaio aurrean? Segur aski, oinarrizko materialaren (Gabriel eme hori) eta ekoitzi beharko litzatekeen egiaren arteko tartea handiegia zatekeenez motz geratuko ziren egiaren teknologiak asma-turiko tresnak, eta ondorioz Batitak Gabriel osotoro ar-buiatuko zuen, izan ere, Derridak zeinuari buruz dioena hona parafraseatuz: egiak errepikapena behar du izateko eta errepikatzen den neurrian aurrekoaren berdina da. Hau da, Gabrielelek aitortu dio aitari aitor daitekeena soi-lik, aitak, neurri batean buruan izan dezakeena, errepi-kapena. Gabriel, amaneratu batek, aldiz, ez zuen ez eta elkarrizketa ere bermatuko.

Gabriel amaneratu bati ezin izanen litzaioke ez *kuraia* ez gizontasuna erantsi. Foucaulti jarraituz kuraia izenaren azpian gizonkeria agertzen da, botere kategoria: oso barneraturik izan behar dugu aitortza, egiaren azalaraztea, kuraia kontua bilakatzeko. Zentzu horretan, armairutik ateratzea boomerang bat bilakatzen da: alde batetik, gay baten identitatea eraikitzeke ekintza performatiboa da eta, ildo horretan, gizartearen aurreko arma eta salaketa tresna; beste aldetik, ordea, arestian aipatu bezala, gizarte horren baloreak ezartzeko eta iraunarazteko tresna. Paradoxa. Izan ere, Gabriel “gizona” ez delako ateratzen da armairutik baina ateratze hori bere gizontasunaren behineko ezau-garria da.

Zergatik? Gero zehaztuko dugun Itunaren disposi-tiboari dagozkion ezaugarriak horiexek izan daitezkeelako: gizona, leiala, zuhurra, zintzoa, kristau ona; hots, lehendik zegoen egia baten ezaugarriak. Horregatik onartzen zaio gay bati Euskal Herrian dauden tamaina ertain zein

txikiko herrietan gaytasuna, baldin eta egia horrek inguruko egia baieztatzen badu, edo ukatzen ez badu, behintzat.

7. Aitak Gabrieli: bosgarrena gogoratuz Batitak esan beharrean Gabrielelek formulatua: adulterioa eta seme hila.

Erituz gero, egunero, gauza berari pentsatzen diat. Urriki latz batek itotzen niauk. Denboran, Bordalango Manez adiskide zenari zerbait erran nioan. Baina hi, bakarra izanzen haiz egia osoa jakinen duana.

– *Egia osoa... Behar bada zuk baino hobeki ezagutzen dut!*

– *Nolaz hori? Badakik bederen zertaz mintzatu gogo dudan?*

– *Bai*

Batita Haundia, bat-batean, zuri-zuria plantatu zen.

Nondik jakina? Bordalandakoetarik ote?

– *Ez.*

– *Nondik beraz?*

– *Ez dakit erran behar dizudanentz... Ez nizuke pena handiegirik egin nahi. Ez du balio...*

– *Bai, balio dik! Ez nian beste beldurrik! Nork erran dauk, eh, nork erran dauk?*

– *Zer inporta du?*

Batita Haundia, haserrearen haserrez, gero eta zuriago zegoen.

– *Jakin nahi diat. Atsolutuki! Hire haurrideek ere badaukite?*

– *Ez*

– *Eta nondik zilatu duk?*

– *Zinez nahiago nuke isilik egon.*

– *Urrutiegi joan haiz. Orain, mintza hadi, Gabriel! Nork erran dauk hiri?*

– *Amak*

– *Jainko ona! Hau da hau, munduaren akabantza!*

Hortik aurrera, aitortzaren inbertsio batez, Gabrielelek kontatuko dio aitari nola ailegatu zen gutun bat etxera. Batita oraindik preso dagoela Dominikak apaizarengana joko du gutuna alemanetik itzul diezaion. Horrela jakinen du Dominikak Batitaren adulterioa eta seme gaizki osatu eta hilarena, baina, baita ere, Batitak oraindik ez dakiena, Gertrudek bere burua trenera bota zuela, alegia.

Zergatik ezin du Batitak esan bere aitortza? Zergatik ostu dio Gabrielelek?

Segur aski Batita beste garai batekoa delako, gero aipatuko dugun bezala Sexualitatearen gailua baino lehenagokoa, eta bere munduan aitortu, aztertu, arakatu, antolatu, teknifikatu baino areago “ordaintzearekin” nahikoa delakoz.

Ildo honetatik, nahiz eta nobelan ondokoari buruz ezer ez azaldu, zergatik uzten du apaizak Batitak berari egindako aitortza (2) gertatzen, dagoeneko, Alemaniatic etorritako gutuna bide, gertatutakoa baldin badaki? Egiak errepikapena eta eszeneratze performatiboa behar dituelako egia izanen bada. Arauen urraketak dakarren laidoaren zigorean sartu gabe, noski.

Bi aitortzen arteko alderatzea

Gay identitatearen eraikuntzaren ikuspuntutik izaera berdinekoak dira 6. eta 7. aitortza? Edo Foucaulten hitzetan, biak ere botereen mekanismoei berdin erantzuten diote?

Ezetz esanen nuke. Biak, lehen esan dugun bezala, egiaren egarriz zeharkatuak badaude ere, iruditzen zait botereari makurtzenago dela Batita Haundia Gabriel baino.

Gabrielek egia esan beharra dauka, bere izaera “ez-naturala” aitortu beharra du. Aitortza bilakatzen da, horrela, ekintza fundatzailea edo Butlerren hitzetan, gay identitatearen lehendabiziko ekintza performatiboa.

Baina egia bera esatea askatzailea izan badaiteke ere, botereek beharturiko ekintza bat da. Ez hori bakarrik, ekintza horri eransten zaizkion ezaugarriak Gabriel mustu nahi duen identitate horren kontra egiten duten instantzien ezaugarriez jantzirik datoz: gizontasuna, zuhurtzia, langile izatea, borobila, eta adoretsua, kuraia, Batitak sinbolizatzen duen mundu heterosexualaren ezaugarriak, hain zuzen, eta azkenik, homosexualitatearen izaera bera.

Hala ere, Gabriel eta Batita aurrez aurre ditugula zera da harrigarriena: Daniel Landartek parean paratzen dituela aita-emeak, biak ala biak sekretu bat izateak sor ditzakeen ahuldade berdintsuan.

Esan bezala, Batitak lau aldiz kontaktzen du bere sekretua: Manezi, apaizari, semeari eta Martin Ibarri, zeinak kontatuko dion idazleari, horrela, matriuskaren teknikaz, irakurtzen ari garen liburua sortuz.

Utz dezagun hurrengo punturako Manezi kontatzea, eta har hurrengo biak.

Apaizari aitortzen dionean Jainkoari kontaktzen dio, gaizki egin duela seinalatu dion legeari, Superniari, Freuden hitzetan, dagoeneko bekatua egin duela badakien apaiz-superni horri, baina, lehen aipatu bezala, egia aitortu egin behar da egia izanen bada. Hasieran Foucault bide aipatu dugun “egia egarriak” eramanen du elizara, eta baita ere sekretua zama gisa bizitzera eta arintzera.

Baina zergatik kontatu behar dio semeari? Gogoratu beharko litzateke psikoanalisi klasikoan aitarekiko heriotz irrikak barneratzen direnean hasten garela Supernia eraikitzen. Beraz, aitak Supernia, legea ordezkatzan du eta psikoanalisiak zehazten duen irrikaren alde lihoake Ga-

brielek Batita Haundiari bere desio homoerotikoak aitortzea; ez horrenbeste, ordea, kontrako norabidean (Batitak bere adulterioa semeari aitortzea), egia egarria gorabehera, Gabriel semea izateaz gain beste zerbait ere badela onartzen ez badugu. Izan ere, elkarri aitortzeak ez ditu berdintzen? Gogoratu nahi dugu Gabriel dela Jainkoari, Legeari, Superniari eskainitako sakrifizioa, errua pagatzeko txanpona, gaizki osaturik sortutako seme haren ordezkoa, eta nobelan gatazka hasten dela Batitarendako Gabrielelek apaizgoa uzten duenean. Baina Batita ez balitz bakarrik adulterioagatik pagatzen ari? Ez zaio Batita esaten ari semeari bere heterosexualitatea gaizki eraikita dagoela?

Bi gune-une

Esan bezala, Foucaultek egiaren teknologiaren sorrera aztertzen duenean bi une historiko zein bi antolamendu ezberdin aztertzen ditu; berak dispositibo izendatuko ditu, guk gailu deituko ditugu.

Beraz, esaten digu Foucaultek, XVIII. mendearen aurretik *Itun-gailua* zegoen indarrean. Sexu arteko harremanek sortu zuten Itun-gailua eta ezkontza sistema, ahaidetasunaren garapen eta sendotzea, izenen antolatzea, ondasunen transmisioa eta abar kudeatuko ditu.

Gailu hau, aldaketa politiko-ekonomikoak zio, tresna desegokia bilakatzen doan heinean beste gailu batek ordezkatu du, *Sexualitate-gailuak*, hain zuzen. Hala ere, bata bestearen ordezkapena ez denez erabateko izan indarrean daude biak.

Lehendabizikoari debekatua eta onartua, zilegia eta ez-zilegia dagokio; bigarrenak teknika mugikor, pluriformeen bidez funtzionatzen du.

Batarendako bi pertsonen arteko loturak dira garrantzitsuak, eta gure interpretazioari jarraiki, bekatua,

legez-kontrakoa, adulterioa izanen lirateke bere kontrako ekintzak eta inoiz ez homosexualitatea, familia arteko harremanak, Itun gailua, hain zuzen, bortxatzen ez duten neurrian; bestearendako, aldiz, argitzen digu Foucaultek, plazeraren egokia, gorputzaren sentsazioak, inpresioen izaerak eta abar.

Konfesioaren inguruan sortu zen Itun-gailutik Sexualitate-gailua: lehendabizi, penitentzia kontzientzia azterketa bilakatuko da eta hark gidaritza izpirituala ekarriko du.

Hasieran, adulterioaren, intzestuaren modukoak, hau da, sexuak Itun-gailua urratzen duen neurrian, baldin baziren bekatu, pixkanaka-pixkanaka Itun-gailuarekiko urraketak baztertu eta harremana eta bertan sentitutakoa aztertzera joko da. Eta hortik sortuko da lehen existitzen ez zen kontzeptu bat: sexualitatea, norberaren buruarekiko azterketa eta plazeraren arakatzea teknologia moduan ulertua.

Horrela, familia ahaidetasunaren tokia izateaz gain sexuaren zorigaitza gauzatuko den tokia ere izanen da, bertan agertuko baitira puri-purian dauden desio eta irritsak.

Puntu horretan sortuko da, jarraitzen du Foucaultek, psikoanalisa, itun- eta sexualitate-gailua lotuz, Edipo konplexuan, adibidez, argi ageri den moduan.

Saia gaitezen, beraz, tartean darabilgunaren harira nobelaren interpretazio bat aurreraten. Argi dago Batita Haundiaren bekatua eta ondoko errua Itun-gailuari dagozkiola, erru hitzak berak ongi adierazi bezala. Gabrielen, aldiz, Sexualitate-gailuari dagokio, eta horregatik ez dago bekatu moduan planteatua (salbu eta Eliza Katolikoak kondenatzen duela aipatzen duenean) baizik eta b.i.z.i.o moduan (amak); edo izaera, jaidura moduan (Gabrielek). Izan ere, Foucaultek dioen bezala “sodomita bekatari bat zen, homosexuala espezie bat”.

Nobelaren argitara ideia hau beste modu batera ere azal dezakegu: Batitak “betiko” Batita izaten jarraituko du

bekatuaren ondotik; bere izaera, besteak beste Itun-gailua-
ren bidez bermaturik dago. Aita da, senarra, nekazaria, fe-
deduna, herrikoa. Gabriel, aldiz –hortik bere deserrotzea
eta erbesteratzea–, ez da lehengoa, beste izaera edo natura-
leza batekoa bilakatu da bere buruari homosexualitatea
aitortu dionetik. Aldatua da, beste espezie batekoa bihurtu
da, eta gizontasuna eta kuraia erantsi behar zaizkio “nor-
malen” espeziean onartua ahal izateko.

Ildo horretatik lehen aipatu b.i.z.i.o hitza tartekoa
izateak, hots, Itun-gailutik abiatu oraindik erabat psi-
kologizatu gabea, seinalatzen du: bat, egia, alegia, sexuali-
tatea, aztertze teknika eraiki zirenean perbersioa-
herentzia-degenerazioa hirukotearen inguruan egituratu
zirela; bi, eskarmentu pertsonalagatik bakarrik bada ere,
Euskal Herriko emakumeak irekiago izan direla kanpoko
diskurtsoekiko, sexualitatearen hau barne, segur aski, bo-
tere ugariagoen menpe izan direlako.

Areago, egin dezagun testuinguru honetan, erantzuna
lehen iradoki baldin badugu ere, nobelari buruzko galdera
bat: marraz daiteke analogiarik ume hilaren (bekatuaren
ondorio gisa harturik) eta Gabrielen, Batitaren semearen
homosexualitatearen artean? Ez da bata bestearen transpo-
sizioa Itun-gailutik Sexualitate-gailura? Gabriel ume ilaren
beste “haragitze” bat ez ote da?

Irakurketa hau nobelan agerian adierazia badago ere
(lehen ikusi bezala apaizak iradokitzen dio norbait elizan
sartu behar dela bekaturik pagatzeko edo) Foucaulten (ez dut
besterik, irakurle, barkatu) ideia batekin sendotu nahi nuke.

Foucaultek dio sexualitate-gailua nagusitzearen arra-
zoietako bat zera dela: *patri potestas*-ek, erregeren bizia eta
heriotza erabakitze eskubideak, “bizia”ren alde egiten
duela, salbu eta muturreko egoeretan, bere boterea zalan-
tzan paraturik botere dela erakutsi beharra duenean,
orduan heriotza erabakitzen baitu.

Hortik sortuko da bizia kudeatzeko eskubidea, eta azkenean Foucaultek anatomogintza eta biopolitikagintza izendatuko dituen botereak. Alegia gorputza zein gorputzari dagokion guztia kudeatzeko teknikak.

Beraz Itun-gailuari heriotzaren kudeaketa legokioke, eta odolaren sinbologia erabiliko luke; Sexualitate-gailuari, bizia, eta sexuaren analitika. Batak on eta gaizkiaren artean erabaki behar du, besteak normalitatean mailaketak egin.

Esanen genuke bi gune-une diakroniko horiek sin-kronikoki ageri zaizkigula nobela honetan, bukaeran Batitaren heriotzarekin Sexualitate gailuaren nagusitzea agertzen zaigularik.

Baina hori baino gehiago balitz? Edo aurreko atalean utzitako galderak berriro jasoz: Batita ez balitz bakarrik adulterioagatik pagatzen ari? Ez zaio Batita esaten ari semeari bere heterosexualitatea gaizki eraikita dagoela?

Heterosexualitate zalantzakorra

Badago nobelan orain arte aipatu ditugunak baino lehenagoko eszena bat zeina hona ekarriko baitut, aurretik, hala ere, argituz Manez eta Batitaren arteko adiskidantzaz asko mintzatzen dela nobela.

Manezek aitortzen dio igande goizetan ahizpak zelatzen dituela biluzik ikusteko. Berdin egin dezan erronka egiten dio Batitari eta gero ondoko eszena hau dator:

– *Lumatua haiz, hi? Ileak badituk?*

Berriro, Batitak ez zekien zer ihardets. Ze deabruk hartua zen. Ez zuen alta bere laguna baino gutiago izan nahi eta sorbaldak altxatuz, erran zion:

– *Hi bezainbat!*

Manezek segidan:

– *Erakuts iezadak!*

Batita beldurtzen hasi zen. Solas horiek, ez zitzaizkion batere gustatzen. Batere gero. Manezek aldiz bere lagunaren isiltasuna luzeegia kausituz, sakez, bere pitilina atera zuen.

Batita oraindik beha goizutu zen:

– Jainkoak gaztigatuko hau!

– Bakea emak hortik eta egin ezak nik bezala!

– Gizonen artean gaituk, ez?

“Gizon” hitza entzutean, Batitaten baitan halako kili-kadura bat sortu zen, eta konturaturuz, ororen buru, ez dela hor deus gaizkirik ez itsuskeriarik, hark ere berdin egin zuen! Eta han zeuden, bi mutikoak, beren txoriak airean, bazter guztietara begira, ez zituela bederen norbaitek ikusiko!

– Berdinak ditiagu... erran zuen Manezek, gora-gora.

– Bai. Nonbait han! Batitak ohartuz haatik berea lodi-xeagoa zuela.

Eta ateratuak zituztenez gero, bi mutikoak elkarri bizkarrez plantatu ziren eta pixa zirrizta bat ona egin zuten.

Beren balentria, geroztik inoiz ez zuten aipatu baina hala ere zerbait gelditu zen, sekretu bat bezala, eta nork daki, ez ote zuenetz gertakari hark, elkarren arteko atxekimendua hobeto josi?

Gero Batita Haundiak arrebak biluzten zelatatuko ditu eta harrapatu egingen dute. Freudek dioen bezala behin desio homosexualak bazterturik gauza da Batita emakumeen gorputza desio objektu bilakatzeko.

Baina desio homosexual horiek hor baleude eta etengabe indar egingen balute jalgi nahian, 1etik 8ra bitarteko konfesionario guztiak zeharkatuz?

Judith Butler bere *Mecanismos Psíquicos del Poder* liburuan generoen eraikuntzari buruz mintzatzen da. 5. kapitulu, “Genero melankolika / Identifikazio arbuiatua” deritzon kapituluaren sorreran desio homosexualen arbuioak eta, ondorioz, arbuio horren barneratzeak

generoaren eraikuntzan duen garrantzia, eta ondorioz genero horren koloka seinalatzen dizkigu.

Freud gidari, Niaren sorreran arbuiauriko objektuaren dola duen garrantzia azpimarratu ondoren, Butlerrek dio sexu bereko objektuaren arbuiautzea ukatzeak generoaren sorrera eta sostengatze melankolikoa azpimarratzen duela, izan ere, generoaren oinarrietako bat bihurtzen baita dola egin gabea, aurretik arbuiautu delako identifikazioa.

Segi diezaigun une batez, jauzika bada ere:

“Osatu gabeko dolauren bidez sortuko diren objektuekiko identifikazioak barneratu egiten dira eta fantasmatikoki niaren baitan, eta ni moduan, gordetzen dira.

Pixka bat aurrerago Freudek ideia hau garatzen du: objektu sexuala abandonatu behar denean, haren orde, sortzen da, maiz, niaren eraldaketa bat zeina melankolian aurkitu baitugu eta zeina ulertu behar baitugu niaren baitako objektuaren berreraikitze moduan”³

Manez eta Batitaren arteko eszenari erreparaturik beste hainbat aferetan barneratu gabe (zakilen handitasunena oinarritutako gizontasuna, esaterako) bai Butlerrek bai Freudek deskribaturiko prozesu horren isla dela ohartzen gara berehala. Behin “lotura” homosexuala bazterturik, Freudek dioten bezala erru bihurturik, senti daiteke Batita heterosexual, alegia, Manez adiskideak egindako bidean barnera daiteke, legeak, aitak eta jainkoak (sinonimoak dira) erakutsi bidea jarraitu: emakumeen gorputza deskubritu, arrekena bada ere, eta heterosexual egin.

Baina lehen Butlerrek esan bezala, arbuiaututakoa niaren parte bilakatzen da, eta jalgitzeko prest izan daiteke, dola egin gabeko arbuio moduan bada ere.

Lehen aipatu bezala Itun-gailuko ume hila Sexualitate-gailuko Gabrieli badagokio, hipotesi honen arabera, Itun-gailuko adulterioa Sexualitate-gailuko desio homoe-

rotikoa izan daiteke. Izan ere, behin Manez hilda bakarrik, berarekiko desioaren indar iraulgarria galdurik, eman diezaioke kara Batitak bere desio homosexualari, eta galduta-koaren dolua egin.

Gure hipotesi hau indartzeko hainbat aipu erabiliko ditugu.

Introduccion al narcisismo liburuan Freudek erru sentimentua nirako libido homosexualaren itzuleraren ondorioztat jotzen du. Galera gatazka gune bihurtzen bada eta galeraren ondorengo bortizkeria ezin bada artikulatu edo kanporatu, niaren kontra itzultzen da, super-niaren forman.

Beraz argi gelditzen zaigu, Batitak ezin duenez bere Manezekiko desioa artikulatu Gabriel eskaintzen dio apai-zari, jainkoari, legerari. Batita, bere desio homosexualen barneratze melankolikoak nahikoa erru ez sorturik, adulterioan erortzeko gauza izan da; nahikoa superni zurruna eraiki ez duenez eta aginduen kontra (adulteroa izan eta seme bat izateko ausardia izan du) egin duenez superniak zigortu egingen du eta haurra gaizki osatua eta hila aterako. Munstro bat, bere desioen isla.

Batitak, ordea, ikasi eta Gabriel sakrifikatzen du, Abraham euskaldun bat bezala, superniaren aldarean.

Areago, Butlerri jarraituz:

“Homosexualitatearen debekuak doluaren prozesua eragozten du eta identifikazio melankoliko eragiten du desio homosexula bere buruarengana itzuliz. Bere buruarenganako itzulera hori autozentsura eta erru sentimentuaren ondorio da. Horrela homosexualitatea ez da desagertzen, baizik eta gordetzen, hain zuzen ere, bere debekuan. Freudek *El malestar de la cultura* liburuan dio atsegina gerta dadin, kontzientziak irrikaren sakrifizioa eta uko iraunkorra behar duela; ukoak, hala ere, ez du kontzientzia isilarazten, paradoxikoki, indartzen baizik. Ukoak ez du irrika desagertarazten, bere

helburuak nabarmendu baizik ez ditu egiten, halako moldez non debekuak, eta debekua uko etengabeko esperientzia moduan bizitzeak, uko egiten dioten irrika beraz elikatzen baita. Panorama honetan, kondentzen duen homosexualitatea behar du ukoak, ez kanpoko zerbait bezala, baizik eta sostengu iturri nagusia bezala. Beraz, homosexualitatearekiko ukoak homosexualitatea indartzen du, baina indartzen du, hain zuzen, uko egiteko botere *den neurrian*.⁴

Eta berriz ere diogu, behin ukoa onarturik hasiko da nobela, dolua, eta konfesio jolasa. Ia ukronia litzateke Batita homosexuala dela planteatzea, izan ere lehen aipatu bezala beste gailu baten mendean baitago, baina bai planteatea dezakegula Batita desio homoerotikoz josita egon zela.

Armairu nazionalista

“Eta zer?” planteata dezake irakurleak, “zer Batitak irrika homoerotikoak bazituen?”

Eta sarreran aurreratu bezala Batita Joanes Artzaiaren transposizio bat balitz?

Hala ere irakurleak “Eta zer?” planteatzen segi zezakeen?

Beharbada, Slavoj Zizek-en tesiari jarraituz⁵ aitaren autoritateak indarra galdu duenez, eta nahikoa superni ahula dugun gizakiak izanik, Joanes Artzaia homoerotismoz josita bizitzea ez da, jada, trangresio bat, nahiz eta Joanes Artzaia gaya (exageratzen ari naiz) proiektu nazionalaren askapen gune izan.

Ala bai? Seguru aski euskaldunon aitaren legea barneratzerakoan sakonen eta areen barneratu dugun ezaugarria nazioaren gabeziarena da. Hala nola heterosexual batek homosexualitatearen arbuioa, eta homosexual batek, halaxe

iradokitzen du Butlerrek, heterosexualitatearena. Ikus, beraz, inguruko errealitatea edo nola izendatu duen Joseba Gabilondok Euskal Literaturaren inguruko manuala: *Nazioaren Hondarrak*.

Edo Joseba Zulaikaren⁶ hitzetan paratuz: “Zer da ba “Erreal”? Errealaren izen bat “etena” da edo eguneroko esperientzian jasandako neurritz gaineko zerbait bidegabe sartzea. “Trauma” da beste izen bat.”

Zulaikak ETA izendatzen du Errealizat baina kokalekua zertxobait mugituz erabaki daiteke Erreala nazio gabezia dela.

Ondorioz, transgresoreago suertatzen da, oraindik, Euskal Herrian Joanes Artzaia espainola zela frogatzea homoerotismoz josia zegoelako baieztapena baino.

Eta beste hipotesi bat: Batita Haundia Joanes Artzaia-
ren aldaera baino ez bada EHGAMek (Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduak) arrazoi luke, nazioaren baitan lortuko litzateke gay eta lesbiarron askapena.⁷

Slavoj Zizekek dioen bezala Joanez Artzaia-
ren ondo-
rengoak beteko lukete berak “ontologia politikoaren subjektu absentea” deitu duena; Joanes Artzaia izanen litzateke “euskal” iraultzak askatu beharko lukeen subjektua.

Zizekek, ordea, hutsik ikusten du subjektuak bete beharko lukeen toki hori; nagusiki Hegel, Marx eta Lacan tarteko frogatzen du subjektu hori ikerketa multikulturalen milaka subjektutan (lesbiarrak, beltzak, emakumeak, gayak, indiarak eta abar) bilakaturik hainbategi dela eta ezin dela askatu.

Batitaren posizioa Joanes Artzaia dagoen lekura ekarri baldin badugu, alegia, proiektu nazionalistaren erdi gunera, azter ditzagun *Batita Haundian* Landartek Euskal Abertzale-
letasunari buruz esaten dituenak.

Hona 8. aitortza-konfesionarioa izendatu duguna, Martin Ibarrek Batita Haundiari egindakoa:

– Hemendik landa ez baitakit nora joan. Ez baitut ne-hora joan nahi! Gainera, herenegun jakin dudan berri batek inarrotsi nau: ene iloba bat poliziak arrastatu du eta Paris aldera eraman. Gaixo mutikoa! Jainkoak daki zenbat denboraz atxekiko duten?! Eta hori, behar bada, ene faltaz

– Zure faltaz...zendako?

– Gernika...

Hitz hori erran ondoan, Martin Ibar bulta on batez isilik egon zen. Begiak bizpahiru aldiz hertsu zituen. Eskue-tako dardara emendatu zitzaion.

– Bai, beti oroituko naiz. Egin nuen kantaldi baten ondotik, iloba jin zitzaidan agurtzera eta solasak ekarririk aipatu zidan Gernikako arbola ikusi nahi zuela. Hogei urte zituzkeen, orduan. Aste bat barne, eraman nuen, gogotik. Bidaia guztian, Euskal Herriaz mintzatu nintzaion. Geroztik ere, hiruzpalau aldiz elkarretaratu ginen eta bidez-bide ibili, zazpi probintzietako eremu eta aberastasunak ahal bezain ongi ezagutuz... Ene artikuluak kartsuki irakurtzen zituen. Nik diot burua han, preso... Ni aldiz, hemen, sekula bezain gaizki! Bizi errotik huts gin dut!

Argi gelditzen denez abertzaletasuna izurrite baten moduan ageri da, batetik bestera birus txar baten moduan iragan eta dena suntsitzen duela, gazteak kartzelara bideraraziz.

Baina areago nazionalismoa ez da bertako kontu bat, zerbait arrotza, “Hegoaldekoa” baizik. Ikus dezagun narra-tzailea nola mintzo zaigun ia Batitaren gogoeta haria segituz:

Gutienik ustean, hiru gizon gaze bizardun eta indartsu, tresneriaz kargatuak, bri-bra gelan sartu ziren. Lehen xixtian, Batita Haundiak uste ukan zuen haren ikustera zetozen medikuak ziratekeela. Baina ez. Ez zioten kasurik ere eginen eta ondoko ohe saihetsera hurbilduz, beste eria

errespetuarekin agurtu zuten. Biziki gora mintzo ziren eta zerabilten euskara ez zen arras Batitak mintzatzen zuena.

Telebistakoak edo irratikoak zitezkeen...

Euskaldun Espainolak, hain segur.

Bizardun batek galdera bat egin orduko, ondoko ohatua, apostolu baten pare kalaka gorrian hasi zen, hizkuntza landu bat erabiliz. Itxura guztien arabera, delakoa, ez zatekeen nor-nahi.

Batita Haundiak ez zezakeen solasaldi osoa segi... Funtsean, ez zekien, xuxen, zertaz ari ziren ere. Baina noiz behinka, izen batzuk entzuten zituen: Lauaxeta, Aitzol, Lizardi, Jean Etxepare medikua, Leon Leon, Oxobi... eta maiz "literatura" hitza aipatzen zuten.

Isilune bat geratu zelarik, Batitari, elizako musika aire bat gogora etorri zitzaion, burua eta gorputza inarrosi zizkiona.

Betiereko zoriona

Haieri, otoi, eman, Jauna:

Betiko argi zabalean

Zure argiak argi ditzan.

Lelo hori etengabe errepikatuz, azkenekoz belarriak hantu zitzaizkion eta ez zuen gehiago "jakintsuak" zioena entzuten ahal... Funtsean, zer balio zuen adi zezan? Ontsa futitzen zen, hori, literatura eta beste petenkeriez... Manez lurperatzen ari zuten egunean! Eta beraz gauza bat baizik ez zuen gutiziatzen: lehen bait lehen lekuak huts zitzaten eta bakea eman ziezaioten...

Baina hizlaria ez zegoen segur gelditzekotan, ariago eta nahiago balu bezala, eta beste izen parrasta bat goraiatu zuen: Etxaniz, Gabriel Aresti, Inatzeder, Jon Mirande, Lafitte... aldiro xehetasun zehatzak emanez.

Batita, ondoko "lagunaren" elasturiaz kokorreraino asezten hasi zen eta ezinegona etorri zitzaion. Gogotik oihu bat ginen zien: geldi zezaten beren komedia!

Areago Martin Ibar, nobelan zehar ageri den pertsonaia abertzale bakarra, berritsu bat bezala ageri da, Hegoaldekoek bahitua, abertzale izateaz damututa, seme-alabarik gabe, emaztearengandik banandua, arlote bat bezala bukatuko du, eta nolabait, Batitaren errukia eta arbuio morala jasotzen ditu. Laburbilduz, zerbait kanpokoia da Martin Ibar Batita Haundiarendako.

Egia da berari dagokiola Batitaren istorioa kontatzea baina areago da kantari den aldetik ezen ez abertzale den aldetik.

Seinalatu nahi nuke Baitak berak literatura, alegia, proiektu nazionalista legitimiza dezakeen arloetako bat destainaz erabiltzen duela.

Hitz batean esanen genuke Martin Ibarren bidez bihurtu beharko litzaigukeela Batita Haundia Joanes Artzaia, izan ere, abertzaletasunak egin baitu literatur kanoa, eta erdian paratu Joanes Artzaia, baina, ezin du, nolabait esateko, Batita Haundia kanon abertzaletik kanpo dagoelakoz, Iparraldekoa izateagatik. Zentzu horretan esan genezake Iparraldeko autore batek, Daniel Landartek, Hegoalde hegemonikotiko beraiekiko ikuspegia itzultzen duela Hegoaldera.

Izan ere *Batita Haundia* nobelan aurremodernitatetik postmodernitatera iragaten gara proiektu modernorik, kasu honetan nazionalismoa, iragan gabe.

Orduan zer esaten digu nobelak? Nobela Gabi-londoren *Nazioaren Hondarrak* liburuko tesi orokorretik irakurririk proiektu abertzaletik kanpo idatzitako nobela bat litzateke, Hegoaldeko hegemoniaren kanpotik eraikitako nobela bat.

Baina nor gelditzen da Euskal Herria deituriko leku horretan?

Homosexualitateaz diharduten hainbat nobelatan bezala (*Bat, bi Manchester, Ezinezko Mailetak*) bere burua ho-

mosexual-gay moduan definitutako pertsonaiek alde egiten dute edo kanpoan daude; Gabrielekek ere alde egiten du.

Martin Ibar, bestalde, Hegoaldeko nazionalismoa ordezkatzen duen pertsonaia, alderrai arituko zaigu nobelaren bukaeran, tabernaz taberna, errorik gabe, batetik bestera, nazionalismoaren metafora migrari baten moduan, bere ilobak –proiektu nazionalistari egindako beste kritika bat–, kartzelan jarraitzen duen bitartean.

Eta azkenik Batita hil egingen zaigu, bakean, tokia hutsik utziz.

Zizeken hitzetara itzuliz, subjektua absente da eta Euskal Herria espazio desertu bat non konfesionario hutsek absentzia hori seinalatzen duten. Fantasmatikoki.

Eta Postindependentziaren argitara, nazioari, aukera sexual zein generoaren ikuspegitik so egingen bagenio? Fantasma bihurtu zaigun desio, traumaren aztarna seinalatzen duen fantasma hori beste modu batez bizitzea balego? Orduan, Ruperrek esaten zuen moduan, orduan zer?

Esentzialistendako esan nahi nuke ez dudala sinesten esentziak biltzen dituen gune edo lekurik dagoela. Eta baldin balego generoaren lekunea aukera sexualarena eta nazioarena baino barneago leudeke; bere horretan, aukera sexualarena nazioarena baino barnerago eta horrela barnetik kanpotiko hurrenkeran.

Aldiz, Butlerri jarraiki iruditzen zait batera bihurtzen garela gizon zein emakume, homosexual zein heterosexual, euskal herritar zein beste herri bateko, botereek ezartzen dizkiguten ekintza performatibo zein normatiboen bidez. Gure izaeren eraikuntzak gehiago du horrela antzerki lan batetik Platonen Haitzuloan gordetzen diren ideia garbi eta aratz haietatik baino.

Izaera performatiboak ditugu, martxan paratu ahala eraikitzen doazenak berdin generoan, Butlerrek frogatu bezala, zein aukera sexualetan.

Eta berdin nazioan, gehitu nahi nuke neronek. Parodiatu daiteke nazio batekoa izatea? Har daiteke euskaldun izatea drag batek (quen edo king) generoen izaera eraikikorra har dezakeen moduan? Uste dut baietz. Beharbada garaia dugu.

Post scriptum

Lana bukatu ondoren Joseba Gabilondori bidali eta ondoko ohar honekin etorri zitzaidan bueltan. Interesgarria deritzot eta horregatik ekarri dut hona:

“Agian, semearen homosexualitatea onartzean, eta homosexualitate honek jarraitasun historiko homosozial bat markatzean, Batitak-Landartek BESTE Euskal Herri bat proposatu nahi digu: Euskal Herri moderno bat, errepublikarra, frantsesa, eta hain zuzen homosexualitatea homosozialitate modernoaren zeinu bezala besarkatzen duena. Alegia, ez-modernoak hegoaldekoak liriateke, izan ere karlistaden, gerra zibilaren eta ETAren bortizkeriak ez digu inoiz aukerarik eman jarraitasun nazional bat sortzeko, homosozialitatearen bidez gero egitura-sinboliza daitekeena (Iparraldean ez bezala).

Alegia, hegoaldean subjektu hegemoniko hutsik ere ez dago. Iparraldean aitzitik, homosozialitateak sortzen du subjektu hegemoniko huts hori: aita bekatariaren eta seme deformatuaren tartean geratzen den hutsune normatibo hori (heterosexuala, patriarkala, aitorpenik egin behar ez duena, aitorpenen kontrola daukana). Hots, Landartek beste Euskal Herri bat, benetan nazionalista, homosoziala eta errepublikarra planteatzen du, eta beraz Hegoaldekoak suertatzen gara premodernoak, traumak deseginak, sinbolizatzeko gauza ez garenak, naziorik ez dugunak, psikosi historikoaren ertzean bizi garenak eta abar. Laburbilduz,

BI Euskal Herri postula daitezke: Hegoaldekoa eta Iparraldekoa.

Jakina honek azkenean irakurketa oso perbertsoa du, izan ere, biopolitika alde batera uzten duen politika tradizionallean, nazio euskalduna bakarra dela postulatu behar da, bi estaturen opresioa jasaten duena hain zuzen. Alabaina, Landartek uzten digu ikusten bi estatuak, beren eragin traumatikotik, bi nazio desberdin sinbolizatzeke abiapuntu historikoa ematen digutela. Izan ere, Batitak ere Frantziak Alemaniarekin duen gerran (II. Mundu Gerra) topatzen du desira eta “sexualitatearen gailuaren” arabera eratutako subjektu berri bihurtzen. Alegia, bi estatuk eragiten duten indarkeria traumatiko desberdinen arabera sinbolizatzen d(ir)a nazioak eta beraz, azkenean, bi nazio genituzke. (Horrek ez du esan nahi, historikoki Euskal Herria deritzoguna ere traumatikoa ez denik estatu horientzat, baina era berean bi trauma diferente genituzke hemen ere, bi Euskal Herri era berean).

Galdera zera da, eta eleberria aurrean ez dudanez ezin erantzun: zergatik kontatzen dio Batitak bere historia Hegoaldeko kantariari? Alegia zein da bi sinbolizazio nazionalisten arteko erlazioa? Traumatikoa, bata bestearekiko makurtzekoa hegemonia berri baten bila? Homosoziala? Estatu frantsesak espainiarrarekiko duen diskurtso moderno orientalistaren arabera (gu modernoak, zuek salbaiak) eratzen dena?”

Oharrak

- ¹ Foucault, M. *Historia de la sexualidad. La voluntad de saber*, Siglo XXI, Madril, 1992.
- ² Ildo horretatik doa Joseba Gabilondok Euskal Literatura “nazionalistaren” baitan emakumeek jokatzen duten rolaz egindako azterketa. Ikus *Nazionaren Hondarrak*, EHU, Bilbo, 2006.
- ³ Butler, J. *Mecanismos psíquicos del poder*, Cátedra, Madril, 2001: 148.
- ⁴ *Ib.*: 157
- ⁵ Zizek, S. *El espinoso sujeto*, Paidós, Buenos Aires, 2001.
- ⁶ Zulaika, J. *ETAren hautsa*, Alberdania, Irun, 2006.
- ⁷ Bizitakotik abiaturik beste gogoeta bat ekarri nahi nuke hona. 2008ko Madrilgo gay harrotasunaren eguneko “prozesioan” esaten nion *Gehituko* lagun bati “euskal” espedizioak hurrengo urtean poxpolinez jantzia etorri beharko luketela.
— Zertarako? inor ez zen jabetuko eta!
EHGAM eta Gehituren artean gaytasuna eta nazioaren arteko gurutzaketa ulertzeko bi modu ezberdin azaltzen dira. Lehendabizikoak nazioa markatzen du, besteak unibertsaltasun “postmoderno”, esanen luke Zizek-ek, arbuioz.
EHGAMen ildoaren porrota agerikoa baldin bada ere, nire eskarmentu pertsonaletik eta ezagutzen dudan gutxitik ari baldin banaiz ere, Gehituko ildoak ez nau erabat konbenzitzen.

Itxaro Borda bestaldetik: mugako identitate baten sorrera

Ibai Atutxa

Sarrera: Itxaro Borda Euskal Literatura eta Kritikan

“Hipotesi erotikakoa bada ere, atrebituko nintzateke baiezatzera, euskal nazionalismoaren imajinarioak literaturan duen hegemoniaren ondorioz, «emakumea»-ren figura, bai heterosexuala bai lesbikoa, bertakoa zein etorkina, ez dela errealitate sozial bezala existitzen Euskal Herrian. [...] emakumea ez da desira sexualaren (exogamikoaren) objektu edo subjetu.”¹

Adierazpen honetatik abiatuz gero, non lekutu daiteke Itxaro Borda euskal literaturan? Nola sortzen eta definitzen da emakume lesbiana euskaldunaren nortasuna “nazionalismo maskulino hegemonikoak”² markatutako literaturan, zeinak ezberdintasuna ezabatu eta ahotsa ukatzen dion?

Homosexualitatea gure literaturan aztertzen duen euskal kritika apurra arakatzek, Itxaro Bordaren beraren baieztapen zorrotz honetara garamatza,

“Badira Euskal Herrian jorratzen ez diren alorrak. Homosexualitateak euskarazko literaturan duen lekua-rena adibidez [eta beranduago, ez ironiarik gabe] Sekula

eszena bortitz bat sartzen baldin badut euskal-burgesen jansenisten probokatzeko³, kritikariek ez dute sexu usaina darion probokazioari kasurik eginen ere, gramatika eta sintaxiaren balizko egokitasunean fokalizatuko direla. Derragun, idazleentzat giroa nahikoa frustrantea dela”⁴

Rikardo Arregik arazo berari egiten dio erreferentzia artikuluan baten esaldi honekin egin zuela topo aitortzen duenenean: “«Bi unibertso dira euskal literaturaren inguruan bizi den jendea eta Tokyoko bizitza gay undergroundean bizi direnak». Ezin urrunago joan”⁵. Mikel Ayerbek⁶ euskal literaturako emakume lesbianak duen izaeraz zehatzago hitz egin, eta muga bikoitza duen tratamendua definitzen du: emakumea gizonari dagokionez eta lesbiana gayari dagokionez.

Begi bistakoa da, hasteko, euskal literatura lekutan dagoela *queer*, genero edota sexualitate kritika sendo bat izatetik; ez soilik ikerketa helburu ez delako, ezpada idazleek berek ez dutelako gai hau sorkuntza lanetan jorratzen⁷. Premisa honetatik abiatuz, *no woman's land* baten topo egiten dugu Bordarekin, *queer* literaturaren erakusle bakarretako bezala, Euskal Herri lesbianaren sorkuntza eta irudikatze lanean. Esan daiteke, hasiera honetatik bertatik, muga propioak birsortzeko, egungo limiteak apurtu eta irteteko beharra duen poesia baten aurrean gaudela.

Ni Munduaren Kontra eta Mundua Nire Kontra

“Beleak! espantuak! Eklesiastaren solas zuhurrak!
debalde!
debalde aluminiozko oihaletan troxatu haur sortu berriak!
nere egungo etsai merkeak debalde!
debalde beleak!
burumuinetako arroila meharretan kroakroa!

zementazko, burdinezko, altzeiruzko, kotoinezko sistemak!
beleak kantuz ari zaizkit belarrietan!
kaos gainean lainoa altxatzen delarik abereen orroak!
beti maiteko zaitut hitz gezurtiak beleak!
debalde Jesusen eta beste hainbesteren sakrifizioak!
arimak dolarrez, petrolioz, eletrizitatez beterik kroaka!
debalde oriente urruneko sineste sakonak
ardiets dezakegun sakontasun bakarra lurpekoa baita!
kroakroa!
espantuak!
poesia inspiratuaz aski! hizkuntza ederraz aski!
leporaino sartu naiz debaldearen sensazio zizkolatsuan!
eta gustora nago! beleak!
polizi bakoitzean, soldado bakoitzean hiltzalea lotan dago!
gizakume bakoitzean pizti bortxatzaleak atsedean hartzen du!
beleak orain negarrez ari dira!
ez dute debaldearen borroka kroaka irabaziko behintzat!
nik daduzkat gakoak!
harrobi desolatueta biltzar nagusia datxikate bele beltzek!
kantari abertzaleek martxa militarrek eskaintzen dizkigute!
kroakroa! euskal herri maitea!
apezen, nekazarien, emazte kanonikoen eta jakintsunen
herria!
bertsolarien kroakroakroa benedikatuak
debaldezko eskeletak! irudimen zangopilatua! ideia debe-
katuak!
xurxuriak intolerentziaren zamaz plegatzen dira!
askatasun nahiak zilegitzen dituen kartzela mentatak!
kroakroa! amagaldueuska herria!
debalde irri satisfatuak eta konplimendu gerizatzaleak!
zizari malatsak! kaskezur diplomatuak! egin bide histe-
rikoak!
historiaren histerian beleak kroaka!
goazen hutsaren hondo misteriotsua izpirituz hunki-
tzeraino!
galdu behar baldin bagara ere goazen... maitea...”⁸

“Denboraren Harkaitzetan” taldeko II poema da hau, 1985ean *Krokodil bat daukat bihotzaren orde*z liburuan argitaratu zena. Poema bat (beste askoren moduan), non protagonistak frontera edo mugako pertsonaia legez kokatzen eta erakusten duen bere burua. Non, Gloria Anzalduek adierazi bezala, beldurrik gabe oihukatzen den *I am a border woman*. Non poemako ahotsak ez duen bere nortasuna, bera ez dena baizik, definitzen; hau da, aurrean jartzen zaiona eta poesiaren bidez kontra egiten diona; zera ezin baita ahaztu, “Borders are set up, to define the places that are safe and unsafe, to distinguish «us» from «them». [...] A border is a vague and undetermined place created by the emotional residue of an unnatural boundary. It is a constant state of transition.”⁹. Frontera ez dago determinatuta: definieztina da ez bada oposizioz. Hau dela eta, ez dago poeman -Maria Lugonesek¹⁰ esaten duen moduan- “nuestra propia gente” edo gure jendeari buruzko gogoetarik. Ez da unitate bakarria sortzen ahotsak arbuizatzen dituen dikotomia bera ukatzen duten pertsonekin bakarrik, honen orde, ebakitako pertsonaren kontzientzia azaleratzen da, purutasun ezarena, “us” batena. “Akastun” material orok sortutako komunitate kontzientzia, ebaki-banatzen duten pertsonen aitzinean izaki “ez-gauzek” eraikitakoa. “*Them*” baten aurrean egina.

Era honetan, beleak¹¹ oparitzen dituen saltzaile bat irudikatuz, espantuak oparituz, “haiek” oparituz, definitu eta une berean, espazio ilun bat sortzen du. Bere espazioa. Sistema dikotomikoa imitatzen du eta galtzaileen aldean kokatzen da. Judith Butlerrek adierazten duen legez,

“Las reglas que rigen la identidad inteligible, es decir, que permiten y restringen la afirmación inteligible de un «yo» [...] funcionan a través de repetición. [...] en cierto sentido, toda significación se da dentro de la órbita de la obligación de repetir; la

capacidad de acción, pues, es estar dentro de la posibilidad de variar esa repetición. [...] solo puede ser posible una subversión de la identidad en el seno de la práctica de significación repetitiva.”¹²

Horrela, botere sistemen errepika eta ber-deskripzioaren bidez, ekintza gune propioa sortzen du, eta honekin batera, probokaziorako eta subertsiorako gaitasuna. Aurretik aipatutako Maria Lugonesen ebakitzeko arteaz¹³ baliatzen dela esan daiteke “como práctica de la resistencia en la transformación de las opresiones como engranadas”¹⁴. Itxaro Bordak mozketaren bidez, molestatu egiten du, puruaren ezpurutasuna jakinarazten du.

Mugalerro bat planteatzen zaigu: poemako ahotsa ez da haiek. Haiek eliza, militarrek, zementuzko sistemak, apaiz eta emakume kanonikoen euskal Herria. Eta binomioaren alde ilunean zehar nortasun baten bilaketarekin egiten dugu topo. Bordaren obra poetiko osoa zeharkatzen duen identitatearen bilaketa, zeinak ez dien nazionalismo hegemonikoen aginduei, nahitaezko heterosexueltasunari edota genero hierarkiei erantzuten.

Joseba Gabilondok Itxaro Bordaren eleberrietatik ondorioztatzen den Euskal Herriaren definizio propioa estudiatu du. Definizio honen argudio nagusiaren abiapuntuan idazlearen “migrantzia melankolikoa”¹⁵ ezartzen digu: estatu frantses eta espainoletan banatutako Euskal Herritik jaiotzen da, eta herriaren alderdi espainiarrean ezarritako euskal nazionalismo hegemonikoaren boteretik. Horrela, ez da inoiz egongo etxetik hain hurbil, eta une berean, hain urruti. Ez da Bordak sortutako identitatea mugitzen dena, bere ingurua baizik: gu geu gara ahotsaren migrazio egoeraren sortzaile. Gabilondoren esanetan, nazionalismoaren (edo nazionalismoen) “etxearen” artikulazioa desafiatzean, migrantzia melankolikoa politikoki utopikoa bilakatzen da, nazio alternatibo baten sorrerari

bidea eginez. “Migrantzia melankolikoak esentzialismo, bakartasun («uniqueness») eta barne-homogeneotasunezko diskurtso nazionalistari desafio egiten dio, nazionalismo hegemonikoa legitimatzen duten klase eta sexu artikulazioak zalantzan jarri eta, era berean, hibridotasun kulturala indartuz”¹⁶

Idea berbera, Bordaren poesian nobelan baino modu gogoetatsuagoan agertzen dela esan behar da. 1984an argitaratutako lehenengo liburutik azkenengora (2007an, ikerketa hau burutu denean) bazterreko lekurtatze argia dakusagu; frontera eta botere zentralaren diskurtsoen aurrean: “ez dakigu gu ala herria nor / garen aldatuak”¹⁷ adierazpenetik; “gu historia ofizialik gabeko populua gara / eta deusek ez ditu gure gaurko ekintzak / justifikatuko”¹⁸; “Hogeita bost mila jende ginen, hogeita bost mila bihotz urratu, gure lurtean exilioan bezala bizi ginenak”¹⁹; edo “Hargatik ihes jo lezake / Diotenaz / Adurrik iparraldean eta / Ebrok hegoaldean, Tinkatzen duen / Eta erdimenez / Dirauen herrialdetik”²⁰; edo “This land is my land / this land is your land / From Santagrazi to Izaro Island / From Baiona to the Bilbo sand / From Amikuze to the Tuteria Band”²¹ aitorenpera. Denuntzia honek (euskaldun oro dela basko-frantses edo basko-espainol, euskaldun eta basko-frantses banaketa inposatuari aurre eginez), hots, guztiok garelako “gidoi gabeko”²² euskaldunak ala guztiok gidoiaren menpe gaudela esateak leku propioa aurkituko du munduan hibridazioari esker: globalki kokatzen da. Jazz, blues, rock, dub, folk²³, punk, reggae estilo musikalak erabiliz poesia sortzeak; musikari eta abestiei egindako erreferentzia konstanteekin (Bob Marley, Dire Straits, U2, Ruper Ordorika, Hertzainak); Amina Said, Hannah Arendt, Nazim Hikmet, Luisa Villalta, Marguerite Duras, Amaia Lasa, Li Bai, René Char o Rainer Maria Rilke bezalako poeta eta idazle ezberdinekin sortutako

elkarrizketaren bidez; eta ingelera, alemana, portugesa, frantsesa, galegoa, edo katalana bezalako hizkuntzekin euskara nahastuz Euskal Herriarentzako lekua lortzen du munduan; bere Euskal Herriarentzako tokia. “Hibridazioaren bidez, barreiaketak Bordaren ni-a kultura globalera zabaltzen du, hala, ni lesbiar, nazional, euskaldun eta globalki kokatua bihurtuz”.²⁴ Eta momentu berean, esperimentazio hizkuntz-anitzari esker, ebakitzeko artea lantzen du, Maria Lugonesek planteatzen digun erresistentzia ludikoa deritzona.

Munduko hizkuntza ezberdinen erabilera ez da purutasun pentsamenduaren aurrean subjektu aktibitatearen ezaugarri bakarra, testugintzan irakur dezakegun euskara bera ere, kontrol logikak kontsumitu gabe ageri zaigu. Euskara hau zuberera da (neurri berean zuberera propio eta bakarra dela esan daiteke) eta Gloria Anzalduren *Chicanoa* legez –“un lenguaje que corresponde a un modo de vivir. Chicano Spanish is not incorrect, it’s a living language”²⁵–, Itxaro Bordaren poesian agertzen diren ahotsen nortasunaren parte da hizkuntza: fragmentu bat gehiago da bere obrak plasmatzen dituen karaktere multipleen artean. Ez du euskara estandarra aukeratzen pentsamendua transmititzeko, ez du ideien homogeneizazioa aukeratzen, ez ditu merkatu legeak aukeratzen, beste behin muga berri baten aurrean kokatzen da. Hurrengo hitz hauekin azaltzen du Bordak euskalkiak duen balioa identitatean, “irakurtzaileak badaki paperean etzaten dituen hitzetarik beretik idazlea, euskal lurralde zabalean NON kokatzen den, nondik datorren, nora doan ere bai segur aski. [...] Hizkuntza literaturan ez da tresna edo lanabes xoilak, hizkuntza giro hautaketa da, idazlearen estiloa, bizitasuna eta irekitasuna”²⁶. Horrela berriz, bere poesiak hizkuntzak duen indarra inposatutako diskurtsoaren aurrean.

“Ni Naiz, Hi Haiz, Hura Da, Gu Gara, Zu Zara, Zuek Zarete, Haiek Dira: zenbat denbora beharko genuen adiztegiaren osoki eta libreki erabiltzen trebatzeko? Zenbat urte kalaka xugunen norantzaren finkatzen ausartzeko? Zenbat mende parean geneukan emazteari bihotzeko amodioa zor geniola aitortzeko?

Halatan, mendekuarekin, gorrotoarekin, boterelehiarekin eta ahalge barneratuarekin jostatzen baizik ez ziguten irakatsi. Lehen hitzetan berean jazar eta negarroi ginen ttipitik galtzaile iragarriak ginenok. Historiaren ahanztokietan abandonatuak, estatistiken hondarkinak, bonba bat edo beste zartatzen zenean deabruak, saltzapenak segurtatzeko folklorizatuak, ikertuak eta aldi berean madarikatuak.

Mukua koteran zerioten haur hotzek Je Suis traukatzean, Je Suicide kulturala obratzen zuten aldiro.

Ama! Nola da Ni Naiz?”²⁷

Anzalduren hitzetan “Until I can take pride in my language I cannot take pride in myself [...] I will no longer be made to be ashamed of existing”²⁸. Hizkuntza erakusten zaigu nortasunaren ardatz nagusietako bat bezala, eta suizidio kulturalari aurre egiteko tresna ezinbesteko bilakatzen da.

Era berean, Bordak suge hizkuntza propioa sortzen du, emakume ahotsa, ahots sexuala, poeta ahotsa; isiltasunaren tradizioa gainditzeko beharra nabari du: “Ipar Euskal Herriko euskara hain izan da garbitua hitz zikin, lizun eta abarrez azken 100 urte hauetan, non behar den gorputzari loturiko hitzak bilatu eta berritu. Hori erronka bizigarria da guretzat”²⁹. Azpiko poema honetan norbere hizkuntzaren bilaketa eta berrikuntza ahalegina nabarmentzen dira.

“Ohaide abandonatuaren ohoretan, bakardadea berriez lau botzetan kantari abiatu zen, izpiritu dantza hu-

rria kulunkatzen zuten kide biluzien erditik. Lurrertza-zen urruna emagaldu oparoegia zen.

Amodio ukatuen baratzak kardoz estali ziren. Mihi malgoak barrabilen biribilean ezteki lerratu arren, mai-taleei ezintasunez mando geratzen zitzaizkien zakilak, hitzeman atseginarene ordez gabetasunaren ahalgea gorputz zitizifikatueta hedatuz.

Erdeinuaren itzulpen ugari irakurtzen genituen.

Nazka, desira geldoaren suntsitzaile izan zen.

Jauz egin ezan maitea eta haugi!

Orduan, ezpondako holtzaren goratasunak emaztea beldurtu zuen.”³⁰

Inolako mozorrorik gabeko gorputzaren gaineko lexikoa darabil poema honetan, emakume eta poeta aho-tsa, estalkirik gabeko sexu hizkuntza. Hizkera berri hone-kin, era berean, derrigorrezko heterosexualtasunaren aurrean jarri eta desafio egiten dio. Butlerren hitzetan jarritz gero, “generoaren errepikapen parodikoa” dela esan dezakegu: “la pérdida de las normas de género tendría el efecto de hacer proliferar diversas configuraciones de género, desestabilizar la identidad sustantiva, y privar a las narraciones naturalizadoras de la heterosexualidad obliga-toria de sus protagonistas centrales: «hombre» y «mujer»”³¹. “Naturala” denaren gehiegikeriak berak derrigorrezko he-tetrosexualtasunaren diskurtsoa kolokan jarri eta espazio huts bat sortzen du.

Hutsik dagoen gune hau da, inposatutako diskurtsoa dudatan jartzerakoan, irakurlea identitate lesbianarekin aurkitzen den lekua. Datorren atalean Itxaro Bordaren poesiatic eratortzen den nortasun anitzaren alderdi honetan sakonduko dugu.

Ainarene Munduan

“Frustrazioaren eta kulpabilitatearen alabak gara udazken lehorretako lehen lanbroak

ez dizkigu
 maitasun beharraren desir astunak
 laztanduko.
 bihotz kraskatuetako haragi puska hormatuak
 ezaren geltoki desolatuetan
 ez ditugu nehoiz
 beso artean
 tinkatuko.
 hor dago muga:
 nola joan urrunago?
 azken jujamenduaren orduan
 zor guziak ordainduko ditugu
 larru sukratuak espainez milikatu nahiak
 eta
 sufrantzaren ate ilunak bortxatzeko gutiziak
 zor guziak ordainduko ditugu
 frustrazioaren eta kulpabilitatearen alabak garenok!”³²

Poema honetatik askatzen dira Itxaro Bordaren poe-
 sian ezartzen diren identitate lesbianaren ardatz nagusiak,
 eta era berean, hasi berri den atal honen laburpen legez har
 dezakegu: purutasunaren eta kontrolaren logikak inposa-
 tutako iluntasuna pairatzen duen ahizpatasuna sortu, eta
 bertatik irteten saiatzen da. “Ni gu naiz” paradigmaren
 bitartez hitz egiten du, ilunpetik, derrigorrezko heterose-
 xualtasunaren hertsadurapean dagoena³³, eta aurre egiten
 dio. Nola joan urrunago?

Ahizparte lesbianaren sentimendua –denak baitira
 frustrazioaren eta kulpabilitatearen alabak–, hizkuntzaren
 bidez sortzen da. “Gu” izenordearen erabilerak (poema
 honetan egiten den bezala) fronte komun bat sortzen du,
 xede berdineko komunitatearen batasuna. Talde izaera hau
 euskarak eskaintzen dizkion tresna ezberdinez baliatuz
 helarazten du Bordak. Alde batetik, lehenengo pertsona
 plurala sortzeko, “gu” baten bilakatzeko (aipatutako ize-
 nordeaz gain), “ahizpa” terminoa darabil, eta honekin

emakume arteko senidetasun adierazle ezberdinak. Kasu honetan, emakumeen artean soilik erabiltzeko sortutako hitzak dira, “neba” edo “arriba” ez bezala kasuaren arabera. Sistema honen bidez parekideen artean lokarriak sortzen dituen emakumearekin identifikatzen dugu poemako ahotsa, “ni gu naiz” ideia birsortzen dugu.

Beste alde batetik, lehenengo poema liburutik azkenengora, hartzaile femenino batengana soilik bideratutako forma alokutiboaren erabilera nabarmentzen da. Bigarren pertsona honek konfiantza eta intimitate erlazio zuzena sortzen du ahizpen artean. Emakumeekin bakarrik komunikatzeko aditz forma da: maitasunaz hitz egin eta larrua jotzeko baliabidea, baina une berean, errepresioari buruz hausnartzeko eta etorkizuna formulatzeko tresna.

“lantokietan poesiak irensten ditugu
ogitar-tean
presaka
kasik ahalgez
neke baita hitzetan onhartzea
zenbat eskas zaituztegun
 alabak
 amak
 ahizpak
presaka
kasik negarrez
eta elurra desiratzen dugun
ilunean
gabil-tza askatzen
belar usaineko mihiseetan
bular beltzak bilatzen
ausentzia.”³⁴

“gau-
ez
hire musa bigunen ausikiaz
gogoratzen naun

eta
egunez
gizonen batekin oheratzen nauken.
noizbait
maiteko haut Milia!”³⁵

Aurreko atalean aztertutako emakume ahotsa ikusten dugu berriro bi poemotan. Boz honetan nabarmenagoa egiten da aipatutako baliabide linguistikoek jasotzen duten balioa Bordaren poesian. Lehenengoan, “ahizpak” hitzak sortzen duen emakume arteko erlazioak eta hedaduraz “alabak”, “amak”, “ahizpak” terminoekin sortutako unitateak Anzalduren *no man's borderlanda* sortzen du, Bordak aurre egiten dion *no woman's landaren*³⁶ ispilu. *Miliari*³⁷ poeman, bestalde, alokutiboak sexu eta maitasun hizkuntza markatu eta zuzentzen duela dakusagu. Guzti honekin, euskararen erabileraren bi alderdiok identitate lesbianaren ahizpatasun ideia indartzen eta mugako borroka agerian uzten dutela esan daiteke.

Ideioek sinbolo bidez, imajina bidez, finkatu eta errotu egiten dira. Aipagarrienetako bi “gaua” eta “ainara” dira. Batak mugako bizitza irudikatzen duelako, eta besteak berriz, hegaz egiteko gaitasuna, irten eta derrigorrezko heterosexualtasunaren errepresioa hausteko indarra. Ainarei erreferentziak etengabeak dira: “aira banindadi / ainara bezala / ardura joan naike / maitiarengana”³⁸; “ainarak / ortzearen gosea malko mugetan / txerta ezazue zorionen isilaz / lehen bai lehen”³⁹. Sinbolo honek (*Borderlandseko* “sugea” “arranoari” oposatzen zion era berean) “belea” du kontrajarrita. Beleak, artikulu honetako lehenengo poeman ikusi dugun bezala, purutasunaren jazarritako boterea errepresentatzen du.

“Bele beltza
dabil hegaletik minez

lorez estali
gerezi sailen gaisetik
airean hegaletik minez.
mirets zaitzaket
ardura
orlegitasun samurrean
udaberriko hats epelean
atzoko guduka
antzuetan
luma bi galdurik
airean hegaletik minez.
behatzaz
segitzen dugu
bele beltza
zeru betean
kasik erortzen
gu ere
txori izateko sortu
ginen baina
soilik
ametsa dabilkigu
airean hegaletik minez
airean hegaletik minez
airean hegaletik minez.”⁴⁰

Fronterako bizitza, bestalde, –Adrienne Richen hitzetan, “El sesgo de la heterosexualidad obligatoria, que lleva a percibir la experiencia lesbiana en una escala que va de la desviación a la aberración o a volverle sencillamente invisible”⁴¹– gauarekin⁴² (iluntasunarekin) eta isiltasunarekin irudikatzen da. Itzaletako bizitza da, inork ikusten ez duena edo ikusi nahi ez duena: komunitate lesbiana “ha sido aplastada, invalidada, obligada a ocultarse y disfrazarse”⁴³. “Gauak” eta “mututasunak”, hala ere, ez dute ikusezintasun lesbiana soilik erakusten, baizik eta Bordaren

poesian irakur daitezkeen identitate atal orok planteaturiko iluntasuneko existentzia. Poema zati adierazgarria da hurrengo hau: “haragiaren ikara / zehatzago da / gauzez egunez baino / haserrearen ikara / erreago da / egunez gauzez baino”⁴⁴. Bordaren poesiak, modu honetan, hegaz egiteko beharrezko indardun ahizpatasun lesbiana sortu eta iluntasunetik irtetea du helburu. Identitatearen bilaketa autoafirmaziotik eta ezberdintasunaren defentsatik igarotzen da, ez-purutasunaren babesetik.

Ondorioak: *Estranxeira Na Miña Propia Historia*

“Living in a state of psychic unrest in a borderland, is what make poets write and artists create”⁴⁵. Gloria Anzalduaren hitzek Itxaro Bordarentzat eginak dirudite: aztertu ditugun poemak idazlan eta liburu guztietan zehar nabaritzen den egonezin eta konformagaiztasunaren adierazle dira. Ironia eta umore subertsiboa; mina eta oihu esperantza gabea; hizkuntzaren berrikuntza eta hitz debekatuen erabilera botere binomioei eta kontrol logikei aurre egiteko armak bilakatzen dira, mugako ahotsa sortuz: emakume ahotsa, lesbianarena, gidoirik gabeko euskaldunarena, etengabeko borrokan dagoen iluntasuneko ainarena. Joseba Gabilondok zera diosku bere artikuluan, “Bordaren lanak azpimarratzen du genero, sexu eta nazionalismo arteko erlazioa ezinbestekoa dela euskal kultura ulertzeko”⁴⁶.

Aztertu dugun poesiak ezarritako arauak hautsi nahi ditu. Purutasun idealak elikatzen dituzten gizarte estamentuen desegituraketa da lehenbiziko xedeetako bat. Horretarako, lehenengo eta behin, ingurua aztertzen du, ikusezintasunaren zigor berbera pairatzen duten kideak, “haiek” bezalakoak ez izateagatik isiltasunaren jazarpena bizi dutenak identifikatuz. Analisi honetatik

ekintza eratortzen da: ahizpen batasunak iluntasuneko bizitzak dakarren malenkonia eta sufrimenduari aurre egiteko oinarria sortzen du; botere sistema den falazia erakustea lortzen du horrela.

Artikulu hau, dena den, *icebergaren* punta besterik ez da. Poesia honetatik azaleratutako nortasuna konplexua da eta deskribatutako atal bakoitzak frontera bizitzeko modu ezberdin bat adierazten du; inposatutako errealitatea ulertzeko modu ezberdinak eta etorkizun hobe baterako proposamenak. Aurkikuntza eta ñabardura asko daude, beraz, oraindik egiteko (lo kanten balioa, sinbolo eta erre-kurrentzia gehiago, historiaren berrikuspen eta berrirakurketaren indarra, edota lehenengo poema liburutik azkenengora ahotsek jasaten duten aldaketa besteak beste). Horregatik, berriz hastea dagokigu: Itxaro Bordak hurbiltzen digun muga berriro ulertzen saiatzea, eta horrela geure buruak entenditzeko bidea sortzea. Bordak berak gogoratzen dituen Chus Patoren hitzak artikulu honetara ekarriz, esandakoa laburtu eta beste behin irakurtzen hasiko gara.

“estranxeira na miña propia historia
na miña propia paisaxe
na miña propia lingua
eu tamén”

“Oceano”, Chus Pato⁴⁷

Oharrak

- ¹ Gabilondo, J. *Nazioaren hondarrak: euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*, EHU, Bilbo, 2006: 248.
- ² “Nazionalismo maskulino hegemonikoa” edota “euskal nazionalismo maskulino hegemonikoa” bezalako terminologiak Joseba Gabilondoren “Itxaro Borda: migrantzia melankolikoa eta ni lesbiar nazional baten idazketa” artikuluan du jatorria.
- ³ Eta probokazioari berari dagokionez, zera dio Bordak *Berria* egunkarian, “testu asko idazten dira erreakzio bat probokatzeko. Barne behar, sentimendu edo oroitzapen bat idazten duzu eta gero irakurleak har ditzake probokazio modura. Euskal Herrian sozietate oso minbera batean bizi gara, eta edozein gauza txiki probokaziotzat har liteke. Gorputz biluziaz, gorputz lesbianaz edo gorputz gay-az idaztea probokazioa izan liteke. Oso gutxi aski da probokatzeko”. Erostarbe, G. “Hitzak, Etiketak, Identitateak” in *Berria*, 2007/06/21: 42 orr.
- ⁴ Borda, I. “Gaiaren minean”, UEUUn aurkeztutako ponentzia (2006). Bilduma honetan argitaratua.
- ⁵ Arregi, R. “Gayak eta euskal literatura”, Gasteizko mahai-inguru batean aurkeztutako ponentzia (2001). Bilduma honetan argitaratua.
- ⁶ Ayerbe, M. “Euskal literatura heterosexuala, homosexuala edo asexuala da?”, UEUUn aurkeztutako ponentzia (2006).
- ⁷ Lan honetan aipatutako euskal kritikariek onartzen dute gaur egungo euskal literaturan agertzen diren pertsonaia gay eta lesbianak, edo erabat sekundarioak direla, edo modu efektista eta topikoan tratatzen direla.
- ⁸ Borda, I. *Krokodil Bat Daukat Bihotzaren orde*, Susa, Zarautz 1985: 194.
- ⁹ Anzaldúa, G. *Borderlands: the New Mestiza; la Frontera*, Aunt Lute, San Francisco, 1987: 3.
- ¹⁰ “Pureza, Impureza, y separación” artikuluan plasmitzen ditu Lugo-nesk ideia hauek.
- ¹¹ Belearn figura, beranduago ikusiko dugun bezala, Itxaro Bordaren poesia osoan zehar irudikatzen da dikotomiako alderdi zapaltzaileaz hitz egiten denean. Beste muturrean ainararekin egingo dugu topo. Gloria Anzaldúak “eagles” eta “serpents” oposatzen baditu, Bordak “beleak / ainarak” oposaketa sortzen du.

- 12 Butler, J. *El Género en Disputa, el Feminismo y la Subversión de la Identidad*, Paidós Iberica, México, 2001: 176.
- 13 “Arte de Cortar” izendatzeko erabili dugun itzulpen hau (ebakitze-ko artea) eta “Pureza, Impureza y separación” artikuluan azaltzen dena, oso erabilgarria egingo zaigu beranduago, aztergai dugun idazlearen poesia eta duen munduarenganako jarrera ulertzeko.
- 14 Lugones, M. “Pureza, Impureza y Separación” in *Feminismos Literarios*, Arcos Libros, Madrid, 1999, 232-264 orr.: 262.
- 15 “Freudek melankolia eta dolu artean dagien desberdinketari jarraikiz, «migrantzia melankolika» terminoa osatu dut, permanente ki bere «jatorrizko etxea» galdu duen baina galera hori bere nortasuna eta desira definitzeko beharrezko duen subjutuaren kondizioa osatzeko” (Gabilondo, op. cit.: 254). Judith Butlerrek Freuden kontzeptu beraren beste alderdi bat erakutsiko digu *El género en disputa* liburuko bigarren kapituluari: “Prohibición, psicoanálisis y la producción de la matriz sexual”.
- 16 Gabilondo, J. op cit.: 254..
- 17 Borda, I. *Bizitza Nola Badoan, poemak 1974-1984*, Maiatz, Baiona, 1984: 29.
- 18 Borda, I. *Just Love*, Maiatz, Baiona, 1988: 65.
- 19 Borda, I. *Orain*, Susa, Zarautz, 1998: 80.
- 20 Borda, I. *Hautsak Errautsak Bezain*, Maiatz, Baiona, 2002: 59.
- 21 Borda, I. *Noiztenka*, Maiatz, Baiona, 2007: 18.
- 22 Aurretik aipatutako Gabilondoren artikulua da terminologia honen iturria.
- 23 Gorago aipatutako bertso-lerroak, adibidez, Woody Guthriek 1940an idatzitako *This land is your land* folk abestiari egindako erreferentzia argi bat dira
- 24 Gabilondo, J. op. cit.: 276.
- 25 Anzaldúa, G. op. cit.: 55.
- 26 Borda, I. “Euskalkien Kezkaren Funtsaz”, in *Euskalkien Lekua Literaturan*, Mendebalde Kultur Alkartea, Bilbo, 1999, 173-187 orr.: 175.
- 27 Borda, I. 1998: 87.
- 28 Anzaldúa, G. op. cit.: 59.
- 29 Erostarbe, G. “Hitzak, Etiketak, Identitateak” in *Berria*, 2007/06/21: 42 orr.
- 30 Borda, I. 1998: 72.

- 31 Butler, J. 2001: 177.
- 32 Borda, I. 1985: 11.
- 33 Bordaren poesiak, ikusten den legez, Adrienne Richen planteamenduak darraiz: “La imposición sobre las mujeres de la heterosexualidad como medio de garantizar el derecho masculino de acceso físico, económico y emocional”. Rich, A.: “Heterosexualidad Obligatoria y Existencia Lesbiana (1980)” in *Duoda, Revista d’Estudis Feministes num.10*, Universitat de Barcelona, Bartzelona, 1996: 38.
- 34 Borda, I. *Bestaldean*, Susa, Zarautz, 1991 (2007ko edizioa): 20.
- 35 Borda, I. 1985: 74
- 36 *No woman’s land* terminoa, Bordak poema honetan darabil, “inguruko en aho arras zorionsuetan / neronen bakartasunaren eremu / desolatua / izar dezaket / no woman’s lan erraldoia”.(Borda, I. 1998: 11)
- 37 Milia Lasturkori erreferentzia argi honek, euskal literaturaren eta historiaren berrikuspen oso batera garamatza, esanahi eta konnotazio berriz janzten duena. Bide hau, erabat interesgarria izan arren, ez da artikulua honetan jorratuko.
- 38 Borda, I. 1988: 5.
- 39 Borda, I. 1991: 103.
- 40 Borda, I. 1991: 31.
- 41 Rich, A. 1996: 18.
- 42 Kasu honetan, interesgarria da Anuntzi Aranaren “Sexismoa Sinbolo eta Arketipoetan” artikuluko hitzak gogoratzea (in *Emakumea: Sexu ala Generoa?*, UEU, Bilbo, 1993, 25-48 orr.: 37.): “esan daiteke, orokorki, egunekoak koalitate «maskulinoak» baliesten dituela, gauekoak «femeninoak». Bistan da, erregimenak kontrajarriak dira nolabait, batek gaitzesten duena besteak onets baitezake, eta alderantziz” Badirudi Bordak nortasun ulergarriaren arauak imitatzen dituela berriro: dikotomia errepikatu egiten du, gero hankaz gora jartzeko helburuarekin. Ainarene xedea, horrela, iluntasunetik irtetea da (gizonezkoen berezko tokira).
- 43 Rich, A. op. cit.: 18.
- 44 Borda, I. 1988: 10.
- 45 Anzaldúa, G. op. cit.: 73.
- 46 Gabilondo, J. op. cit.: 271.
- 47 Borda, I. 1998: 7

Maletak ezinbestean

Identitate-gatazkak *Ezinezko maletak* nobelan

Ibon Egaña

“Jada ez naiz euskalduna” erabaki zuen Bazterrek.

Marckek ez ulertua adierazi zion eskuen imintzioz.

“Ala bai?” bildu zuen Bazterrek.

Gero, akordatu zen Marck, sofa gorrian etzan eta barrez lehertu zen.

“Belaunaldi baten erretratu ziztatzaile” gisa aurkeztu zen Juanjo Olasagarreren *Ezinezko maletak* 2004an argitaratu zenean. Denboraren joanak utopietan eragin-dako krisia, adiskidetasunaren gainbehera eta 1980ko hamarkadako giro soziopolitikoak dira nobelak ukitzen dituen eta haren harreran aipatu ziren gaietako zenbait. Horiez gain bada, baina, nobelan funtsezkoa den beste gatazka bat, hots, identitateen arteko talka eta, zehatzago, nazio-identitatearen eta gay identitatearen arteko tentsioa, eleberriaren motor eta ardatz dena gure begietara; nortasunaren formulazio horiek nola fikzionatu diren aztertzea lukete ondoko lerroek helburu.

Hirirako ihesa

“He died last night” esaldiak zabaltzen du Olasagarrenen lehen eleberria, Carlos Bazterretxea, *Bazter*, nobelako

protagonista Londresen hil delako berriak, alegia. Orduan abiatuko dira Lekunberri-Aranaztik haren gaztetako lagun Harakin, Jexus Mari eta Fermin Londresa lagunaren hiletara. Faulknerren *As I lay dying*en egitura narratiboa bere eginaz, hildako pertsonaiaren inguruan egituratzen du eleberria idazleak, kapituluz kapitulu pertsonaiatik pertsonaiara txandakatuz doala foku narratiboa, apurka hilda baina ezin presenteago dagoen Bazterren biografia osatu arte, eta biografiaz batera historia kolektiboa. Narrazio korala da, beraz, *Ezinezko* maletak, egilearen aurreko poema-liburuak bezala, identitate eta istorio indibidualera kolektiboaren narraziotik hurbiltzen dena.

Hiru denbora bereizten dira kontakizunean: oraina (Carlosen hileta Londresen), iragan ertaina (Carlosen Londresko bizimodua eta lagunartea nahiz bertan lagun euskaldunekin izandako enkontruak) eta iragan urruna (Lekunberri-Aranazko gaztaroa, 1980eko hamarkadan). Baina kontakizuna erdi-erditik moztu beharko bagenu, protagonistak Lekunberri-Aranatz eta hari lotutako iragana atzean utzi eta Londresa ihes egiten dueneko da narrazioa bitan banatzen duen gertaera, kontakizuna bi aro historiko eta kokagune espazialean banatuz; ondorengo gatazka gehienak bi munduen eta bi garaien talka horretatik sortuak izango dira: mundu errurala eta mundu hiritarra, oraina eta iragana, identitate nazionala eta gay identitatea, modernitatea eta postmodernitatea (hitz potoloetan esatearren)...

Ezaguna denez, gaytasuna da Bazter Lekunberri-Aranaztik Londresa ihes egitera daramana. Ez da, ez, literaturan nahiz bestelako irudikapenetan, berria hirira ihes egiten duen homosexualaren kontakizuna (Irati Jimenezen *Bat, bi, Manchester* bera har dezakegu gogoan). Didier Eribonek bere *Réflexions sur la question gay* ezagunean ere azpimarratzen du gayen nortasunaren eta subjektibotasu-

naren itxuratzean hirirako ihesak duen garrantzia. “Hasi-
sieran iraina dago” esanez zabaltzen du Eribonek bere saia-
kera, hots, homosexualaren izaera eta nortasuna marka-
tzen eta seinalatzen duen lehen elementua (eta homose-
xualak bere gay/lesbiana izaeraz duen lehen kontzientzia)
iraina da, mespretxua, desio homoerotikoa baino
lehenagokoa eta definitzaileagoa. Horregatik, azaltzen du
filosofoak, irainari ihes egiteko beharra sortzen da, hiri-
rako ihesa da horretarako bidea eskuarki. Irainaren on-
doren, ihesak markatzen du gay nortasunaren narrazioan
mugarria:

“Se entiende que uno de los principios estructu-
radores de las subjetividades gays y lesbianas consista en
buscar los medios de huir del ultraje y la violencia, que
con frecuencia recurran a disimular lo que son o a
emigrar hacia climas más benignos.

Por eso las vidas gays miran a la ciudad y sus redes
de sociabilidad”.¹

Bi xede lituzke gayaren hiriranzko ihesak, Eriboni
jarraituz: batetik, herrian aurkitzen ez dituen sozializa-
tzeko aukerak bilatzea, eta, era berean, herriak edo hiri
ertainak ematen ez dion anonimotasuna eta askatasuna
baliatzea. Henning Bech soziologoaren hitzak aipatuz, dio
Eribonek, “hiria da homosexualaren berezko mundua, bere
bizi-eremua. Alferrik da homosexual asko landa-eremuan
bizi izan direla esatea. Homosexual izan nahi duten
heinean, horien arteko gehiengoak hirira joan behar du
modu batera edo bestera”. Ñabartu beharko lirateke Eri-
bonen eta Bech-en hitzok, azken horren “modu batera edo
bestera”-k iradokitzen duenez. Gaur egungo garaira eto-
rrita, izan ere, ezin ukatuzkoa baita hiriaren eta herriaren
(edo landa-eremuaren) arteko aldea ez dela hain nabar-
mena, besteak beste landa-eremuaren hiritartzeagatik
(garraio-bideen eta komunikazio-bideen ugaltze eta zabal-

tzeagatik eta horrek sozializaziorako dakartzan aukerengatik, esaterako). Nolanahi ere, eta 1980ko hamarkadako Euskal Herrian kokatutako kontakizunaz ari garela gogoan izanik, ongi egokitzen zaizkio Eribonen hitzak *Ezinezko mailetak* eleberriko protagonistaren bidaiari.

Literatura modernoaren (eta modernitatearen) elementu zentraletako bat identitate indibidualaren narrazioaren eraikuntza izan bada, hirirako ihesak norbere buruaren narrazio horretan duen pisua ezin ukatuzkoa da. Eve Kosofsky Sedgwickek honela definitzen du hiriranzko bidaiak gay/lesbianaren bizitzan duen zentraltasuna: “gay iparramerikar eta europar askoren identitate modernoaren errelatu fundazionala [da], balzactarra baino gehiago.”² Identitatea gai nagusi duen Olasagarrenen eleberrian, beraz, ez da harritzekoa Bazterren hirirako lekualdatzeak ere paper zentrala izatea. Londresek, izan ere, sozializatzeo aukera, identitatea baieztatzeo eta kontrol sozialetik ihes egiteko ekarriko baitio.

Alabaina, Bazterren hirirako ihesa ez da soilik hiribururako ihesa (ez da Madril edo Bartzelona, 80ko hamarkadako gay euskal herritar askoren helmuga; are gutxiago Bilbo); erbesterako bidea ere bada, Euskal Herria eta, batik bat, Euskal Herriaren askapenerako borroka eta gatazka giroa atzean uzteko nahia.³ Ez da soilik, beraz, hirirako ihesa, eta ezta Eribonek aipatzen duen “harantzagoko” lurraldeen fantasmagoria hutsa, pop kantuetan hain ohikoa eta gayen artean bizirik legokeena (“Esta mitología de la ciudad –y de la emigración a la gran ciudad– ha coexistido durante largo tiempo con una mitología más general del viaje y del exilio, no ya hacia la capital, sino hacia otros países, otros continentes. Hubo –y sin duda hay todavía– una fantasmagoría del «allende» en los homosexuales, de «otro lugar» que ofrecería la oportunidad de realizar aspiraciones que por tantos motivos

parecían imposibles, impensables en el propio país”⁴). Dimentsio politiko handiko ihesa da, nahi bada, Bazterren Londreseratzea.

Eleberriko beste pertsonaia bat, Fermin, Bazterren gaztaroko laguna, Lekunberri-Aranztik Donostiara aldatzen da bizitzera, Euskal Herri bertako hiri ertain batera, beraz. Agerikoa da pertsonaia honen kasuan ere urruntze geografikoa urruntze ideologiko eta politikoarekin lotuta dagoela erabat. *Gesto por la paz*-eko militante (edo gutxienez, harengandik hurbileko) irudikatzen da pertsonaia 90eko hamarkadan, ziurrenik Alizia emaztearen eraginez. Bazterrenenean ez bezala, Ferminen biografian ez dakar erabateko etenik hirirako aldaketak, hiri ertain batera eta Euskal Herri barrukorakoa baita haren lekualdatzea. Hala, Fermin, Lekunberri-Aranazko gaztaroko ideologia politikotik eta lagunartetik urrundu bada ere, behartuta dago euskal politikaz, auzi politikoaz eta indarkeriaz iritzia ematera, Bazterrekin Londresen duen elkarrizketan irudikatzen den gisan:

“Komando hura osatu nahi izandu genuenean munstro bat elikatu genian, eta horretan errua diagu. Hura gelditu beharra zegok, gure buruen, euskaldunen kontra ari gaituk. Ez duk jakinen, baina Alizia, nire emaztea, aspalditik zebilek talde bakezale batean, Gesto por la Paz-en. Gelditu beharra zegok, ez ditek esku-biderik gure ametsen izenean egiten ari direna egitera. Gure Ametsak! Izan ere, ez duk horren inportantea independente izatea, ez?”

“Ez duk hain inportantea euskaldun izatea” bota zuen Bazterrek sorbalda jasoz.

Isiltasuna zerbeza tragoxka bat bezala kokatu zitzaien”.
(204)

Fermin, halaber, emaztearen erabakien eta iritzien mendeko irudikatzen da, etengabe emazteak esango edo

egingo lukeena buruan duela; hala, pertsonaia ez da heltzen, Bazter bezala, haustura erabatekora eta identitate berri bat aldarrikatzera; subjektu izatera ere ez da heltzen ia, emazteak hitz egiten baitu etengabe haren ahotik. Hain zuzen horregatik, eta Ferminen ispilua aurrean izanda, irudikatzen da Bazterren erbesteratzekeo beharra: Fermin bezala, erdibidean, hiri ertain batean, Euskal Herrian eta ingurune heterosexual arruntean bizituta, ezinezkoa zatekeen erabateko haustura, eta identitate berri baten, subjektu berri baten proiektua.⁵

Londresa joatea, beraz, biografian haustura erabatekoa egiteko aukera eta errelatu fundazionala da Bazterrentzat. Londresi buruzko deskribapen apurrek (Bazterren ikuspegitik lehenik, beranduago haien lagunen ikuspegitik), haren kulturaliztasuna azpimarratzen dute etengabe, homosexualari ere lekua eskaintzen dion aniztasuna:

“Kolore eta zaratek zartako batez aterarazi zuten Victoria Stationen herrikerietatik. Autobusak sartu-atera zebiltzan etengabe, jende beltza nabar jantzirik, ulertezinak iruditu zitzaizkion aurpegi asiaticoa, emakume hinduak sari gorriarekin, gazte zuriak kolore biziez jantzirik, 80ko hamarkadako gotikoz mozorrotutako arrastoren bat, nerabe batzuen kasete handitik zetorkion musika danba-danbako ezezaguna, eta gidariak autobus bakoitzaren geldialdiak oihuka...” (152)

Kosmopolitismo eta kulturaliztasun horren aurrean, Lekunberri-Aranatzek identitate bakarreko espazioa irudikatzen du, aldaketarik onartzen ez duena. Esplizituki ematen du eleberriak hiriko nortasunaren eta landa-eremuko, baserriko identitatearen arteko kontrastearen berri, Marck eta Bazterren arteko elkarrizketa baten bidez:

“Baserriko identitatea?!”

“Lekunberrin, egoera zailenik zailena dela ere, ez dute handik alde egin nahi izaten, ez zaie otu ere egiten, beharbada, eszenatoki berriak arazoak konpon ditza-keela, edo saihestu bederen; ez, bertan gelditzen dira, edo hobeto esanda, bertan diraute, haien patua lurraren patuari kateaturik. Hori da baserriko identitatea”. (151)

Bazter eta Fermin dira, beraz, patu horri, identitate finko horri ihes egiten ahalegintzen diren bakarrak. Londresek, hartara, kulturantzatasunaren espazio gisa irudikatzen, hutsetik hasteko aukera ematen duen lekua irudikatzen du, identitatea berrasmatu daitekeen eremua.

Lehenagotik ere, Olasgarreren aurreko bi poema-liburuetan (*Bizi puskak*, 1996 eta *Puskak biziz*, 2000), biak ere Lekunberri-Aranatz izan zitekeen izenik gabeko Nafarroako mendialdeko herrixka batean kokatuak, bazen ahaleginik kulturantzatasuna eta kosmopolitismoa herrixka horretan bertan irudikatzeko (neurri batean, Aingeru Epaltzak *Ur* uherrak-en saiaturako bidetik). Hala, herriko etxeoandreakin eta nekazariekin batera poema-liburu koral horietako pertsonaia ziren preso politikoa, EHGAMeko kidea, Lwazi Ndubile erbesteratu afrikarra, Debra eta Thomas Woolf estatubatuarrak, Martin Mann alemaniar komunista eta abar. *Ezinezko maletak*, alde horretatik, bide horren porrotaren lekukoa litzateke, zera afirmatzera letorkeena: ez dago lekurik bestearentzat Lekunberri-Aranatzen, nazio borroka eta heterosexualitatea lege nagusi eta bakar diren espazioan. Horregatik dator Londresako ihesa, eta hiri kulturantzatean babesa bilatzearen beharra. Neurri batean, *Puskak bizizen* bertan (non aurreko poema-liburuan baino etsituago eta eszeptikoago agertzen den poetaren ni aniztua) irudikatzen zen subjektu euskaldun hori multiplikatzearen ezinezkotasuna, eta espazio horretan diferenteari, homosexualari dagokion lekua (lekurik eza, alegia), “Josema Iruretagoien

erantzuna Joxemiel Erreparatzi” poeman pertsonaia homosexualak dioen gisan:

(...)

“Ez zaitetz engaina
esana du gure Arregik
Diaz de Herediak, bizitakoaren nostalgia
kontseilari maltzurra da,
are maltzurragoa bizigabearena baldin bada.
Nik ere ez dut inguratzen nauena maite
eta ametsei dagokienez...
ni bezalako batek
zein aukera zuen aberri galdu horretan?

Argienera: ihesa

Hoberenera: gezurra

Makurrenera: buru-hilketa”.⁶

Iruretagoienen ahotsean jarritako poema horrek homosexualari “aberi galdu horretan” geratzen zaizkion hiru aukerak argi zerrendatzen ditu: ihesa, gezurra (Iruretagoienek berak hautatzen duena, bere homosexualitatea ukatuz eta “kurba normalaren erdi-erdian” kokatuz) edo suizidioa (literaturaren tradizio luze batek homosexualari esleitu izan dion patua). Armairutik kanpo dagoen eta EHGAMeko militante izandako Txema Kortez, berriz (“oso argi dauzka, sufritu egin dituelakoz beharbada, sexu aukeraketa eta boterea lotzen dituzten harremanak” esaten zaigu *Puskak biziz*-en hasieran), badirudi hiru aukera horietatik haratago dagoela, ez delako gezurrean bizi, ez delako ihes egin, ezta bere burua hil ere. Alabaina, arau heterosexistaren menpe darrai hein batean, gorroto duen lege nagusi horren miraz bizi baita era berean:

“Eta honezkero nire burua behartu beharra dut

Gorroto nituela gogoratzera, tupentaka ikasi baitut

– haiek ez bezala-
Zoriontasuna burges doilor heterosexualek
Ezarrirako diktadura demokratikoa dela.
Eta hala ere gorrotoa urtu eta tristurak hartu nau,
Ni ere diktadura horretako lege ezinezkoa errenditurik”.⁷

Txema Kortez, gay iraultzaileena ere tristurak errenditurik ageri da *Puskak biziz*-en amaieran, heterosexua-
litate burgesaren zoriontasunaren miraz eta Josema Iru-
retagoien “armairumariarekin” esperantzarik gabe maite-
minduta. Hala, Kortezek berak, geroago *Ezinezko maletak*-
en bururatuko den tesia aurreratzen duela dirudi: ezinez-
koa dela eremu horretan gay nortasuna eta bizitza
garatzea, ez hainbeste Eribonek azpimarraturiko “irain-
aren eremua” litzatekeelako, ezpada lege heterosexual
inplizituagoak indarrean segitzen duelako iraultza egin as-
mo duen belaunaldiaren artean, eta are gay pertsonaiaren
baitan ere.

Identitateak, hegemoniak eta erresistentziak

Txema Kortezek ez bezala, Josema Iruetagoienek ez
bezala, Carlos Bazterretxea Bazterrek Londresako bidaia-
rekin batera, bere subjektibotasuna aldatuko duen erre-
latua hasten du; identitate zaharra atzean utzi eta berria
hartzeko aukera emango diona, eta eleberraren amaiera
aldera, pertsonaien arteko gatazka-iturri nagusia bihur-
tuko dena. Funtsean, eleberriak plazaratzen duen galdera
baita zenbateraino den identitate indibiduala aldagarria
eta moldagarria, eta zenbateraino den alde zurretik fin-
katua eta ezabaezina. Bazterren identitate-errelatua bi
ardatz nagusiren inguruan dabil, beraz: nazio identitatea
eta gay identitatea, bigarrenaren afirmazioak lehena uka-
tzea dakarrelarik protagonistaren kasuan.

Honela definitzen du identitatea M. Castellesek, egungo testuinguru sozialean:

“Por identidad, en lo referente a los actores sociales, entiendo el proceso de construcción del sentido atendiendo a un atributo cultural, o un conjunto relacionado de atributos culturales al que se da prioridad sobre el resto de las fuentes de sentido. Para un individuo determinado o un actor colectivo puede haber una pluralidad de identidades. No obstante, tal pluralidad es una fuente de tensión y contradicción tanto en la representación de uno mismo como en la acción social.

Aunque, como sostendré más adelante, las identidades pueden originarse en las instituciones dominantes, sólo se convierten en tales si los actores sociales las interiorizan y construyen su sentido en torno a esta interiorización. (...) También propongo la idea de que, en la sociedad red, por razones que desarrollaré más adelante, para la mayoría de los actores sociales, el sentido se organiza en torno a una identidad primaria (es decir, una identidad que emmarca al resto), que se sostiene por sí misma a lo largo del tiempo y el espacio”.⁸

Castellsen arabera, beraz, identitatea egituratzera-koan, esangura-iturri bati besteen aurretik lehentasuna ematen zaio, nahiz eta identitate horrek erreferente asko izan. Halaber, gizarte eragileen artean identitate primario, lehen mailako bati ematen zaio lehentasuna besteen gainetik. Konplexutasuna sinplifikatu beharra dago, beraz, soziologoaren ustez, identitatea garatu ahal izateko, banako nahiz talde sozial gisa, ezaugarri bakarraren inguruan egituratuz ikur izango den nortasuna. Identitatea banakoarena den eta izan daitekeen ala nahitaez gizarte talde bati lotuta garatzen den, soziologiak nahiz filosofiak sakon eztabaidatu duten gaia da (eta gure ezagutza apaletik askoz harantzagokoa). Dena den, interesgarri deritzo-

gu honen harira Étienne Balibarrek emandako definizioari, hein batean bi joerak bateratzen dituelako:

“repetiremos, en contra de los mitos «holistas» «organicistas», que toda identidad es individual. Pero toda individualidad es más que individual, y algo diferente: es inmediatamente *trans-individual*, hecha de representaciones del «nosotros», o de la relación entre uno mismo y lo ajeno, que se urden en vínculos sociales, en actividades cotidianas, públicas y privadas”.⁹

Balibarrekin bat etorri, identitatea, indibiduala izanagatik, nahitaez taldearekiko harremanean garatzen dela esan dezakegu, gutasun baten irudikapenak eragiten duela nitasuna itxuratzea. Nazio identitatea, genero identitatea edo gay identitatea ere, indibidualak izanagatik, taldearekiko identifikazioz definituko lirateke, eta komeni litzateke hori gogoan izatea banakoen identitateez ari garela ere.

Identitatea norberaganatze prozesuetan eta identifikazio-prozesuetan, nolahi ere, botere-harremanek era erabakigarrian eragiten dute. Halatan, identitate horiek ere beren botere-guneekiko harremanen arabera sailkatzen dira. Castellesi jarraituz, identitate kolektibo oro da erakia, baina nor, zein posiziotatik eta zertarako sortu eta bultzatzen dituen aztertzea da interesgarria, identitate kolektibo horien hartzaileentzako esanahi eta zama desberdina konnotatuko baitute. Abiapuntu horiek aintzat hartuta, Castellsek hiru identitate forma eta sorburu bereizten ditu (eta hemen aipatzen ditugu aztergai dugun nobelak planteatzen dituen gatazkak argitzeko lagungarri direlakoan). Lehenik, *identitate legitimatzaileak*, alegia, gizarteko instituzio dominatzaileek beren dominazioa zabaldu eta justifikatzeko eraikitako identitateak (Castellsen arabera, nazionalismoaren teoriari aplikatu daitezkeen gaia).

Bigarrenik, eta identitate legitimatzaile horien aurrean, *erresistentzia-identitateak* daude, alegia, dominazioak estigmatizatutako eta gutxietsitako lekune eta baldintzetan dauden eragileek erresistentziarako eta bizirauteko eraikitako identitate-lubakiak. Azkenik, *egitasmoidentitateak*, gizarte-eragileek identitate berri bat aldarrikatzen dutenean sortzen dira, eta hori eginaz, gizarte-egitura osoaren eraldaketa bilatzen dutenean (feministak lirateke honen adibide, gizarte patriarkala eraldatzea helburu duten heinean).

Hiru identitate-mota horiek, alabaina, ez dira finkoak eta egonkorak, gerta baitaiteke sorburuan erresistentzia-identitatea zena denboraren joanean edo baldintza sozio-historikoak aldatuz identitate hegemoniko edo legitimatzaile bihurtzea, edo alderantziz.

Olasagarreren eleberriak, funtsean, gure ustez, identitate mota biren arteko gatazka planteatzen du, edo eta, zehatzago, identitate legitimatzaile eta hegemoniko batek ihes egiteko aukera indibidualik ba ote dagoen (erresistentzia-identitate bat bereganatuz), Castellsen terminoetan esanda. Gorago aipatu dugun bezala, Bazterrek Londresa joatearekin batera, atzean utzi nahi du Euskal Herriko gatazka politikoa, heterosexualitate beharrezkoa, eta baita euskalduntasuna bera ere, hots, identitate nazionala.

Euskal nazio identitatea, beraz, *Ezinezko mailetak*-en identitate legitimatzaile gisa irudikatzen zaigu. Hots, sorburuan erresistentziazko litzatekeen identitate bat (euskal naziotasun erresistentea espainiar naziotasun legitimatzaile eta beharrezkoaren aurrean) legitimatzaile bihurturik ageri da eleberriaren narrazioan. Castellsekin jarraituz, identitate legitimatzaileek “gizarte zibil bat sortzen dute”, hots, dominazio-formak arrazionalizatzen dituzten instituzio, erakunde, gizarte-eragile antolatu eta egituratuen multzo

bat. Egia da eleberrian irudikatzen den Lekunberri-Aranatzen ez dagoela euskal nazio-identitatea legitimatzen duen instituzio publikorik (estaturik); aitzitik, bertan, ENAMen inguruko gizarte-erakundeak lirateke “gizarte zibil” hori, hegemonia finkatzen duten agenteak. Izan ere, Balibarrek dioen gisan, instituzioak beharrezkoak dira identitatearen egituratzean, baina ez soilik instituzio ofizialak:

“para configurarse, ese nudo identitario tiene como condición y como materia *instituciones* históricas: no sólo instituciones oficiales, dominantes, sino también instituciones revolucionarias. Por eso los «movimientos anti sistema» se proveen de instituciones para construir su «identidad», condición para su perduración, para su autonomía relativa”.¹⁰

Euskal nazio identitatea, beraz, instituzioak dituen eta gizarte zibil bat sortzen duen identitate legitimatzaile gisa irudikatzen da *Ezinezko maletak*-en, botere gune, funtsean, eta identitate indibidualen eta bestelako identitate-hierarkien ukatzaile, hein horretan. Identitate legitimatzaile hori, baina, ez da bere hegemoniak beste identitateei dakarzkien mugez eta hersturez jabetzen. Harakin lagun izandakoarekin Londresen izandako enkontruan, elkarrizketa hau irudikatzen da Bazter eta bien artean:

“Nik ez nian lekurik han”.

“Nola ez huela lekurik? Hura hire herria duk!”

“Izan ere... zuan; ez zekiat noizbait nirea izan zen”.

Bekoz beko so egin zion Bazterri, zetorren ustekabea sumatu gabe.

“Badakik homosexuala naizela”.

Ez zen gehiegi harritu, garunaren ondoan betidanik jakin izan zuena berritzea baino ez zela izan otu zitzaien.

“Ez nekian, nahiz eta Estik aitatuta-edo zerbait susmatu. Zer ikusteko zeukak horrekin?”

“Zer eginen nian nik zuek bikoteekin bizi zineten bitartean. Zer eginen nian han orain? Iraultza egin?”

Harakinen pertsonaian gorpuzten den identitate legitimatzaileak ez du arazorik ikusten bestelako identitateak bere baitan (azpian?) onartzeko, hegemonikoa den heinean ikusezina eta inplizitua baita araua; Bazterren ikuspegitik, baina, identitate legitimatzaile hori iraultzea ala ihesa soilik ziratekeen posible. Hots, identitatea identifikazio nagusi baten inguruan eraikitzen da, eta identifikazio absolutu hori naziotasuna da eleberrian irudikatzen den herrian. Naziotasuna baita, Balibar-en hitzetan, mende baldean hegemoniko izatea lortu duten bi eskema ideologikoetako (eta identitarioetako) bat:

“Establecer una jerarquía de referencias comunitarias no es absorber su diversidad en la uniformidad de una sola pertenencia «totalitaria»; por el contrario, es constituir aquello que, gracias a un nuevo préstamo tomado del léxico de Gramsci, podemos denominar *hegemonía* en el seno mismo de la ideología. Desde un abordaje histórico, se nota que en época moderna (la cual echa sus raíces en el núcleo íntimo de la «edad media»), hay evidencias palpables de que dos esquemas ideológicos (...) y sólo dos pudieron en competencia y en alternancia tornarse, así hegemónicos: el esquema de la religión (en este caso pienso ante todo en las dos grandes religiones de Occidente: cristianismo e islamismo) y el esquema del nacionalismo”.¹¹

Landa eremuko bizimoduak nahiz abertzaletasunak ezaugarritutako identitateak, esan bezala, hainbat instituzio ditu bere hegemonia iraunaraziko duten talde-identifikazioak bideratzeko: familia, koadrila eta erakunde politikoak. Familia nahiz koadrila erakunde egonkor, fin-

koak dira Lekunberri-Aranatzen. Bazter hil ostean Londresa abiatzen den lagun-taldea gaztaroko berbera da (Harakin, Jexux Mari, Fermin), nahiz nobelaren orainaldian ez duten elkarrekin zerikusirik, eta inkomunikazio izugarria dagoen beren artean (zeina indartu egiten baitu nobelaren egitura atalkatuak, fokalizazioa txandakatuz). Familiari dagokionez, aldiz, arau heterosexual eta patriarkala birsortzen duen instituzio gisa ageri da (Bazterren ama, esaterako, tabernara eta etxeko espazio pribatura mugatuta ageri da, semeagatik dolutzera kondenatua).

Identitate legitimatzaile horren eragin hegemonikotik ihesi doan Bazterrek Londresen eraikitzen du bere nortasuna, erresistentziako identitatea, nahiz identitate berriaren eraikuntza nola gorpuzten den lausoago ageri den eleberrian. Londresa heldu berritan Marckekin duen enkontuan, homosexuala dela noiztik zekien galdetzen dio ingelesak, eta gaztaroko iraultza-asmoak kontatu ostean, “ni ez nintzen homosexuala” (61) erantzuten dio; hots, Lekunberri-Aranatzen sentitzen zuen horri “ez zekien izenik paratzen” (77), ziurrenik “homosexuala” kategoria bezala ere ez zelako existitzen bere baitan. Urte batzuk beranduago, “badakik homosexuala naizela” (177) erantzungo dio finean Harakini, honek Londresa egindako bisitaldi batean. Identitatearen autoafirmaziora heltzen da, beraz, hirian protagonista.

Lekunberri-Aranazko baserriko identitatean familiak eta kuadrilak betetzen zuten funtzioa ordezkatuta ageri da Londresen; Sean, Sidney, Marck, Ike eta Bazterrek osatzen duten “familia” da protagonistaren identifikazio-taldea, heteronormatik kanpo osatutako “familia”: lagunek, maitaleek, bikotekideek osatutako jende-taldea, hiriko ghettoan (*The Crazy Pennis* eta gay giroko beste tabernetan) trinkotzen dena eta identitate kolektibo berri bati, erresistentziako gay identitate bati bidea ematen diona:

“la *identidad para la resistencia*, conduce a la formación de *comunidades* o *comunidades*, en la formulación de Etzioni. Puede que éste sea el tipo más importante de construcción de la identidad en nuestra sociedad. Construye formas de resistencia colectiva contra la opresión, de otro modo insoportable, por lo común atendiendo a identidades que, aparentemente, estuvieron bien definidas por la historia, la geografía o la biología, facilitando así que se expresen como esencia las fronteras de la resistencia. Por ejemplo, el nacionalismo basado en la etnicidad, con Scheff propone, “surge con frecuencia de un sentimiento de alienación, por una parte, y resentimiento contra la exclusión injusta, ya sea política, económica o social”. El fundamentalismo religioso, las comunidades territoriales, la autoafirmación nacionalista o incluso el orgullo de la autodenigración, al invertir los términos del discurso opresivo (como la cultura queer [homosexual] de algunas tendencias del movimiento gay) son todas expresiones de lo que denomino *la exclusión de los excluidos por parte de los excluidos*. Es decir, la construcción de una identidad defensiva en los términos de las instituciones/ideologías dominantes, invirtiendo el juicio de valor mientras que se refuerza la frontera”.¹²

Hala gogorazten dio Ikek Marcki Bazterren hiletan: “Zuk ere amestu zenituen bikote modu berriak, sexu modu berriak, bizimodu berriak, gayak bai gayak, saiatzeko nahia. Galdetu Seani edo Sydneyri. Ez dute bizi nahi heterosexual arruntak bizi diren moduan. Ez dute bikote bakarra nahi, ez dute familia arrunt bat egin nahi. Gu gara familia.” (227) Sare sozial ez-instituzionalizatu horretan eratzen da, beraz, erresistentziazko identitatea, Bazterren gay identitatea, eta horrek berak darama, autoafirmazioa egiteaz harantzago, identitate nazionalari

uko egitera: “Jada ez naiz euskalduna”, nahiz berehala zalantza pizten zaion: “ala bai?” (215).

Naziotasunaren ukoak eta ondorengo zalantzak, beraz, eleberriaren muinean dagoen galderara garamatzate: posible al da identitate hegemoniko bati ihes egitea, eta hura gabe bizitzea, identitate indibidualak, aldakorrak bereganatzea? Teoria postmodernistek baiezkoa erantzungo lukete. Modernitate ostean identitateak aukerakoak direla, aldakorrak, ez-egonkorak, indibidualak... Giandomenico Amendola-ren hitzetan esanda: “En el contexto post-moderno, es necesario que las identidades se puedan crear, transformar y adquirir con total rapidez. La identidad lleva ya consigo el factor de la temporalidad. Hace falta poder cambiar incesantemente de identidad.”¹³ Hein batean, Olasagarreren nobelak hori berretsiko luke: Londres garaikidean posible dirudi talde-nortasunak naziotasunaren arabera bainoago, ezaugarri etniko edo biologikoez bainoago lotura arinagoz osatuak izatea (tribu urbanoak, leather-ak, kasurako). Baina asmo horiek, neurri batean behintzat, porrot egiten dute eleberrian, gure ustean, eta hainbat arrasto dira horren lekuko.

Batetik, Bazterrek berak zalantzak agertzen ditu gaixoaldiak jota, heriotzaren ertzean dela, haurtzaroaren eta sorterriarekin akordatzen denean: “nire herriaz akordatzen naiz” (181), nahiz berehala nostalgiari zirrikituak ixten dizkion, herrian “absentziak baino ez” dituela esanaz. Bestetik, Bazterrek eta bere Londresko lagunek eratutako “familiaren” eta bizimoduaren ezintasunak eta gabeziak ere agerrarazten dira eleberriaren amaiera aldera, Marck-ek beren familia-egitasmoarekiko zalantzak agertzen dituenen: “Marckek isildu baino ez zuela eduki, akordatu da orain erresumin puntu batekin, bestelako familia bat osatzeko Carlosen asmo haiek gogoan: bere inguruko familia bat.” (217). Eta, azkenik, eta parodikoki

baldin bada ere, Lekunberri-Aranatzeko identitate legitimatzailea, Londresera joandako lagunen bidez, presente dago Londresen ere, are pertsonaia, Bazter, hil ostean ere, haren hiletan hilkutxa ikurrinaz estaltzen dutenean; heriotzaren gainetik, eta bere gogoz kontra bada ere, euskalduntasuna, naziotasuna oraindik ere ezabatu ezin balu bezala. *Ezinezko maletak* izenburuak berak ere iradokitzen du, bestalde, iraganarekiko erabateko apurketa eta identitate zaharra errotik erauztea ezinezko litzatekeela; era berean, nobelaren amaierako maletaren galerak (errauts eta guzti) iradoki lezake, halaber, espazio zehaztugabea, ez-nazionalizatuan geratzen dela azkenik Bazter, ez batean eta ez bestean lekurik eta identitate jakinik topatu gabe.

Hots, naziotasunaren eskemak soilik lortzen du nolabait (gay identitateak ez bezala) hegemonikoa izatea; gay identitatea ez da heltzen egitasmo-identitate (gizartea aldatuko lukeen indar transformatzaile) izatera. Agian horregatik, naziotasunari erabat iskin egin ezin zaionez, haren aurreko irakurketa parodiko eta camp-a da eleberririk proposatzen duen irtenbidea, identitatearen formulazio berri eta osoak bainoago.

Eraiki liteke analogia bat, bestalde, liburu honetan genero identitateaz eta nazio identitateaz osatzen diren diskurtsoen artean. Bazterren hiletara, Londresko beilatokira Ike trabestituta agertzen da, Carlosekin egindako apustu baten ondorioz, eta ekintza horrek berak genero-identitatearen inguruko diskurtsoaren pitzadurak sorrazten ditu. Bazterren lagunen harridura erabatekoa da Ike ikusitakoan: “aho zabalik zeuden Fermin eta Harakin, loreak atontzen ari zen trabesti bati begira. Handiegia sudurra, handiegiak ezpainak, handiegiak sorbaldak, handiegiak oinak eta, batez ere, handiegiak lore sortatik sortara zebiltzan eskuak”. Ikek berak, bestalde, “emakume” hitza erabiltzen du Marcki buruz hitz egiteko, bertakoen

harridurarako. Gizon/emakume kategorien zurruntasunaren birnegoziazioa ere proposatzen da, neurri batean, eleberrian, kategoria horiek biologiak determinatutzat bainoago sozaltzat, performatibotzat aurkeztuz. Halaber, nazio identitateaz ere determinismoa gainditzen duen diskurtsoa egituratzen du eleberriak, eta hein horretan lotzen dira sexu edo generoari buruzko birnegoziaketak eta nazio-tasunari buruzkoak. Eve Kosofsky Sedgwickek azaltzen du:

«In the modern world,” Benedict Anderson writes, “everyone can, should, will ‘have’ a nationality, as he or she ‘has’ a gender”. The implication, I think, is that just as every culture has *some* mechanism –different mechanisms– to constitute what Gayle Rubin refers to as a “sex/gender” system, a way of negotiating back and forth between chromosomal sex and social gender, so every *modern* culture and person must be seen as partaking of what we might (albeit clumsily) call a “habitation/nation system”. The “habitation/nation system” would be the set of discursive and institutional arrangements that mediate between the physical fact that each person inhabits, at a given time, a particular geographical space, and the far more abstract, sometimes even apparently unrelated organization of what has emerged since the late seventeenth century as her/his national identity, as signaled by, for instance, citizenship». ¹⁴

Hots, modernitatearen ezaugarria izan da norberak naziotasun bat (identitate hegemoniko bat, alegia) izatea, genero bat duen era berean. Baina aspaldidanikoa da generoaren eta sexuaren artean feminismoak egindako bereizketa, eta era berean, dio Sedgwick, genero/sexu sistemaz bezala hitz egin genezake agian habitazio/nazio sistemaz, non bien arteko lotura ez den unibokoa, determinatua eta ezarria, ezpada bitartekaritza instituzional eta diskurtsibo batek ezarria. Horixe da, hain zuzen,

elebriaren tesi nagusienetakoa ere, gure ustez: modernitatearen krisiarekin batera, naziotasun bat, identitate hegemoniko bat eta bakarra izatearen derrigortasuna ere desagertzen dela, eta sexu biologikoak generoa ez dakarren bezala (Ike trabestitua gogoan), inon sortua izateak ez dakar berez naziotasun baten derrigortasuna (eta hortik Bazterren baieztapena: “ni ez naiz euskalduna”).

“Terrorista batekin bizi izan gara. Ze morboa!”: campa eta parodia

Carlos Bazterretxea *Bazterren* hiletara trabestituta doa Ike, eta ekintza horrek badu, gure ustez, anekdotatik edo funtzio umoristikotik harantzagoko esanahirik ere eleberrian, halako moldez non elebriaren ahots eta ekintzarik zentralenetakotzat jotzen baitugu Ike-rena, hainbat arrazoirengatik.

Eleberrian zehar, identitatearen inguruko dialektikak bi plano edo klabetan garatzen direla irudi luke; plano errealista edo lehen mailakoan, batetik, eta plano parodikoan, bestetik. Pertsonaiei dagokienez ere, Fermin, Bazter eta Marck-en karakterizazioak, esaterako, ñabartuagoak, asmo errealistagokoak dira Harakin eta Ike-renak baino, zeinak elkarrekiko antagonismoa elikatzen duten zenbaite-tan arketipoetara joz. Hala, nortasunaren eta iraultzaren inguruko tentsio eta gatazkak ere bi mailatan garatzen direla dirudi: klabe errealistan (Marck eta Bazterren artean, esaterako) eta klabe parodikoan (Ike vs Harakin).

Ike “Barbara Cartland putaz trabestiturik” doa Bazterren hiletara, harekin egindako apustu baten ondorioz. “La Escuelita” pubean cabaret antzeko ikuskizuna egiten zuela esaten zaigu nobelan, eta pertsonaia histrioniko, gehiegizko eta sarkastiko gisa karakterizatzen da. Ikek histrionismo eta sarkasmo horretatik hitz egiten du hiletan

zehir, eta posizio horretatik deseraikitzen ditu naziotasunaren, iraultzaren (iraultzen) eta utopien gaineko diskurtso guztiak banan bana. Pertsonaia horren ahotik (besteak beste) eleberriak *camp* posizio kultural eta politiko batetik eraikitzen du utopien eta iraultzaren aurreko diskurtsoa.

Camp kultura gizonezko homosexualen azpikulturaren ezaugarri garantzitsutzat jo izan da Susan Sontagek terminoa erabili zuenez geroztik¹⁵. Histrionismoa, trabestismoa, parodia, gehiegikeria... lituzke ezaugarri kultura horrek, eta posizio horretatik bideratuko luke gay azpikulturak gizarte heteronormatiboarekiko kritika eta kontra-diskurtsoa.

Jose Amicolak jasotzen duenez, camp-a hainbat modutan definitu izan dute kritiko iparramerikarrek: gestualizazioz gainkargatutako errepresentazio-modu gisa, generoaren kuestionamendu bezala, edo genero-kategoriak ikusgarri egiteko modu gisa, besteren artean. Susan Sontag-en hasierako definizioaren arabera, “ez-naturalarekiko, artifizialarekiko eta exajerazioarekiko zaletasuna” da camp-aren ezaugarrietarikoa. Gay kulturaren joera honek helburu hauek lituzke, Amicolaren arabera:

“El camp se origina, así en una percepción gay masculina de las imposiciones que la sociedad coloca sobre la sexualidad (es decir, entonces, determinando el *gender*), poniendo el acento no tanto en la arbitrariedad de este fenómeno, como en el hecho de que ella no está biológicamente determinada, y que, en cambio, representa una construcción social”.¹⁶

Hala, Ikeren sobreaktuazioa, generoaren teatralizazioa generoa bera konstrukzio sozial gisa ikusarazteko ahalegin parodiko gisa ikusi behar da eleberrian, eta baita pertsonaiaren diskurtsoa ere. Eribonen hitzetan, lotsari emandako autoafirmaziozko erantzuna litzateke camp erreakzio histrioniko, exageratua:

“El exhibicionismo y el histrionismo se cuentan, sin duda, y se han contado históricamente entre los gestos más importantes que han permitido desafiar la hegemonía heteronormativa. Y por eso, precisamente, han sido siempre objeto de ataques tan virulentos. La vergüenza presta su energía al exhibicionismo, a la afirmación de sí mismo como teatralidad, esto es, a la afirmación de sí a secas”.¹⁷

Ike, hartara, hegemonia heteronormatibo hori zalan-tzan jartzen duen pertsonaia da, generoaren banaketa binarioa kuestionatuz, eta hura ikusgarriago eginaz; ez bakarrik pertsonaia heterosexualean aurrean, Marck bezalako gay pertsonaiengan ere eragiten baitu ezinegona Ike-ren gehiegikeriak: “Ike, the fucking Ike” (39).

Baina Ikek ez du genero-banaketa zurruna soilik kuestionatzen eta zalantzan jartzen; areago doa bere histrionismoak, sarkasmo teatralizatuak eragiten duen parodia. Nazio-identitatearen inguruan, esaterako, Ikek muturrera darama nongotasunaren inguruko diskurtso postmoderno, zeinaren arabera norberaren nongotasunak ez duen inolako garrantzirik: “Baina berdin da bakoitza nongoa den! Ni, esaterako, mundukoa naiz. Mundu marikoikoa, hori bai!” (103)

Bazterren lagun euskaldunak, Harakin bereziki, aztoratu eta probokatzea lortzen du Ikek bere histrionismoaz, naziotasun eta genero kontzeptuak aldatuz:

“Afaltzera ere joan beharko dugu. Non dabil emakume hau?”

“Zein emakume?” ausartu zen Harakin.

“Nor izanen da ba, espainol maitagarria, Marck!”

Harakini mespretxua hedatu zitzaion barrunbeetan. Emakumea? Espainola? Tipo hau jota zegok, eta ez bada isiltzen bereak adituko ditik”.

Sexu/genero eta habitazio/nazio binomioak bereizten ditu Ike-ren hizketak modu probokatzaillean, bien arteko determinismoak ukatuz eta Harakinen haserrea piztuz. Eta bereziki, identitateaz gain, iraultza armatuaren utopia (bere forma eta helburu anitzekin) da Ikeren sarkasmoaren jomuga:

“Ze esan nahi du gudari?” galdetu zuen Ikek, hari ez zegokion dzangada bakar batez pinta bukatu ondoren.

“ETAkoak izan ginen”.

“Nortzuk, zuek? Carlos ere bai?”

Hantxe bertan txikitzeko gogoak bor-bor egin zion Fermini.

“ETAkoak!” garrasi egin zuen Ikek, espantuka altxatu eta Marck besarkatzen zuela. “Terrorista batekin bizi izan gara. Ze morboa!”

ETAren nazio askapenerako iraultza bezala, sozialismoaren aldekoaz ere futitzen da Ike: “Sozialismoa ere ezarri nahi omen zenuten!” (105). Baina plano politikoaz gain, bestelako esparruetara ere bideratzen du Ikek bere begirada ziniko exageratua, transgresioaren muga apurtu eta heriotzaz barre egiteraino, hiletara trabestituta joan izana hildakoarekin egindako apustu baten ondorio dela azalduz, edo heriotzaren “maitale” izango dela esanaz. Ike-ren zinismoa, bestalde, “bereagoak”, pertsonaiarentzat hurbilagokoak lirakeen iraultzetara eta utopietara ere hedatzen da: iraultza sexualera, kasu.

Amaiera aldera, azkenik, Ikek gaztelaniaz egiten die bertan bildutako euskaldunei, eta hauei espainiarra ote den sortzen zaie zalantza. Ñabardura horrek sartuko lukeen galdera beste bat litzateke, hala: posizio gay camp batetik ari da Ike bere diskurtso parodikoa egiten, ala identitate espainiar hegemonikoago batetik arbuizaten du nazio-identitate euskalduna?

Bazterren hiletak, hala, fartsaren traza hartzen du, eta erraz irudika lezake irakurleak antzezlan bat eleberriaren atal horretan.¹⁸ Ez bakarrik Ike pertsonaiaren dramatizazio eta teatralizazioagatik, ezpada eszenaren osagai askorengatik: heriotza batek elkartuta, erritu baten inguruan biltzen da jende-multzoa eta bertan iristen dute puntu gorena lehenago ere nobelan agertuak diren dialektika nagusiek, alegia, identitatearen eta iraultzaren ingurukoek.

Hileta-erritua da eleberriaren denbora presentea lotzen duen elementua, eta erritua bera, identitatea gauzatzen eta afirmatzen den leku eta denbora den heinean, bihurtzen da gatazka-eremu. Errituak komunitatearekiko eta identitate komunitarioarekiko lotura afirmatzen duten neurrian, gatazka eremu bihurtzen dira, eta tentsio identitarioak plazaratzeko leku. Bazterren hiletan ez dago kristautasunaren ondareko hiletarik, eta, hala, gatazkan sartzen diren bi identitateak gay identitatea eta nazio identitatea dira, bakoitzak bere erritualizazioa eskatzen duela.

Hiletan irudikatzen den bandera-gerrak (bandera eta identitate nazionalen arteko Euskal Herriko borrokak gogoraraziz eta agian parodiatuz), ortzadarraren bandera eta ikurrinaren artekoak, bistaratzen du identitateen arteko gatazka: bere hegemonia berretsi nahi duen nazio-identitatea (ikurrina), eta horri aurre egingo liokeen erresistentzia-identitatea (gay bandera). Bestalde, Ikeren presentziak eta bere hitzaldiak irauli egiten dute “gudari” baten hiletan espero izatekoak ziren elementuak (diskurtso epikoa, iraultzaren aldarria, emakumeek luketen papera etab.) Bestalde, eleberrian leit-motiv bezala maiz agertzen den “Sarriren poema” (identitate hegemoniko nazionala utziezina dela baieztatuko lukeena: “nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak”) ere finean ez da irakurtzen hiletan, eta horren ordez eduki politikorik gabeko poemak irakurtzen dira.

Asmo parodikoa ez da, edonola ere, Ike pertsonaiara edo hiletaren kontakizunera mugatzen nobelan. Hileta ostean ere, Bazterren errautsen ontziari *Euskal Okela* dioen eranskailua ezartzean, halaber, nazio identitatea eta bere ikurrak dagoeneko elementu kitsch gisa ageri da; kasu horretan, gainera, ez da Ike naziotasuna kitsch bezala ikusten duena, Bazterren lagun euskaldunak eurak baizik.

Halaber, iraganeko 80ko hamarkadako Lekunberri-Aranazko aroa narratzerakoan, parodiara eta desmitifikaziora jotzen du eleberriak. Bazter eta lagunak partaide izandako komandoaren eraketa eta ondorengo gertakizunek, esaterako (ekintza armatu bakar bat egin baino lehen desegin baitzuten komandoa), talka bortitza egiten dute ondoren pertsonaiek herrian jasotzen duten ongi-etorriarekin eta onarpen sozialarekin, eta halaber gertakarien inguruan osatzen den diskurtso epikoarekin, haiek *gudari* bezala hartzen baitituzte. Gudariarena da, izan ere, eleberrian desmitifikatzen den beste irudi eta arketipoa, gudari-figura maskulinista eta *arrarena*. Kontatzen diren gertakarien (anti-heroikoak eta erridikuluak gehienak) eta gertakari horien gainean ahots sozialak eraikitzen duen diskurtso epikoaren artean dagoen desfasetik sortzen da kasu horretan parodia. Antzeratsu gertatzen da iraultza sexualaren utopiarekin ere, Ferminen “gora iraultza sexuala” pankartaren pasadizoak iradokitzen duenez. Pertsonaien karakterizazioan ere, bestalde, Harakinenean batez ere, parodiarako asmoa dagoela dirudi, berauen diskurtsoa eta izaera muturrera eramanez.

Parodia eta exagerazioa, bestalde, idazkeraren hainbat elementutan ere suma liteke eleberrian. Lirikotasun muturrekora eramaten dira kontakizunaren hainbat pasarte, sexu-desirarekin lotura dutenak bereziki; Bazterren ahotsean jarritako hau, esaterako: “zakiletik hasirik urtu eta gau bihurtu nintzen, nire baitan uhalde, mendi, haize,

su, baso ertzean begi distirantekin so nituen basahuntz, txindurri, erbi, zuhaitz, haien arnasarekin bat eginik mila atomotan lehertu nintzen oro izanik” (63). Agian ez da behartuegia pentsatzea idazkera horretan ere *camp* idazketa baten arrastoak daudela, estiloaren halako bihurritze parodiko bat dagoela.

Finean, izan ere, eleberri hau *camp* ikuspegi batetik, posizio kultural eta politiko horretatik abertzaletasunaren kultura eta identitate hegemoniko heterosexistari egiten zaion kritikatzat har dezakegu. Identitate legitimatzailearen (naziotasuna) aurrean, bestelako identitateen (gay identitatea) agerpena eta aukera irudikatzen du, eta, hein batean, modernitatean hegemonia lortu duten identitateen gailentasunaren amaiera (erlijioarena lehenbizi, naziotasunarena ondoren); alabaina, identitate berri horiek egiazko proiektu berri izatera ere ez direla heltzen dirudi, eta ezin zaiola erabat ihes egin identitate nazionalaren hegemoniari. Horregatik, *camp* begiradak dakarren parodia, hiperbolea eta fartsarako aukera da proposatzen den irtenbidea; eta begirada horixe da, bereziki eta ia eksklusiboki gay kulturarekin lotutako *camp* diskurtsoa eleberri honen hainbat alderdi blaitzen dituenena. Naziotik ihes egin nahi eta ezinean, naziotasunaren gainean eraikitako diskurtso camp eta parodikoa da *Ezinezko maletak*.

Oharrak

- ¹ Eribon, D. *Reflexiones sobre la cuestión gay*, Anagrama, Bartzelona, 1999: 33.
- ² Ib. 41
- ³ Ildo horretan, *Ezinezko* mailetak-ek badu garaitsu hartan argitaratutako beste hainbat eleberrirekin antzekotasunik. Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia*-k, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*-k, Mikel Hernandez Abaituaren *Ohe bat ozeanoaren erdian*-ek edo, hein txikiagoan, Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua*-k Euskal Herriko gatazka politikoa eta indarkeria giroa atzean utzi nahian Euskal Herritik urrun joandako pertsonaiak dituzte protagonista. Bi aro historiko eta espazioren kontrajarpena da eleberriz guztietan ardatz argumentala.
- ⁴ Eribon, op cit.: 35
- ⁵ Itxaro Bordaren *Jalgi hadi plazara* (Susa 2007) eleberrian, Amaia Ezpeldoik Lapurditik Bilbora egiten du, eta tetralogian estreinakoz bertan bere lesbianotasuna aldarrikatzen. Autoafirmazio horren aurretik, baina, ideologia abertzalea atzean utzi du Ezpeldoik; ez, baina, bere euskalduntasuna (hizkuntzaren periferikotasun eta mugakotasunean oinarritzen dena). Horregatik, Euskal Herri barnean, baina Bilbo globalizatu eta “desnazionalizatu” (hortik Guggenheim eta Puppy txakurrari egindako etengabeko aipamenak) aldarrikatzen du Ezpeldoik bere izate lesbitarra; euskal hiri batean, baina euskal nazio politikoaren konnotazioetatik kanpo, nolabait.
- ⁶ Olasagarre, J. *Puskak biziz*, Susa, Zarautz, 2000: 68
- ⁷ Op. cit.: 62
- ⁸ Castells, M. *La era de la información: economía sociedad y cultura. El poder de la identidad*, Alianza, Madril, 2000: 28-29.
- ⁹ Balibar, E. *Violencias, identidades y civilidad: para una cultura política global*, Gedisa, Bartzelona, 2005: 70.
- ¹⁰ Ib.: 70-71.
- ¹¹ Ib.: 73.
- ¹² Castells, op cit.: 32.
- ¹³ Amendola, G. *La ciudad postmoderna*, Celeste 2000.

- 14 Kosofsky Sedgwick, E. "Nationalisms and sexualities in the Age of Wilde", in Parker et al. (arg.) *Nationalisms and sexualities*, Routledge, London, 1992: 239.
- 15 Nolanahi ere, ez dirudi hiperfeminitate parodiko-politikoak soilik gay-ekin lotzea zuzenegia denik, berriki Itziar Zigaren *Devenir perra* (Melusina 2009) saioak gogorarazi zigun bezala.
- 16 Amícola, J. Camp y posvanguardia: manifestaciones culturales de un siglo fenecido, Paidós, Bartzelona, 2000: 53.
- 17 Eribon, op. cit.: 150.
- 18 Gogoratzekoa da egileak argitaratua duela *Hegazti errariak* (1996) antzezlanak, eta bere aurreko poema-liburuek ere bazutela antzerki-obra baten trazarik. Bestalde, Olasagarreren bigarren eleberriak ere (*T. Tragediaren poza*, 2008) tragedia klasikoaren elementuak bereganatzen ditu, haiek berrirakurritu eta parodiatuz. Ez da, beraz, arrotza, antzerkiaren mintzaira egilearen literatur lanetan, teatro generokoak ez badira ere.

Nitasunaren idazketak.
Partikularretik unibertsalera

Ikuspuntu berezia ala unibertsala¹

Monique Wittig

Hasi aurretik erran behar da “idazkera femeninorik” ez dela eta huts latza dela esan-molde horren erabiltzea eta hedatzea: zer da “idazkera femeninoaren” “femenino” hori? Hor dago beraz emakumearentzat. Praktika bat mito batekin nahasten da halaz, emaztearen mitoarekin. “Emaztea” ezin da idazkerarekin junta, “emakumea” asmatuzko formazio bat delako eta ez errealitate konkretu bat, borroka goratsuz konkistatu eta zapi berraurkitu baten antzera etsaiak orain altxaturiko burdin gorritzko marka bat baita. “Idazkera femeninoa” emazteen menperatzearen garapen politiko bortitzaren metafora naturalizatzailea da eta “feminitateak” gaiaren azpian aitzinatzen den egitura hantzen du halatan: ezberdintasuna, berezitasuna, gorputza, eme/natura. Hurreratzean, “idazkerak”, “idazkera femeninoaren” metaforak irentsi eta ondorioz lan eta bidean dagoen ekoizpen baten moldean agertzea falta dauka, ezen idazkera eta feminitatea biak uztartzen dira (“emaztearen”) produkzio biologiko partikular baten erakusteko, (“emazteari”) naturala zaion sekrezio bat.

Halaz beraz “idazkera femeninoak” frogatzen du emazteak ez direla historiaren partaide eta idazkera ez dela produkzio material bat. Filosofoen eta zientzia humanoen sailkatzeko bi ardatz handi diren sexuen kategoriak zalantzan jartzeko oso ausarta den olde politiko baten kirten itzuliak dira ezberdintasuna, idazkera femeninoa, femi-

nitate (berria). Ardura gertatzen denez, zerbait berri agertzean, berehala interpretatua eta bere kontrarioaz jantzia dator. Idazkera femeninoa garbiketa-arte eta kozinaren pare doa. Horrelako oharrik ez dagokio Djuna Barnesi.

II

Generoa: sexuen arteko etsaigo politikoaren seinale linguistikoa da. Generoa hemen singularrean erabilia da, ezen ez dira bi genero, baizik eta bat: femeninoa, “maskulinoa” genero bat ez denez. Maskulinoa ez da maskulinoa, baina orokorra. Horrek dago orokorra eta femeninoa daukala, femeninoaren marka. Nathalie Sarrauteri erranarazten dio ez duela femeninorik baliatzen ahal idazten duena orokortu (eta ez berezitu) nahi duen kasuetan. Eta nolaz materia konkretu (kontzeptuz, hitzez existiarazten duena) batetik ebakitzea daukan obraren desafioa, femeninoaren erabilpena ardura ezinezkoa zaio, haren presentzia soilak daraman lanaren helburua desnaturatzen duelako, a priori (genero) femininoa/sexua/ naturaren analogia dela kausa. Bakarrik konkretua (sexua hizkuntzan) da orokorra. Djuna Barnes esperientzia eramaten saiatzen da eta lortzen du femeninoa unibertsalizatzeko erronka (Proustek bezala ez du ezberdintasunik egiten pertsonaia femeninoen zein maskulinoen tratamenduan) eta genero horri “ohako usaina”² kentzen dio. Horrela ekinez generoak ezeztatzen ditu, zaharkituak bilakaraziz. Hurrengo bide-aldia hauek erabat ezabatzea datekeelarik. Ikuspuntua lesbiarra da.

III

Hemeretzigarren mendeko diskurtsoen erranahiek arras bete dute, laxamenduraino, gure garaien errealitate

testuala. Orduan, susmoaren genioa etorri da mundura³. “Gizonak” hain atzera egin du non ez den diskurtsoaren sujet gisa ere ezagutzen. Norberak eska dezake zein den subjektua? Zentzuaren galdera zalantzan jartzen segitzen duen deboila orokorrean, sujetaren osaketa saiakerak elkar gudukatzen diren literaturaren (borroka) zelai berezian, minoritario baten sartzeko lekua bada. Baitakigu Proustez geroztik, ikerketa literarioa sujeta eguneratzeko esperientzia pribilegiatua dela. Ikerketa hori azkenerainoko praktika subjektiboa da, sujetaren pratika ezagutzailea. Prousten ondotik, sujeta ez da gehiago sekula berdina izan, Bilaketaren iraupen guztian egin baitzuen “homosexuaz”, unibertsalizatzeko sailka-ardatzaren abiapuntua. Sujet minoritarioa ez da autozentratua, hala nola den logozentrikoa. Haren espazioko hedapena Pascalen borobilaren antzera agertzen ahal liteke, zentroa denetan duela eta zirkunferentziarik nehon ez. Sujet minoritarioa zentro frankotan barrea daiteke, ez-zentratua da derrigorrez, azentratua. Horrek esplikatzan du Djuna Barnesen testuaren hurbilketa angelua, testuak alabaina hausketaz eragiten du, irakurtzen denean begi-izkineko perzepzioaren pareko efektua sortzen duen ezlekutze etengabe bat delako. Hitzez hitz, Djuna Barnesek bere pertsonaia bakoitzarentzat azpimarraturiko arrotasun horren marka dakar idazkiak.

IV

Idazle minoritario bakoitza (hala izatearen kontzientzia duena) literaturan ezkelki sartzen da, horrela erran baldin badezaket. Bere perspektibaz aldatua eta saihetsetik agertzen zaizkio garaikideak, literaturazaleak axolatzen dituen arazo handiak. Formarekiko problemek zorutzen dute, baina “izen gordea deitzen duenak”, “izena ahoska-

tzen ausartzen ez denak”, sekula idatzia ez izanagatik leku guztietan aurkitzen duenak bihotzean eta gorputzean zirikatzen du. Homosexualitatearen tematika dakarren testu baten idaztea pario bat da, une oroz gaiaren elementu formalak zentzua gainfinka dezan arriskatzen baitu, zentzu osoa bereganatuz, obra literario bat sortzea xede duen autorearen nahikundearen aurka. Horrelako gaia garraiatzen duen idazkiak beraz zatia osotasunaren ordezt hartua ikusten du, testuaren elementu bat testu osotzat eta liburua ikur, manifestu bilakatua. Hori gertatzen denean, testuak ez du gehiago literatura alorrean eragiten, deskontsideratutako gauza bat da, orduan antzeko testuekiko harremana ukatzen zaiolako. Gai sozialarekiko testua bihurtzen da eta arazo sozial batez argitzen gaitu. Testu bati hori agitzen zaionean, kokatzen den errealitate testualaren aldatzea den bere lehen helburutik desbideratua da. Funtsean, gaiarengatik desjabetua da, ez dauka sartzerik gehiago, baztertua da (ardura soilik isildua, argitalpena agortzeaz), ez dezake gehiago beste testu zahar edo garai-kideekiko eragin. Homosexualak baino ez ditu interesatzen. Sinbolo gisa edo talde politiko baten esku, testuak bere polisemia galtzen du, zentzu bakunekoa baizik ez dela. Zentzu galketak eta errealitate testualaren mailako lotura eskasak tratatuko du bete dezakeen operazio politiko bakarretik: gorputzari datxekiona literaturaren bidez denboraren oihal testualean sartzea. Horregatik menturaz Djuna Barnes, lesbianek beraien idazletzat har eta halaz bere obra neurri bakar batera laburbil dezaten lotsa da. Dena dela, Djuna Barnes lehenik masiboki lesbianek baldin badute irakurtzen, ez dugu desjabetu eta gure minoritatera tiriari behar. Ez da berari zerbitzu egitea, are gutxiago geronen zerbitzatzea. Barnesen lanak, eta beretzat, eta guretzat, hobekien opera dezakeen eremua literatura baita.

V

Agertze moduaz eta errealitate literarioan duten kokapenaz aldi berean garrantzi estrategiko handiena duten testuak badira. Hala da Barnesen obra guztiarentzat, ikuspegi horretarik testu bakunaren moldean funtzionatzen duelako, ezen Ryder, Ladies Almanack, Spillway, Nightwooden artean aldaerak eta juntaerak baitira. Bakuna da ere Barnesen testua, bere erako lehen delako eta bera baino lehen ezer ez zegoen lekuan zarta egiten baitu. Halatan, behar du hitzez hitz bere ingurugiro propioa sortu, lan eginez, deusekin obratuz guztiaren aurka. Idazle minoritario batek izkiriatu testua eraginkorra da ikusmolde minoritarioa unibertsal bihurtaraztea lortzen duenean. *Denbora galduaren bila* frantses literaturako monumentu bat da, liburuaren gaia homosexualitatea den arren. Barnesen lana obra literario garrantzitsua da, bere tematika nagusia lesbianismoa izanagatik. Batetik, bi idazle horien obrek, lan garrantzitsu bakoitzari dagokion legez beren denborako errealitate testuala aldatu dute. Baina minoritarioak direnez, testuak beraien taldearen sailkatze angelua aldatzeaz kargatuak dira (eta egiten dute). Izatearekiko baieztapenaz baizik ez bada ere: hauen aurretik zenbat homosexual edo lesbiana literatura orokorraren gaitzat hartu ote dira? Zer dago Sapho eta Barnesen Ladies Almanack-en artean? Ezer ez.

VI

Angelu minoritarioaren arabera, Ladies Almanack-en erreferentzia hartzen duen Djuna Barnesen kontestu bakarra Proust da. Djuna Barnes bera da gure Proust (eta ez Gertrude Stein). Tratamendu mota ezberdina barreatu da hargatik Prousten eta Barnesen obrekiko: bata,

Proustena, klasiko bihurtzeraino gero eta garaileago doa, bestea, Barnesena, zimiztaka agertzen eta desagertzen da. Barnesen lana gaizki ezagutua da, ezezaguna Frantzian, baina ere Estatu Batuetan. Erran dezakegu Barnes ordea estrategikoki Proust baino garrantzitsuagoa dela. Eta halaz etengabe desagertzeaz mehatxatua. Sapho ere desagertu zen. Platon, ez. Ongi dakusagu zein den lehia eta “izen ezkutua” zein, Djuna Barnesek berak gorrotatzen duen izena. Sodoma indartsua da eta betikoa zioen Colettek, Gomorriarik ez da. Ladies Almanack, Nighwood, Cassation eta Eri Handia-ko Gomorriak Coletten erranak handizki gezurreztatzen ditu, idatzia dena delako. “Hegatseko sumurra gora ezazu, zurgin/ hara etxean sartzen dela/ lehiakide arrotzen artean gailentzen den aeda lesbiana”⁴. Aeda horrek orokorki badu gaitzeko borroka eramateko, hitzez hitz eta oinez oin bere kontestua sortu behar duelako, agertu bezain laster, desagerrarazteko kemenaldi guztiak biltzen dituen mundu batean. Borroka garratza da bi frentetan ematen delako: historia literarioaren unean eragiten duten elementuekin formaren alorrean eta neurri kontzeptualean, pentsamendu straight-aren argi dago perpausaren aurka.

VII

Isiltasunaren gerizan baizik ez gauden mundu batean beraz behar dugu, egiazkoan errealitate sozialean eta irudizkoan liburuetan, behar dugu beraz, gogoko izan ala ez, guhaur garena osatu, nehondik bezala ateratu, gure bizitzetan berean geronen leiendak izan, bihurtu guhaur haragizko izaki, liburuetakako karaktereak edo irudi pintatuak bezain abstraktu. Horregatik behar dugu jada modaz kanpo diren heroien garaian, heroikoak bilakatu errealitatean, epikoak liburuetan. Hizkuntzaren erabilpenen

zentzua baztertzeko bultzada erraldoia jasaten den denbora honetan, behar dugu zentzu-alde ekin eta sarkasmoaz eta ironiaz edonora tiriatzen duena agerian utzi. Spillway-en neska oso gazte batek, Katyak seduzitzen duen Andrearen eszenan hasieratik emaniko ikuspuntuan, ikus-angeluan zehar irakurlearentzat eskuragarri diren sarkasmoaren eta ironiaren maisua da Djuna Barnes. Hura “emazteek entzuten dute”. Baina bere ahizpari “gizonek begiratzen diote” (higitzen). Eta halatan “arras bestela” mugitzera zinpurutzen da. Bere denbora zigotatzen pasatzen du, hankak airean, mokanesak xehakatzen”. Eta “zergatik hori guztia egiten zuen” galdegin zion Katyak. Atx, hauxe galdera ona: ezen bai, zergatik hori guztia egiten dute heroiek liburuetan eta heroiek errealitatean? Zergatik gizonarena dagite baita ere zergatik emaztearena egiten dute? Eta zergatik oroz bat nehor ez da ohartzen emaztearena egitea, abere ongi hezi baten antzera, aitzinetik arreglaturiko keinutza bati (garaien arabera ezberdina, ikus horrekiko Moydiaren keinutzak), kodigo bati, gauza bakar bat errepikatzen duen keinu-hizkuntza bati bere buruaren libratzea dela. Bai, zergatik?

VIII

Derragun *letra* errana izendatzen dugunarentzat eta zentzua errangaiarentzat (zeinua letraren eta zentzuaren uztarketa delarik). Letraz eta zentzuaz mintzatzean, errana eta errangaiaren ordeztu, keinuaren hiztegiaren erreferentearen sartzea ekiditen da (ezen erranak eta errangaiak errealitate erreferatuarekiko zeinua azaltzen dute, eta zentzuak zeinua deskribitzen du hizkuntzarekiko harremanetan bakarrik). Hizkuntzan, zeinua soilik abstraktua da. Erreferentea ez da berdina hizkuntzaren antzezleen arabera. Aldi

berean hizkuntzaren erabilpena bermatzen duen prozesu abstraktua eta konkretua da idazkera. Ikerketa literario batean (metonimiaz letra eta zentzua baliatzen baldin baditugu zeinuak baino zabalagoak diren unitateentzat) oreka gertatzen ahal da letra eta zentzuaren artean. Alderantziz zentzuaren baztertze bat letraren faborez (bilakuntza literario “hutsa”) edo lehenik eta behin zentzu ekoizpena aurki ditzakegu. Bilakuntza literario “hutsaren” kasuan ere, Barthesek azpimarratzen zuenez, zentzu zenbaiten gain-determinatzea hain handia izan daiteke non letra, zentzu eta ekoizleaz haratago, errangaia erran bihurtzen den. Forma bilaketa batean sartua delarik, idazle minoritarioa mehatxatzen du zentzuak: norman dauden irakurleentzat, bere obrako gai soil bat dena, forma elementu bat, zentzu oso gisa bermatzen da. Bai eta halaber, letra/zentzu, errana/ errangai kontrastek hizkuntzaren agerpen anatomiko batean baino ez dute arrazoirik. Hizkuntzaren praktikan letrak eta zentzuak ez dute bereiz eragiten. Eta enetzat idazle praktika bat, edozein unetan letra eta zentzua ekinaraztean datza, ezen letraren antzera, zentzua galtzen baita. Etengabe.

IX

Idazle batentzat hizkuntza ekai berezia da (musikariena edo tintalarienarekin erkatuz) forma aurkitzeko eta artea egiteko edozein gauzatarako erabiltzen delako, nornahik edonoiz baliatzen du, baliatzen da mintzatzeko eta komunikatzeko. Ekai berezia da, zentzua argiratzen eta eragiletzen duen baliabidea, tresna, lekua baita. Baina zentzuak bistatik kentzen du hizkuntza. Eta baiki hizkuntza hor dago beti Poe-ren gutun ebatsiaren pare, baina arras ikus ezin. Zentzua baizik ez baita ikusten, entzuten. Zen-

tzua ez al da hizkuntza? Bai hizkuntza da baina bere molde ikusgai eta materialean hizkuntza forma da, hizkuntza letra da. Zentzua aldiz ez da ikusgai eta halaz, hizkuntzatik at azaltzen da (zenbaitetan nahasten da erreferentearekin “edukiaz” ari garenean). Funtsean zentzua hizkuntzak da-txika, baina ez da ageri, haren abstrakzioa delako. Bitxia da beraz hizkuntzaren erabilpen arruntean hura baino ez entzutea eta ikustea. Hizkuntzaren erabilpena, zentzuaren ekoizpeneko edozein momentutan forma desagertzen doa-kion ariketa oso abstraktua da. Eiki, hizkuntza formatzen denean bere zentzu propioan galtzen da. Abstraktuki be-rragertzen ahal da, bikoiztuz, zentzu figuratiboa formatuz. Idazleen lana da beraz letrari interesatzea, konkretuari, hizkuntzak agerian uzten duenari, bere forma materialari. Hizkuntza ekaitzat hartu denetik, hitzez hitz landua izan da idazleen partetik. Letraren hitzen arrasean emaniko lan horrek hitzak beraien joeraz berrekinarazten ditu eta zen-tzuari bere zentzu osoa ematen dio: praktikan eta kasurik hoberenean zentzua baino lan horrek polisemia bat ager-tzea baimentzen du. Djuna Barnesek, *Pasionean*, hitzez hitz lan egin eta gorputz gogor baina irristakorra sortu du, gordina eta sofistikatua, ihes doazkigun zentzu ugariz aberats.

Jatorrizko testua: Monique Wittig, 1982.

Euskaralako itzulpena: Itxaro Borda

Monique Wittig (1935-2003) Medicis saria eskuratu zuen *Opoponax* nobelaren eta literatura aldetik sailka ezina den *Le Corps Lesbien* eleberri izugarriaren egilea da. Entsaioak eta antzerkiak ere izkiriatu ditu. MLF mugimenduaren sortzailetarik bat zen eta soldadu ezezagunaren

emazteari, Arc de Triomphe-aren maldan, 1970ko agor-
rrilaren 26an lore sorta bat pausatu zion taldekidea zen.
Ameriketara joan eta besteak beste, Tucson Arizonako
Women's Studies saileko irakasle zen, 2003ko urtarrilaren
3an zendu arte. Bere azterketa eta gogoeta pindartsuak
queer teoriaren bezain postfeministen lanen oinarrian daude
beti, hala nola Theresa De Lauretis, Judith Butler, Gloria
Anzaldúa edo Eve Kosofsky Sedgwick-en liburuetan.
Frantzia gutxiago ezagutua da *lesbianak ez dira emaku-
meak* izkiriatu zuena, baina Marie Hélène Bourcier Lilleko
unibertsitateko irakaslea haren hatzetarik dabil, halaber
Beatriz Preciado ikerlea.

Oharrak

- ¹ Djuna Barnesen *La Passion* ipuin bildumaren aitzin-solasa, Flammarion, Paris 1982. Ingelesezko argitalpena: Wittig, M. *The Straight Mind And other essays*, Beacon Press, Boston, 1992 (i.o.)
- ² Baudelairek errana, Marceline Desbordes Valmoretz
- ³ Nathalie Sarraute, *Susmoaren Garaia*, Les temps Modernes, 1950.
- ⁴ Sapho, IX. liburua.

Gay nauzu, hamaika urte geroago

Iñigo Lamarca Iturbe

– Kaixo, Iker dut izena, 17 urte ditut eta baserri batean bizi naiz.

Gehituk antolatutako ekitaldi batean nengoen eta irribarre lotsati bezain goxo batekin hurbildu zitzaidan Iker. 1999an idatzi nuen *Gay nauzuk* zortzi urte bete zituen eta sortu zituen ondorioen oihartzuna ez zegoen jada nire baitan.

– Esan nahi dizut asko gustatu zaidala zure liburua eta oso lagungarria izan dela niretzat homosexualitatea libreki eta bakean bizitzeko. Amak arrazoi zuen.

Ikerrek bere gurasoekin hitz egitea erabaki zuen. Sexu grina piztu zitzaionean, grina hori mutilenganakoa zela konturatu zen eta sustoa hartu zuen hasiera batean, gizarte arau eta balioetan oraindik oso errotuta dirauelako sexuak eta amodioak abizen bakarra izan dezakeela: heterosexuala. Gurasoekin harreman ona zeukan eta hasiera bateko beldurrak eta zalantzak uxatu ondoren haiekin hitz egitea erabaki zuen. Gurasoak ez ziren haserretu eta ez zioten inolako eszenarik muntatu (alajaina, nola aldatu diren gauzak denbora gutxian- esan nion neure buruari). Aitzitik, jarrera guztiz positiboa eta apoioa eskaini zioten. Eta amak erantsi zion nire liburua irakurri zuela eta semeari biziki aholkatu zion.

Joxerra Gartzia Albedaniaren “Zerberri” bildumarako nire bizipenen testigantza islatuko zuen liburu bat idaztea proposatu zidanean zalantza handiak izan nituen, baina azkenean argudio kontrajarrien balantza idaztearen alde alboratu zen harri-jasotzaileek altxatzen dituzten harriek baino pisu handiagoa duen arrazoi bati esker. Nire nerabezaroa eta gaztetako lehenengo urteak gogorrak izan ziren nire homosexualitatea onartzeko oztopoek eta gizartean nonahi zegoen homofobiak espetxe ilun eta ez-kutu batean giltzaperatu baitzituzten nire sexualitatea eta maitatzeko gaitasuna. Zorionez, lortu nuen zulo horretatik ateratzea, baina horrekin ez nuen nahikoa. Sekulako zentzugabekeriak eta injustiziaz pairatu nuen egoera hori salatzen beharra sentitzen nuen eta, horrez gain, aurrerantzean horrelakorik inork jasan ez zezan gizarte eta lege arauak aldatzeko ahaleginak egin behar nituela agindu nion neure buruari. Inpultsu horiek eragin zuten, hain zuzen ere, Gehitu elkartean egin nuen lana. Era berean, baita Joxerraren eskaintzari baiezkua ematea ere, barne erresistentziak ezereztuz. Nire bizitzaren alderdi oso inportante bat lur azpian egon zen urtetan zehar hilarri baten pean, eta izugarria eta bidegabea iruditzen zitzaidan inor, bereziki nerabeak, horrela egotea. Nire maitatzeko gaitasuna zanpatu zuen harria altxatzea ez zen nahikoa; harri hori eta antzeko beste guztiak txikitu egin behar ziren. Horretarako, harri-jasotzailea izateko gaitasunik izan ezean luma erabiltzea erabaki nuen.

Ikerrek, zorionez, ez zuen hilarririk eduki gainean, eta nik egindako gogoetek, hartaz, ez zuten burdinaga edo palankaren papera egiteko beharrik izan. Pozez egiaztatu nuen Ikerren homosexualitateak ezagutu zituen gizarte baldintzak oso bestelakoak izan direla nik eta beste hainbatek jasandakoekin alderatuz gero.

* * * * *

Andresek Donostiatik ihes egin behar izan zuen hirurogeigarren hamarkadan. Francok gorroto bizia zion hainbat gizatalderi, eta homosexualen aurka zuen ezinikusiak dimentsio biblikoa zuela esan daiteke, hain zen erraldoia. Diktadore guztiek obsesio arraro bat izan ohi dute homosexual eta transexualekin, segur aski hauek normalean, bere buruarekin ondo egonez gero, askatasuna biziki maite izan dutelako; eta haiek, aitzitik, birrindu nahi izaten dutelako askatasuna, gizon-emakume guztiak beraien delirioetara makurraraziz. Jeneral odoltzale anker hark, gainera, nolabaiteko aliantza eginda zeukan Eliza katolikoaren hierarkia ultrakontserbadorearekin, eta bien artean Espainia Mendebaldeko erreserba espiritual izateko burutu zuten planaren ardatz inportanteenetako bat marikoiak ezabaraztea izan zen. Horrenbestez, horiek eraso, zigortu eta espetxeratu egin zituzten, hasieran ley-de-vagos-y-maleantes zeritzon lege baten bitartez eta gero ley-de-peligrosidad-social delakoarekin. Homosexual edo transexual izategatik preso egon zirenen elkarreak egindako kalkulu araber 5.000 bat lagun egon ziren espetxeetan edo zentro berezietan. Horietako bat izan zen Andres, zeina Martuteneko kartzelan eduki zuten giltzaperatuta bost hilabetez. Irten zenean hemendik alde egin zuen.

Andresek ez du *Gay nauzu* irakurri; gaztelaniazko itzulpenaren zain dago, baina konparatu ditugu gure bizi-penak. Nireak aipatu lege higuingarriaren hatzaparretatik kanpo egon ziren, baina Andresek izan zituenekin badi-tuzte zenbait gauza komunean. Horien funtsean honako hau: homofobiari beldurra, eta homofobiak eragindako bazterkeriaz, erasoz, diskriminazioaz, jazarpenez eta irainez altxatutako hormek mugatzen duten ghetto itogarrian preso egotea.

Frankismopean pertsona homosexualek jasan zuten errepresioaz ari garelarik, lesbianen egoeraren berezitasunak

aipatu nahi ditut. Beraien ikustezintasuna erabatekoa zen (gaur egun oraindik ere itzela da) eta horri erantsi behar diogu indarrean zegoen dotrina nazionalkatoliko eta marxistaren arabera emakumeen sexua arraren azpian etzan eta haziaren hartzaile izatera mugatzen zela. Hori horrela, bi emakumeen arteko laguntasun bereziak ez ziren susmargarriak gertatzen, ezta elkarrekin bizi baziren ere. Kartzela baino gogorragoa izan zen, hargatik, lesbianek pairatu zutena: gizarteak ezikusiarrena egitearen ondorioz nork bere baitako esparru barruan itxi behar izatea sexu izae-rako amodioa. Horrez gain, lesbiana asko zigor oso gogor baten biktima izan ziren: senideek, buru desoreka larria zutelakoan, hainbat eta hainbat eroetxeetara eramán zituzten.

* * * * *

– Tomas izeneko batek deitu du zutaz galdezka. Nor da?

– Nor esan duzu, ama...Tomas?

– Bai, Tomas. Nor da... lankide berri bat?

– A, bai, ez nintzen bere izenaz gogoratzen, atzo hasi zen lanean. Informatikoak baja hartu du eta bere orde z sartu da. Premiazko lan bat nuen berarentzat eta horregatik deituko zuen.

Amak ez zuen intsistitu. Mikel harri eta zur geratu zela nabaritu zuen eta koartada bat jarri zion eskura. Ez zekien zergatik egin zuen hori. Larrituta sentitu zuen semea eta larritasun hori bereganatu egin zuen, beti egiten zuen bezala, horrela Mikeli babesa eman ez. Baina babesa zeren edo noren aurrean? Ez zekien eta ez zuen jakin nahi.

Mikel seme-alaben artean hirugarrena zen eta argia eta bizkorra zen arren, trebetasun apartak zituelarik harremanetarako eta bizitzaren alor desberdinetan egokiro

jarduteko, mutikoa zenetik biztu zitzaizkion Maria Luisari Mikelenganako ardura harrigarri bat, arrazoigabea, eta babes berezia emateko bihozkada.

Alfontsoekin ez zuen horri buruz inoiz hitz egin. Zer esango zion? Izenik eta izanik gabeko susmo bat zeukala Mikelen gainean? Zertan oinarritzen zuen susmo hori? Azken finean eskolan ondo ibili zen beti, nota onak ekarri zituen, lagunartean ez zuen arazo nabarmenik izan inoiz, irakasleek komentario oso onak egin ohi zituzten ... Zein zen bada, kezkaren iturria edo arrazoa? Maria Luisak ez zuen erantzunik. Egia esan ez zion bere buruari serio inoiz egin galdera hori. Lanbro artean gaia pentsamenduaren azalera irteten zenean beti aurkitzen zuen Maria Luisak burua okupatuta edukitzeko premiazko zeregin bat.

Azken aldian, dena dela, arraro nabaritzen zuen Maria Luisak Mikel. Lehen oso hiztuna zen eta bere bizitzaren berri ematen zuen otordu garaian edo amarekin izaten zituen solasaldietan. Bera baino gazteagoa zen Arrate arrebarekin harreman oso estua zeukala antzematen zuen Maria Luisak eta, ondorioz, ziurtzat ematen zuen bizitzaren xehetasun batzuk konfiantza berezi batez lotutako harreman esparru horren barruan geratzen zirela. Baina, edonola ere, Mikelen bizitzaren ardatzen zer-nolako nagusiak ezagutzen zituelakoan zegoen.

Lanbide Heziketako mekanika ikasketak egin zituen Mikelek Eibarko Eskola Profesionalean, eta bazeramatzan bi urte Eskoriatzako lantegi batean lanean. Hogeitabat lankide ziren, eta laneko gorabeherak ezagunak zitzaizkien Mikelen gurasoei bai eta bere anai-arrebei ere. Semeak arrapaladan kanporatzen zituen hitz guztien artean Maider lankidearen izena maiz errepikatzen zela erreparatu zuen Maria Luisak eta bat-bateko poza sentitu zuen barru-barruan. Hogeitabat urte zeuzkan Mikelek eta ordura arte ez zuen andregairik izan. Ez zen guapo, baina gorputz

gihartsu eta polita zuen bizikleta gainean ordu asko egiten baitzituen; bestetik, begiradari samurtasun izugarria zeron eta irribarrea xarmangarria zen benetan, inor hotz uzten ez duen horietakoa. Erakargarritasun nabarmena zuen, beraz, Mikelek eta hori ez zen Maria Luisaren irudimenaren edo desioaren ameskeria, bere lagunek sarritan aipatzen baitzioten zera hori. Alfontso senarrarekin, alabaina, ezin zuen inoiz semeen edertasunaz hitz egin. Behinola, Oier ilobaren urtemuga ospatzeko egin zuten bazkari ostean musika jarri zuten eta gehienak dantzan zeudela konpainiarik gabe geratu ziren momentu batean Maria Luisa eta Alfontso. Ardoaren eta xanpainaren jarioek Maria Luisa elkarrizketa gai ohizkoen mugak gainditzera bultzatu zuten, eta Mikel eta bere lehengusin Aizpea elkarrekin nola dantzatzen ari ziren begiratuz honela mintzatu zitzaion senarrari: “guapoa da gure Mikel, eta gero eta lerdanago ikusten dut, ez al duzu horrela uste?”. Ez zitzaion gustatu Alfontsoaren erantzuna, baina espero zitekeena zen: “horrela izango da zuk esaten baduzu; emakumeen eta marikoien kontuak dira horiek eta argi dago ni ez naizela ez bata ez bestea” eta ahoan irribarretxo ironiko bat egiten zuelarik besoarekin emaztearen gerria inguratu eta muxu eman zion masailean.

Horrela idatzi zion Mikelek gau hartan ezkutuan idazten zuen egunkariari:

Bergaran, 1999ko martxoaren 19an.

Gaur bazkalorduan ama nirea deskubritzeko zorian egon da. Aurreko batean txat gunean Tomas ezagutu nuen eta gustura egon nintzen berarekin berbetan. Azkenean etxeko telefono zenbakia eman nion, mugikorra izorratuta baitaukat, eta erregutu nion zuhurtasun handiz erabiltzeko etxean nireaz ez dakitelako ezer. Deitu duenean Adrian neukan buruan eta amak Tomasek deitu duela esan didanean ez nintzen berataz

gogoratzen eta zurtz eginda geratu naiz. Amak berak ahalbidetu dit estualdi horretatik ateratzeko irtenbidea. Ez dut ulertzen. Ziur nago jakin-min izugarria duela nire bihotza eta burua nahastuta, birrinduta, zorabiatuta eta malenkonia sakon batean murgilduta dituen zergatia jakiteko baina horretarako aukera on bat sortu zaionean atzera egin du.

Ezin dut gehiago Adrianen istorioarekin. Markatuta utzi nau. Ez dirudi oso zentzuzkoa denik sexu harreman bakar batekin kolgatuta geratzea, baina horrela gertatu da. Duela hilabete gutxi ezagutu nuen Adrian. Ezkutatu egin nizun berarekin izan nuen istorioa izugarritzko beldurra baitiot zurekin ditudan konfidentziak inoren eskuetara, batez ere gurasoenetara, iristeari. Baina nire barrenak gori-goritan daude eta gertatutakoa kanporatu beharra daukat bestela erotu egingo naiz eta.

Egun –eta gau– zoragarria izan zen Bilbon Adrianekin pasatu nuena. Nire zain zegoen Lamiak-era iritsi nintzenean eta bidali zizkidan argazkietan baino lerdinagoa zela iruditu zitzaidan. Argi berezia zabaltzen zuen. Hurbildu nintzaionean irribarre uzkur bat eskaini eta muxu eman zidan. Begirada intentsua zeukan eta gauza asko –eta kontrajarririk– adierazten zituen aldi berean: amodio beharra, mesfidantza, samurtasuna, hostasuna, beldurra, antsietatea, ziurgabetasuna eta bizitzeko grina. Barra-barra aritu ginen berba egiten, Lamiak-en lehenengo, gero izenez akordatzen ez naizen beste batean eta handik txino batera eraman ninduen afaltzera.

Lamiak-en ikusi nuenean bere edertasunak ez baninduen liluratu denborak aurrera egiten zuen heinean gero eta erakargarriagoa iruditzen zitzaidan. Aurrez aurre ginen jatetxean eta bere begi beltzek kanporatzen zuten begirada indartsuak bereganatu egin ninduen. Aurpegi polita zuen eta oso ondo geratzen zitzaion anarkikoki moztuta zeraman bizarra. Berba egiten zuenean ahoa pittin bat txikitu eta

luzatu egiten zitzaion eta bizar beltzak niregana hurbiltzen ari zelako efektua sortzen zuen. Ez dakit, agian nire imajinazioa izango zen.

Hitz jario ederra zuen eta ni liluratuta nengoen bere bizitzako eta laneko kontuak entzuten. Publizitatea ikasi zuen eta agentzia batean ziharduen laguntzaille moduan. Hortik jasotzen zuen soldata urria bizitzeko behar adinekoa osatzeko toki telebista batean ere egiten zuen lan; guztira hamabi orduko laneguna. Zinea eta literatura erruz gus-tatzen zitzaizkion eta elkarren arteko gune zabala aurkitu genuen Paul Auster, Gus Van Sant edo Anjel Lertxudiri buruz berba egiteko.

Ustekabean Adrianek eskua hartu zidan eta laztantzen hasi zen. Ahal nuen disimulu handienarekin ezker-eskuin begiratu nuen ea ezagunik zegoen, batez ere nire gurasoen-gana kontu-kontari joan zitekeenik. Desioa, dena dela, izu-garria zen eta erresistentzia guztiak ezereztu zituen. Gauzak horrela, Adrian mugimendu bat egiten hasi zenean soina aurrerantz eramanez zirrara zoragarri bat sentitu nuen gorputzean eta barru barruko indar batek aurrera bultzatu ninduen. Pasioz betetako muxu luze eta sakona eman genion elkarri. Momentu horretan berdin zitzaidan ze ondorio izan zitzakeen muxu horrek, Adrian besterik ez baitzegoen nire munduan. Muxuak bete zituen minutu haiek ordura arte 20 urteetan zehar bizitutako onenak iruditu zitzaizkidan eta amaitu zirenean Adrian burmuinaren bihotzeraino sartu zela konturatu nintzen.

Sexua mundiala izan zen. Beldur handia nion estreinaldiari eta Adrian horren jakinaren gainean jartzeak ez ninduen batere lasaitu. Baina ardo asko edan nuen afa-rian eta burua ez zegoen nire kezken gaineko hausnarketak egiteko moduan, eta are gutxiago estrategia egokiak lantzeko. Adrianek hartu zuen aurrea eta gure ahoek lotuta zirauten bitartean eztsutsuki eta abilezia liluragarri batekin arropa

kendu zidan. Ohe gainera jaurti ginen biok, besarkatuta eta ahoak banandu gabe. Itzela izan zen hortik aurrerakoa. Pelikula pornoetan ikasitakoa baino ez nekien sexuari buruz baina Pandoraren kutxa bailitzan zabaldu zen adoleszentsia garaian pilatutako sexu grina eta bi ordu luzez jardun genuen Adrian eta biok zoramenez mozkortuta. Larrua jo eta gero Adrianek burua nire bular gainean jarri zuen eta burua lastantzen nion bitartean berba egiten aritu ginen goizeko laurak arte, noizean behin muxu eztsuak ematen genizkiolarik elkarri. Lo pixka bat egitea erabaki genuen baina nik ezin nuen. Eskuineko besoa lepotik pasatu nion Adriani eta ezkerrekoa gerri gainean ezarri, bi gorputzak lotuta geratu zirelarik. Sentsazio izugarri ederra sentitzen nuen azalean eta noizean behin muxutxoak ematen nizkion lepoan. Adrian esnatu bitarterainoko ordu luze haietan behin baino gehiagotan malkoak jauzi ziren bere begietatik, malko gazi-gozoak. Zoriontsua nintzen baina aldi berean angustia itogarri bat sentitzen nuen. Adrian esnatu zenean amodioa egin genuen berriro baina bigarren hau mingotsa gertatu zitzaidan. Bihozkada gero eta sendoago batek esaten zidan Adrianen etxea utzitakoan ez nuela nire printze urdina berriro ikusiko.

Adrianek hogeita hiru urte zituen eta lau urtez bikote harreman intentsu bat bizitu zuen. Nahiz eta bukatutzat emateko erabakia berak hartu zuen, oraindik Xabierretaz kolgatuta zegoen. Hiru hilabete pasatu ziren harez geroztik baina bere bikote ohiaz berba egiten zuenean Adriani nabari zitzaion bere bihotza aztoratu egiten zela erabat.

Telefonoak eman genizkion elkarri. Baina Adrianek ez dit inoiz deitu eta nire deiei ez die erantzuten. Txat gunetik, berriz, desagertu egin da eta nire mezuak bere isiltasun krusdelak irentsi ditu.

Ai, bihozmin ikaragarria daukat, eta ez dakit nola atera zingira honetatik.

– Zer moduz, Tomas?
– Hala-moduz, eta zu?
– Gaizki, oso gaizki, bihotza apurtuta daukat.
– Zer dela eta? Aizu, nahi baduzu gera gaitzke kafetxo bat hartzeko eta horrela, gainera, elkar ezagutuko genuke. Badut gogoia.

– Eskertzen dizut. Ea noiz joaten naizen Donostiara eta geratzen garen. Lur jota nago, Tomas... baina ez dizut txapa sartu nahi.

– Ez arduratu, jakin nahi dut zer gertatzen zaizun. Aizu, barkatu lehengo egunean etxera deitzeagatik. Espero dut eragin txarrik ez izatea. Zurekin hitz egiteko gogoia neukan eta eman zenidan telefonora hots egin nuen.

– Lasai, Tomas. Esan nizun etxean ez dakitela ezer nireari buruz eta ustekabeen harrapatu ninduen zure deiak, baina ez zen arazorik egon. Dena dela, hobe deitzen ez baduzu. Telefono mugikor berria erosi behar dut baina hurrengo hilera arte ez dut dirurik izango. Hala ere, txat bide hau gustatzen zait eta, iruditzen bazaizu, horrela jarraitu dezakegu elkarrekin artean berba egiten.

– Ondo da. Kontaidazu, bada, zer gertatzen zaizun.

– Maitemindu egin naizela, Tomas.

– A, ze ondo...eta, noski, amodioaren gorabeheren zurrumbiloan sartuta zaude.

– Ai, horrela balitz gaitzerdi. Kontua da gau oso zoragarria pasatu genuela elkarrekin eta berataz guztiz kolgatuta geratu ondoren desagertu egin da.

– Nola desagertu?

– Ba ez die nire telefono deiei erantzuten ezta internetez bidalitako mezuei erantzuten ere.

– Putaseme galanta!

– Bai, beno ez dakit... bere arrazoiak izango ditu. Garai txar bat ari zen pasatzen eta agian kableak gurutzatu egin zaizkio eta itxi egin da bere baitan. Ziur nago bere berri izango dudala aurki.

– Ziur zaude ala ziur egoteko beharra daukazu bihotza leher ez dakizun?

–

– Mikel... nahiz eta ez dugun elkar ezagutzen laguntzat zaitut eta estimu handia hartu dizut. Lagundu nahi dizut.

– Eskerrik asko, Tomas... orain utzi egin behar zaitut, ez nago ondo.

– Animo, Mikel, jakin ezazu zure laguna naizela. Muxu handi-handi bat bidaltzen dizut.

– Milesker bihotzez, Tomas. Muxu handi bat zuretzat ere. Laster arte

Negar batean zegoen Mikel, eta ez zuen kontsolamendurik aurkitzen. Adrian obsesio bihurtu zen eta barruan izugarritzko zuloa sentitzen zuen. Ordura arte ez zuen sentsazio latz hura inoiz izan eta jasangaitza gertatzen zitzaion. Bazirudien hondorik gabeko amildegi batek harrapatu zuela eta gero eta abiadura handiagoan erortzen ari zela. Arnasa hartzea kostatu egiten zitzaion, eta angustia eta zorabioaren arteko batura izan zitekeen indar erasotzaile bat burua joka hasi zen. Garrasi ozen bat bota zuen eta haren oihartzunak, boomerang bat bailitzan, zatzada izugarri bat eman zion. Konortea galtzeko zorian zegoela jabetu zen, eta ohean etzan zen negar zotinka, aurpegia malkoz bustita zuela.

– Mikel, zer izan da zarata hori? Ondo al zaude? Mikeeeel – egin zuen deiadar amak.

Tomas arduratuta geratu zen, baina oraingoz ezin zuen gehiagorik egin. Txat gunean ezagutu zuen Mikel hilabete bat zuela eta laguntasun sentimendu oso indartsua sortu zitzaion berarenganako. Argazkiak bidali zizkieten elkarri. Mikel asko gustatu zitzaion, baina

alferrik. Honek argi utzi zion ez zuela aukerarik ikusten elkarrekin txortan egiteko. Tomasek ez zuen ezezkoa espero, alderantziz, itxaropentsu zegoen. Zortzi urteko aldea ez zitzaion iruditzen oztopo izan zitekeenik Mikelek bere erakargarritasuna aintzatesteko. Oso gutxitan jaso zituen ezezkoak eta, edozein modutara, berak askoz kalabaza gehiago eman zituen lehenengo sexu harremana izan zuenetik hamasei urterekin. Eskarmentu nahikoa, beraz, ba-zeukan eta Mikel pasatzen ari zena berak ere nozitu zuen, bai eta gainditu ere. Ziur zegoen Mikelek porrot egindako maiteminak sortzen duen egoera mingotsa atzean uztea lortuko zuela, baina pisuzko oztopo bat zegoela antzematen zuen.

Nahiz eta homosexuala zela asumituta eduki, Mikelek sexuafektibitateari buruzko gorabehera guztiak esparru oso txiki batean kudeatzen zituen. Ez senideekin ezta lagunekin ere ez zuen inoiz argi hitz egin beldurratik. Mikelek txat gunea deskubritu zuenean hor bideratu zituen bere beharrak. Horrela ezagutu zuen Tomas eta beste inorekin ez zuen konfiantza horrekin txateatzen. Esan zitekeen, beraz, homosexuala zela zekien lagun bakarra bera zela, Tomas.

Mikelek bizi zuen egoerak ezin sumatuzko ondorio kaltegarriak eragiten zituen homosexualitatea horrela bizi zutenengan. Tomasek horrelako kasu asko ezagutzen zituen, gay eta lesbianen elkarte bateko laguntza zerbitzuan baitziharduen boluntario gisa asteburuetan. Bazekien Mikelen egoera berberean zeuden homosexualak antsietate arras handia izaten dutela bere sexu eta amodio beharrak bideratzeko edo asetzeko orduan. Bazekien ere, Mikeli gertatzen zitzaion bezala, gay munduan hasi berria denak homosexual oso gutxi ezagutzen dituela hasieran eta horrek pirlpirla hori areagotu egiten duela, zeren eta amodioa eta sexualitatea bideratzeko posibilitateak oso

urriak direla barneratzen baitu egoera horretan dagoenak. Tomasek egiaztatuta zeukan, gainera, Mikelen egoeran zeudenek antsietatea ez ezik egonezina, erretasuna, angustia eta obsesionatzeko joera ere izaten zutela.

Mikel, bada, zulo batean zegoen sartuta, eta zulo horren hormetatik haratago ezin zuen ikusi. Zuloaren barnera Adrianen proiektzio idealizatu bat eraman eta bere aurrean jarri zuen, ondorioz bere sexualitatearen eta maitasunaren ezintasun, mugapen, frustrazio eta gabezia guztiak etengabeki nabarmentzen zirelarik gero eta indar handiagoarekin. Tortura galanta. Tomasek argi ikusten zuen Mikelek zulo horretatik ateratzeko eta aurrera egiteko ikuspegi zabalago bat behar zuela, maitatzeko aukerak ugariak eta anitzak izan zitezkeela eta era libreago batean bizi zitzakeela konturatu behar zuela; azken batean zuloaren mugarriak gainditu eta eremu zabal batera eraman behar zituela maitasunari eta sexualitateari zegozkion desirak, beharrak eta bizipenak.

– Mikel ondo dago –erantzun zion Arratek amari–. Lo kuluxka bat egiten ari zen eta amesgaizto bat izan du, antza. Erdi lo dago oraindik. Egon lasai.

Arratek asko maite zuen bere anaia Mikel. Elkarren arteko urte eta erdiko aldea zeukaten eta harreman oso estua izan zuten txikitatik; umetan maiz jolastu zuten elkarrekin. Koskortu ahala gero eta gauza eta kontu gehiago konpartitu zituzten, bai eta lagunak ere. Baina Mikelek hamalau edo hamabost urte zituenean, Arratek nabaritu zuen bere anaia aldatu egin zela; barnerakoi bihurtu zen eta urrundu egin zen bat-batean arrebarengandik. Ez anaia zaharragoekin harremana hobetu zelako edota lagun minik egin zuelako eskolan, baizik eta izaera aldatu egin zitzaiolako. Bizi ziren etxea handia zen eta bakoitzak bere gela zuen. Han entzerratu ohi zen Mikel eta hamaika ordu ematen zituen irakurtzen edo idazten.

Zer idazten zuen galdetuz gero “nire gauzak” erantzuten zuen. Hemeretzi urte egin zitueneko udan aitaren taile-
rrean aritu zen lanean eta handik jasotako diruarekin
ordenagailu bat erosi zuen. Gehiago itxi zen bere mun-
duaren barruan eta Arratek ez zuen apenas berarekin hitz
egiten. Azaleko elkarrizketak izaten zituzten eta Arrateri
horrek min egiten zion, Mikel ez zuelako ondo ikusten,
baina ez zekien nola lagundu.

Arrate neskatila txit ederra zen. Garaia, liraina eta
beltzarana. Begi beltz erraldoiak eta dirdiratsuak zituen.
Aurpegiaren eta azalaren belztasunagatik ijitoa zirudien
eta aitak behin baino gehiagotan txantxa egiten zuen
Arrate Maria Luisak trapero batekin izandako abentura
baten emaitza ote zen. Aurpegian nakan bat zuen
eskuineko begiaren azpian eta horrek sentsualitate berezi
bat ematen zion. Gainera bere irribarreak bihurrikeria
puntu bat eta samurtasuna uztartzen zituen. Eskolan
mutil heterosexual gehienak lerdea zeriela egoten ziren,
sarritan komentario lizunak eginez.

– Mikel, lasaitu zaitetz, arren. Zure arreba naiz baina
batez ere zure laguna, edo hala izan nahiko nuke behin-
tzat, eta zu laguntzeko prest nago.

– Nebaren oihu urragarria entzun zuenean berehala
joan zen haren gelara. Mikel buruz behera zegoen ohe
gainean eta altxatu egin zen arrebaren aldamenen esertze-
ko. Ezer esan gabe, besarkatu eta burua haren sorbalda
gainean jarri zuen. Besoak estutu egin zituen, arrebari bero-
tasuna eta segurtasuna zurrupatu nahi izango balizkio bezala.

– Ez nago ondo, Arrate baina ez zaitetz kezkatu, be-
netan. Amodio kontuekin nahastuta nabil. Orain indarrik
gabe nago eta ez naiz gai berba egiteko. Beste egun batean
kontatuko dizut zehatz-mehatz zer gertatzen zaidan.
Bakarrik egoteko beharra daukat. Amari esan ondo
nagoela, mesedez.

Larunbat arratsaldea zen eta itoaldi handia sentitzen zuen Mikelek. Bergaran bazuen lagun talde bat eta haiekin geratzeko aukera bazuen. Beharra ere bai, trago batzuk hartuta dantzan eginez ea kanporatzen zuen barruan zeukan bihozmin pisutsua. Baina aldi berean bakarrik egoteko gogoia zuen. Intuizio bati jarraituz ordenagailua piztu zuen.

– Iepa, Tomas

– Kontxo, bizi al zara?

– Hala-hola

– Gehitura noa gutxi barru eta hemen nenbilen ea ligatzen dudan gaur gauerako.

– Zer da Gehitu?

– Homosexualen elkarte bat da, duela urte eta erdi edo sortu zen Donostian eta oso gustura joaten naiz hara. Jende jatorra eta giro ona.

– A ze ondo...

– Homosexualei eta transexualei eta beren lagun eta senideei informazioa eta laguntza emateko zerbitzu bat kudeatzen dugu eta saiatzen naiz larunbat edo igandeetan joaten.

– Eta zer egiten duzue?

– Beste gauza batzuen artean, esan dizudana, behar duenari telefonoz, emailez edo egoitzan bertan informazioa eman eta bere homosexual izaera normaltasunez eta aske bizi dezan lagundu.

– Ba niri ez litzaidake gaizki etorriko laguntza hori.

– Ba nahi duzunean emango dizut behar duzun laguntza...

– Ai, Tomas, gaur, hain zuzen, laguntza beharrean nago. Nire baitatik atera behar dut Adrianen istorioarekin guztiz obsesionatuta nago eta.

– Ba zatoz Donostiara. Afaria izango dugu lagun artean eta gero kopak hartzera joango gara ambienteko lekuetara.

– Ez dakit, fuerte samarra iruditzen zait. Zu oraindik ez zaitut ezagutzen eta, horrela, bat-batean, talde oso bat ezagutzea!

Borroka handia izan zuen Mikelek bere buruarekin eta azkenean alderdi zuhurrenak irabazi zuen. Bergarako lagunekin geratuko zen. Ez zen gai sentitzen Tomasek proposatu zion urrats erraldoi hori egiteko, baina, aldi berean, lokatzetik irteteko pausoz pauso aurrera egiteko beharra ikusten zuen eta, hartaz, bere buruari zin egin zion Tomas aurki ezagutuko zuela bai eta horren Gehituko lagunak ere.

Gustura pasatu zuen, nolana ere, Mikelek Bergarako lagunekin eta goizeko seietan etxeratu zen giltza sarrailan sartzeko denbora piloa behar izan zuelarik. Dantzalekuan Mainer bere lankidearekin egin zuen topo eta luze jardun zuten elkarrekin. Oso ondo moldatzen zen harekin baina inoiz ez zuten aukerarik izan lanetik kanpora egoteko. Gau hartan, berriz, bien gogoak batu egin ziren eta primeran egon ziren hitz egiten eta dantzatzen. Mainerrek umore oso fina zeukan eta barre-algara eragin zion behin baino gehiagotan, batez ere nagusiaren imitapena egiten zuenean. Horren gustura egon ziren ezen laster izango ziren Elgetako festetara elkarrekin joateko geratu baitziren. Astelehenean oraindik ajea zeukan Mikelek baina ondo sentitzen zen. Zein ibilbide egin behar zuen argi ikusten ari zen.

– Kaixo, Tomas, zertan zabilta?

– Sofan etzanda nago irakurtzen eta aldi berean txata zabalik daukat ea larunbatean ezagutu nuen mutil batek kasurik egiten didan.

– Eta zer ari zara irakurtzen, jakin badaiteke?

– *Gay nauzu* izeneko liburu bat. Iñigo Lamarca da egilea eta larunbatean lagun batek gomendatu zidan. Joan den martxoan argitaratu zen eta askotxo zabaldu omen da.

– A uste dut ikusi dudala Lamarca inoiz prentsan edo telebistan. Burusoila da, ezta?

– Bai, horrela da. Gehitun maiz ikusten dut.

– Eta zeri buruz da liburua?

– Mutil koskorra zenetik homosexualitatea nola bizitu zuen kontatzen du eta horri lotuta hainbat hausnarketa egiten ditu. Laburra da eta erraz irakurtzen da. Pasatuko dizut irakurtzen dudanean.

– A, bai, interesgarria dirudi. Ea probetxurik atera diezaiokedan bizitzan aurrera egiteko. Izan al zuen nik Adrianekin izan dudan antzeko istoriorik?

– Beno, orain arte irakurri dudanaren arabera amodio platoniko oso luze bat izan zuen eta aurrera egin ez zuten zenbait zapuztutako amodio istorio ere bai.

– Eta liburu arrakastatsu bat idatzi du? Mmmm, ea ni ere idaztera animatzen naizen; «Adrian, zoaz pikutara» izenburua jarri niezaioke.

– Aizu, Tomas. Datorren larunbatean Elgetara joango gara jaietara. Andoni eta Igor nire lagun minak, Arrate nire arreba eta Maider, nire lankide bat, etorriko dira nirekin. Nahi baduzu arratsaldean etor zaitezke, gu biok elkarrekin egoteko, eta gero guztiok batera Elgetara joango ginateteke. Nire etxean egin dezakezu lo. Ez da arazorik egongo. Donostiako enpresa ordezkarietzako lankide bat zarela esango diet gurasoei, edo hobeto Eskola Profesionaleko ikaskide ohi bat, eta kito.

– Ba... beste plan bat neukan baina Donostiara etortzen ez zarenez zure herrian ezagutu beharko zaitut. Bale, konforme. Horrela Arrate ere ezagutuko dut, erakargarria egiten zait berataz kontatu didazunagatik. Beno, eta zure lagunak guapoak al dira? Agian ligatzeko aukerarik suerta daiteke.

– Ja ja, izugarria zara. Andoni neska batekin ton-teatzen ari da eta Igor...egia esan nik dakidanez ez du inoiz sexuaz edo amodioaz hitz egin. Oso erreserbatua eta herabea da.

Bergaran, 1999ko uztailaren 4ean.

Txundituta nago, shock egoeran. Gutxien espero neza-keena gertatu da. Ziur nago, gainera, berak ere ez zuela espero. Taberna batean geunden alkohol karga handi samarrarekin seiok. Arrate eta Maider oso gustura zebiltzan elkarrekin, oso konexio ona egin zuten hasieratik eta momentu hartan pittin bat aparte zeuden. Ni Igorrekin ari nintzen hizketan eta ez nuen ikusi nola gertatu zen. Tomasek kontatu zidanez, nire arrebak, Itoiz-en “Lau teiltatu” kantu zoragarria jarri zutenean, Maider gerritik heldu zuen eta biak, bata besteari itsatsita, amultsuki dantzatzen hasi ziren. Elkarri oso ezitsu begiratzen zioten eta bat-batean muxu luze batek lotu zituen. Inguruan zeudenak aho zabalik geratu omen ziren baina inork ez zuen ozenki komentariarik egin. Txutxu-mutxuka hasi ziren batzuk, iseka eginez ere bai, eta bat baino gehiago urduri jarri zen. Tomasek ukondokada bat eman zidan eta eszena ikusi nuenean sor eta lor geratu nintzen eta paralisi batek goitik behera harrapatu ninduen. Ezin erreakzionatu egon nintzen minutu amaigabe batzuetan sinesgaitza iruditzen baitzitzaidan ikusten ari nintzena. Baina nire onera itzuli nintzenean sentitu nuena okerragoa izan zer. Arbuioa, gaitzespena, begirada beste norabait zuzentzeko indar kontrolaezina... Nire erreakzioak, bestetik, biziki harritu eta kezkatu ninduen. Nire homosexualitatea onartuta daukat, edo horrela uste dut behintzat, eta orduan... zergatik azaleratu ziren sentimendu horiek? Arrate niregana hurbildu zenean bazihoazela esateko dardarka hasi nintzen eta ezin izan nuen barbarik egin. Irri-barre behartu bat baino ez zitzaidan atera. Nire egoeraz

jabetuta, Tomasek aurea hartu zuen eta “ongi pasa” esan zion Arrateri muxutxo bat emanaz.

– Alde hemendik. Ez zaitut ikusi ere egin nahi, marikoi hori. Zoaz etxetik.

Alfontso bere onetik aterata zegoen. “Ama, aita, zuekin berba egin nahi dut” esan zienean imajinazioak ez zion ematen entzungo zuena posible zela pentsatzera iristeko. Emaztearekin Alex eta Gotzon seme zaharrenen andregaietz hitz egin zuen behin baino gehiagotan, baina Mikelek eta Arratek ez zuten inoiz andregai edo senargai tankerarik zuen lagunik izan eta, beraz, txikien bihotzei zegozkien kontuak ez ziren mintzagai. Ezta sexua ere. Senar-emazteen artekoaz ez bazuten hitz egiten are gutxiago seme-alabenez. Alfontsoz hizpide izaten zuen maiz Gotzonek neskekin zuen arrakasta. Harro zegoen bere semeaz –“bere aitaren seme duina da, bera bezain gizona” esaten zuen– eta sarritan egiten zituen komentarioak lagun artean Gotzon limurtzailearen benetako edo imajinatutako abenturen berri emanaz, zenbat bihotz desegin ote zituen harropuzkeriaz aldarrikatuz. Behin baino gehiagotan, Alfontsoz berak izandako iraganeko edo egungo abentura baten xehetasunak ere entzun behar izaten zituzten haren koadrilako lagunek.

Arratek bazeraman hilabete eta erdi Mainerrekin ateratzen eta oso maiteminduta zegoela sentitzen zuen. Bere sexu orientazioa ez zeukan argi, edo, hobeto esan, sexualki mutilak eta neskak gustatzen zitzaizkion eta, beraz, erabiltzen ziren kategorien arabera bisexualtzat zeukan bere burua baina hitza ez zuen oso gogoko. Sexu desira askoz gehiago sortarazten zitzaion mutilekin baina zenbait neskaren aldamenean sentitzen zuenak sakontasun eta intentsitate handiagoa zuela nabaritzen zuen; kasu horietan sexu desirak ñabardura bereziak hartzen zituen eta barruan

sortzen zen grina izugarria izaten zen. Mainerrekin sentimenduak oso indartsuak izan ziren elkar ezagutu zuten momentu beretik. Hasiera-hasieratik halako kilikadura berezi bat sentitu zuen bizkarrezurrean eta berarekin sortu zen komunikazioa bikaina zela ohartu zen. Sentsazio oso goxoek busti zuten, horrenbestez, bien artean sortu zen burbuila. Lau teilatu artean bi gorputzak elkartu zirenean horiek irakiten zeudela antzeman zuten, batak bestearekin topo egiteko irrikitan. Muxua su horren ondorio naturala izan zen eta, aldi berean, dimentsio berri batean sartzeko atea.

Arratek ez zuen ezkutuan bizi nahi bere maitasun harrimana, eta gertuenak eta maiteenak zituen esparruetan gizarteratzea erabaki zuen. Mikelengana jo zuen aurrenik baina ez zen oso probetxugarria izan elkarrizketa. Itxiegia aurkitu zuen bere baitan kuttuneko neba. Ustekabean harrapatu zuen arrebaren lesbianismoak eta, Adrianengana bihozminaren ondorioz nahasmendu handia bazekarren lehenagotik, Arraterenak deskolokatu egin zuen zeharo. Indarge sentitzen zen. Zentzuz eta maitasunez beteriko hitzekin mintzatu zitzaion arrebari baina ez zen gauza laguntzarik emateko. Lagun minekin ere hitz egin zuen, banan bana. Harridura, goxotasuna eta laguntasuna adierazten zuten hitzak eta jarrerak jaso zituen. Jarraian, gurasoekin eta bere beste bi nebeekin mintzatzea erabaki zuen. Guztiak elkartuta zeuden momentu bat aukeratu zuen hitz egiteko. Aurreikusten zuen ez zela elkarrizketa samurra izango. Homosexualitatea ez zegoen jada ezkutatuta gizartean eta pixkanaka gune publikoetan eta komunikabideetan urrats txiki baina nabarmenak ematen ari zirela egiazta zitekeen. Hala eta guztiz, gai tabua zen oraindik jende gehienarentzat. Bere lagunekin, esaterako, ez zuen inoiz homosexualitateari buruz hitz egin. Irain gisa bai entzun zituela sarritan –eskolan gehienbat– homosexualitateari lotutako hitzak (marikoi hitza batez

ere baina baita tortillera, atzelari edo bollera). Horrek guztiak beldurra eta duda-muda handiak sortarazten zizkion Mainerrekin bizitzen ari zen maitasun harremana gurasoen aurrean azaltzeko orduan. Baina, aldi berean, argi zeukan une hartan bere bizitzan inportanteena zena ez zuela guraso eta nebeekin zuen komunikaziotik at utzi nahi. Eta gainera beldur zen bere amodioa ez ote zen zurrumurruen elikagai bilakatuko, eta hori saihestearren zintzotasunez jardutea erabaki zuen.

– Aita, ez naiz marikoia. Neska batez maitemindu naiz eta harreman horri adjektibo bat jarri nahi badiozu lesbikoa da zuzena. Edonola ere, zure bihotza eta burua zabaldu ditzazula eskatzen dizut nire amodioa errespetatzeko.

– Baina zuri beti gustatu zaizkizu mutilak –esanez sartu zen Gotzon eztabaidan–. Noizbait esan zenidanez sexu harremanak ere izan dituzu mutilekin.

–Putxa horrek bahitu egin zaitu eta burua jan dizu-oihukatu zuen aitak–. Eraldatu egin zaitu guztiz eta zu ez zara jada nire alaba. Izugarritzko mina egin diguzu. Begira nola dagoen zure ama. Alde hemendik, utikan. Egin duzun burugabekeriaz jabetzen zarenean zatoz barkamena eskatzera eta gauzak bere onera etorriko dira.

Ama negarrez zegoen arraskaren aurrean, bizkarra emanaz guztiei. Arrate neska berezi bat ezagutu zuela esanez hasi zenean intuizioak esan zion jarraian inondik inora entzun nahi ez zuen zerbait entzungo zuela, eta mahaitik altxatu zen platerak jasotzeko. Harrikoa egiten hasi zen, mantso eta beregan bakartuta. Ez zuen eztabaidan parte hartu nahi ez zekielako zer esan. Denbora behar zuen berria digeritzeko. Gainera, jakin bazekien Alfontso bere senetik ateratzen zenean hobe zela ezer ez esatea eta egun batzuk pasatzen uztea beroaldia sortu zuen gaiari arazoibidearen eskutik berretzeko.

Arratek ere bazekien hori eta amaren jarrera berbera hartu zuen. Mahaitik altxatu eta txintik ere esan gabe bere gelarantz abiatu zen. Barruan izugarrizko zuloa sentitzen zuen eta, momentu batean, espazioko zulo beltz bat baitlitzan, oso-osorik irentsiko zuela iruditu zitzaion. Eraso jasotakoan izugarrizko mina sentitu zuen, jasangaitza, baina berehala emozioak lozorro sakon batera amildu zirela iruditu zitzaion ezkutuko barne babes mekanismo batek horretarako agindua eman izan balu bezala oinazea arintzearren. Oso astiro irten zen sukaldetik eta lehenengo Gotzoni eta gero Alexi begiratu zien. Lehenengoa flana jaten ari zen, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Eztabaida gori-gori zegoenean hozkailutik esnegain pote bat atera eta platera erabat estali zuen. Ez zuen burua altxatu ere egin aitzak arreba etxetik bota zuenean. Astazakil galanta –esan zion bere buruari Arratek– honek ez du erremediorik. Alexek galdua zuen begirada. Oso barnerakoa zen eta gutxitan egiten zuen hitz. Ezinezkoa zen jakitea zer pentsatzen eta sentitzen zuen. Aitarekin harreman txarra izan zuen betidanik eta antza haren neurrigabekeriak ekiditeko etxean burbuila batean ixtea erabaki zuen. Baina egoera larri hartan burbuilatik ez ateratzea esanguratsua iruditu zitzaion Arrateri, alegia, ez zuela txartzat jotzen aitzak hartutako erabakia.

Mikel zurbil zegoen eta begiak bustita zituen. Izuikara zerion eta barkamen eske begiratu zion arrebari. Arratek ez zuen Mikelen isiltasuna ulertzen baina biziki maite zuen eta une hartan maitasuna erruki bilakatu zen. Bere gelara joan zen, behar-beharrezkoak zituen gauzak hartu eta inor agurtu gabe etxetik alde egin zuen.

Atearen kolpea entzun zuenean Mikel mahaitik altxatu eta korrika batean joan zen aterantz arrebaren izena ozenki eta etsipenez oihukatuz. Bere egozketa atzeraezinezkoa zela nabarmendu zitzaionean bere gelara joan zen,

Mahler-en bosgarren sinfoniaren adagiettoa jarri zuen eta negar bizian jausi zen ohe gainera aurpegia burkoan barruraino sartuz besoekin burua inguratzen zuen bitartean.

Bergaran, 1999ko urriaren 13an.

Kaixo, nire lagun hori. Isilune handia izan dut zurekin –egia esan mundu guztiarekin–. Aitak Arrate etxetik bota zuenean depresioa hartu nuen. Izugarrizko kolpea izan zen aitaren homofobia horren bortitza aurrez aurre ikustea, bai eta basakeria horren aurrean ni isilik eta ezer egin gabe geratzea ere, eta, bestetik, amak, Alexek eta Gotzonek aitaren erabakiari men egiten ziotela egiaztatzea. Lanean depresioa-gatiko baja hartzeko zorian egon nintzen baina oporrak gertu zeudenez, lantokian esamesarik egon ez zedin oporraldia aurreratzea lortu nuen. Bakarrik egoteko beharra sentitzen nuen eta Candanchun daukagun apartamentura joan nintzen. Astebete erabateko isolamenduan pasa eta gero Tomasekin jarri nintzen harremanetan txat bidez. Oso mesedegarriak izan dira berarekin izan ditudan solasaldiak. Lagun-garria gertatu zait, era berean, oparitu zidan Lamarcaren testigantza liburua irakurtzea. Candanchutik itzulitakoan Tomasek konbentzitu ninduen Gehitura joateko eta berebiziko aldaketa izan du erabaki horrek nire bizitzan. Esan daiteke barne oreka eta lasaitasuna aurkitu ditudala; nire buruarekin askoz hobeto nago, indartsuago sentitzen naiz. Beste modu batean nago bizitzaren aurrean, jendearekin..., eta jarrera berri bat ari naiz jorratzen lagunartean, familiar, lanean... Lagun berriak ere egin ditut.

Arrate ondo dago. Mainerrekin batera bizi da eta zoriontsu ikusten dut. Amak bisita egin zion eta Mainer ezagutu zuen. Denbora eskatu zien egoera berria asimilatzeke baina, edonola ere, jarrera baikorra azaldu zuen. Dena dela, berri hori ezustekoa eta garrantzitsua bada ere, beste batek gutxitu egin du. Arratek Alexen eskutitz bat jaso zuen. Esaten

zion lotsatuta eta damututa zegoela izan zuen jarrera pasiboarengatik eta barkamena eskatzen zion. Baina, horrez gain, bere izaera itxiari buruz hasten zaio hitz egiten, ea inoiz galdetu ote dion bere buruari zergatik den horren eskasa anai-arrebekin duen komunikazio maila, zein ausarta izan den Arrate bere amodio lesbikoa familiaren aurrean azaltzeagatik...eta bat-batean honako hau esaten dio: Arrate, gay nauzu.

Arrebak kontatu zidanean ezin nuen sinetsi. Inoiz ez nion inolako susmorik hartu. Ezta berak niri ere. Gutun horretan gaineratzen zion Arrateri niri ezer ez esateko ez bainuen ententituko. Erabaki nuen lehenbailehen deitzea eta berarekin geratzea. Gaur egon gara elkarrekin. Ez dizut orain kontatuko zer hitz egin dugun, oso luze aritu baikara eta berandu da eta loak hartzen nau. Baina gaurkoarekin bukatu baino lehen, azkeneko sorpresa, hau ere galanta. Alexek lagun gay bakarra dauka, eta esan dio ni izugarri gustatzen natzaiola. Nor den esan didanean bihotza ikaragarritzko taupadak ematen hasi da: Aitor, eskolako nire amodio platonikoa. Nahiz eta azken urteotan ez dugun elkar ikusi, beregatik sentitu nuena ez dela itzali ohartu naiz. Alexek bere emaila eman dit. Urduri nago, ez dakit ondo zer egin. Bihar pentsatuko dut. Agur.

* * * * *

Ibon Egañak liburu honetan parte hartzeko eskaintza egin zidanean honako hau idatzi zidan: “*Gay nauzu* liburuak euskal literatur panoraman izan zuen oihartzuna eta garrantzia ikusita, horren gaineko hausnarketa bat egitea da proposatzen dizudana, alegia, liburuak zein harrera izan zuen, nola hartua izan zen, nondik eta nola sortu zen...”. Jarraian, edonola ere, gaiari askatasun osoz heltzeko aukera ematen zidan.

Lanari ekin nionean konturatu nintzen ez nintzela gai hamaika urte lehenago argitaratu zen nire liburuaz idazteko. Izkribu hartan nire aktibismo gaytik ondorioztatzen zen konpromisoa eta nire barruko deabruak behin-betiko kanporatzeko beharra uztartu ziren. Zein ondorio izan zuen literaturan zein gizartean? Ez dakit. Ez dut uste, gainera, inork erantzun zehatzik izan dezakeenik. Lehenengo eremuari bagagozkio, anitzak izan daitezke gaiari buruzko ikuspuntuak bai eta eztabaidagarriak ere zenbait alderdi. Adibidez, ontzat eman al daiteke literaturan edo zineman genero edo azpigenero gay bat dagoela ebaztea? Ez daukat iritzi zehatzik, baina kuestio hori argitzea egokia izango litzatekeelakoan nago, homosexualitateari buruzko literatur eta saiakera lanen balorazioa egiterakoan erabili dezakegun ikuspuntua baldintzatzen baitu. Nolanahi ere, egiazta daiteke aipatu ditugun bi eremuetan bat egin dutela homosexualitatea ageriko egitearen aldeko mugimendu gay-lesbikoaren eginahalek eta merkatal interesek, eta fenomeno honek gay edo lgtb (lesbiko-gay-transexual-bisexual) adjektiboa daraman zinema eta literaturari eman diola sorrera. Eta hori guztiz ona izan da, zeren eta pertsona homosexual eta transexualei zor zaien duintasuna, askatasuna eta berdintasuna behar bezala errespetatzea jomuga duen bide luzean eragin oso positiboa izan baitu.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, esan daiteke *Gay nauzuk* bere lekua izan duela bide horretan, genero lgtb delako horretan euskaraz idatzitako beste liburuekin batera. Nolanahi ere, literaturak eta militantziak bat egin zutenez liburu hartan, ezinbestekoa da testuinguru soziala eta historikoa kontuan izatea. Horrez gainera, liburua idaztera bultzatu ninduten arrazoiek eta aipatu testuinguruaren ezaugarriek lotura estu bezain sendoa izan zutelarik, uste dut hamaika urte pasa ondoren haien ibilbidea eta garapena oso kontuan izan behar ditudala. Alegia, tes-

tinguru jakin batean kokatzen zen konpromiso pertsonal eta sozial batek erditu zuen nire obra eta, halaber, honek gauzak hobera egiteko bidean bere ekarpentxoak egin zuen, zenbait irakurleren –homosexual zein heterosexual– pentsamolde eta portaeretan eraginik izan zuen neurrian eta, ondorioz, gizarte baldintzak, hots testuingurua, aldatze aldera nolabaiteko akuilu lana egin zuelakoan nago.

Testu hau lantzerakoan egokia eta interesgarria iruditu zait pertsona zehatzen bizipenak ekartzea hona. Liburua idatzi zen garaikoak, bai eta lehenagokoak eta geroagokoak ere. Irakurri berri duzun testuan azaltzen dena benetakoa da funtsean, nobelaturik dagoena barne, horretan kontatzen ditudan istorio inportanteenak (Arraterena batez ere) gertakarietan oinarrituta baitaude. Posible al litzateke duela hamaika urte jazotakoa gaur egun gertatzea? Nire aburuz, pertsona homosexual eta transexualentzat gauzek nabamenki aurrera egin badute ere (horra hor, adibidez, Ikerren istorioa), ziur nago Arratek edo Mikelek bizitutako egoerak gertatzen direla edo gerta daitezkeela gaur egun ere, maiztasun gutxiagorekin eta intentsitate ahulago batekin gertatzen badira ere. Baina segur aski oraindik ez gara, ez maila objetiboan ezta subjektiboan ere, normaltasunera iritsi Euskadin –ezta munduko ezain herrialdetan–.

Errealitatea izan da –lesbiana, gay, bisexual eta transexualek bizi duten errealitatea hain zuzen ere– landu dudana testuan irakurri dituzun hitzen iturburua. Are gehiago, errealitate horien islapena jasotzen saiatu naiz. Ez dut transexualik sartu nire kontakizunean, *Gay nauzu*rekin lotu nahi izan dudalako horiek eta, horrenbestez, orientazio homosexuala izan dut ardatz, baina ez dut aipatzeko utzi nahi pertsona transexual askok bizi duten errealitate latza.

Gizartearen hatsak eta nire somaketak izan dira, azken finean, Ibonen eskaintzari erantzuna gorpuzteko orduan alboan izan ditudan alosiak. Begiak itxita, haiek xuxurlatu didatenaren arabera osatu ditut istorioak eta hitzak. Gustatuko litzaidake oraindik ere oso beharrezkoa den hausnarketarako elikagai bilakatuko balira, guztion artean amodioa, sexua, askatasuna, duintasuna, berdintasuna, dibertsitatea eta zoriontasuna elkartuko dituen eremuak eta plazak, bihotzak eta gizarte baldintzak, ahalbidetu ditzagun.

Gaiaren minean

Itxaro Borda

Badira Euskal Herrian jorratzen ez diren alorrak. Homosexualitateak euskarazko literaturan duen lekuarena adibidez. Aurki daitezke herritik kanpoko errebista batzuetan artikulua bakarrak horri buruz, Joseba Gabilondoren idatziak bezala laurogeita hamargarren hamarkadan, eman dezagun euskal emakume idazleetaz Insula-n eman zuen “Del exilio materno a la utopia personal: politica cultural en la narrativa vasca de mujeres” gaztelaniaz, zinez interesgarria, eta ingelesez Bryn Mawr College-ko aldizkarian menturaz publikatu zen “Itxaro Borda: When Melancholic Migrancy is the Only Way to Write a National, Lesbian Self”. Naizen idazlearen gaiarekiko mututatsuna aztertuz Werner Herzogen *Where The Green Ants Dream* filmeko mutuarenarekin konparatzen zuen, bera ere mutu zela erantsiz. Nortasunaren bihotzean, maskarak kendurik aurkitzen ninduen, ene pertsonaiarentzat neure ordezeko *outing* bat egiten bailuen.

Gaia delikatua dela erran beharrik ez da. Idazle batek, sortzaile batek, ez baldin badu bere homosexualitateaz idatz-hitz egin nahi, zer ariko da kritikaria, izkiriartzaleak gorderik atxikitzeak dituenak agertzen? Zirkulu pribatuan geratzen da genero ezaugarri hau. Baditugu idazle-abertzaleak, idazle-begetarianoak, idazle-apezak, idazle-

langileak, idazle-burgesak, idazle-emakumeak, idazle-gizonak, baina arras ageriko idazle-homosexual gutxi dugu euskaraz.

Beren homosexualitatearekiko ikusmoldea eman duen autore bat badugu: Inigo Lamarca *Gay nauzu* lekukotasunarekin. Zehaztasunik gabe, gay giroko nobelak idatzi dituzten beste bi: Inaki Mendiguren *Haltzak ez du bihotzik* harekin eta Daniel Landart *Batita Handia*-rekin. Lesbiana-tasunari dagokionez, ipuinetan Arantxa Urretabizkaiak *Aspaldian espero zaitudalakoan ez nago sekulan bakarrik* hirukoan bi emazteren arteko hurbilketa sentimental baten istorioa luzatzen digu *Aspaldian* deiturikoan. Laura Mintegiren *Nerea eta biok* nobela halaber sail honetan koka genezake. Olerkigintzan susmoak baizik ez ditugu, hain baita erraz euskarazko adiztegiaren zu pertsonaren bidez, solaskidea gizona ala emaztea den ez salatzea. Hizkuntzak, ezin errana ez erraten laguntzen gaitu, baina funtsean erraten dugu. Erosoagoa da ere, horrela amodiozko poemak edozeinek edozeini xuxurlatzen ahal dizkiolako.

Gustatzen zait sexuaz idaztea. Iruditzen zait beti, eguneroko mintzaira klerikala baino urrunago joaten bultzatzen eta akuilatzen nauela. Gertatzen da, pertsonaia gehienak emakumezkoak ditudala eta maiz beste emazte batzuekin daramatzatela bihotz eta larru loturak. Nobelak, ipuinak edo olerkiak, beren izaera lesbiana aitortzen ez duten pertsonaia emez bete literatura *kometitzen* dut aspalditik, agian betidanik. Hargatik ez dakit horrelakorik argiki behar denez erran, idazleak pertsonaiekiko *leizea salba* baitezake. Gainera, neke da norberak bere buruaz hitz egitea, tematika hauetan partikulazki. Baina bizitzarealitateen aniztasunak lagun gaitzake dagoeneko.

Lehen zatian aipatuko dut euskarazko literaturaren gorputza eta sexuari dagozkien azalpenekiko arazoa. Bigarren partean, euskaraz homosexualitatearen gaia ardatz

daukaten bizpahiru liburu, jakinez gehiago ere izan daitezkeela eta azkenik, ene emakumezko pertsonaien lesbiantasunaren erroak aztertzen saiatuko naiz. Erantsiko dut, ene kasuan, identifikazioa zuzena geratzen dela gehienetan. Uste dut gaia interesgarria dela eta gure gizon-arteak dituen ezagugarriez asko eta asko irakasten digula.

Gorputza arazo

Euskal kulturaren jakina, gorputza arazo da. Lau mende iraun duen kristau heziketa trinkoaren ondotik gorputzarekiko mesfidantza bat daukagu. Elizaren indarra ahulduz joan baldin bada ere, uzkurtasuna nagusitzen da gure letretan. Gorputza bekatuaren lehen atea da eta bekatuaren bidean sartu orduko infernu atarian gaude. Axularen *Gero* prediku-bilduman handizki ikertzen da gorputzak sortzen duen traba, zerura garbi eta argi heltzeko. Axularen mintzaldietan, etsenpluetan ez ezik, kontra-etsenpluetan bermatu behar dugu, sorginez emokatutako orduko gizartea zein nahasia eta lizuna zen frogatzeko. Alde horretarik *Gero*, elizatiar armada sutsuen irakaspenak baino erakar-garriago da. Kontra-erreformarik gogorrena pairatu zuten euskaldunek orduan, jansenismoaren aldaeraz hain zuzen, eta menturaz, gorputzarekiko gure harremanetan oraindik ideologia horren aztarnak usna ditzakegu.

Gorputzari balio bat ematen diogu sufritzen duelarik eta hondarrean heriotzaz ezeztatzen denean. Jansenismoa ongi egokitzen da bigarren mundu gerlaz geroztikako gudariengandik inguruko urteetako erritualekin. Gorputzak hil behar du, kausa baten zerbitzurako ahalaz, baikorki onartua izateko. Euskal Herrian, ezteiak bezain ederrak dira ehortzetak, hala diogu bederen, herriko langileek azken lur palatara kutxaren gainera bota eta zuloa behin betiko hesten dutenean.

Gorputza lurean eta arima purgatorioan delarik babetzen gara. Bekatu egiteko arriskua apaldu da. Arriskua kontrolpean atxikitzeke ehun *manual deboçionezco* izkiriatu dira, ongi hiltzeko bidea seinalatuz eta bekatutik urruntzeko mila gomendio eskainiz. Erran gabe doa, gida-liburu horien guztien oinarrian, gizon-emazteen arteko tratuen arautzea, moralizatzea zegoela helburu. Berrogeita hamargarren hamarkadan, Piarres Narbaitz kalonjeak neska gazteen lagungarri *Kattalinen Gogoetak* plazaratu zituen. Amodioa egiterakoan emazteak ez zuen gozatu behar, edo gozaten baldin bazuen planttan, sanoki eta isilik, pro deo biderkatzea helburu.

Egitura horretan ez zen tokirik homosexualitatearentzat, bistan dena, are gutxiago sexu aipamenentzat. Alta adineko jendeekin hitz egitean, jakiten dugu, herrietan, *gixonxkak* edo *emaztemasak* bazirela. Familiakoak izan gabe, elkarrekin zahartzen zihoazen bi emakumeek, auzoengandik mihi-jorraldi galantak jasaiten zituzten. Baziren halaber, hiri nagusira lehiatzeko ohitura zutenak larrua jotzeko, izan gizon ala emazte (!). Baina sexu-praktika ezberdineko gehienak betirako joaten ziren hirietara, Baiona, Bordele edo Parisera, ez baldin baziren herrian bertan geratzen.

Erdaretan irakurtzen dugun literatura –Claude Simon eta Elfriede Jelinek adibidez, bi Nobel saridun aipatzeko– amodiozko eszena suharrez hanpatua datorkigu, tradizio luzeko literatura erotiko eta pornografikoa daukatela gainera. Hemen ere *Txalaparta* argitaletxea eman dezagun saiatzen da urtean behin, liburu kartsu bat plazaratzen. Baina gutxi da. Heterosexualitatearekiko fantasma linguistikoak ez dira korronte nagusiko euskal letren zurrunbilora hupatzen. Erotismoaren etiketarekin datozkigun obra urrietan baizik ez dugu gizona emaztearekin –eta alderantziz– larru joka ikusten. Halatan, Bernat Etxeparen ausartzia agugarria da. Ez nagoke haren koblak errepikatu gabe:

Munduian ezta gauzarik hain eder ez plazentik,
Nola emazia gizonaren petik buluzkorrik;
Beso biak zabaldurik dago errendaturik,
Gizon orrek dagiela hartzaz nahi duienik.

Io badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
Ainguriak bano oboro ez larrake gaizkirik;
Bana dardoa ematurik, zauro ere sendoturik,
Bere graziaz ezartein'tu elgarreki baketurik.

Ez dakit zuzenagorik izkiriatu denez euskaraz, ge-
roztik. Amodiozko ekina sinpleki eta ikuspegi negatiborik
gabe deskribatzen digu Mossen Bernatek. Eta nahi duenak
bertsio homosexuala orrazta dezake, emaztea eta mihia
jarriz gizonaren ordeaz, edo emaztearen lekuan gizona
ezarri eta dardoa atxikiz. Gimnasia mental soilaz.

Ulertzen dut zaila dela euskaraz idazten duenarentzat
bere pertsonaiak amodioa egiten erakustea. Gure herria
txikia da eta diogunez, denek elkar ezagutzen dugu. Hala-
korik paperean etzaten baldin badut, gordinki Etxeparek
bezala, serial-killer baten kontakizuna lehen pertsonan
eskaintzean ez bezala, irakurleak pentsatuko du neronen
esperientziak ari naizela. Eta jukatuko nau. Erranen du
pornografian barna ihalozka nabilela. Maniako eta obse-
sionatu sexualtzat joko nau. Sekula eszena bortitz bat sar-
tzen baldin badut euskal-burges-jansenisten probokatze-
ko, kritikariek ez dute sexu usaina darion probokazioari
kasurik egiten ere, gramatika eta sintaxiaren balizko
egokitasunean fokalizatuko direla. Derragun, idazleentzat
giroa nahikoa frustrantea dela. Are frustranteagoa homo-
sexualak diren izkiriatzaleentzat, haien liburuak ez baitira
alde horretarik nehoiz ikertuak.

Frankotan idazleak, liburuko pertsonaien eta beraien
nortasun propioaren arteko distantzia azpimarratzen du,
etor litezkeen galderak aurretik baztertuz: ez, ez naiz ni

hainbeste sexu-molderen praktikatzailea, bi ume dauzkat, maite dudan andre bat etxean eta lana. Idazleak hargatik badu zerbait, kritikariak ez duena, hau da imajinazioa: sexu-harreman heterosexuala bezainbat homosexuala asma eta biziara dezake, bera heterosexuala edo homosexuala izan gabe. Idazlea bere buruarekiko zintzoa baldin bada, egiatiago jalgitzen da idatzia: demagun Thomas Bernhard-ek bizitza sexual doia zeraman eta hori igartzen da minberaki bere liburuetan eta bestetik, Elfriede Jelinek-ek *Le Monde*-n leitu genuenez, bizitza konbentzionala darama, nobelak heteropornografiaren mugetan murgiltzen zaizkion arren.

Zati honekin bukatzeko erran behar dut mintzairak ez gaituela asko laguntzen: sexuaz idatz dezakeguna lehen hitzetik beretik negatiboa, zikina eta likitsa ateratzen zaigu luma azpitik. Lhande nahiz Azkueren hiztegiak arakutzen ahal dira sexuarekiko hitz baikor baten ondotik, alferrik. Hiztegi berrietan, zaharrak eredu eta oinarri dauzkatenez, aldaketarik ez da. %100 *Basque* nobelan, fribolitate osoz, komentatzen nuen: “Hitzak ez dira falta noski, baina direnak itsusiak kausitzen ditut, eta ez baldin badugu gertakari sentsual horien izendatzeko solas positiborik atzematen, mundu kosmikoaren zurrunbiloetarik baztertuak izatea arriskatzen dugu. Pentsatzen dut (...) Hizkuntza Kontseilu berriaren lehen zeregin urgentea, sexuaren ele baikorrak euskaraz bideratzea litekeela, diru publikoa erabiliz, bistan dena.” Positiboa desiratzen dugun homo/hetero-sexuari dagokion lexikoa askotan, erdarei ebatsi eleen itzulpen zuzena dugu, eta itzulpena ez baldin bada, erdarazkoa euskaraturik, sexua are arrotzago suertatzen dela gure literaturan. Ondorioz hitz *zikinak* erabiltzera behartuak gara edo hitz zein metafora berriak asmatzera. Kasik salaketa berdina egiten zuen 1910 urteetan Etxepare medikuak, argitaratu eta ez zabaltzea gomendatu zioten *Buruxkak*

bildumako *Amodioa* kontakizunean: “Eskuara hoin uzkur balin bada eta kilika, apezek dute hortaratua. Ez noa aski barna: hortaratua dute Galileako zurgin seme pedoilaren irakaspenek.”

Hitzen ttanttaka

Oraindik ere euskal periferietako literaturara joko dugu, homosexualitatearekiko agerpenak atzematuko. Ez ditugu halaz ahanztekoak, Safo, Lesbos uharteko poetaren giro baporos berdinean murgiltzen ziren Jon Miranden ninfulak. Ibai ertza, behe lainoak eta gorputz emeen uki-karak: sentsualitate arinez bete olerki bat bederen idatzi zuen Mirandek. Etxepareren ipuinean, *Larrukoi*-keria guztiak aipatzen dituzte Miarritzeko jatetxe hartan bildurikoek, *urrixak* baizik ez dituztela falta aitortzen dutela une batez. Bukatzera, homosexualitateaz ari dira, laburki eta aire zientifikoaz troxatuz: “Ez zautalarik bizkitartean amodio hori hain bitxia, ez zikina, nola gizona gizonari jarraikarazten duena: ihizi batzuen artean, hala nola ttittarretan, arrak arrekin ikusten ohi diren bezala, udako bero handietan...” Etxeparerena, euskal literaturak luzaz gordean atxiki duen idazkirik ederren eta irekienetarik bat dela iruditzen zait, Jon Miranderen gehiegikeria nahitara probokatzaileez haratagokoa naski, Mirandek lesbianismoa, pederastia, prostituzioa, homosexualitatea eta masturbazioa gaitzat hartzen dituelarik.

1980 hamarkadara punpatu behar da homosexualitatea gure idatzietan zehazkiago sumatzeko. Gorago erran dugun bezala, Arantxa Urretabizkaiaren *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik* (1983) hiru ipuin tristeko bildumako “Aspaldian” istorioan, narratzailea eta Carmen bi emazteak elkarri hurbiltzen dakuskigu,

baina ez doaz urrunegi. Ez da amodiozko eszenarik, justu menturaz irakurle estremistentzat, egingo dutelako sentsazioa. Carmen emakume zoragarria da hodeiekin eta txoriekin mintza daitekeelako. Uste dut Arantxa Urretabizkaiaren liburu garrantzitsu horretaz gutxi hitz egin dela, zorigaitzez. Olerkietan gutxi azaltzen da homosexualitatearen aipamen zuzena. Hala ere, gaur egun idazten dugun emakumeok ezinbesteko eredu eta erro poetiko izan dugun Amaia Lasak bi aldiz aipatzen du Anbotoko Damiaren eta Saforen juntatzea, batetik *Hitz Nahastuak* hartan:

Inork ez du
Anbotoko Damiaren fantasia indartsua isilduko,
Damiaren hegada luzeak
Saforen begirada larritua lasaituko du.

Eta bestetik, are zuzenkiago Fantasia bat izeneko poeman:

Damia
Anbotik itsasoraino jaitsia
Greziatik etorri berria den
Saforekin solasaldi gozoan ihardutera.

Lesbianismoaren aldetik horixe.

Bestalde, ez diogu Susa argialetxeak 2004ean publikatu zuen, Juan Ramon Madariaga-ren aitzin-solasarekitalako Andolin Eguzkitzaren hil-ondoko poema-bildumari kasu aski egin: *Arimaren ondoko ezkien artetik ibilki* horretan Andolin Eguzkitzak lehen aldikoz agian, poema ezberdinetan aipatzen du mutil biren arteko maitasuna eta desira, nabaritzen dela, adibidez *Southern Comfort* testuan dagoen *zu* hura gizona zkoa baizik ez daitekeela izan. Juanjo Olasagarre edo Rikardo Arregiren idatzietan pareko aztarnak aurki ditzakegu naski, erran gabe doanaz gainera.

Alta, euskal gizartean hazi dira gay eta lesbianen interesak defendatzeko batasunak eta urtero egunkarietan,

ekainaren 28an, gay eta lesbianen eguna kari, batasun haietako arduradun baten artikulua dasta dezakegu. Galda genezake zergatik ez diren beraz gai horiek literaturara pasatzen. Egiaz, mugimenduak bazterretan geratzen dira eta gay zein lesbianen biltokiak kriptolekuak dira, hirietako ostatu bereziak, parkeak eta jendalde orokorren zat fama txarra duten xiringaz eta preserbatiboz ihaurritako itsas hegiak. Aitor dezadan, arranguratzan nautela batera gizartean dabilkigun homofobiak eta Donostiako baratze ilunetan gay izategatik joak eta kolpatuak diren mutil gaztetxo batzuen begitartean zauriek. Ulertzen dut halaz, gauzak emeki emeki aldatzen doazen arren, zergatik ez den homosexualitateaz eta homosexualtasunaren abiapuntutik nehor deliberatuki idaztera ausartzen.

Mikelen Heriotza-La Muerte de Mikel filmak, 1985an atera zenean, euskaldunen artean sortu zituen erreakzioak oroitzen ditut. Bortitzak ziren: abertzaleen artean ez zegoelako gay-rik? Abertzaleek ez zituztelako ideologiaren izenean, gay zirenak baztertzen? Noski iritzi artikulua multiplikatu zirela Imanol Uriben entseguak euskal jendartearen irudi maskaratua ematen zuela aitzinatuaz. Zena zela filmaren haria ederra zen, ederra zen Imanol Arias alias Mikelen bururainoko amodio biluzia, ederra zen bezala Fama trabestia bere Bilboko tabernan dantza eta kantari. Garai berean, Almodovarek, irudi ahantz ezinez, Madril zeinartzelako trabestiak pantailaratzen zituen.

Hiru nobela eta ipuin bat baditugu ordea hemen karrakatzeko. Periferiakoak bistan dena. Gaia pilpilean dalkarkigute. Heterosexualtasunaren kutsuak setiatu itsaso zabal bateko dolore-plazer-uharteak dira. Euskal literaturak gaurkoan, merkatuaren manua da, ekintza garbia, bakuna, lineala, lasterra eta irakur erraza eskatzen du, debaldezko deskribapen eta gogoetarik gabe. Fast-literatura, euskaraz. Ez da tokirik saiheskerientzat. Gainera, arrakasta segurta-

tzearren, irakurleen ideietarik hurbil baldin bada hobe. Literatura mirail nahi dugu, eta ez literatura zubi. Agian, hor, gure psikologia komunaren funtsa laburbil dezakegu.

Aurrera jo baino lehen ohar bat: lehenik, lau liburu hauetarik bik ez dute kritika bihirik ukan. Irakurriak izan direa? Hirugarrenarekiko bospasei zutabeetan behin baizik ez da azaldu Batita Handiaren semearen homosexualitatea, nobelaren ardatza dena ene ustez, gainerako kritikak hizkuntzaren eta Iparraldeko literaturaren azaleko jorrakuntzan geratu direla. Karia horretara, Felipe Juaristik 1994ko azaroaren 26ko Diario Vascoko bere artikulua honela bukatzen du: “Herri honetan literaturaz ezin hitz egin daitekeenean, zuzen-zuzenean hizkuntzaz hitz egiten da”. Huts egite kolektibo baten onarpenaren zigilua dakar Juaristiren solasondoak.

Inaki Mendigurenek (1950 Ezkio-Itsaso) 1990ean Elkar argitaletxean argiratu zuen, urteak joan ahala perlatxo bat izan daitekeen nobela bat *Haltzak Badu Bihotzik* tituluarekin. Amodiozko istorio bat eskaintzen digu: adineko eskola maisu bat bere ikasle nerabe batez maitemintzen da. Lehia horren hasiera, garapena eta bukaera kontatzen du idazleak, xeheki, dolorez eta jujatu gabe. Bi gizonen gorputzak desiraren sutan erretzen segitzen ditugu, hizkuntza istorioaren zerbitzuan jarria delarik, hau da sinplea eta erranguratsua. Istorioaren haria klasikoa da greko zaharren sinesteen ildotik, pederastia orduan heziketaren zati gisa kontsideratzen baitzen. Thomas Mann-en *Tod in Venedig* ziragarria gogorarazi zidan irakurri nuelarik. Ez ziren konparagarri, baina Xalbador zenak lerra-keen eran *esperantzarik gabeko amodioak* ziren biak.

Aipamen anitz ukan zuen Daniel Landart-en (1946 Donoztiri) *Batita Handia* nobelak 1994 Kutxa Fundazioak plazaratu zuenean. 1993an Irun Hiria Saria erdietsi zuen Iparraldeko idazleak nobela horrekin. Ene irudiko

Daniel Landart-ek izkiriatu duen hoberena da, tragikoena eta zintzoena. Batita Handiak, herio-orduan Iparraldeko euskaldun arrunt batek meta ditzakeen errunduntasun maila guztiak biltzen ditu bihotzean. Liburua irakurri behar da. Estatuak eta elizak gorputzari pairarazten dizkieten muga-sarraskiak oro zerrendatzen ditu eta minik erraldoiena semeak homosexuala delako apezgoa uzten duela aitortzen dion momentuan jasaten du Batitak, semea preseski apezgoan sarrarazi zuelako bere bekatuen barkamena jasotzeko. (Gurasoei) aitortzaren unea preseski zailtan zailena dela badakite homosexualak. Behar ote da gay edo lesbiana izan, nobelako polisemiaren atzean une horren existentziaren igartzeko? Kritikariei irribarreak hazi zizkien Andolin Eguzkitzaren hitzaurreko perpausak logikoagoak dira testuinguru honetan.

1994an ere atera zen erreseina ugari lortu zituen Laura Mintegiren (Lizarra 1955) *Nerea eta biok* nobela Txalapartaren eskutik. Isabel ama familiako ezkondu bat da, Luis senarrarengandik bereizteko zorian, eta irakaslea. Parisen preso den Nerearekin harreman epistolarioa abiatzen du, hau ikasle suertatzen zaionean. Nerearen eta Isabelen lotura platonikoa da, baina sentsuala eta Laura Mintegiren lumak amodio lesbiarra goresten du: “Emakumeen arteko amodioa diferentea da, berezia, sakona, misteriotsua, sentsualitatez betea, epela, leuna, goxoa...” Hitz ederrak bistan dena, baina izkiriatzaleek gero distantzia jarri zuen nobelaren eta nobelako gaien minean, nihaurek 1995ko martxoaren 26ko Argiako kronika batean azpimarratu nuenez: “Idazleak dienez, ez da emazteetaz idatzi nobela bat, ez da presoei buruzkoa, ez bi emakumeen arteko maitasuna: zer da orduan?” Doidoia idazle heterosexual batek harreman homosexual batez izkiria dezakeelako frogatzen, eta zergatik ez ondorioz, vice-versa.

Pamielak atera zuen eskura lerratzen zaigun hirugarren lana. Ez da benetan homosexualitatea tratatzen,

baina transexualtasuna. 1998an Isidro Rekarte-ren (1955 Lerin) bi ipuineko bilduma bitxi baten leitzeko aukera eduki nuen. *Desioen Hiria*-ko aurreneko testuko Rakel Beaumont pertsonaiaren itzalak jarraitzen nau egundaino, –batzutan adiskideei autorearen izenaz galdezka nabilen arren–, ez baitut euskarazko literaturan horrelako pertsonaiarik beste behin gurutzatu. Rakel Beaumont gizon sortu eta operazio baten bidez bere desiren araberako emazte bilakatu zen. Ahizpatasunaren mirailarekin borrokan ikusten dugu, istorioa bururatzen denean, bera ala bere ahizpa den eskatzeraino. Izateak nahasten dira eta sexuz aldatzeak nortasunaren urmel uherretan behera aurkititzen du pertsonaia, gorrotoa, mendekua eta heriotza helmen.

Ez ditugu ahanzi behar Aitor Aranaren (1963, Legazpi) nobela entzutetsu batzuk: hala nola berrikitan berri argitaratua izan den *Aita-semeak* (1995) Hiria editorean eta bost urte beranduago atera zuen *Onan* elaberria. Hiriaren eskutik datorkigun lanean, aitaz maitemintzen den gazte baten istoria kontatzen digu, aita bisexuala delarik. Hirugarren pertsonaia baten presentziak egoera lastuko du. Tragedia da *Aita-semeak*-en ardatz. Aitor Aranak bestalde *gay hiztegi* bat publikatu zuen Txalapartaren *literotura* sailean. Denbora batez aldizkari pornografiko bat ere zuzentzen zuela erran dezagun halaber.

Halaz, beti dinamika berdinean gaude: sexua eta gorputza arazo dira. Homosexualak ala transexualak izan, idazleen tintatik tragikotasuna da isurtzen, kulpabilitatea edo ezintasun erogarria. Baina hala da inguratzen gaituzten erdarazko kulturetan, tragikotasuna baita literaturaren motorra. Almodovarren *La ley del Deseo* filmean happy end-ik ez dago. Frantziako mainstreameko literaturan homosexualitatea deblauki garatzen duten nobela gutxi dago. Argialetxeek sail bereziak dauzkate baina zabalkuntza

murriztekoak, hau da gay eta lesbianen esparruetarik at hedatzen ez direnak, gehienbat moral orokorra ez kolpatzeko eta haurren osasun mentala zaintzeko, ahots itxuraz zentzudunek diotenez. Alde horretarik arras *normala* da gure erdiguneetako literatura.

Christine Angot idazle ezagunak *L'inceste* izkiriatu zuenean morala hain zuzen zangopilatu zuen. Emazte horrek ahoan bilorik gabe, bere bizitza nahitara kontatzen du nobeletan. Liburuaren gai zentrala aitarekiko intzestuharremana zen, baina hasierako lehen kapituluetan Marie Christine-ekin hiru hilabetez eraman lesbiar egunerokotasuna ikertzen zuen, disgustoz eta herraz, huts handia izan bailitzan. Angotek uste zuen lesbiana zela, senarrak abandonatu ondoan. Hitzak homofobiaren mugetan zebilizkion eta gay elkarteen partetik erreakzio asko jaso zuen. Bidenabar, Frantzian gaiarekiko filmak biltzen direnean, André Téchiné batenak salbu, *Pedale Douce* edo *Gazon Maudit* hartzen baldin baditugu adibidetzat, trufa dute nagusi, nahiz Josiane Balasko truckersa gisa eta Victoria Abril panpineme katalanaren paperean izugarriak diren, batez ere bainuontzian amodioa egiten dutenean. Ez dira *Reykjavik 101* haren antzekoak inondik ere, hau ere Victoria Abril-ekin.

Lesbiana mutuak

Ene olerki, ipuin eta nobeletako pertsonaia gehienak emakumezkoak direla ohartua da irakurlea. Badira gizonetzkoak ere, bistan dena, bietarik bat hala da *Zeruetako Erresuma* eleberrian. Baina naizen idazleak betidanik a priori positiboa ukan du emazteekiko. Ez dira senarra eta haurrekin jarduten duten pertsonaia femeninoak, ez dakite lisatzen, ez dakite amodioa egiten, ez dute garbiketarako gusturik, ez dira gorputzez ederrak. Lunpen-langileak

bezain langabetuak dira, nomadak eta bakartasun sozio-sentimental batean bizitzera behartuak. Bakartasunaren hegi horretarik ekiten eta jendartean gertatzen dena otserbatzen dute. Emazteenganako tirria daukate orokorki, noiztenka gizonekilan dabilzan arren. Hauekin ordea ez da nehoiz ongi pasatzen. Emakumeekin ere ez beti, baina desira beteago da, nahikundearen hariak irauten dueno.

Alemanek kasu honetan *Ich-Erzählerin* deitu lezaketen narratzaileak ez du izenik neure lanetan, ni soil bat da ardurenean: Amaia Ezpeldoi nolakoa den ez dakit, menturaz ene antz handia dauka eta hondarrean ez du inportarik. Desiraren ibiltaritasunak eta kuriositateak dute munta, batak bestea akuilatzen duela. Gainera gure gizartearen errateko ahotsak, anonimoa eta gizarteko apalena, apaletsiena izan behar duelakoan nago, fikzioan bezala errealitatean, urguilu zozoa aitzinatuz aipa dezakedan idatz askatasunik zabalenez gozatzeko: ezin da alabaina, aldi berean, saldara tu egin eta gero salda hura jan. Ezer ez duenak ez du ezer galtzekorik.

Zentzu horretan, ene emazte pertsonaiak oso amerikarrak dira izpirituz. Ikusten ditut noiztenka road movie batzuen ardatz, Paris-Texaserako highway 66-aren ertzean autostop egiten, adibidez. Amerikarrek ez bezala, sekula ez dute erraten lesbianak direla eta mututasun horrek anbiguotasun fiktibo bezain erreal bat sortzen dit. Oro har pentsatzen dudanaren ahoskatzeko beldurrik ez dut, batzutan hanka sartuagatik, baina lotsa –ahalke?– naiz ene heroinen homosexualitateaz mintzatzeko. Badu hogeita hamar urte izkiriatzen dudala eta pertsonaia eme guztiak elementu determinatzaile hori daramatela bihotz-larru azaletan. Egoera literario berezia da.

1980ko hamarkadako *Argia* batek dakar lesbiana kutsuko ene lehen olerkia, *Azalez bi han* izenburuarekin. Gero ipuin zabalago bat idatzi nuen *Klara eta biok*

zeritzona, 1986ko Maiatz aldizkariaren 11. zenbakian. Baionan pasatzen zen, euripean eta zazpi astez, bi neska gazte hauen arteko amodio eta sexu tratuak, GAL-eko hiltzaileek Baionako ostatuak odoleztatzen zituzten urteetan hain zuzen. Alde orotarik gaizki bukatzen da, Klarak narratzailea kitatzen duelako. Elkarrizketa politikoak, rock kontzertuak, kanutoak eta garagardoak bazetozen burrustan. Urrunak diruditen mende haietako euskaldun batzuen bizimoduaren lekukotasuna dakarkigu orain hogegei urte geroago. Noizean behin pentsatzen dut, ipuina berriz publikatzea on litekeela. Baina lanak beldurtzen nau.

Amaia Ezpeldoi pertsonaia erabateko lesbiana mutua da. Argitaratu diren hiru nobela eta hiru istorio laburretako ikerketetan emazteak desiratzen segitzen dugu. Euskararen inguruko bilaketarekin batera, desira hori da ale guztietako konstantea. Amaia Ezpeldoi blues zakarrak darama bideetan, ez du bere burua maite, baina emazte baten saihetsean dagoenean, barne-minak jabaltzen zaizkio. Oso gutxi dira detektibe lesbianak munduan. Kasik Amaia Ezpeldoen garai berdinean, hau da 1994an, agertu zen New Yorken eragiten zuen Lauren Laurano, Sandra Scoppettone idazlearen eskutik. Fleuve Noir editoreak sail horretako lau nobela eskaini zizkigun jarraian.

%100 Basque-ko narratzailea Amaia Ezpeldoitik hurbil dabil: zati batzuetan lesbiana da, Lili Marleen gogoratzen duenean adibidez, nabardura batekin: “Nonbait bi edo tri-sexuala izan behar duket eta izkiriartzen dudanak hautatu ezinezko kinka hori pairatzen du segur aski.” Beste kapituluaren batean, Mairos adiskideak bere senarraren eztei-eguneko burlen funtsa salatzen dio: “Joanesez algara gordinaz alhatzaileetarik hintzela xuxurlatzen zatanan belarrira. Eta ni karkazailka lerratzen nindunan hire arpegi ahalketua mirestean!” Nobela osoan horrelako oharrak pindartzen dira, deus ez balitz bezala. *Zeruetako Erresuman*, zuzeneko

lesbianarik ez da. Louise adineko emaztea beharbada hala da. Baina amak emaztez beztitzen kukuskatzen duen Frantxua trabestia dago. Bukatzeko erran dezadan 2000an Gatzuzain etxeak plazaratu zuen *Euskal Kama Suturarentzat* izkiriatu nuen *Norabide Txostena II* ipuina arras lesbiana zela, erotikoa eta kasik pornografikoa.

Ez naiz biziki ausarta izan, eman dezagun 2005an Ana Urkizaren Alberdaniako *Zortzi emakume-zortzi unibertso* liburuaren osatzeko egiten zizkidan galdeei ihardetsi nienean. Noski aitortzen diot “Amaia Ezpeldoik ene ahizpa –bizki totala” dela, baina argitu gabe uzten dut “Amaia Ezpeldoik ez du sekula erraten zer den perpausa”, zer hori dudarik gabe, ene gogoan lesbiana izaera delarik, urrunago zehatzago izan daitekeen ondorioa eransten baldin badiot ere: “Beraz, sexu-aldeetik eta politika aldeetik bazter da Amaia Ezpeldoik eta bazter izate horrek ematen dio ikus-teko, aztertze, begiratzeko eta otserbatzeko aukera.” Amaia Ezpeldoiekin batera, ikuspuntu minoritarioa aldarrikatzen duen idazle lesbiana ere banaiz, neure orduetan.

Ederra izanagatik gaia dorpea dela sentitzen da. Pareko zailtasuna daukan arren, borroka armatuarekiko iriztiaren ematea errazagoa delakoan nago, bereziki herriaren zati handi bat desabertzaletu den azken urteotan. Dena dela homosexualitatearen tema ttanttaka eta maskaratua jaukitzen da euskal literaturara. Ez dakigu idazleek duten gaiarekiko lotsa pairatzen ala argialetxe zein kritikariek merkatuaren araberako produktu formateatua bideratzea lehiatzen. Agian *emakume literaturarentzat* bezala, sistemak xendra urratuko duenean, *gay literatura* bat hazten ahalko da gurean bazter-herrietan bezala. Hortara goaz, hogei urtetan bi mahai-inguru jadanik antolatu direla, bata 2001ean Gasteizen Juanjo Olasagarre, Rikardo Arregi eta Andolin Eguzkitza bilduz eta bigarrena 2007ko

ekainaren 20ean Donostiako KM zentroan “Homosexualitatea, lesbianismoa, euskal literatura” lemapean, EHGAM zegoela saltsaren montatzaile. Ibon Egaña moderatzaile, bertan ginauden Juanjo Olasagarre, Aitor Arana, Rikardo Arregi, Angel Erro eta bostok.

Idazleak bere zaletasunen isiltzeko eta gordetzeko eskubidea badu noski, jakinez balukeela ere, fikzio batean, bi jenderen arteko harreman homosexualaren azaltzekoa, homosexuala izan ala ez izan. Fikzioan dena da posible: pentsa dezagula miresten ditugun emazte pertsonaia asko gizonetakoek asmatuak dira. Arregintzan, aldi berean, autorearen obrarekiko identifikazioa da erronka idazlearentzat eta irakurlearentzat –nola irakur *Denbora galduaren bila* ez bada gogoan atxikitzen Proustek gizonak zituela hobesten eta homosexualitatea dela obraren ardatz nagusia?– eta distantzia –James Joycek Miss Bloom orraztu zuen handizki, bera emaztea izan gabe.

Ohiturak liberatu direnean, jende bakunaren nortasunak eta ekinak munta erraldoia duenean, eta homosexualak gustuz bezain kulturaz indibidualistak dira, konturatzeko gara, mugak uhertzeko partez, emazteak *femeninoki* idazten saiatzen direla eta gizonak *maskulinoki*, amarekiko oroitzapenak eta bikoteen arazoak jorratzen dituztela ausarki. Homosexualen eskubideak eta ageritasuna emendatzen doazen neurri berdinean, gizarte gero eta heterosexualizatzen dela irudi luke, literaturan, zinean, publizitatean, portamoduetaraino, Monique Wittig frantses ikerlari lesbiana handiak aztertzen zuen *The Straight Mind* hura indarrez jendartean barna hedatzen dabilela argi geratzen delako hain zuzen.

Noizbait menturaz, idazleak beraien barruak akuilatzen dituen homosexualitatea, orokorki, ez dut bereizketarik eginen ez bainaiz aski trebea horretan, idazkeraren elementu inportante moduan azaltzera atrebituko dira,

gizon edo emazte biren arteko harremana izendatzera, hitzek ere benetazkotasuna eskatzen baitute hizkuntzak biziartzeko. Zergatik eufemizatu demagun *Sua Falta Zaigu* arrakastatsuen egilearen antzera, erranez bere ipuinetan kausitzen dela “ez bakarrik gizon-emakume bikote sentimentala, baizik lagun artekoa edo bestelakoa.” Zer da *bestelakoa* hori? Harreman homosexuala al da?

Bistan dena ez dut emakume-idazlearen adinako konzeptu-ghetto komertzialak sortzea eskatzen euskarazko queer literaturarentzat. Baina bai, argitasuna, idazlearen aldetik, hala nahi baldin badu behintzat, nitarik haste, batetik kritikariak eta bestetik irakurleak askatzeko. Homosexualitate latentea ardatz daukan testu baten aitzinean galdez gaude: ongi leitu al dut? zer da hau? nola aurkeztuko diot, edukiarekiko engainatzeke, liburua gomendatzen diodan adiskideari? Bideabar autoreak engainatu nahi baldin banau, engainua onartzen dut: ezin hobe mintza!

Dena dela, hondarrean, imajina dezakegu belaunaldi berriko izkiriataileak ahoan bilorik gabe mintzatuko direla lesbianen, gayen eta transexual zein trabestien errealitateaz, izan ala ez izanez. Etiketa sailkatzailetarik ihesi joanez.

Gure literatura bestela irakurtzeko gonbita da idatzi hau.

Baiona 2006-2007

Generoaren (des)eraikuntzak

Generoa eta performancea

Cybermanga feminista queer trans... baten 3 pasarte

*Beatriz Preciado*¹

Nola idatzi feminismo queer eta transaren duela gutxi-ko historia? Zein kontakizunetan sar daitezke gutxiengo sexualen diskurtsoak (eta *gutxiengoa*, hemen, ez dut ulertzen estatistika kontzeptu gisa, Deleuzeri jarraiki terminoak duen esanahiaren arabera, “indize iraultzaile” gisa baizik²) eta jardun politikoak? Jakintza feminista, queer eta trans, gaur egun zatikatuta egoteak, artxiborik ez egoteak, itzulpenaren prekarietateak, eta gutxiengo global/tokiko ekoizpenean erabilgarria den erakunde eta dokumentazio baliabidea falta izateak gure historia berriena idazteko edo irakurtzeko egitekoa polizi-cybermangatik hurbilago kokatzen dute, ikerketa historiografiko klasikitik baino. Desagertutako elementuak ugariagoak dira, artxibatutako elementuak baino. Eta artxiboa dagoen lekuan ere, irakurketa kanonikoak hautatzeko irizpideak eta asetahun hermeneutikoak badirudi ezinezko egiten dutela genealogia politiko bat eratzea; genealogia politiko horrek jakitera emango lituzke, Foucaultek eskatzen zuen bezala, ez hainbeste jatorriak baizik eta, areago, larritasun uneak, ihes puntuak, nagusitu den diskurtsoan kritikak eragindako inflexioak³. Godard-ek aurreikusi zuen bezala,

historia garaikidea hizkuntzaren eta irudiaren arteko interferentzietan egindako “marrakiz bizidun” itzel baten antzerakoa baldin bada, esan beharko genuke gutxiengoaren historia, Azucena Vieitesen marrakien modura, isiluneez, irudirik eratzten ez duten ingeradez eta paisaia sortzen ez duten eta elkarren gainka jarrita dauden trazuez eginda dagoela. Politika-fikzio mota bat da hori, non ezinezkoa gertatzen den aztarnei jarraika joatea, aztarnak asmatu egin behar baitira.

Feminismo queer transaren historia cybermanga batek *generologia* bat eduki beharko luke barne, generoaren biopolitikaren kritika bat, gorputzaren genero-ezaugarria azaltzearen aurkako estrategien kartografia bat; baina, baita ere, transgenero bilakatutako subjektibotasunak ekoizteko sortuko diren plataformen mapa bat. Hemen, bineta batzuk zirriboratu ahal izango ditugu, besterik ez. Lerro batzuk marratu, behin eta berriro, beste trazu batzuk ezinbestez ezabatzen diren bitartean. Hori, sail ireki batean, RTLK 200110904 atala izango litzateke. Lehendabizi, 90eko urteetan, generoa *performance* gisa definitzeak, emakume feminista, postfeminista eta queer batzuek egindako definizioa baita –hala nola, Judith Butler edo Eve K. Sedgwick-ek–, suposatu zuen astindu teoriko eta politikoa ebaluatu beharko litzateke. Beharrezkoa izango litzateke performance nozioaren beraren genealogia finkatzea, horren bidez, kontzeptuak diskurtsoetan, jardunbide politikoetan eta arte erakundeetan eragiten duen haustura azaldu ahal izango baikenuke. Hona hemen, “generoa eta performancea” dossierrean azaldu gabe dauden elementu batzuk: nola erabili ahal izan da “performance” nozioa –hasiera batean, antzezpenaren, XX. mendearen hasierako arte abangoardien eta “body-art” delakoaren nagusitzeari lotuta–, horrelako arrakasta hermeneutikoaz, sexu desberdintasuna desnaturalizatzeke, eta

berdintasunaren eta desberdintasunaren arteko eztabaidei –80ko urteetan feminismoaren esparrua bete baitzuten– amaiera emateko? Zein dira nozio hori barne hartzen duten adierazgarritasun espazioak? Nola azaldu gizarte zientzietan, gertatu den *performanceranzko joera* hori? Jatorri semantikoak alde batera utzita (uherrak baitira, be-tiere), zein dira bere gauzatze esparruak? Interpretazio horrek, generoari dagokionez, aldatu ote du performance nozioaren arte-osagaia? Eduki ote lezake arrakasta her-meneutiko horrek ikusezin bihurtzeko beste prozesu batzuen erantzukizuna? Zergatik kritikatu dute trans-genero ekintzaileek, aho batez, performance inflazio hori? Performance nozioa, 90ko urteen hasierako testu feminis-ta eta queer-ek erabili zuten moduan, era askotakoa den inskripzio poetiko eta politiko baten baitan dago. Lehenik eta behin, nozio hori diskurtso psikoanalitikoaren esparru semantiko batean sortu da, alegia, Joan Rivièrek, lehenen-go aldiz, feminitatea *maskaratze* gisa definitu zuen horretan.

Bestalde, boterearen eta subjektibatzearen ikuspegitik, performance nozioak, ingelesez, aditzera ematen du hainbat egilek –Foucaultekin hasi (*diziplina*) eta Bourdieu-rekin bukatuta (*habitus*)–, arauak gizartekotzeko eta barnera-tzeko prozesuak azaltzearen, burutu zuten legearen erre-pikatze erritualizatuen inskripzioari buruzko hausnarketa multzo bat. Beste alde batetik, Estatu Batuetan, 1970ko hamarkadan sortu zen Arte Feminista izeneko mugimen-duak performancea, ekintza politiko eta estetikoaren funtsezko egitura gisa, bereganatu egin zuen. 1990ko hamarkadan, Butlerri jarraiki sortutako bertsioan –eragin handiena izan zuena, zalantzarik gabe–, drag queen performanceak eta, zehazkiago, feminitateari gay kulturaren emandako antzerki ikuspegi hiperbolikoa oinarriak direla dirudi, genero identitatea performancearen ikuspegitik definitzeko. Aldi berean, eta 70eko eta 80ko urteetan,

diskurtso feminista gehienetan, genero eta feminitatea berdindu zituen ekuazio aizuna gaindituz, ikusgarri bilakatu zen maskulinitatearen performancearen drag king kultura. Azkenik, hor hain zuzen, feminismo eta drag king kulturaren egiten den ekintzailtza politikoaren eta ekoizpen estetikoaren esparruan, performance nozio horrek aurkitu du bere azken esanahia. Gertakari horietako hiru baizik ez ditut hemen, eta trazu orokorrez soilik, marraztuko.

1. Pasartea - Rivière: maskara baten aitorpenak

Cybermanga feminista queer trans horren lehenengo gertakaria Ingalaterran kokatu behar dugu, joan den mendeko 20ko urteetan. Binetetan, Joan Rivière emakume gaztea ikus dezakegu, praka-traje bat jantzita, hitzaldi bat ematen ari dela, Londresko Psikoanalisi Elkargoan, 1929. urtean. Rivière Ernest Jonesen tutoretzapean zegoen, eta binetetan ikusten denez, gehienbat gizonak osatzen duten asanblada batera doa. Bere hitzaldia, “Womanliness as a Masquerade”⁴ izenburukoa, generoa performance gisa, antzeppen gisa, eta zeinuak proiektaturik dauden azal gisa definitzeko lehenengo urratsa izan zen.

Rivièrek adierazi zuenez, Ernest Jonesek⁵ emakumezkoen sexualitateaz egindako sailkapena hartu zuen oinarritzat, hau da, emakume heterosexualak eta homosexualak.

Baina, Jonesek “bitartekoak” izendatu zituen emakumei buruzko interesa azaldu zuen bereziki. Jonesi fidelotasuna gordetzen ziola esaten zuen; baina, Jonesek egindako emakumezkoen sexualitatearen taxonomiak huts egiten duen lekuan bertan hasi zen Rivière. Taxonomiak sexu aniztasuna sistema baten barruan lotzeko joera daukan era berean –sistema horren osagarriak arrunta edo

patologikoa den konfigurazio idealaren batasuna eratzen duten elementuak direlarik—, bitarteko formek heterogeneotasun edo anomalia modukoa osatzen dute, arrunta eta patologikoa denetik haraindian kokatzen dena; horrela, bitarteko formek patologikoa denaren benetako formak balira bezala jarduten dute, edo areago esanda, arrunta denaren forma patologiko gisa. Jonesek deskribatutako bitarteko emakume guztien artean, batek bereganatu zuen, bereziki, Rivièreren arreta kritikoa, alegia, Rivièreren hitzetan, “heterosexualitatearen eraketa arrunta maskulinitatearen alderanketa patologiko batek” indarturik zeukanak: emakume heterosexual maskulinoa zen, eta emakume horri ondo egokituko litzaioke *hetero-butch* izendapena.

Beharrezkoa izango da unea antzematea, non erretrikoa den lekualdatze xume baten ondorioz, beste edozein bezalakoa den kasu baten narrazio lehengoratzek, edo bitarteko emakume eredu baten azterketak, bere buruaren inguruan zuhurki bira egiten duen, analisi autobiografikoaren une bihurtzeko. Rivièrek bere buruaz hitz egiten du beste bat balitz bezala, bitartekatutako emakume baten bidez; batzuetan, berak dioenez, gaixo bat da, beste batzuetan, esaten duenez, ezagutu duen emakume intelektual bat. Horrela, feminitatearen bitarteko formaren analisia kasuen kontaketa kopuru jakin baten bidez burutzen da, kasu horiek benetako “bitarteko emakume” gisa jarduten dutelarik Rivière emakume heterosexualaren eta Rivière psikoanalista maskulinoaren artean. “Emakumea, esaten du Rivièrek bitarteko emakumea deskribatzean, nazionalitate amerikarrekoa zen, bere lanbidean karrera militante bati emana, idaztera eta hitz egitera behar izan zuena... hitz egitea eta idaztea zen lan intelektualaren oinarria bere aitarekin zuen begien bistako identifikazioa zen, aita hasieran idazlea izan baitzen, gero karrera politiko aukeratu bazuen ere”⁶. Harriduraz, “bitarteko emaku-

mearen” oreka libidinala mehatxatzen zuten ezaugarri maskulinoak aurki ditzakegu bertan: mintzatzea eta idaztea plazan erabiltzea, eta bizitza politikoan aritzea. Rivièreri interesatzen zitzaiona disoziazio hirukoitza zen, feminitatearen sexu anatomikoaren, sexu jardueren eta kultur jardueren artean. Rivièreren bitarteko emakumea, psikoanalisiaz hain arduratuta dagoena, ez da XX. mendeko emakume berria besterik, mendebaldeko gizarte industrial berrien emakumea. Barruko espazioaren eta kanpoko espazioaren arteko tartetxo batean kokaturik dago, bi espazio politikoaren arteko mugan bertan: betidanik emakumeentzat izan den etxeko espazioaren eta gizonek hitza eta ordezkaritza baliatzen dituzten espazio publikoaren artean. Bitarteko emakume multzo baten erretratuaren bitartez –bera ere multzo horren barruan zegoen–, Rivièrek ondorioztatu zuen feminitatea, bere aditz forman, performanceren ikuspegitik, “emakumearena egitea” bezala deklinatua, babes bat dela, maskulinitatea ezkutatzeke. Nietzsche izan zen feminitatearen izaera artifiziala aldarrikatu zuen lehenengoa, feminitatea naturaltasunik ez, itxura, hondorik gabeko forma gisa definitu zuen lehenengoa. Baina, maskara horren nolakotasun zehatza deskribatu zuenean, naturaltasunik ez horren eraginkortasun politikoa deskribatu zuenean, hain zuzen ere, hasi zen Rivière Nietzscheganako bide bitxia urratzen⁷. Bitarteko emakumea salbuespen metaetikotzat hartuta, Rivièrek eskaini zuen, lehenengo aldiz, feminitatearen sorrerari buruzko interpretazio politiko eta kulturala, psikoanaliaren ohizko nosologiatik urruntzen dena. Gizonezkoen espazio politikoaren transgresioak eragiten duen antsietateak bitarteko emakumeengan sorrarazten du, Rivièrek dioenez, feminitate heterosexuala era hiperbolikoan antzezteko behar konpulsiboa, eta antzezte horrek, “emakumearena egitea” horrek, maskara baten modura funtzio-

natzen du. Maskara horrek ahalbidetzen du historikoki gizonezkoena izan den botere eta ekimen publikoko espazioaz jabetzeagatik zigortua izatearen beldurak sortutako antsietatea murriztea: “Feminitatea nork bere gain har dezake eta maskara gisa eraman, maskulinitatearen existentzia disimulatzeko eta aldi berean errepresaliak saihesteko”, alegia, gizonen errepresaliak. Feminitatearen maskara eramatea, Rivièreren iritiz, emakumeak “kastratua balitz bezala jokatzeko” da. Feminitate nozioa “maskara”, “antzezpen”, “mamu” edo “rol joko” gisa ikusteak psikoanalisiaren oinarri ontologikoa aldatzea eragin zuen.

Rivièrerek ontologia psikoanalitiko leherrarazi berri zuen, benetako feminitatearen eta maskaratzea den feminitatearen arteko benetako desberdintasunaz galdetuta, honakoa erantzun zuenean: “ez dago desberdintasunik. Feminitatea, funtsezkoa edo azalekoa, gauza bera da beti”⁸. Rivièreren erantzun nominalista horretan antzematen dira tradizio psikoanalitikoak uko egindako testu horri buruz hainbat feministak –Judith Butler⁹ edo Teresa de Lauretis, 90eko urteetan– egindako irakurketak. Generoa, orduan, maskara bat besterik ezkututzen ez duen maskara gisa deskribatu zen, atzean imitazio bat baizik gordetzen ez duen imitazio gisa. Originala, horrela, maskararen atzera begirako naturalizatze gisa agertzen zaigu. Naturalizatze hori, bestalde, normalizazio prozesu politiko baten ondorioa besterik ez da. Sexu-generoa den trokela maskara-kopuru mugagabe baten gainean datza, maskara horiek biraka ari direla, antsietateak eta beldur politikoak sortutako finkapen bakarrari lotuta. Maskarak bata bestean bermatzen dira, aurkaritzazko antolaketa. Generoaren metafisikaren amaiera iragartzen da, ez argitze prozesu gisa, maskaren arteko banantze gisa baizik.

Mary Ann Doanek¹⁰, Rivièreren eta Noël Burch-en¹¹ hartze zinematografikoaren estetiken arteko irakurketa

gurutzatu batean, feminitatea irudi gisa deskribatzen du, irudikapen sistema konplexu baten emaitza gisa, irudikapen sistema hori, Doanek “genero” izendatzen duelarik. Rivièrekek, maskararen ikuspegitik, feminitateari buruz egindako tesia zeinu ikusgarrien ekoizte eta hartzeari buruzko teoria gisa irakurri zuen Doanek, hau da, teoria zinematografiko gisa. Ikuspegi horretatik begiratuta, generoa tresna ikonografikoa da, maskulinitatearen eta feminitatearen irudikapen batzuk produzitzea eta erreproduzitzea ahalbidetzen duena. Gizonen eta emakumeen arteko botere harremanari buruz, baina baita heterosexualitatearen eta homosexualitatearen artekoari buruz ere, ikuspen-ekoizpenaren ikuspegitik hausnar daiteke. Ia aldi berean, Teresa de Lauretisek nabarmendu egin zituen, ez hain zuzen ere irudikapenak (maskarak), atxikitze teoriak izenda genitzakeenak baizik, eta horrela, zinea generoaren teknologia dela esan genezake.

2. Pasartea: Womanhouse Project

Baina, 60ko urteen bukaera arte itxoin behar izan zen, hiri-gerrillako lehenengo talde feministak feminitatearen “maskaraz”, kritikarako eta protesta politikorako erabiltzeko asmotan, berriro jabetu ziren arte. Performancea, Rivièrekek deskribatu zuen moduan, defentsa mekanismoa baldin bazen ere, mendearen bukaeran, zegoeneko, gogoeta izaera garatu zuen, eta era horretan, gizarte protestarako eta gune publikoaren aldaketarako benetako tresna bilakatu zen. Feminitatearen performance kontzientzia horri esker, beharbada, azaldu ahal izango da ekintzailtza feministaren eta performancearen arteko harreman eratzailea; bai, behintzat, sinistu behar baldin baditugu Eleanor Antinen hitz hauek: “berez, Kaliforniaren hegoaldeko emakumeak izan ziren, ia, performancea asmatu zutenak”¹².

Performance feministatzat har dezakegunaren sus-traiak gerrilla-antzerkian eta Ipar Amerikan, 60ko eta 70eko urteetan izandako unibertsitate eta kaleko matxinadetan, eta mugimendu feministetan aurki ditzakegu¹³. Performance ohitura hori ez da, hortaz, hogeigarren mendearen hasierako abangoardia europarren ohituraren kiderik, aitzitik, Estatu Batuetan, Civil Rights mugimenduan oinarrituta, gutxiengoan borrokek abian jarri zuten tradizio politikoaren kidea baizik. Hirurogeiko urteen bukaerako performance politika feministen ezaugarriak, feminismo amerikarraren betidaniko irudiarenak ez bezala, politikoki guztiz “desegokiak” izatea eta bazterketaren identitate baliabideak muturrera eramanda erabiltzea dira. Estatu Batuetan, ekintzailtza feminista komunikabideetan gauzatu zen lehenengo aldietako bat Atlantic Cityn izan zen, 1968. urtean, Miss Amerika lehiaketaren parodia burutu zenean; bertan, bularretakoak eta takoiak (emakumeen gorputza arautzeko protesiak) erre zituen jende multzo batek, “Freedom Trash Can” batean, askatasunaren zaborrontzi batean, alegia. Parte hartzaile batzuek ez ezik, telebista amerikarrak ere grabatu zuen kameraz ekintza, eta nazioarteko emanaldia egin zen. Era horretan, bularretakoak erretzeak sarbide erritoen izaera hartu zuen, Europako eta Latinoamerikako mugimendu feminista batzuen sorreran. Urte horretan bertan, WITCH (Women’s International Terrorist Conspiracy from Hell) izeneko gerrilla-talde feministak “sorgin, maitagarri eta emakume gerrarien batzordea” antolatu zuen, Wall Street-eko zaldun ahalguztidunei begizkoa egiteko. Guerrilla Girls izenekoak, urte batzuk geroago, performance usadioaren ondorengo zuzenak izan ziren. Baina, feminismoaren protesta, performancearen bidezkoa, halaber, arte jakintzen eta jardunen ekoizpen eta transmisio espazioen kritika gisa antolatu zen, bereziki Estatu Batuetako mendebaldeko

kostaldean, Arte Ederren fakultateetan. Judy Chicagok, 1969. urtean, Fresno State Collegeri (gaur egun California State University, Fresno) eskatu zion arte feministari buruzko ikasketa egitarau bat sortzea, emakumek artea ekoizten eta erakusten zen ingurunean pairatzen zuten bazterkeriaren aurkako erantzun gisa. Era harrigarrian, Chicagok antolatu zuen feminismoari buruzko lehenengo ikastaroa bere etxeko sukaldean burutu zen, eta horregatik, hain zuzen ere, jarri zitzaion “Kitchen consciousness group” izenburua. Talde lan horretan, performancea prozesu luzeago bateko une gisa agertzen da, Kathie Sarachild-ek, Hegel eraman zuelarik pentsaezinak ziren etxe-eremuetara, “kontzientziatzea” izendatu zuen prozesukoa. Hitzaren banatze horizontala eta homogenea lortzen duen metodo bat da, mintzamina, entzumena eta performance ekintza bitartekoak direlarik narrazio autobiografikoa, kolektiboa eta politikoa, eratzeko. Prozesu horretan, performancea narrazioen antzezte gisa agertzen zaigu, eta zehazkiago, narrazioetan azaltzen diren genero-, klase- eta arraza-eginkizunen antzezte gisa. Performancearen erdiespen prozesu horren emaitza ez da feminismoaren subjektu politikoaren ekoizte/asmaketa baizik.

Programa Feministak ekoiztutako lehenengo proiektua, *Cunt Art* (aluaren artea) izenekoa, sexualitate femeninoaren izendapen zitalaz berriro jabetzen eta politika eta estetika aldarrikapenerako toki bilakatzen saiatu zen. Beste hizkuntza-esanahi emate hori, beranduago Judith Butler-ek “laidoaren performance-alderantzketan” izendatu zuena¹⁴, muturreko feminismoaren eta queer politiken arteko jarraipen ardatz gisara agertu zen.

1971. urtean, Judy Chicago eta Miriam Shapirok Arte Feministaren programa bati ekin zioten, CalArts-en, California Institute of the Arts-en, alegia. CalArts-ek unibertsitate campusetik at zegoen instalazio bat eman zion, Los

Angelesko hiri esparruaren barruan, Mariposa Street-en. Bazirudien programak, Chicagoren sukaldetik etxe-ingurune berri batera igaroz, zalantzan jartzen zituela, behin betiko, jakintzaren arkitektura nahiz eraikuntza instituzionala bera. Sei astetan, hamasei emakumek osaturiko taldea Womanhouse Project gauzatu behar zen gune itxian bizi eta lanean aritu zen, etxeak zituen hamazazpi geletako bakoitza guztiz aldatu zituztela. Emakume gorputzaren luzapena den etxe espazioari, eta itxitura eta diziplinarako erregimena osatzen duten ezkontza eta sexu instituzioei egindako kritika nagusitu zen. Horrela, sukaldea, esate baterako, oso osorik arrosa kolorez margotuta eta pixkanaka bular bihurtzen diren arrautza frijituez tapizatuta, “From eggs to breast” (Vicki Hodgetts-ek egina) lana bilakatu zen; lan horretan, nabarmendu egiten da bularraren eta gorputz-elikagunea den sukaldearen arteko harremana. Kontzientziaztea aztertu zuen talde lanetik sortutako performanceak ugari izan ziren. Horietako batzuk bakarrik aipatuko ditut. “Scrubbing” lanean, Chris Rush-ek egongelako lurra garbitzen du denbora errealean... Hor, performancea errepikatze-prozesu arautu gisa aditzera ematen zaigu, haren bitartez generoa sortu eta normalizatzen delarik. Helburua da, beranduago eta bakar-lanean Martha Rosler-ek sortutako “Semiotics of the Kitchen” obran egin zuen bezala, agerian jartzea etxe inguruneko gorputza arautzeko teknikak: keinua iragankor bilakatzea eta espazioan kokatzea, gorputza etxe inguruneko tresnari egokiturik. Sandy Orgel-ek azaldu zuen oso ondo, emakumezko gorputz baten eta lisatutako izarak dituen armairu baten arteko hibridazioa aditzera ematen duen bere “Linen Closet” piezan, etxe-ekintzen errepikatzearen produktua (garbitzea, lisatzea, eta abar) feminitatea bera besterik ez dela.

Emakumezkoen gorputza, horrela, genero arauen errepikapen erritualizatuaren efektu gisa agertzen zaigu,

performanceak, jendaurrekoa eta ikusgarria den instantzia gisa, era kontzientean agerian jartzen duena. Zalantzarik gabe, lan gogoangarrietako bat “Cock and Cunt Play” izan zen. Bertan, Faith Wilding-en eta Janice Lester-en gorputzek gizonetzkoen eta emakumezkoen sexu-organoen forma hartu zuten, hurrenez hurren.

Pieza hori interesgarria baldin bada, ez da generoa kritikatzeko duelako, sexua eta sexualitatea performancearen ikuspegitik kritikatzeko dituelako baizik, eta horrela, Annie Sprinkle artista eta antzezle pornoak beranduago burutu zuen lan dekonstruktiboa iragarri egiten du.

Performancearen arte eta politika jardunek ez dute haien berezko tokirik aurkitzen banakoen gorputzean, izan ere, espazio pribatuaren eta espazio publikoaren arteko mugen aldaketa izaten dira beti. Performancea beti-beti izaten da espazio politiko baten sorkuntza. Womanhouse Project-en, esaterako, etxe-gunearen publizitatea¹⁵ izan zen, eta horren bidez, gorputzaren, sexualitatearen eta etxeari dagokionaren arteko harremanen kritika egiteaz gain, museo instituzioen kritika ere –eta nagusiki– izan zen. Arazoa da, hortaz, nola berregin performancearen ikuspegitik egindako feminismoaren historia, historiografia klasikoaren barruan; historiografia klasikoak banako artista eta obra lehenesten baititu, eta talde ekoizpena eta espazio politikoaren aldaketa baztertzen baititu.

3. Pasartea. Deconstructing Manolo: drag kulturak

70ko urteetako arte feminista amerikarraren inguruko mugimendua eta drag queen-en sorrera garaikideak dira. Drag queen feminitate gayaren performancearen kultura da, eta horren inguruan eraiki zen Susan Sontag-en formulari jarraiki *camp estetika* izendatu zena¹⁶. Berez, Butler-ek, 80ko urteen bukaeran, performancearen

ikuspegitik egin zuen generoaren kontzeptualizatzea drag queen irudiaren baitan dago neurri handian, beti ere “genero performanceen errepikapen erritualizatuaren” bidezko feminitatearen ekoizpenaren adibide paradigmatico gisa. Berriro ere, Rivièreren maskaratzeko nozioak, ikusmolde postmoderno goiztiarrekoak, eragin handia izan zuen feminitatearen antzezpeneri buruzko analisisetan. Hala ere, feminismo politikoaren subjektu bera ere ustez arriskuan jartzen zuen inflazio dekonstruktibo hori¹⁷ ez zen indar beraz erabili maskulinitatearen kritikan. Filosofoak eta psikoanalistak –Lacanekin hasi eta Kristeva eta Baudrillard-ekin bukatuz– feminitatearen itxura izaeraren inguruan ados jartzen ziren bitartean, maskulinitatea bera parodia gisa interpretatzeko 80ko urteen erdialdera arte itxoin behar izan zen¹⁸, drag king kultura sortu zenean. Egia da horrek politika eraginkortasun handia izan zuela botere ekoizpenaren esparruan, baina parodia zen azken buruan, drag queen performancerik kitschena bezain-besteakoa.

Del La Grace Volcano eta Diane Torr lehian aritu dira King mugimenduaren egiletasuna norik berea dela baieztatuz. Baina, zentzugabea izango litzateke egilea bilatzea berez sasikoa den maskulinitatearen imitazioaren eta parodiaren jardunari. Jardun hori, sortzaile edo zentro bakarrenekin lotuta egon beharrean, geografi gune anitzetan sortu eta mugitzen baita, errizoma-bertigo batek bultzatua balitz bezala, giroko lokaletatik elkarte eta gune politikoe-tara, eta askoz ere beranduago, erakusketa aretoetara hedatu da.

1985ean, San Franciscoko lesbianen Bur/LEZK klubak Shelly Mars kontratatu zuen emakumeentzako strip-tease femeninoa egin zezan. Lehenengo emanaldien ondoren, Shelly Mars ohartu zen Bur/LEZK klubeko ikusleentzat ez zela erakargarria biluztea zen strip-tease

klasikoa, hots, klub heterosexualetako antzetzokietan nagusitzen zena bezalakoa; aitzitik, gizonetzkoen ikuspegiari erantzuten zion feminitate forma bat taularatzearen aurrean kritiko agertzen zen. Ikuspegi horren aurreko erreakzio gisa, hain zuzen ere, erabaki zuen Shelly Marsek ohizko pornografiaren logika alderantzikatzea, eta Martin *drag* maskulino baten strip-tease antzetztea. Martin bezero hordi eta baldarra zen, jaka eta gorbatazko trajea jantzita strip-teaserako musikaren erritmoari jarraiki dantzatzen zuena, eta azkenean, bere bragetatik ateratzen zuen banana bat ikusle lesbianeiei eskaintzen zien, eta publikoak banana irensten zuen barre-algaraka ari zela. Lehenengo king pertsonaia hura *Virgin Machine* filmean betikotu zuen Monika Treut zine-zuzendari alemaniarrek. Shelly Marsek Martin antzetztean, porno klub guztien bezeroak parodiatu zituen, eta maskulinitate lesbianaren forma bat deklinatzean, king sedukzioaren estetika sortu zuen, aldi berean hainbat identitate berekin ekarriz, identitate horietako batek ere ustez ikusten duguna ez duelarik erreferente.

Garai hartan, Del (Dela) La Grace argazkiak egiten hasi zien, *Chain Reaction* klub londrestarreko butch-fem kultura eta S&M kultura lesbianari buruz, eta *Love Bites* ekoiztu zuen. 1989an, artista eta performance-egilea den Diane Torr-ek drag king lehenengo tailerrak abian jarri zituen (“Drag King Workshop: King-For-A-Day”) New Yorken. Diane Torr-en lanak generoaren performance izaeraz kontzientziatzea eta maskulinitatearen gorputza berriro ikastea bultzatzen zuen, eta benetako trantsizio gune gisa agertzen zaigu, 70eko urteetako performance feminista amerikarraren kulturaren eta zehazki queer den 90ko urteetako drag king kulturaren artean. Judy Chica-gok, *Cunt and Cock Play* obran, generoen arteko sexu-harremanaren karikatua egin zuen, bi emakume hurrenez hurren maskulinoa eta femeninoa ziren bi sexu-organo

bihurtzean burututako metonimia sinboliko eta proestetikoaren bidez; Diane Torr-ek, bere aldetik, joko sinbolikoa baztertu zuen, eta zuzenean heldu zien generoak gorputzaren erabilera publikoan eta pribatuan sortzen dituen ondorioei. Diane Torri interesatzen zitzaiona, bere hitzetan, “maskulinitatearen antzeppen ikaskuntzaren bidez, gorputzaren esperientziarako berria den lurralde bat sortzeko aukera”¹⁹ zen; izan ere, gorputza debekatu egin zaigu, generoaren banatze politikoa egin delako. Horrela, imintzio bakoitza, ibiltzeko modutik esertzeko modura, tartean jateko modua ere dagoela, analizatu egiten zen tailerlean, generoaren ikuspegitik. Esate baterako, Torrek frogatu zuen, “benetako” gizona hankak irekita esertzen dela, ahalik eta espazio gehiena hartuz, eta “benetako” emakumeak, aldiz, hankak lotsakor gurutzatzen dituela, ia tolesgarri bilakatu arte. Maskulinitatea da, performancearen ikuspegitik gorputzari buruz egindako analisi horren arabera, zabalkunde printzipio bat; eta feminitatea, berriz, tolesteko betebeharrak gisa agertzen zaigu, eta azken buruan, Diane Torrek baieztatzen duen bezala, “ezintasun eta ikusezintasun” modu bat da²⁰. Diane Torr-en iritziz, maskulinitatearen king antzeppen-pertsonifikazioak pribatua denaren eta publikoa denaren arteko mugak berriro definitzera bultzatzen du, eta gorputzaren politika- eta sexu-jardunaren espazioa aldatzen du.

Drag king-en lehenengo lehiaketa Londresen egin zen, 1995ean, Gay eta Lesbianen Zinemaren Nazioarteko Emanaldiarekin batera. Bertan egon ziren Del La Grace Volcano eta Judith Halberstam, eta Londres, New York eta San Franciscoko drag king kultura antzezteko proiektuari hasiera eman zitzaion. Horren emaitza, *The Drag King Book* argitaratzea izan zen, 1999an. Londresen, king zeremoniamaisua *Jewels* izan zen, matxo ingeles zaharraren (*geezer*) maskulinitate lizun eta narratsaren mota bat antzeztu zuena.

Jewels, zurrutaria, puzkerren erregea eta, zalantzarik gabe, inpotentea, baina, auzoko “katutxo” guztiak erakartzeko bere gizonezko erakarpenez ziurra, Hustler aldizkariatik aterea dela dirudi. Jewelsek, egiatan, herri kulturaren aurkitzen diren lesbiana marimotrailuen irudikapenaren antza dauka: “ez daukate eduki behar dena”, baina, era ulertezinean, zeharo erakargarria da. Londresko Naïve –geroago Knave izendatua– drag king kluba, garai hartan, Camp King-i dagokionez, Pink Flamingos Queen ingurunerako izandako gauza bera da. Knave kluba mugatzen duen lurraldea camp da, ingeles kulturaren balio guztien alderantzikatzea baimentzen duelako (genero, klase, arraza balioak). Knaveko king-ek estilo bihurtzen dute gustu txarra, eta langile ingelesaren homofobia joko homoerotiko.

Halberstam eta Del La Gracek partekatzen zuten proiektuaren garrantzia honetan datza, alegia, kultura lesbianaren, butch-fem-en eta king kulturari buruzko irudikapena nahiz diskurtsoa ez datozela Monique Wittgen esamoldearen arabera deienezakeen *straight* antropologia edo soziologiatik²¹, aitzitik, autoirudikapen eta autonominatze prozesu baten emaitza dira-eta. Halberstam-ek esaten zuen bezala, “batzuetan, Del-ek bere kingak parrazten ditu, eta etnografo edo voyeur baten begiradaz begiratzen die; baina, hurrengo irudian, antzezpeneraren barruan sartzen da, eta king-en errege bilakatzen da, bere maskulinitate lotsagabeaz”²². Diskurtsoaren ekoizpen baliabideez eta generoa antzezteko teknologiez jabetze hori queer kritikaren ezaugarria da, diziplina tradizionalak hizpide dituenen, horietan, gay, lesbiana, edo trans irudiek “kanpo eratzaileren” eginkizuna betetzen baitute, horren inguruan finkatzen delarik normaltasun heterosexuala.

Laurogeita hamarreko urteetako lesbianen kabareta egiten zuten hainbat talde, hala nola, Split Britches edo

The Five Lesbian Brothers, jadanik arituak ziren maskulinitatearen antzezpena lantzen; Diane Torr-en eta hainbat klubetan –HerShe Bar, Casanova edo Meow Mix– egiten ziren drag kingen antzezpenean aldean, gorago aipatutako lanaren barruan “matxoaren” izaera naturala zalantzan jartzeko duen maskulinitate queer-en performance eta antzerki ekoizpena sartzen zen. Era horretan, Elvis Presleyren, Marlon Brandoren, dandy ingelesaren (Hans Scheirl), habanar purudun mafiosoaren eta limurtzaile harropuztaren bertsio *lesbiko-camp*-ak asmatu ziren. Gero, king tailerrak eta jarduerak zabaldu egin ziren: New Yorken, Diane Torrek bultzatutako jarduna laurogeita hamarrekotatik urteetan hedatu zen jendartean, eta Annie Sprinkle ekintzaile-pornoak tailerrak antolatu zituen, Jack Amstrongekin batera; Alemanian, Bridge eta Antonia irudiak eta antzeko beste batzuk sortu ziren, eta askoz ere beranduago, Frantzia eta Espainian, Victor Little King eta Bob Godek abian jarri zituzten performance king joerako lehenengo tailerrak.

Camp jardunek, *queen* nahiz *king* izan, ikuspen gune bat sortu zuten, maritxu, lesbi eta trans kulturak berezko duena, nagusiturik dagoen herri kulturaren feminitate eta maskulinitate ereduaren birziklapen eta parodiazko deklinazioaren bidez. Gaur egun, gizon eta emakume, maskulino eta femeninoaz gain, homosexual eta heterosexual terminoak ere agertzen zaizkigu bitar edo aurkakotasun motz gisa, queer gorputzen egungo ekoizpenaren ezaugarriak zehazteko. Berresanahi edo normalizaziorako erresistentziatik hareago, performance politikak esperimentazio eremu bilakatuko dira, subjektibotasun berriak sortzeko leku, eta hortaz, politika egiteko ohiko moldeen benetako alternatiba izango dira.

Oharrak

- ¹ Juan Mari Mendizabalek itzulia. *Zehar* aldizkariaren 54. alean argitaratu zen estreinakoz euskaraz. *Artelekuk* lagatako testua.
- ² Erabiltzen dudana “gutxiengo” kontzeptua, Deleuze eta Guattarik hurrengo lanean erabiltzen dutena da: *Kafka, Pour une littérature mineure*, Minit, Paris, 1975, “iraultzaren erreserba”, “aldaketa politikorako indarra”, “deslurralderatzeko koefizientea” diren aldetik.
- ³ Foucault, M. “Nietzsche, la généalogie, l’histoire” (1971) in *Dits et écrits I*, Gallimard, Paris, 1994.
- ⁴ Rivière, J. “Womanliness as a Masquerade”, *International Journal of Psycho-Analysis*-ek argitaratua, X, 303.-313. or., 1929. Jatorrizkotik 1964an frantsesera Victor Smirnoffek itzulia *La Psychoanalyse* aldizkarirako, VII. Lib., PUF, Paris.
- ⁵ Jones, E. “The early development of female sexuality”, *International Journal of Psycho-Analysis*, VIII, 1927.
- ⁶ Rivière, J. op.cit., 199.-200. or.
- ⁷ Nietzsche, naturaltasunik ez eta feminitateari buruz, ikus: Derrida, J. *Eperons, Les styles de Nietzsche*, Flammarion, Paris, 1978.
- ⁸ Rivière, J. op.cit., 203. or
- ⁹ Ikus: Butler, J. “Lacan, Rivière and the Strategies of Masquerade” in: *Gender Trouble. Feminism and the Subversion of Identity*, Routledge, Londres, 1990.
- ¹⁰ Doane, M. A. “Film and the Masquerade: Theorizing The Female Spectator”, *Screen*, 1982ko iraila-urria, 23. lib., 3.-4. zk., 74.-78. or
- ¹¹ Burch, N. *Theory of Film Practice*, itz. Helen R. Lane, Praeger, New York eta Washington, 1973.
- ¹² Aipatua in Rubinflen, L. “Through Western Eyes”, *Art in America*, 1978, 66. lib.: 76. or.
- ¹³ Mugimendu horren ikus-artxiborik handiena Laura Cottinghamen *Not for sale* filma da.
- ¹⁴ Butler, J. “Acerca del término queer” in: *Cuerpos que importan. Sobre los límites materiales y discursivos del “sexo”*, itz. Alcira Bixio, Paidós, Buenos Aires, 2002.

- 15 “Publizitate” hitzarekin aipatu nahi dut ingurune publikoaren eraldaketa eta masa-komunikabideekiko harremana, hain zuzen ere Beatriz Colominak erabilitako kontzeptua, in *Privacy and Publicity. Modern Architecture as Mass Media*, MIT, Cambridge, 1994.
- 16 Sontag, S. “Notes on Camp”(1964), *Against Interpretation*, Vintage, New York, 1980.
- 17 Feminismoaren subjektuaren krisiari buruz, ikus: Braidotti, R. *Feminismo, Diferencia Sexual y Subjetividad Nómada*. Argitalpenaren arduraduna: Fischer Pfeiffer, A., Gedisa, Bartzelona, 2004.
- 18 Emakumeek maskulinitatearen antzezpenaren aurrekariak badaude, bai antzerkian, bai ballet klasikoaren dantzan, eta baita 20ko urteetako Harlem Renaissancen ere –Storme Delaverié edo Gladys Bentley dira aipagarriak–; baina, 80ko urteetan bakarrik has gaitezke maskulinitatearen performancearen benetako kulturaz hitz egiten.
- 19 Diane Torr, Gabriel Baur-en *Venus Boy* (2002) filman aipatua.
- 20 Ibidem.
- 21 Wittig, M. *The Straight Mind*, Beacon Press, Boston, 1989.
- 22 Halberstam, J. *The Drag King Book*, Serpent’s Tail, London, 1999: 7. or.

Genero eta sexualitateen dantza: literaturatik kalera eta kaletik literaturara

Kattalin Miner

Sexu eta generoaren inguruan

Genero hitza euskal hiztegietan bilatzen jarrita, emaitzek, dauden gutxiek, ez dizute gehiegi argituko hemendik aurrera hitz egingo dugun generoaren esanahia. Harluxet hiztegiak, honako definizioak eskainiko dizkizu:

genero iz. 1. Ezaugarri komun bat edo batzuk dituzten izakien multzoa. 2. BIOL. Bizidunen sailkapenean, familia baino txikiagoa den eta oso antzekoak diren espeziez osatuta dagoen taxonomi taldea. 3. HIZKL. Izenak, propietate formaletan oinarrituz, hainbat klasetan sailkatzen dituen kategoria gramatikala. 4. LIT. Arau- eta estilo-ezaugarri multzo berezi batzuek mugatutako literatur lanen kategoria. *Genero dramatikoa, epikoa*. 5. Ik. jenero. • genero-pintura. ART. Eszena familiar eta herritarrak irudikatzen dituzten obrak biltzen dituen kategoria.

Definizio hauetan, ez da aipatu ere egiten gizarte eraikuntzarik; BIOL, HIZKL, LIT, eta abarretan ez dago SOZIOLOGIA dioen definiziorik. Alabaina, guk generoaz

hitz egingo dugunean, eraikuntza sozial baten gainean jardungo dugu. Baina sakondu baino lehenago, ikus dezagun euskal Wikipediak eskaintzen diguna:

Genero (soziologia): sexuen kategoria biologikoari loturiko gizarte kategoria.

Hauxe da euskaraz eskaintzen zaigun definizio osatuena, lerro bat. Baina generoa sexuen kategoria biologikoari loturiko gizarte kategoria baino zerbait gehiago da. Genero eta sexuaren bereizketa nagusia, eraikuntza sozialean datza. Generoak jaiotzean dugun sexu biologikoaren gainean ezarritako rol sozialak dira, generoa gizarte hau oinarritzen den zutabe indartsuenetariko bat da. Emakume izatea, edo gizon izatea atxikitzen zaigun unetik, bizitza baldintzatuko digun atributu batez ari gara. Generoak gainera, haren ezaugarrien artean, berriz ere gizartea nolabait erregulatuko duen pisuzko arau bat atxikitzen dio sexu bakoitzari, izan ere, jaiotzez esleitu zaigun generoa dena delakoa izanda ere, heterosexualitatea inposatzen zaigu inongo zalantzarik planteatu aurretik. Gizon izaten ikasiko dugu, emakume izaten ikasiko dugu, heterosexualak izango gara eta hala izango da bizitza osorako. Heteroarau eta heterosexismo batean oinarritutako gizarte eraikuntza baten oinarriak dira hauek guztiak.

Baina hau ez da guztiz egia, ala, benetan betierekoak, aldaezinak eta bakarrak al dira bi genero eta heteroarau hauek? Zer da, bada, gizon/emakume izatea? Zerk egiten du pertsona gizonago edo emakumeago? Nola ikasten dugu, nola gorpuzten dugu eta nola bizi ditugu generoak? Hori horrela izanik, zer da heterosexuala izatea?

Harluxet hiztegiaren arabera heterosexuala “beste sexuko pertsonetikiko joera duena, homosexualari kontrajarria” da, baina hemen ez da generorik ageri. Eta beraz, homosexual bilatuz gero “sexu bereko pertsonenganako

joera sexuala duena, heterosexualari kontrajarriz erabilia” azalduko zaigu. Hain kontrajarriak al dira? Orain sexu eta generoa dudan jarriko ditugun honetan, hain aldaezinak al dira? Homosexuala *sexu* bereko pertsonetikiko joera duena bada, non geratzen da generoa?

Generoa sexuen kategoria biologikoari loturiko gizarte kategoria dela esan berri dugunez, homosexuala *genero* bereko pertsonetikiko joera duena litzateke. Erraz ulertu dezakegu hau adibide batekin. Sexua sexu-organoari lotutako kategoria edo baldintza izanik, demagun bio-gizon heterosexual batek, egoera batengatik edo bestea-gatik haren zakila (sexua beraz) galtzen duela, dudan jarriko al genuke haren heterosexualitatea? Haren sexuarekiko joera duen bio-emakumearen heterosexualitatea dudan jarriko al genuke? Haren heterosexualitatea ez litzateke dudan jarriko, genero maskulinoaren barnean kategorizatzen jarraituko genukeelako.

Galdera hauek guztiak, egungo queer teoriak jorratu eta dudan jartzen dituenak, ez dira atzo goizeko kontuak. Literatura beti izan da generoa kolokan jartzeko errekurtsio bat. Egun queer teoriak, korronte transfeministak, eta beste hainbat mugimendu genero-dinamitatzailek lantzen dituztenak, aspalditik beste ahots batzuek ere oihukatzen zituzten. Baina gaur egun ere, literaturak genero eta sexualitateen inguruko hausnarketak egiteko errekurtsio izaten jarraitzen du. Gizon edo emakume izatearen inguruko hausnarketak eskaintzen dizkigu, sexu praktika, sexu aukeraketa, lesbainismoa eta homosexualitatea aldarrikatu duten ahotsak izan dira eta badaude, askotan isilarazi eta ezkutarazi badira ere. Azken batean, literaturak gizartean nabari den ezinegona eta bertan ageri diren kezka eta mugimenduak islatzeko balio izan du eta balio du. Beraz, literatura aitzakia bezala hartuz, egun garrantzia eta indar gero eta handiagoa hartzen ari den aferan murgilduko gara.

Horretarako, bi lanen irakurketa egingo dugu hemen: batetik, XX. mende hasierara eramango gaituen Virginia Woolf-en *Orlando* nobela, eta bestetik, gaur egungo errealitate eta berta-bertara ekarriko gaituen Uxue Apaolazaren *Umeez gezurra esaten dutenetik* (Erein 2005) narrazio bildumako “Bueltak” ipuina. Ikusteko, batetik XX. mende hasieran eraikuntza sozialez jarduten zela, bazela generoen inguruko diskurtso bat, eta bestetik, egun badela hurbileko kezka eta gaia literaturan.

Orlando, Virginia Woolf

Orlando 1928an argitaraturiko nobela izanik, errealitate eta testuinguru ezberdin batera jo behar dugu, baina horrek ez du esan nahi, gaurkotasan handiko gogoetak bertan aurkituko ez ditugunik.

Orlando-k generoen performatibitatearen inguruko hausnarketa sakona eskaintzen digu. Horretarako Woolf-ek eginiko lana, egun queer teoriak, mugimendu transfeministek eta beste hainbatek jarraitutako bidearen oso antzerakoa da. Lehenengo, indarrean dauden generoen (batez ere genero femeninoaren) autopsia zehatza egiten du, ondoren horiek hankaz gora jartzeko. Horrekin, pertsona bera bi generoak antzezteko gai dela erakusten digu.

Ondorio argienetako bat, performatibitatea oinarri duen eraikuntza sozial baten aurrean gaudela da, non, gaur egun bezala, generoak dudan jartzeko adibide argiena, haiek performatibizatzeko aukera den. Dena den, sartu gaitezen *Orlando*-ren tripetan.

Liburuaren argumentua labur

Orlando XVI. mendean aurkezten zaigun gazte noble bat da. Literaturak txundituta daukan aristokrata gazte

eder bat eta garai hartako amodiozko istorioak nahiz poesia dira protagonista nobelaren hasieran. Ondoren, ordea, Orlandok bihotza hautsita, Constantinoplara egingo du bidaia eta hemen jazotzen da nobelari buelta emango dion gertaera. Egun batean lo sakon batean murgiltzen da eta egunak eta egunak igaro ondoren, esnatzen denean emakumea da. Aurpegi bera, bizitza bera eta memoria bera du, Orlando da, baina emakumea da. Hemen hasiko dira genero eta sexuaren inguruan Orlandok izango dituen bizipenak.

Nobela gutxienez lau mendetan zehar gertatzen da, non protagonistak beti dituen 30 urte inguru, eta garaiak pasatzen doazela Orlandoren garapena ikus dezakegu, garai isabelinotik XX. mendera artekoa.

Genero femeninoaren inguruko gogoetak

Mugimendu feministek, hasiera batean emakumea subjektu politiko zanpatu bezala identifikatzeko, haren baldintzapena eta beraz eraikuntza soziala hartu zuten oinarri, horrela, alderdi biologiko eta esentzialistak alde batera utziz. Gerora, korrante berriek, eraikuntza hori oinarri hartuta, hura desitxuratzeko edo dudan jartzeko bidea hartu zuten (zer da emakume izatea?). Hau da Woolf-ek hartutako bidea. Horregatik egiten du nobelaren zati luzean zehar emakumearen eraikuntza eta baldintzapen sozialaren inguruko analisi sakona:

Orlando emakume esnatzen den une horretan atzerrian dago eta ez dio garrantzia handirik ematen batbateko aldaketa horri, baina Ingalaterrara bueltako bidaia hasten duenean, barkuz, benetan ohartzen da emakume dela, eta emakume izateak gauza asko esan nahi dituela. Azken batean, herrira itzultzeak identitate batera itzultzea esan nahi du. Gure eguneroko bizitzak, gure egunerokota-

sunean jorratu dugun identitateak eta rolak han jarraitzen dute, eta haiei aurre egitea tokatzen zaio Orlandori.

Woolf-ek generoaren eraikuntzaz hitz egiteko egoera eta gogoeta oso ohikoak erabiltzen ditu errekurtsu bezala. Esaterako, barkuan doan une batean hasten dira gogoeta batzuk, zehazki marinelek nola tratatzen duten ohartzen denean. Haren zerbitzura jokatzeko dute, eta ironia handiz baina horretaz baliatuz, honako gogoeta hauek egiten ditu: “Esto era lo más delicioso; ceder y verlo sonreír (...) es tan celestial como ceder y resistir; resistir y ceder. (...) quizás me tire por la borda solo por el gusto de que un marinero me salve...” Une horretan, emakume izatearen nozio ia komikoa adierazten zaigu, askotan gizartea eskaintzen eta saltzen saiatu zaigun “abantaila” horiek asetu behar gintuzketelako ideia. Emakumea ahula da, eta gizonak hura zaintzea, seduzitzea, ditu betebeharrak eta helburuak. Baina barkuan egindako bidaia luzea da, eta bertan jabetze prozesu bat egiten du; bidaia horrek balioko dio Orlandori pixkanaka genero femeninoaren inguruan eta heteroarauen inguruan dauden jarrera absurdu horiek guztiak identifikatzeko. Segidan datorren gogoeta honetan erakusten ditu lehenengo dudak: “¿Deberé resignarme a respetar las opiniones del sexo contrario por monstruosas que sean?”. Duda horien ondoren, nozio hartze bat dator, jabetze bat, eta emakumearen eraikuntza sozialaren inguruko (edo gauza bera den genero femeninoaren inguruko) kritika eta ezadostasuna datoz.

Esan behar da ironia ez duela albo batera uzten inongo momentutan, Ingalaterran datorkion bizitzaz pentsatzen hasten denean irakur dezakegun moduan: “Solo me será permitido, en cuanto haya pisado suelo de Inglaterra, servir té, preguntar a mis señores cómo les gusta, ¿azúcar? ¿leche?”

Horrelako gogoeten ondoren, lehenago aipatutako jabetze prozesua indartu egiten da, baina ez bakarrik

emakume “izatearen” ingurukoak, baita gizon izateari buruzkoak ere. Orlandok ikusten baitu zer izan den, haren gizon zeneko jarrera batzuk datozkio burura eta oso ondo islatzen du Woolf-en ohiko errekurtsio den barne pentsamenduen bidez, nola jabetzen den, gizon izanda egin behar izan dituen gauza absurduek, edo egin ezin izan dituenek: “Orlando trató de retener las lágrimas (...) hasta que recordó que en las mujeres el llanto quedaba bien, y dejó correr las lágrimas”.

Bidaia horrek, metaforikoki, etengabe aipatu dugun jabetze prozesua islatzen du eta hortaz, bidaiaren amaieran, ia Ingalaterrako lurra zapaltzerekin bat, errebelazio bat bailitzan, ondorio garbiak ateratzen ditu: “Porque las mujeres no son naturalmente sumisas, castas, perfumadas y exquisitamente ataviadas, sólo una disciplina aburridísima les otorga esas gracias...”

Generoak eta sexualitateak

Gizon-emakume binomioa mantendu eta bermatzen duten mekanismoak oso erroturik daude gizartean. Mekanismo hauek askotarikoak izan daitezke: gestualitatea, janzkera (emakumeok arropa estuak erabili beharra, gizonen arropa lasaiak...) edertasunaren kanon gero eta bortitzagoak... Hau da, generoa ez da antzesten den gauza bat soilik, geure gorputzetan indar handiz eta era bortitz batean sartu diren eraginen batura baizik.

Woolf *Orlandon*, erreflexio honetara iristen da janzkera adibide bezala erabilita, zeren Orlando emakume bada ere, jasangaitz egiten zaio une askotan janzkerak dakarkion askatasun eta bizkortasun-galera, mugimenduak egiteko ezina...: “Los trajes, aunque parezca una frivolidad, tienen un papel más importante que el de cubrirnos. Cambian nuestra visión del mundo y la visión

del mundo sobre nosotros.” Edo: “Los trajes no son otra cosa de símbolos de algo escondido muy adentro.”

Trajeek, gestualitate jakinek ez dute gure generoa bakarrik definitzen, harekin batera gure joera edo aukera sexuala ere definitzen dute; kasu honetan heterosexualitate inposatu bat darama bere gain generoen markatzeak. Gorputzak eskaini izan digu lesbiana eta gay askori heterosexualitate horrekin hausteko aukera, zeren ezarri zaigun generoari uko egitea askotan heterosexualitateari uko egitea izan da. Ez dira hain kasualitatezko izan, beraz, “luma”, “marimutilak” eta “maritxuak”.

Orlandorekin jarraituz, esan dugu nobelaren zati honetan, Orlando pertsona bera dela, pertsona bera sentitzen dela, nahiz gorputz aldaketa bortitz bat jasan berri duen. Nobelaren zati honetan, Orlandok gizon trajeak berreskuratzen ditu, eta haiek janzten. Baina ez hori bakarrik, horiek erabilia kalera irteten da gauetan, abentura eta gizon izatearen ziurtasuna bizi gabe ezin baita egon. Jasangaitza egiten zaio trajeek eragiten dioten presioa, kalera gizon batez lagunduta atera beharra, laudorioak... Nobelako zati honetan Orlandok gizon izatea zer den, edo hobe esanda, gizonen atributuak ongi baino hobeto aztertu, imitatu eta berrikasten ditu, bereganatzen ditu, bereak diren heinean, gizontasunaren adierazle diren jarrera, janzkera eta bizipenak: “Orlando recobró los sentimientos propios de un hombre. Miró, sintió, habló, como un hombre”.

Orlandok, gau horietan emakumeekin erlazio sexualak izango ditu. Honek zer esan nahi du? Heterosexuala dela? Trabestia dela? Lesbiana? Hemen Woolf-ek sexu eta genero anbigutasun bat eskaintzen digu. Praktika sexual homosexualak izango ditu. Batzuetan, Orlando gizonen jantziko da eta emakumeekin erlazioak izango ditu, erlazio heterosexual bezala defini ditzakegunak, ala agian erlazio lesbiko bezala. Beste batzuetan gizonen jantzita, beste

gizonezkoekin izango ditu erlazioak; homosexualak dira hortaz harreman horiek?

Terre Thaemlitz-en aipu bat ekarri nahiko nuke gogora, aipatzen ari garen sexu-genero kaotiko hori erraz azaltzen duena:

Zein da nire identitatea gizonetik emakumerako transexual heterosexual batekin harreman bat duen gizonez jantzitako drag queen transgenero bat banaiz, kontuan hartuz nik ez dakidala trans dela? Eta onartzen badut banekiela trans dela, zer? Eta emakumez jantzita banago, zer? Eta gay bada? Eta *queer* bezala identifikatzen bada, zer? Eta bisexuala bada, zer? Zer hartzen da “sexutzat”, eta atzetik ematen ari bazait, zer? Eta ez bada ari, zer? Eta pertsona horrekin harreman monogamo luze bat badut, zer?¹

Nahiz sexu-genero anbigutasun honekin jokatzeko duen, nahiz gauza askoren hausturarekin jokatzeko duen, anabasa guzti horren artean, gauza batzuk agerian eta garbi uzten ditu, eta lesbianismoari erreferentzia zuzena egiten dio: “aunque ella mujer, era otra mujer la que amaba”, edo sexu-askapenari: “cambiaba la honestidad del calzón por una falda, y así gozaba por igual del amor de ambos sexos”.

Beraz honekin ezin esan dezakegu lesbianismoa edo harreman lesbikoak literaturan ezkutaturik egon direnik, argi geratzen da praktika eta sentimendu lesbikoen presentzia egon dela. Ikusi nahi izan den edo ez, beste kontu bat da.

Azken batean, ez da soilik lesbianismoa ikustarazten, heteroarau eta heteropraktikak suntsitzen dira guzti honekin, argi utziz arau hau ez dela betierekoa, ez dagoela hain argi arau horren mugak zein diren eta non dauden; ez dagoela hain argi heterosexualitate inposatuenak ere araurik baduen.

“Bueltak”, Uxue Apaolaza

Uxue Apaolazaren ipuin hau aztertzea ez da gauza samurra. Apaolazak ipuin honekin barrena eta mundu ikuskera hankaz gora jar diezazuke. “Bueltak” (*Umeeek gezurra esaten dutenetik*, Erein 2005) irakurritakoan orain arte sinetsitako gauza asko bertan behera jaus daitezke, bat-batean, ipuinean gorputza bezala, sinetsitako hura guztia lurrean barrena gera daiteke.

Apaolazak ipuin honekin zatika hausten ditu emakumetasuna, feminitatea, heteroaraua; ipuin honetan egileak maskulinitatearen itxura desitxuratzen du, generoen garraztasuna, gezurrak eta hain egiak ez diren egia horiek bertan behera uzten ditu. Sexua eta plazera, sexua eta haren zergatiak. Sexua, generoa; sexuak, generoak.

Sexua eta sexualitatea, jokatzeko erak eta jokabideak, gorputza eta gorpuzkera kolokan jartzen dira zuzenean. Euskal gizartearen sexualitatea, euskal gizarte espezifikoko bateko genero eraikuntza, eta gizarte horretan ere indarrean den heteroarau indartsuena ere, dantzan jarriko da “Bueltak” irakurri ostean. Dantza kaotiko batean.

Gorputza, espazioa, sexua eta generoa

“Taberna luzeetako komunetatik irteten naizenetan hots egiten diot ozenean nire feminitateari, eta maskulinitateari.” Honela ematen dio hasiera Uxue Apaolazak ipuinari. Esaldi horrek gerora irakurriko dugunaren printzipio bat erakusten digu. Esaldi horrekin, genero eta sexuaren arteko harreman hertsia hausten da, hau da, sexu bati esleitutako generoa ez dela bakarra eta betierekoa, generoak aldakorrek direla, bada, maskulinitatea eta feminitatea dituela pertsona orok barnean eta beraz, esan bezala, sexua eta generoaren harremana hausten da (arra=maskulinoa, emea=femeninoa).

Ipuinean zehar idazleak etengabeko erreferentziak egingo dizkio generoak gorpuzteko duen moduari, grafikoki, atalez atal. Gorputzari atxikitutako atributu femeni- no nahiz maskulinoen jabe den pertsonaiaren ahotsak hitz egingo digu eta bi generoen artean dagoen edo bi generoez baliatzen den pertsonaia aurkezten zaigu. “Dei egin diot nire ibilera femeninoari”; “Koskorretan itsatsirik dago nire maskulinitatea, eta baita feminitatea ere.”

Ipuinak kontaktzen diguna, komunetik, itxaroten ari zaion bio-gizon batenganainoko bidean gorputzaren atalak galtzen doan bio-emakume baten istorioa da. Erortzen diren zati horiek bi generoen artean ezbaian dauden zatiak dira eta honekin gogoeta interesgarriak egiten dira, erakutsiz zein modutan eraikiak izan diren gorputz atalak eta haien funtzioak gizon/emakume binomioan oinarritzen den eta heteroaraua betetzen duen gizarte eremuan.

Hemen, komunaren detailea ezin dugu alde batera utzi. Ez da kasualitatea, ipuinean zehar generoaren ingurukoan protagonistari sortuko zaizkion duda eta kezka guztiak komunetik irten ostean hasi izana. Beatriz Preciadoren “Generoa eta zaborra. Pixa egin/kaka egin. Maskulinoa/femeninoa”² testuan ederki azaltzen zaigu komunek, komun publikoek, genero eta heterosexualitate eraikuntzan duten garrantzia. Preciadoren hitzetan komunak “generoa zaintzeko gune bihurtu dira (...) non gorputz bakoitza indarrean dauden maskulinitate- eta feminitate-kodeetara egokitzea balioztatzen den”. Azken batean, edozein banaketatarara behartzen gaituzten unean, nahiz automatizatutako ekintza bat izan daitekeen, beti dago barnean banaketa hori dudan jarriko duen zerbait, barrena aukeraketa horretara zergatik doan galdetuko digun zerbait. Komunekin antzeko zerbait gertatzen da, zergatik joan gizon edo emakume komunera? Zenbaterainokoa da nire emakume/gizon izaera bata edo bestea aukeratu behar

izateko? Antolakuntza hau ez da kasualitatezko antolakuntza, Preciadok dioen moduan, “ez gara komunetara libratzera joaten, baizik eta genero-beharrak egitera”.

Azken batean, generoen eraikuntza hauek sostengu bezala duten heterosistema bat eraikitzeke erabilitako heteropraktikak oinarri bezala funtzionatzen dutela erakusten zaigu. Bi generoen artean ezbaian dabilen gorputz atalak ez du balio eta honela adierazten dira ipuinean gorputz atal horietako batzuk; dagokien generoa ongi betetzen ez duten gorputz atal batzuk horrela joango dira galtzen:

Ipuinean zehar bio-emakumeak galdutako lehen elementua da ezker besoa. Ustez besoa, bi generoetako batean kokatu behar bagenu, gorputzeko atal neutral bezala ikus genezake. Baina besoa ez da elementu pasibo bat, gure gorputzeko atalek atxikituta dituzte funtzio batzuk, eta baita besoak ere. Honela dio: “... ohartu naiz ezker besoari ez zaiola egitekoa oso argi geratu. Galduta dabil, batere solturarik gabe saiatu da gerriari eusten. Ezbaiak ez dira barkatzen”. Gorputza manciatzen jakin behar da, gorputzak, besoak kasu honetan atxikitutako generoak eskatu bezala jokatzen jakin behar du, bestela ez du bere funtzioa ongi betetzen.

Hankek badute sozialki eta estetikoki, ez-funtzionalki orduan, feminitatearekin lotura. Hanka luze eta ederrak feminitatearekin lotzen dira ikuspegi estetiko jakin batetik. Baina itxuraz gain, bi hanka ederrek Apaolazak ederki azaldutako beste funtzio bat dute feminitatean: “Ez dut depilatzeke denborarik izan. (...) Pozten naiz bidean geratu direlako, nire barne segurtasunari egindako halako mehatxurik ezin dut onartu...” Hankek beraz ez dute balio, berriz ere, antzetzu behar duen generoaren funtzioak ez badituzte betetzen. Hanka depilatu gabeak ez dira benetazko emakume hankak.

Titiak genero femeninoa definitzen duten atributu garrantzitsuenetakoak dira, bai erakargarritasun estetikoaren ikuspegitik, bai “benetako” emakumetasunaren definizioaren ikuspegitik. Hau da, titi pare ona izateak erakargarritasun maila batean edo bestean ezartzen du emakumea; baina bestalde, emakume baten irudi sinboliko edo kontzeptual bat badugu titidun izaki bat datorkigu burura. Hala ere Apaolazak buelta bat ematen dio honi pertsonaiak titiak galtzen dituenenak, “tittitasuna”-ren gaintik beste ezaugarri fisiko batzuk nabarmenduz. “Baina titiak ez zaizkit hazi. Baina argala naiz. Horrek konpentsa dezake bestea.” Titiak galtzeak ez du garrantzia handirik, ez baitira inoiz handiak izan, eta hortaz, titi handiak ez badira, ez dira erabakigarriak emakumetasuna eta erakargarritasuna definitzeko. “Nabarmena da titi handidunen abantaila (baita anorexia errekurtsu estetiko hain arrakastatsua den garaiotan), baina ez nik uste izan dudana bezain erabakigarria. Ikasi dut beroa proiektatzen, kanalizatzen: hankarteko aura sendo batek edozein oztopo gainditzen du”.

Ipurdiak estetikoki ez ezik (“politik geratzen ziren arroparen azpian”), funtzionalki ere markatzen ditu generoak eta praktikak (sexualak kasu honetan). Ipurdia, ipuinean esaten den bezala “...zulo bat gehiago zen.” Estetikoki genero femeninoa betetzen duen atala bada ere, sexualki, esan dezakegu, zulo neutrala dela, edozein genero eta gorputzek duen zuloa, hortaz kasu honetan, genero femeninoari zehazki lotu ezin zaion atala.

“Bereizi. Hori psikiatrak ongi erakutsi zidan. Noiz emakume izan, noiz gizon”.

Generoaren ikaskuntza ez da jaiotzetik dugun zerbait, ez doa geneetan itsatsita; jarrerak, jokamoldeak gizarte-

ratze prozesuarekin bat ikasitakoak dira. Baina inkon-
zienteki ikasi ditugun edo erakutsi zaizkigun eta batzuek
errazago ikasi dituzten eta beste batzuek ikasi ezin izan
dituztenen artean desberdintasunak daude.

Barrea, esaterako, elementu femininotzat hartua izan
da: barre xaloa, inozoa eta tontoa, honela adierazten digu
“Bueltak”-ek. Barrea, emakumeon sedukzio teknika
modura irakatsi zaigu; gizonak barre eginarazteko funtzioa
dute, emakumeok barre inozoa egitekoa: “Barrearena izan
zen lehen sintoma (...) elkarrekin pasatzen genuen eguna
(...) baina bat-batean haiek nik ez nekien zerbait zekiten.
(...) nesken komunetan entzuten diren irriak. Hain nera-
beak, hain espontaneoak, xaloak, femeninoak. Sekreturen
bat konpartituko balute bezala, emakumetasunarena.”
Hemen aurrez aipatutako ikasketa eta barneratze hori
agerian geratzen da: noiz ikasten da horrela barre egiten?
Zergatik? Zergatik ikasten dute emakumeek bakarrik
barre egiteko modu hori? Edo zergatik kasu askotan
“maritxuek” ere barneratzen dute feminitatearen sinbolo-
tzat? Zeri egiten diote barre? Zeini? Ahots inkonprenitu
bat erabiltzen du Apaolazak kezka edo duda hauek
adierazteko. Hala ere, hausnarketa bat dator haren atzetik,
eta barre horiek, jarrera horiek adingabetu egiten dute
genero femeninoa, umetu, inozentziaren atributu hori in-
dartzuz “Emakumea zara. Umea zara”.

Gizarte honetan emakumeari begiratzen dion begi-
rada maskulino horrek gainazaleko fisiko bati begiratzen
diola esan izan zaigu, fisiko eder bati begiratzen diola,
baina ez zaigu esan fisiko eta gorpuzkera hori ez dela
anatomian soilik oinarritutako gorputz bat. Gorputz
ikasiaz da, gorputzaren jarrera eta izaera espezifiko batzuk
begiratzen dituen begirada da. Emakumeoi, berriz, be-
girada hori asetzen erakutsi zaigu. Ipuin honetan hori bera
gizarte eremu espezifiko batera ekartzen da: “Arranoak

titiburuetan, eta esloganak (...) «pankartalariaren nobia izan nahi dut» baten zerbitzura titiburu arrosotan – galtza estuak, kulero txikiak, ile lehorgailuak, irribarreak, xaloak, tabako gorria”. Hau da, feminitatearen praktika eta ikasketa ez da telebistako emakume eder eta inozoetan bakarrik itsasten, feminitatea eta heteroaraua eguneroko bizitza eta eremu gertuenekotik hasita ikusi eta bizitzen den gauza da.

Lesbianitateari, nahiz ironiaz, erreferentzia zehar-kakoa egiten zaio ipuinean, ala, hobeto esanda, hetero-praktikari kritika ironiko bat: “...egia esan gaur ez dago orgasmo arrisku gehiegi, gizon batekin oheratzera noanez”. Garrantzitsua iruditzen zait hau azpimarratzea, batetik, ez delako hain sarritan aipatzen sexu praktika heterosexualetan emakumearen plazera bigarren mailako gauza izaten dela askotan, eta bestetik, praktika lesbianoei bide eta existentzia ematen dien esaldia delako.

Azkenik, generoa eta nortasuna batzen dituen ideia bat aipatu beharrean gaude. Uxue Apaolazak une batean “Lurrean arrastaka ez dut oso pertsona ematen” dio, gizartean generoak ematen digun nortasuna azpimarratuz; hau da, bi generoetako (maskulinoa/femeninoa) baten parte ez bazara ez zara oso pertsona, eta beraz ipuinaren amaieran ideia hori azpimarratzen da, “Alua desagertu zait. Alua desagertu naiz. Ikusezina naiz.” esanaz. Alegia, generoa eta sexua oraindik hain lotuta daudenez, sexurik gabe, izaera ere galtzen dugula.

Generoen dantza, lurrean barrena eta saltoka amaitzen da

Irakurketa guzti hauek literatura aitzakia bezala hartuta egin ditugu. Honek adierazten duena, lesbianismoa, homosexualitatea eta generoen kolokan jartze hau egon

egon dela eta badagoela. Gizarte errealitate bat lantzen duen literatura badagoela eta hortaz, gizarte gatazka bat existitzen dela. Lesbianismoa, homosexualitatea, generogatazkek, eraikuntzak, des-eraikuntzak, feminitate eta maskulinitate inposatuak... eragin eta bizi ditugula.

Lesbianismoarekin hasita, lesbiana izateak heteroarautik at mantentzen gaitu. Ikuspegi praktiko eta bisualenetik, lesbianismoak geure gorputzetako espresio heterosexualarekin eta nahitaezko feminitatearekin hausten du. Luma famatuak feminitate horrekin hausten du eta aldi berean, ikusgarri egiten gaitu. Indarkeria zehatzaz mintzatzen bagara, sexu-genero gatazka horretan, heteroarautik alde egiten duen emakumea zehazki ikusezina da. Bollera bat “emakume izatetik” alde egiten duen emakumea da. Ezkutatu eta erreprimitzen dena, emakume gorputz batek emakume izatetik alde egitea da. Lesbianismoak eta bollarak zehazki beraz, heterosexismo arautu eta normalizatutako egitura hori hausteko balio dezake.

Ez da inola ere lesbiana izatea genero hegemonikoan dudan jartzeko modu bakarra. Generoa *performance* bezala ikusten dutenik eta haien inguruan praktikak lantzen dituztenik ere izan dira eta badira. *Drag king*-en adibidea ekarri behar dut hona. King tailerrak azken urteotan zabaldutako erreflexiorako gune eta praktika dira. Bertan, ‘emakume’-aren eraikuntza soziala des-eraikiz, gizontasunaren eraikuntza soziala eraikitzekeo praktikak egiten dira. Praktika horiek garrantzia handia hartzen dute, ez teorikoki bakarrik, praktikoki gure gorputzekin jokatzera garamatzatelako. Drag King tailerrean parte hartzen duenak, haren gorputzean bizituko du genero deituriko eraikuntza soziala nola atxikitzen den, eta nola aldi berean mutazioak jasateko gai den. Bere gain, gorputzaren gain hartuko ditu maskulinitatearen gakoak, ikusiko du, gizon izatea hain zaila ez dela, ikusiko du azken batean generoa

antzerki hutsa besterik ez dela, eta bi genero ez ezik, milaka genero eraikitzeko gaitasuna daukagula; azken batean ohartzen baikara, askotarikoak direla generoen bariazio eta desbariazio guzti horiek, eta beraz, erreprezentazioen eta aktuazioen gainean eraikitako kontua dela, egunero-egunero bizi dugun hau.

Horiek denak jorratu dira eta jorratzen ari dira literaturan eta horien gaineko irakurketa bat egitea izan da orain arte irakurri duzunaren xedea. Irakurketa bat, hain urruti ez dugun errealitate bat ikuskatzeko. Irakurketa bat, ‘gizon’ eta ‘emakume’ termino hertsia entzuten ditugunean gure baitan alarma piztu eta zertaz ari garen konturatu gaitezen. Barre egin diezaiogun generoari, sexuari, sexu praktikei. Irakurketa bat, beste mila irakurketa atzetik ekartzeko. Jar ditzagun generoak dantzan, hau dena dantza bat baita, eta dantza honetan, egun gizartean aurrez aipatutako genero eztanda hori aurrera daramaten praktika eta errealitateak ari dira saltoka. Salto horiek eraikuntza batzuk lurrian barrena utzi eta beste batzuk jarri ditu doinuei segika. Doinua ere ez dago hain argi zein den, baina jada ez da binaka dantzatzen den baltsa, bikotea hautsi da. Hautsi da, generoen orgia amaiezin eta jostalariaren dantzarako ordua iritsi baita.

Oharrak

¹ Thaemlitz, T. “Ez naiz lesbiana!”, *Zebar* 54, 2004.

² *Sareinak* blogean euskaraz argitaratua: <http://eibar.org/blogak/sareinak>

Bibliografia osatugabea

Liburu honetan aztertu eta aipatu diren obra eta idazleak

Nobelak

APALATEGI, Ur: *Gure Gauzak S. A*, Utriusque Vasconiae, 2004.

ARANA, Aitor: *Aita- semeak*, Hiria, 1995.

ARANA, Aitor: *Onan*, Txalaparta, 2000.

ARISTI, Pako: *Urregilearen orduak*, Erein, 1997.

BORDA, Itxaro: *Basilika*, Susa, 1984.

BORDA, Itxaro: *Bakean ützi arte*, Susa, 1992.

BORDA, Itxaro: *Bizi nizano munduan*, Susa, 1994

BORDA, Itxaro: *Amorezko pena baino*, Susa, 1995

BORDA, Itxaro: *%100 Basque*, Susa, 2001.

BORDA, Itxaro: *Zeruetako Erresuma*, Susa, 2005

BORDA, Itxaro: *Jalgi hadi plazara*, Susa, 2006.

EPALTZA, Aingeru: *Rock'n'roll*, Elkarlanean, 2000.

ETXEBERRIA, Hasier: *Mutuaren hitzak*, Susa 2005.

GABIRIA, Julen: *Connemara gure bihotzean*, Elkar, 2000.

GORRINDO, Karlos: *Ni naizen hori*, Txalaparta, 1992.

- JIMENEZ, Irati: *Bat, bi, Manchester*, Elkar, 2006.
- LADRON ARANA, Alberto: *Ahaztuen mendekua*, Elkar, 2009.
- LANDART, Daniel: *Batita Handia*, Kutxa Fundazioa, 1994
- MENDIGUREN, Iñaki: *Haltzak badu bihotzik*, Elkar, 1990.
- MINTEGI, Laura: *Nerea eta Biok*, Txalaparta, 1994
- MUÑOZ, Jokin: *Antzararen bidea*, Alberdania, 2007.
- OLASAGARRE, Juanjo: *Ezinezko mailetak*, Susa, 2004.
- PERUARENA, Mikel: *Ez obeditu inori*, Susa, 2009.
- ZABALA, Juan Luis: *Agur, Euzkadi*, Susa, 2000.
- ZUBIZARRETA, Patxi: *Jeans-ak hozkailuan*, Alberdania 2000.

Ipuinak

- AGIRRE, Katixa: *Sua falta zaigu*, Elkar 2007. [“Festa gonbidatuak” eta “Hirugarrenik Asier”]
- APAOLAZA, Uxue: *Umeek gezurra esaten dutenetik*, Erein 2005. [“Bueltak”]
- ASKOREN ARTEAN: *Gutiziak*, Txalaparta, 2000.
- ATXAGA, Bernardo: “Itzultzaile bat Parisen” [Errezitaldirako testua. Argitalpena gaztelaniaz: “Un traductor en París”, *El País* 1996-08-05etik 1996-08-09ra]
- BORDA, Itxaro: “Klara eta biok”, *Maiatz* 11, 1986.
- BORDA, Itxaro: “Norabide txostena II” in *Euskal Kamasutra*, Gatuzain, 2002.
- CILLERO, Javi: *Hollywood eta biok*, Alberdania 1999. [“Baiona blues”.]
- CILLERO, Javi: *Ero hiria*, Alberdania 2006.

- ETXEPARE, Jean: *Buruskak*, Euskal Editoreen Elkarte, 1992 [1910]. [“Amodioa”]
- GABILONDO, Joseba: *Apokalipsia guztioi erakutsia*, Erein, 2009. [“Madril New York Tokio”.]
- ITURREGI, Patxi: *Dioramak*, Elkar, 2006. [“Beti gure bihotzean”]
- LINAZASORO, Karlos: *Eldarnioak*, Erein, 1991. [Bakardadearen eldarnioan I”]
- MONTOIA, Xabier: *Emakume biboteduna*, Susa, 1992. [“Barregilea”]
- MONTOIA, Xabier: *Gasteizko hondartzak*, Susa, 1997. [“Ikatza bezain beltza”]
- OSORO, Jasone: *Tentazioak*, Elkar, 1998. [“Txanogorritxoren inozentzia”]
- REKARTE, Isidro: *Desioen hiria*, Pamiela, 1998. [“Rakel Beaumont”]
- RODRIGUEZ, Eider: *Haragia*, Susa 2007. [“Apur bat zoroa” eta “Salgai”]
- URRETABIZKAIA, Arantxa: *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula Bakarrik*, Erein 1984. [“Aspaldian (Carmen)”]
- URRUTIKOETXEA, Urtzi: *Auzoak*, Susa 2005. [“Olatz Fernandez eta Marta Arana”]
- ZABALA, Juan Luis: *Inon izatekotan*, Susa, 2006.
- ZALDUA, Iban: *Gezurrak, gezurrak, gezurrak*, Erein, 2000.

Poesia

- ARISTI, Pako: *Libreta horiko poemak*, Susa, 2003.

- ARREGI DIAZ DE HEREDIA, Rikardo: *Hari hauskorrak*, Erein, 1993.
- ARREGI DIAZ DE HEREDIA, Rikardo: *Kartografia*, Alberdania, 1998.
- BORDA, Itxaro: *Bizitza nola badoan, poemak 1974-1984*, Maiatz, Baiona, 1984.
- BORDA, Itxaro: *Krokodil bat daukat bihotzaren orde*, Susa, Zarautz 1985.
- BORDA, Itxaro: *Just Love*, Maiatz, Baiona, 1988.
- BORDA, Itxaro: *Bestaldean*, Susa, Zarautz, 1991
- BORDA, Itxaro: *Orain*, Susa, Zarautz, 1998
- BORDA, Itxaro: *Hautsak Errautsak Bezain*, Maiatz, Baiona, 2002
- BORDA, Itxaro: *Noiztenka*, Maiatz, Baiona, 2007
- EGUZKITZA, Andolin: *Arimaren ondoko ezkien artetik ibilki*, Susa, 2004.
- ERRO, Angel: *Eta harkadian ni*, Elkar
- ERRO, Angel: *Gorputzeko humoreak*, Alberdania, 2005
- LASA, Amaia: *XX. Mendeko kaierak*, Susa, 2001.
- OLASAGARRE, Juanjo: *Bizi puskak*, Susa, 1996.
- OLASAGARRE, Juanjo: *Puskak biziz*, Susa, 2000.

Haur eta gazte literatura

- ARRETXE, Jon: *Morto Vivace*, Elkar, 2007.
- JUARISTI, Felipe: *Etxearen negarra*, Elkar, 2007
- KAZABON, Antton: *Atearen atzean*, Elkar, 2007.
- LANDA, Mariasun: *Inurri bitxia*, Erein, 2005

Saiakera eta beste

ARANA, Aitor: *Gay hiztegia*, Txalaparta, 2005.

Arana, Aitor: Komiki gay eta lesbikoa euskal herrian (1981-2000), Hiria, 2005.

LAMARCA, Iñigo: *Gay nauzu*, Alberdania, 1999.

Xut aldizkaria (1992-1996)

Kritika literarioa

bilduma

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): *Belaunaldi literarioak auzitan*, 2005
8. Iban Zaldua: *Animalia disekatuak*, 2005
9. Jon Kortazar: *Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz erromesa*, 2005
10. Paulo Iztueta Armendariz: *Euskal idazleen belaunaldiez*, 2005
11. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 1. Elkarrizketa literarioak 2000-2006*, 2007
12. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 2. Mahai-inguruak 2002-2006*, 2007
13. Jon Kortazar: *Postmodernitatea euskal kontagintzan*, 2007
14. Xabier Etxaniz Erle: *Literatura eta ideologia*, 2007
15. Miren Billelabeitia: *Lauaxeta. Oihartzunak*, 2008
16. Ibon Egaña (koord.): *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz*, 2010